

The background of the book cover is a photograph of a river scene. In the foreground, a bright green, grassy bank slopes down towards the water. The water is calm, reflecting the surrounding trees and buildings. In the background, there are trees and some structures, possibly a bridge or a dock, but they are out of focus. The overall tone is peaceful and scenic.

 BOOKTEGI

zirgabidea

JESÚS MONCADA

itzulpena:

Jexuxmari

Zalakain

Garaikoetxea



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JESÚS MONCADA

zirgabidea

itzulpena:

Jexuxmari Zalakain Garaikoetxea

Eleberri honen egitura Mequinenza hiri zaharrean azken mendean gertaturiko egitateekin ehunduta dagoen arren, bereziki 1957az geroztik haren destinoa modu itzulezinean determinatu zutenekin, autoreak argitu nahi du ez duela inolaz ere historia idatzi nahi izan, gutxienez gertakari haien zentzu ohikoan. Era berean egiaztatzen du obrako pertsonaiak fikziozko enteak direla, zeinak soilik kointzidentzien fatalitateak bilakarazi ahal dituen pertsona.

Lehen zatia

Edeneko egunak

Zutabeak eta horma nagusiak brastakoan zapartatu ziren; azantza gorgarria –non gatzari eta bigen karraska, eskaileren, zoruen, trenkaden eta molduren hondoratzea, leiarren txikizioa eta adreilu, taula eta baldosen apurtzea nahasten ziren– suertatu zen Baixada de la Ferraduran, etxea erremediorik gabe erortzen zen bitartean. Jarraian hauts-hodei bat –orduan hasten zen agonia luzearekin batera etorriko zirenetako lehena– hiriaren gainetik altxa eta udaberriko goiz argitsuan zirpildu zen poliki-poliki.

Urte batzuk geroago, 1970eko egun hartan abiatutako gaitza memoria urruna zenean, lainozko armiarmaz meztitutako garaia, kronika anonimo batek testigantza-sorta harrigarria batu zuen gertakari haiei buruz. Ikuspuntu kronologikotik lehenak, patetikoena ez zen arren, kanpandorreko erlojuaren gelditzea jasotzen zuen, hiriko zerua gorrimin morantzez marrazten zuen arratsalde ekaiztsu, urre ahul eta lanbro beltzen erdian bezperan gertatua; kronistaren arabera, biharamunean gertatuko zenaren premonizio bat zen matxura, garai zaharren ezinbesteko amaieraren iragarpena. Beste testigantza bati esker, ezabagarri suertatzen zen angustiak iluntsiaren ziurgabetasunari eman zion bide deskripzioan: kale hutsen isiltasun lodiaz mintzo zen kronika, etxean, eguna argitu ez zedin, erreguka itxitako jendearena islatzen zuen isiltasuna. Era berean, ebokazioen artean deigarriena hurrengo egunean goizeko hamaiketan Baixada de la Ferraduran gertatutako trumoikada izan zen: kronikaren arabera, hondamenaren hasierak hezurren mamiaraino astinduta sentitu ziren herritarrak.

Egiazki harrigarriak ziren testigantzak. Alabaina, hau ez zen batera zeukaten ezaugarri bakarra: beste bat konpartitzen zuten, agian ezdeusa baina oso argigarria egun dohakabe hartan gertatutakoari dagokionez: denak, salbuespenik gabe, erabat faltsuak ziren.

Hasiera-hasieratik, Honorat del Rom-ek, egitateetatik bizirik atera zen herriko bi botikarietako batek, kronikaren agertzea sustatzeko, dokumentuari buruzko komentario ironiko batean argitzen zuen, elizako kanpandorrean instalatutako udal erlojua ez zela 1970eko apirilaren 11n desegin. Trastea, bideak baino zaharragoa eta aski zartatua, maiz desdoitzen zen, eta ez zen harrigarria izaten orratzak lau esferetan gelditu ikustea: baina egun hartan funtzionatzen ari zen eta, saltsa mehe egiten hasita, ordu ofizialaren aldean soilik zazpi-zortzi minutuko atzerapena egotzi ahal zitzaion. Botikariaren arabera, horrek erlojuari esleitutako biharamuneko gertakarien ustezko premonizioa bete-betean baliogabetu eta beste edozein espekulazio baztertzea ahalbidetzen zuen.

Iluntze ekaiztsuaren arazoa ere ez zetorren bat egitateekin. Inork ez zuen zalantzan jartzen, kronikak zioen modura gertatzekotan, aski egokia izango zela dramaren hasierako eszenografia gisara. Zoritxarrez, iluntze lokumatua izan zen, ohiz hiriak gozatzen zituen batez bestekoarekin batere konparaezina, miragarrienez ez mintzatze arren, zeinei buruz botikariak aipatzeko ahaleginik ere ez zuen egiten; hark itsasoko haizea, hego-mendebalekoa, erdi deseginda igo zuen Ebroko bailaratik: haren gorritasunek indarrik gabe odoleztatu zituen moilak, non hiriko ontzi zaharrak usteltzen ziren, ibaian gora labaindu eta sartaldean ilundu baino lehen, beste edozein bezala, distira moreen artean eta beste istoriorik gabe.

Gaua iluntzea bezain txepela gertatu zen: belztasun arruntekoa. Iluntasuna alde batera utziz gero, beti pixka bat kezagarria, ezerk ez zuen justifikatzen gauari tentsio ezohikoa esleitzea, hau da, eguneroko bizitzan txertatutako herriak meniarik gabe aspalditik jasaten zuena baino intentsoagoa. Bake-epailearengandik hasita –epaile anderearen xarma iraungiez erremediorik gabe etsita, udaletxeko idazkariaren iloba bat oldar geldo, indartsu eta sakonekin larrua jotzen lanpetua bera, neska, epailearen mahai azpian, aldakekin, hildakoen hiriko erregistroa igurtziz marranta agonikoan urtzen zen bitartean–, serenoarenganaino, ogi-otarre bat bezala beti kaleetan gora eta behera, populazioko bizilagunek ohi bezala igaro zuten gaua. Segur aski salbuespen bakarra Pasqual de Serafí izan zen: ezkon-ohean gorpua bertan etzanda zela, dolu familiarraren marmar amorragarriaren erdian, arratsalde erdian ileapaindegi batean kirol-egunkaria irakurtzen zuen bitartean harrapatu zuen heriotza jasaten zuen. Ezer berezirik ez zituen beraz orduak aldatu –izan ere hiriak baibaitzitzen erritu sekularrak heriotzaren presentzia ere arintzeko, eta egunsentiak Ebro gainditu eta distira iheskorrekin kapelaren txarola, lantzaren altzairua eta, Sorginen kaletik etzatera joateko zihuan serenoaren uniformearen botoi urrekarak pizten zituen ordu hartan–, hiria lasai zegoen lotan.

Egunsentiaren lehen gorritasunak moila isiletan estekatutako ibai-ontzietatik Ebro inguratzen zuen hormara igo eta gazteluak azpian zeukan isurialdean makurtutako etxeen testura latzetan itsasten ziren. Egunaren argitasunari beti kostatzen zitzaion kale eta kalezuloetako nahas-mahasean sartzea. Populazioa mende bat inguru bizi izan zen lignitoko meatzeen artean eta ikatzaren hautsa itzalezko azal bat bezala itsatsita zeukan; eraikinak, non zuritze-lanak efimeroak bilakatzen ziren, jendea, eta batik bat ibaiak, beti ontzi beltzez zeharkatuak, barrunbeak naufragioetan galdutako ikatzak belztuta, patina berbera hartuta zeudela zirudien. Azkenean, ordea, beste edozein goizetan bezala, argia, lehen gorritasunak ahultzen zitzaizkionean, iluntasuna husten joan zen: traste aspaldikoa, zaharkitua, kuttuna eta maiz madarikatua, gauetik atera zen, okre eta beltz.

Kaleak bizitza intentsoz, nahiz eta behin-behinekoz, betetzen hasi ziren. Alabaina, kronikak jasotako testigantzek hainbesteko dramatismoz baietsiko zuten ez bezala, goizeko hamaiketako egitatea oharkabean pasa zen ia guztientzat. Hiria ez zen etenda geratu, bihotzek ez zioten taupadaka aritzeari utzi; zarata ez zen kale eta plazetan hedatu errepika funebrea bezala, haren hotsa ez zen Ebroren bailaran, ez Segrearen erriberan, ez moila isiletan, ez meatze iraungietan, gaitzaren iragarpen gisara zabaldu. Trumoi laburra izan zen meatzetako barrenoak entzuten ohitutako hiri batean, ez baitzen ohartu ere egin.

Beste ipuin batzuk ere zabaldu ziren, baina, kurioski, aurrekoak bezain faltsuak zirenez, ez zituen kronista anonimoak jaso. Alabaina, hainbat hiritarrek beren kontzientzia txarraren sitsa itotzen saiatzen ziren armiarma lodiaren parte ere baziren. Sakonean, haxe zen kronikaren zuritze sekretua, gertakariak bizi izan zuten gehienek ontzat ematera bultzatzen zutena.

Zeren behin eta berriro hitz egiten urteak eman ondoren, hamaika burutazio osatu, aldeaz aurretik angustia sentitu ondoren (Caterina zaharraren tarotean fenomeno arraroak agertzen ziren, inframundutik eraginda), hara non, Honorat del Rom botikariak izan ezik –Ham kalezuloaren eta Baixada de la Ferraduraren arteko kale-kantoian dolorez zut baitzegoen– inork ez zuen gertakaria igarri. Eta nahiz eta kontrakoa izatera ezer aldatuko ez zen, ordurako destinoa aldaezina zelako, urte batzuk geroago, amesgaizto siniestroak oroitzapen hautseztatua, errautsezko kiribila besterik ez zenean, hiritar batzuk, historiaren aurrean ondo geratzearren, testigantza apokrifikoak ehuntzen hasi ziren.

Baina dena ez zegoen kroniketan eta ez zen gezurtatzen hain erraza. Esaten zaila zen adibidez Llorenç de Veriu, jendeak kafetegi eta iskineko tertulietan esaten zen bezala, gertakariaz jabetu ote zen; batzuek zioten hirira joan zela, Baixada de la Ferradurako etxea, bere eskuekin 1936an eraiki zuena Carme Castellek eta berak ezkondu nahi zutenean, azken aldiz ikusteko: askok nahiago zuten sinistea zurrumurruak, harengana iristekotan, ez zuela Llorençen hondakina berpiztea lortu, Terueleko lugorriaren lur urruneko hauts inerte eta anonimoa bera, non hogeita hamar urte baino lehenago, Gerra Zibilean, metrailadore faxista batek bizia moztu zion.

Hiritarrek huts egiten zuten 1970eko apirilaren 12a beren drama kolektiboko data-gakoa bihurtzen tematzean, berdin-berdin huts egiten zuten bezala gertakariaren testigu ez izanaren errudun sentitzean. Baixada de la Ferradurako etxearen eraispina, zeinarekin hiriaren hondamendia hasi zen —eta azare burokratikoak hura seinalatu zuen, jada hustuta zeudenetako beste edozein seinalatu ahal izan zuen bezala— oso amesgaizto luzearen azken ekitaldiaren hasiera besterik ez zen izan. Makinek zutabeetara lotutako altzairuzko zirgak tenkatu eta eraikina hauts-hodei baten erdian erori zenean, baziren hamahiru urte baino gehiago hiriaren suntsipena hasita zegoela.

Gau aldera, ziertzo latz eta efimeroak hiria urratu zuen, nahiz eta gero norbaitek iradokiko zuen haizeak sekula putz egin ez zuen tokitik zetorrela. Erauntsi batek Baixada de la Ferraduratik sartu eta Llorenç de Veriuren etxeko hondakinetatik jaitsitako hautsa eraman zuen, Santsen plazan pausatu eta Torres i Campsen etxeko balkoi bateko leiho gaizki itxiak zabaldu zituen parez pare. Han ganbera eta pasabideetatik uluka aritu, gortinak mugitu, bulegoko erloju handiaren pendulua deskonpasatu eta jantokiko lanpararen kristalezko malkoak jo zituen, apaldu eta azkenean Birjina Martirien Aretoan zendu aurretik.

Baziren urte asko –Carlota de Torresek bere egundoko gorputzean metatutako hirurogeita hamarrak baino gehiago– aretoari izena eman zion koadroa etxera itzuli zenean eseki zuten hormatik desagertu zela. Amaren nebak Italiatik ekarria –isilean masoi, ateo, irreberente eta alprojatzen hartutako bidaiari amorratua bera, eta zeinarengandik, kiribila kiribiltzeko, kezka zegoen ez zuela sosik utziko popatik hartzera joatean– pinturak irudi femenino-talde arrosazkoa eta oparoa erakusten zuen, zeinek inolako pudorerik gabe, beren xarmak nabarmentzen uzten zituzten belo fin, baporetsuen artean, belo haiek ilusio testil puruak zirelarik. Hain iradokitzailleak ziren damak, ezen gurasoen barkaberatasuna behar izan zen, eta neba solteroa haserrearazteko arrebaren beldurra, zeinak, apreintsioak gorabehera, ez zuen harengandik heredatzeko guraria galtzen, eta baita hiriko erretorearen onarpenera ere, etxeko bisitari tematua bera, koadroari aretoko ohorezko lekuaren esleipena eman ahal ziezazion. Apaizak, zilbordun, patxadatsu eta beatifikoak, xehetasun pixka bat gehiegizkoarekin aztertu zuen koadroa, eta horrek neskameetako baten partetik, Camilarengandik alegia, komentario sarkastikoak probokatu zituelarik sukalde-zokoan, eta, amaiezinezko merienden ondoren, gailera eta txokolatearekin, aditzera eman zuen, ezen, pinturak –osaba alprojak erdi irribarretsu zioen moduan, anfiteatro erromatar batean lehoiek irentsiak izateko martiriora joan aurreko dontzeila kristauak erakusten zituela ziurtatzeko aski elementu ez zeuden arren– ezezteko aski elementu ere ez zituela ikusten, besterik ezean familia duinaren eskrupulu duinak apaltzea errazten zuen sententzia anbigua bera.

Zorigaiztoko gertaerak, osaba krapularen desagerpen goiztiarra adierazteko erabilitako eufemismoa bera, Frantziako Parisen zirkunstantzia misteriosuetan hila, zeinak ez errebelatzen tematzen zen familia; zendutakoak, Senaren ezkerraldeko hotelean, non heriotza gertatu zen, etxekoandreak adoptaturiko Lukrezia katemea izan ezik zorrak besterik utzi ez zituen konstatazioak; abade tripontziak Lleidako katedralean lortutako kalonjetzak eta, ondorioz, erretore berriaren etorrerak, eskeleto indartsua, inkisitorial eta larderiatsua bera, zeinak lehen egunetik koadroaren haragizko orgia suntsitu zuen; eta baita arrebaren eskrupuluek –herentziaren etsipenarekin modu susmagarrian agertuak eurak– eta gainera zendua atzerrira eraman eta gorpua hiriko kanposantuko panteoira eramateak eragindako gastuek, margoaren aretoko presentziaren azkena seinatu zuten. Egundoko etxaldearen ganbaran baztertuta, hiriko Armen plaza handiko etxalde izugarria bera, soilik Octavi jaunaren bisita hunkituak izaten zituen, zeina, Camilak zelatatuta, erromesaldi sekretuan iristen zen bertara, seme oroimenez gogoratuak dontzeila kristau bezala pasarazi nahi zituen ninfen freskura kontenplatzerara.

Aretoa, aldaketa egon arren, koadroaren izen apokrifoaz ezagutu zen beti, *Birjina Martiriak* haina juxtu, nahiz eta 1970eko apirileko gauean inbaditu zuen ziertzo-kolpeak segur aski ez zuen haren historia ezagutzen eta zoriz sartu zen bertan.

Biharamunean penagarri zegoen aretoa. Llorenç de Veriuren etxearen eraispena zela-eta zaintzaileen obsesio bihurtuko zen hautsaren lehen aztarnak itxura espektraleko tela zuriztarekin estali zuen. Jaume de Torres jaunaren erretratu erraldoia bera ikusezina zen zikinkeriaaren pean. Haren alabaren sumina etxe osoan entzun zen hondamena aurkitu ahala. Hiru neskameak –Carmela, Sofia eta Teresa, Camila, Adelaida eta Veronicaren ondorengoak–, etxeakoandrea ez ezik ordu hartan etxeko biztanle bakarrak, harrera-gelatik oihuka deituak izan eta nahita nahiez etorri ziren garbitzera. Hormak, moldurak, argiak, gortinak eta altzariak hautsez libratu eta erratza pasa ondoren, erretratua jaitsi eta oihala trapu bustiz arduraz garbitzen hasi ziren, nagusiaren begi zorrotzaren pean.

Exhumazio moduko hura, zeinean Jaume de Torresen erretratua osteria argitara ateratzen zen, sakonki nahastu zuen alabaren egundoko humanitatea; irudiaren pixkanakako agerpenak –orain sudurraren puntak, orain ezkerreko belarriaren lobuluak–, duela berrogeita hamasei urteko irudiaren errealizazioa gogorarazten zion, bera mukizu bat besterik ez zenean eta bere figura batik bat luzanga, baldar eta iharrak ez zuenean asmatzen uzten urte batzuk aurrerago hartuko zituen bolumen eta pisua, hiriak jarri zion Carlota Potoloa goitzenaren jatorria hain juxtu.

Margoa gauzatzea prozesu liluragarria bilakatu zen; hainbeste liluratu zuen, oraindik gogoratzen zuen xehe-xehe. Egun batean, ezustean agertu zen etxean Juan zaharra, Rem plazako zurgina, bastidore batekin kargatuta, non harizko oihal bat iltzatuta eta tenkatuta zegoen zuri mate eta oso fineko estugune batekin. Torres i Campsen Erregaliz Estraktuak fabrikako hiru langileek, artisauari laguntzen ziotenak eurak, andreen presentziagatik aski deseroso eta haiek inguratzen zuten luxuagatik kikilduta, margolari-asto egurrezkoa, koloretako kutxa eta aulkitxo tolesgarri bat utzi zituzten aretoan. Aurrerago, etxeko emakumeen artean sortutako ikusminaren puntu gorena bezala (aitona ganbaran zegoen, sasimartirien aurrean txundituta), Torres jauna ohi baino lehen iritsi zen fabrikatik Aleix de Segarraren konpainian.

Amagabeko espantuen ondoren –“ez, Adelina, ez dut merezi; ez tematu, badakizu oso pertsona arrunta naizela...”–, Torres jaunak emazteak limurtu-plantak egiten zituen, nahiz eta isilean esaten zen erregura iristeko sobera meritu bazituela. Azken finean, nork ipini zuen ordena etxearen nahasmendu patrimonialean, Camps neskarekin ezkondu aurretik ere bai? Nork bideratu zuen estraktu-fabrika, aitaginarrebaren desgaitasunaz eta koinatuaren arduragabekeriaz profitatuz, bere oinordekotza xahutu baino lehen hil beharko zukeen koinatu alproja amorragarri hartaz, poltsikoa betetzen zuten jendailaz garbituz? Nork arakatu zuen papertza legala, familiako jabetasun ugari, jada galdua, errekuuperatzeko, lignitoko meatzeen jabetza zalantzarik gabe egiaztatu ez ezik, arazo testamentario deabruzkoa gaingitu ondoren? Zein hiriko etxe alderatu zitekeen orduan Torres i Campstarrak batzetik sortutakoarekin, zeinera berak, adimena eta energia ez ezik, bere jabego propioa, bestaldetik batere mespretxaezina, ekarri zuen? Jakina, ez zuen ahaleginik eta sakrifiziorik gabe erdietsi, bertan emaztearekin pasatutako gauak barne, eta ez zen kontu gutxien mingarriena. Torres jaunari ez zitzaion emaztea gustatzen, inoiz ez zuen laketa izan. Edertasun bete eta borobilen aldeko, ez zen inspiratua sentitzen hezur-zaku harekin, zeina hiru haurdunaldik –Jordi, Robert eta Carlota– zimeldu egin zuten, hark itxaroten zuen kontrara (konbikzio handirik gabe, egia esan) amatasunak heldutasun-puntu gozoa emandako beste hainbat andre ikusiz. Beraz, Torres jaunarentzat, erregaliz-estraktuen edo ikatzaren produkzioa kontrolatzea bezala, partzuergo edo maizterren ekarpenak fiskalizatzea bezala –baina azken horiek burutzen zituen suhar

berberarik gabe eginak— beharrian bat bezalakoa zen andrearen foku pasionalak pairamen laudagarritz itzaltzea, zeinak —zorionez, natura batik bat inertearen erruz, aitorleku-saio luzez hauspotutako kontzientzia-eskrupuluekin konbinatuta— ez ziren gehiegizko maitasunez pizten eta, piztutakoan, ez ziren hagitz bolkanikoak. Adelina anderearen grina-gabezia halako moldez etsiarazi zuen Camila, logela ondoko espioitza-saioak bertan behera uztera eraman zuen jaun-andreak ezkon-bidaia itzuli eta astebetera. Bestaldetik neskameak berehala igarri zuen non bilatzen zuen jaunak gau aspergarri eta penitentzialen konpentsazioa. Hura jaunaren umore pozkorra mantentzeko lagungarria zenez eta, beraz, etxeko giroa erlaxatua eta lasaia izanik, ez zen aurrerantzean arazoaz kezkatu.

Arratsalde hartan, Torres jauna are burgoiago sentitzen zen. Umil, apal, onbera, eskabide familiarrei men egin —“horrela ez nauzu gehiago kezkatuko”— eta bere irudia pasabide luzeko hormetan esekita zeuden emaztearen aldeko senideen erretratu-sortara atxikitzea deliberatu zuen, non antzinatasun- eta ahanztura-ordenan erakusten ziren, galdutako ganberaren batean non, espektroen prozesio beldurgarrian —ia-ia ikusezinak margoen iluntasunaren erruz— zaldun makerrak, ume makalak eta andre zurrinak lerrokatzen ziren, desagertu aurretik. Ilunperanzko tokialdatze fatalaren salbuespen bakarra Nicanora de Camps andrea zen, Carlotaren izeba zaharra —zeinari buruz baiesten zen zalditeriako brigada bateko ofizialen gorputz osoaren maitalea izan zela bere generalak alargundu ondoren, lur afrikarretan heroikoki hildako artaburu-ileko arrarpalo ordenantzista mostatxoduna bera. Bere bizitzaren amaieran, dama ospetsuak oinetxera itzuli eta hiritarren miresmena piztu zuen. Forn Maldako errementari batek zioen jeneral-andreak zenduaren sablea erregularri zorrotzarazten zuela oilaskoak burugabetzeko, eta agonian zehar artatu zuen neskame batek aitortu zuen, azken orduetako eldarnioetan jeneral-andre alargunak zalditeriako karga hilgarriak agintzen zituela Rifeko mairuen aurka. Haren nortasun gogorak puntu sineskaitzeraino bete zuen irudi propioa: hain genio-sentsazio koldargarria zerion erretratuari, inor ez zen ausartu bere hasierako tokitik —harrera-gelako punturik ikusgarrienetik— ukitzera, nondik, gutxienez eskalafoi-ordenagatik, Senaren alboan hildako ilobak tokialdatu beharko zukeen.

Arratsalde harrezkeroztik —non Aleix de Segarra pintoreak, balkoi handiaren argia ongi probesteko, modeloaren kokapen optimoa kontsideratu zuen— Carlota txikiak pintzelkadaka jarraitu zuen obraren aitzinatzea. Koloreek eta margolariak egiten zituen margo-nahasketek liluratzen zuten; trementina-esentziaren usainak, limoi-olioaren anbar-tonuak zituen gustuko, baina oroz gain Aleixek intrigatzen zuen, zirkulu familiarretik hain ezberdina bera, zeina aitak errespetu eskandalizatu eta etorkortasun txeratsuaren nahasketa batekin tratatzen zuela zirudien.

Aleix, Torres i Campstarrak bezala, hiriko antzinako jauntxoek familiakoa zen, baina bere kideen abulia eta utzikeriagatik desegiten ari zen taldekoa, gehiengoa zen taldekoa alegia. Arbasoen bulkada predatzailez gabetua — zeinak leinu batzuetan behinolako eskrupulu-falta eta indarrarekin berriztatu eta irautea lortzen zuen—, gainerakoen ondorea kasino-ipurdi, harpia garratz eta beato jainkojale-koadrila bilakatu zen. Lan egin gabe bizirauteko, ondarea gaizki saldu eta poliki-poliki larrutzen amaitzen zuten. Batzuk hirira joan ohi ziren, dena xahutzen amaitu eta sosik gabe itzultzen ziren etxalde zaharkituan bejetatzera, non atalaseko armarriek gela eta aretoetako armiarmen gristasun hautseztutakoari ematen zioten bide. Hiriko koltxoigilea jauntxoek angustien notario zehatza zen: antikuariok saltzeko ez kuadririk, ez altzaririk, ez antigualeko tailarik, ez armarik ez zeukatenean —harrapakaria-zaleak beti atezuan— jaun burgoi haiek koltxoien artilea saltzen zuten. Arrioa prestatu eta artilezko koltxoia, artatxiki-orrikoen aldean —zeinetan hiriko parte handi batek lo egiten zuen— zeukan erosotasun

eta maila sozial altuagora iristea nahi zuten, eta berria erosteko aski dirurik ez zeukatenei saltzen zieten ezkutuan koltxoigilearen bitartez. Horrela, gorputz jauntxotar asko, pobretuta eta ahulduta, ezinbestez jaisten ziren, gutxika-gutxika eta kolpe batez, somierraren gogortasunerantz –hezur-gaitza ez ezik oinarritzko hiritarren komentarioak eragiten zituen jaitiera, hain juxtu. Komentario hauen artean Arquimedes Quintana Ebroko nabigatzaile finenarenak nabarmentzen ziren, batik bat Moilako Kafetegiko tertulietan. Patroiak bazuen honako gertaera honekin zer maiseatua, alegia, maiz, koltxoien artilea, Ebron ondo garbitu ondoren –izan ere jauntxoek zimitza jende xumearena bezain basatia baitzen eta ugerraren belztasunean ere ez zegoen alde handirik–, alegia, lehen ebatsia izan zen eskuetara itzultzen zela.

Segarratarrak ez ziren artilearen arora iritsi. Torrestar eta Campstarren eta hondamendiaren artean kokatuta zeuden, beheranzko joerarekin. Ondaretik lursail batzuk geratzen zitzaizkien, Barca kalezuloko monjeen komentua eta Riu kaleko etxaldea, non Aleix, hamabost urtez geroztik umezurtz, aitaren aldeko osaba Ignasirekin eta haren emazte Malenarekin bizi zen, denboran zehar familiak metatutako kolekzioen artean: XIX. mendeko pintura frantziarra, hiriak urteetan zehar ezagututako hainbat kulturen pieza arkeologikoak, zendutako osaba Damiàren paisaia erromantikoekin, aitona Hermes aurkikuntza mekanikoekin, Aleixen esperimendu kubista batzuekin eta izeba Severinaren –hura ere zendua, zeinen hainbat automata ere ganbaran gordetzen ziren– eskultura mitologikoekin tartekatzen ziren.

Aleix, urte batzuk Bartzelonan bizi eta ihesaldi hutsalaren bat Parisen egin ondoren, oso gazte erretiratu zen hirira. Lan asko egiten zuen baina obrak – non ez ziren konpromiso hutsezko erretratuak sartzen, adibidez Jaume Torres jaunarena– ezkutuan jarraitzen zuen. Izeba Malenak besterik ez zuen ikusten, eta berak parterik handiena suntsitu egin zuen hainbat urte geroago dena zatitu zuen astinaldiaren bitartean. Hala ere, 1914ko arratsaldean, Jaume de Torresen erretratua, Carlota ttikiaren begirada zorrotzaren pean hastera zihoanean, Aleix de Segarraren bizitza modu ezabagarrian markatu behar zituen gertakariak oraindik lotan zeuden etorkizunaren ereingiroan.

Jaume de Torres jaunaren glorifikaziotik espero zitekeenaren kontrara, erretratuaren gauzatzea bertan islatuta geratu ziren intzidentzia batzuek eragotzita geratu zen. Lehenengoa bigarren saioan gertatu zen, koadroa zirriborro hutsa besterik ez zenean, Sienako lur oso diluituarekin, grisezkoekin arinki orbandua. Modeloak, Armen plazara ematen zuen balkoiaren alboan jesarrita, zumitzezko besaulki batetik eskaintzen zuen bere irudia etorkizunari begira amaigabeko diskurtso gogaikarria jaurtitzen zuen bitartean, zeinean, jakina, Torres i Camps familia protagonista zen, kontuan hartuta bera zela burua eta batik bat burmuina. Ikusi al zuen Aleixek Ebroko nasetan bikeztatzaileek eraikitzen zieten ibai-ontzi berria? Behin prestatuta, etxeko flota dozena bat ontzik osatuko zuten, Salleres alargunarena baino bat gehiago, eta holaxe hautsiko litzateke bi familien ibai-potentziaren berdinketa amorragarri, injustu eta, Torres i Campsen ikuspuntutik, ia isekaria. Behatu al zituen Aleixek erdiko patio egundokoa inguratzeko destinaturiko estraktu-fabrikaren biltegiak, non eskualde osoko gurdiek erregalizu-sustraiko tona eta tona deskargatzen zituzten? Ez al zioten esan Aleixi Moilako Kafetegian – margolaria oso gutxitan joan ohi baitzen Rodako Kasinora, jauntxoek egoitza bera, non kasu galdutzat, ia-ia arnegatu bat kontsideratzen zuten (hemen, Camps abizenaren omisioak amaginarrebaren betazal-zimurtza eta suhiaren errektifikazio presatua ekarri zuen)– Torres familia Plana dels Voltors lursaila erosteko zorian zegoela?

Aleixek ez zuen erantzuten, Jaume jaunak espero ez zuena bestalde; modeloaren hazpegi bigun eta gorritzen azterketan kontzentratua –zeinari mostatxo beltzak harropuzkeria-ukitu bat gehitzen zion alkatxofa-sudurraren pean– margolaria hitz-eskubiderik gabeko entzutegi hutsa zen. Bere misioa, margotzea ez ezik –Jaume de Torres jaunarentzat irresponsabilitate, gainbehera eta bohemiarekin erremediorik gabe lotuta zetorren zeregina– etxearen handikeriak entzutea zen.

Lehen egunean ez bezala, zeina unagarria izan zen, izen handiko hark ezin zuen bigarren saioko monologo garailea asko luzatzerik izan. Ospe-sorta okaztagarria abiatzera zihoanean eta Aleixek itzal bat paparrean seinalatzen zionean pintzel-kolpe batekin, buila latzak egin zuen eztanda eskailera nagusian. Hiru neskameak –Camila, Adelaida eta Veronica– sukaldetik harrera-gelara abiatu ziren; Carlotaren amak eta amonak, izututa, gantxiloa egiteari utzi zioten, Aleixek erretratuaren okotz azpian pintzela geldi utzi zuen, eta Jaume de Torres jauna zumitzezko besaulkian asaldatu zen, neskatilek kuriositatez aretoko aterantz begiratu zuten, eta aitonak, besaulkiaren txoko batean patxadan etzanda, ahoa zabalik, losusta egiten jarraitzen zuen.

—Halako zorigaitza! –entzun zioten Camilari oihuka—.

—Jainkoak barka dezala! –jaurti zuen Veronicak.

—Hau triskantza, hau triskantza! –Adelaidak, errepikakor ahots karrakariz—.

Ramon Graells, Jaume jaunaren konfiantzazko gizona, aretoko atean agertu zen hiru neskame izutuak atzean zituelarik, nabigatzaile- eta meatzari-talde bat korridorean metatzen zen bitartean, bertara sartzera ausartu gabe.

Jarraitu zenari dagokionez, Carlota de Torresengana denboran zehar zehatzago iristen zena aitaren espresioa zen. Zurbiltzearen zurbiltzeaz azala gardentzen joan zitzaion, mostatxoaren azpian ezpainen dardara igartzen zen; begiek, zabal-zabalik sineskaitz, une bat lehenago gauzak urruntze harroarekin ikusten zituelarik, beldurrez begiratzen zioten konfiantzazko gizonari.

Atsekabeturik, erruduna balitz bezala uzkur, Ramon Graellsek historia aletzen zuen. Aretoa hitz arraroz betetzen zen, ibaiko gauzen izen ezezagunez Carlotarentzat. Soilik heriotza hitza, narratzailearen hitzen artean taupaka zegoen distira beltza, hileta eta doluminekin lotzen zen bere burmuinean, familiako pertsonaia batzuen ausentzia oraindik esplikaezinarekin, zeinen erretratuak tokiz aldatzen zituen pasabidean.

Urteekin, andreen eta neskameen izuaren, Jaume jaunaren keinu desolatuen eta margolariaren zurbiltasunaren erdian, Graellsek azaldutako gertakaria asko haziko zen hiriko tertulietan bolo-bolo ibili ondoren, baina gakoa beti zen misterio bat. Gauzak pausatuta, meza eta doluminak prest –hobiratzeko hondakinik ez zegoelako sekula ospatuko ez zen hobiratze baten zain–, arazoaren harila nahastu zuen gauza ukaezin bat geratu zen bertsioen, hipotesien eta fantasien matazan: 1914ko ekainaren 12ko eguerdi aldera, *Ràpid* izeneko Torres i Campsen ibai-ontziak, irinez kargatuta, Ebron naufragatu zuen, Lliberolako Pasabidea delakoan. Bi peoi igeri eginez salbatu ziren eta hirugarrena –harri zapalen gisara flotatzen zuelarik– hondoratzeko orduan aurkitutako ontziaren palankari heldu eta ur-bazterrera iritsi zen, durduzez eta beldurrez erdi erotuta, kilometro batzuk beherago, ia-ia hiriaren bistara. Inoiz ez zen ezer jakin ontziaren patroiz Josep Ibars eta eskifaiako txakur Gatelli buruz. Ontzi-gidari, arrantzale eta ontzilariak etenik gabe begiratzen zituzten urak, erriberan zehar buila egiten zuten, hiritik itsasoraino, baina orduko hartan Ebrok ez zuen presa gainditu, inoiz ez zituzten naufragioaren beste

hondakinik aurkitu. Horrela hasi zen Veronicak, egun batean, sukaldeko txoko batean –non neskak maiz itzuri egiten zuen kuxkuxeatzera, debekuak debeku– Torres andereñoari ezkutuan azaldu zion legenda. Carlota konturatu zen ezen patroia, hilobiko atsedena aurkitzen ez zuten zenduekin beti gertatu ohi zen bezala, arima alderraia bilakatu zela. Hura ez zen asmakizun bat; alderantziz, iturri onetik ezagutzen zen. Ez al zuen Pere del Plak ziurtatzen, eta hark ez zuen inoiz gezurrik esaten, galdutako ontzia Canota bailararen aurrean topatu zuela? Ez Pere del Plak, ez bere eskifaiak ez zuten lortzen *Ràpid* espektral haren irudi lazgarria burutik kentzea, laino bat balitz bezala, zeinaren arraunek berez mugitzen ziren, arraun egiten zuten peoirik gabe. Are gehiago obsesionatzen zituen Josep Ibars patroiak berak, zuzenean, txapela ezkerreko belarrirantz pixka bat okertuta, isilik behatzen baitzuen. Ez bazen Gatell txakurraren karkasa, zein zen gau batean ontzilariaren alargunaren etxean sartu eta moilarantz tximista bezala atera zen piztia beldurgarria, desagertuaren bista nekaturako eta beste munduan beharko zituen betaurrekoak ahoan hartuta?

Batzuetan, batik bat negu- eta laino-garaitan –zehazten zuen Veronicak–, iluntzen zuenean, *Ràpid* ibai-ontzia hiriko moiletan lehorreratzten zen, eta patroia zendua, antza denez gorputzetik heriotzaren izotza kentzearen, kafetegi eta tabernetan ibili ohi zen, non barran eta marmolezko beladoreetan zerbitzatutako edariak irensten zituen. Bezeroek ikusten zuten nola jasotzen ziren edalontziak eta nola berez husten ziren, bat-batean alkohola ebaporatuko balitz bezala. Hori, gutxienez, gertatzen zitzaion Robert de Tàpiesi, halako moldez non espektroaren egarri aseeginak ron-kopa bat bestearen ondoren eskatzera behartzen zuen, Ibarsek edaten zizkionak konpentsatzeko. Historiak Carlota harrotu zuen, eta neskak argitu nahi izan zuen patroia penatuak inoiz edan ote zuen bere aita Jaume de Torres jaunaren kafea edo likorea. Neskameak, jeneral-andrearen sablearekin –zeina beti harrera-gelako panopliatik ezkutuan hartzen zuen Adelina andrearen debekuaren gainetik hegaztiak inmolatzeko– arestian burugabetutako oiloa lumatzeari utzi eta eskandalizaturik begiratu zion Carlotari hegaztiaren lumatxa artetik, elur zalantzatia bera sukaldearen giro lasaian. Barkamenez esanda, erotu egin al zen andereñoa? Nola pentsa zezakeen –jaurti zion, zakar– pobre bat, Ibarsen kategoriako patroia bat izan arren, ezta hil ondoren ere, Rodako Kasinoan oinak sartzea, hura jauntxoaren kafetegia izanda?

Koadroa eta Carlota de Torres zahartu egin ziren baina anderea ez zen jabetu pinturako olioien, pigmentuen eta bernizen gutxikako iluntzeaz. Oharkabea pasa zitzaion gorbataren urdin kobaltoa berde bihurtzen zuen horitasun sotila, alkandoraren garai bateko zuriotasunak hartutako anbar-tonua edo figurari hondo egiten zion hiriko panoramikaren gaineko zelajearen argitasunaren lausotasuna. Ez zituen, bere gorputzaren erreakzio kimiko misteriotsuekin paraleloan, pintorearen aurrean liluratutako neskatoa Birjina Martiriaren Aretoak jasan zituen hauts-inbasioak sututako andere heldu bihurtu zuten aldaketak ikusi. Baina, nahikoak izan ziren koadroak irineztatuta igaro zituen orduak, egunero ikusteko ohitura –aldaketaren permeabilitatearen kausa– apurtzeko. Horrela, garbiketa bitartean, neskameetako batek –ez dakigu Sofiak, Carmelak edo Teresak, Camila, Adelaida eta Veronicaren ondorekoak eurak– trapearekin pinturaren zati bat, koloreak horizaturik, deskubritu zuenean –Carlota gaztearen memorian irarri zireneko brilorik gabe– antzinako freskotasunaren bilaketak osteratzen atzera eramanez zuten denbora.

Koadroaren kaleetan sartu zen, oroitzapenaren kaleetan: pintatuta egon zeneko argi udatiarra ebokatzen zuen, beroa eta lehorra; jabetza bezala jarraitzen zituen, fatxada batetik bestera, etorkizunaren gorabeheretik hiri inkontzientearen aire gelditik. Estraktu-fabrikaren ke-zulora

iritsi zen, alde hartatik hiriko harresia ixten zuen harrizko gotorlekura atxikitako baldosa gorriko eraikina bera; handik tximiniaren ke urdinaren isla grisari Ebron jarraituz, Alargunen Moilan estekatutako barkurantz jo zuen.

Koadroko ibaian flotatzen zuen ontzia *Carlota* zeritzana zen. Akabera presatu zuen aitak Lliberolako naufragioan galdutako *Ràpid* hura ordezkatzeko. Bikeztatzaileek erruz lan egin zuten nasetan, mundu liluragarri eta misterioz betea bera, ke-zulo, zur-usain eta bike-sundekin, non ibai-ontzia ikustera eraman ohi zuten, zeinak, lehenik, egundoko piztia izugarriaren saiheitshezurren antza ematen zion. Hurrengo bisitetan hartzen zuen forma behatu zuen, nola hornitzen zuten hornigaiekin, nola Aleix de Segarrak masailetan gorriminarekin margotzen zuen brankan haren izena...

Ontziaren lehorreratzea anderearen oroitzapenik gardenenetakoa zen. Festa liluragarria gertatu zen, ederra. Elkortasun inkisitorialaren ondorengo –zendua gosari baten bukaeran bihotz-atake batez diziplinekin azorriatzen zen bitartean– erretore berria (Lleidako kalonjearen eskolakoa), Birjina Martirien Aretorako bisitei askariaren orduan berrekin ziena bera, kapa plubialarekin jantzi eta, mezumutitez inguratuta, ibai-ontzia bedeinkatzera jaitsi zen moilara. Ondoren, andereak, aitaren laguntzaz, txanpain-botila bat lehertu zuen barkuaren brankaren kontra, non izena alde banatan letra gorriekin triangelu zuriaren gainean nabarmentzen zen. Jaume jaunaren diskurtso ekaiztsuaren ondoren, gonbidatuak eta familia moilan batutako hiritarren espektazioaren aurrean ontziratu ziren festa kontenplatzeko. Arquimedes Quintana ibaiko deabru ederrari buruz andereak gordetzen zuen lehen irudia Ebrotik eginiko paseo hura zen: bere lemazain-postutik, patroiak –Jainkoa bezain garai eta besoa baldar baina indartsu– jauntxoan segizioa behatu eta bidaztien artean deserosotasun-sentsazioa probokatzen zuen ironiaz ukitutako arreta erakusten zuen. Orduan ikusi zuen lehen aldiz Robert Ibars, Lliberolako naufragioan desagertutako ibai-ontziaren patroia semea; mutila, gutxi gorabehera hamalau urteko morroi bat, Arquimedesen ondoan zegoen zutik; harekin eta patroiarekin hitz egitera hurbildu ziren gurasoak. Carlota de Torres andereak, umezurtzaren adats beltzetan esku zuria igurzterakoan, egindako keinu pixka bat izutu eta aprentsiboa gogoratzen zuen, hark begirada latzarekin hartu zuen laztana.

Sofiak trapuarekin Jaume jaunaren lepoa, eternitatearen margo prekarioan tinko, garbitu eta ondoren paparrean zehar labaindu zion. Anderea, urduri, besaulkian mugitu zen. Trapuak, hauts-geruzaren azpian, soinekoarekin jokoa egiten zuen koloreko txaleko-zati bat azaleratu zuen; baita erlojuaren zilarrezko katearen begi batzuk ere... Orduan, garaien sakonetik, geldiezinezko aire-bafada bat bezala, eszena bueltatu egin zen, koadroaren gauzatzea markatu zuten bigarren intzidentea: aitak, *Ràpiden* naufragioa ia-ia ahaztuta, *Carlota*ren lehorreratzearekin pozik, joan-etorriekin atzeratutako pinturari berrekitea erabaki zuen. Azken saioetako bat izan zen. Aitak, inoiz baino burgoiago, Torres i Campstarren proiektu garrantzitsuen berri ematen zion Aleixi; amak askaria ekartzeko esan berri zion Camilari; amonak gantxiloa egiten zuen eta aitonak, beti bezala, lo zegoen besaulkiaren txoko batean. Margolariak obra ia amaituari begiratzen zion, azken efektu-ukituak egiten zizkion. Figuraren eskuin aldeko fucusaren orrien argia nabarmendu eta erlojuaren katearen distirak gehitzen hasi zen: pintzelaren muturrarekin hori pixka bat hartu eta delikatuki hurbildu zuen oihalera...

Torrestarren andereñoaren memorian, horizko pintzelkada balkoiaren leihoetako kristalen txikizioarekin eta eskopetadaren eztanda lazgarriarekin betiko estekatuta geratuko zen.

Carmela, Birjina Martirien Aretoan, Jaume de Torres jaunaren erretratuko mahukatik hautsa arduraz kentzen hasi zenean, Estanislau Corberak, pentsakor, hauxe zioen Moilako Kafetegian:

—Osasuna lagun izan balu, gaur, Arquimedes Quintana zaharrak ehunda hogeita hamar urte beteko zituen...

Oroitzapenak askatuta, kafeteroa, aurpegi borobila, muxu gorrian begitxo kuxkuxeroak —zeina Honorat del Rom-ek barraren atzetik alkandora zuriaren lepotik begira dagoen txontxongiloburu batekin alderatzen zuen—, kutxa erregistratzailean bermatu zen, nagitasun mugaezin, sakon eta oliotsuarekin. Kuluxka egin zuen eta soilik hileta-deiak, bat-batean kafetegia lur-arraseko leihoetako beirak bibraziz, ekidin zuen sudur-puntarekein kutxako zazpiaren tekla jotzea. Ezkila-kolpeek ere botagura sekretua probokatu zuten parrokianoen artean Pasqual de Serafíren hilobiratze-orduaren zain. Kanpaiek ekidinezin bihurtzen zuten zenduaren oroitzapena eta iruzkin nekrologikoa. Baina Pasqualen bizitza, goian bego, erabat pobrea izan zen, kanpoko gertakariei dagokienean gutxienez: kinta bereko hiritar gehienak bezala, oso gazterik hasi zen meatzean, ezkondu, seme-alabak eduki, gerrara joan (alde errepublikarrean) eta, galdu ostean, lignittoa erauzten jarraitu zuen bere erretiro-egunera arte, futbolaren liga-eguneko kronika irakurritz ileapaindegian txanda gordetzen zuen bitartean bihotzak huts egin baino hiru urte lehenago. Xake-grina kenduta, ez zioten ezer berezirik ezagutzen. Borondate onarekin, bertaratutakoek tokiko eta inoiz eskualdeko torneotan izandako haren interbentzioak gogoratu zituzten, bestalde ez batere nabarmengarriak eurak, eta baita gerraondoko lehen urtean maisu monarkiko batek probokatutako intzidentea, gorria izateagatik kartzelaratu nahi izan baitzuen. Salaketak —aski zalaparta bai baina, Jaume de Torresen meatze batean lan egin eta haren premia zeukalako, aurrera egin ez zuena Serafí barrenatzaile ona zelako— hauxe zuen oinarri, alegia, Pasqual de Serafík, irabazita zeukan partida bat modu inozoan, barkaezinezko irekiera bat zela-eta galdu ondoren oso estututa, zurietako erregea Sports Kafetegiko estufara bota zuela. Oroitzapenak ez zuen joko handirik eman eta borondate onarekin aski luzatu zuten arren —adibidez, aipatutako maisuak bezala, mundu miserable honetako moiletan itsas-trikuak lehorreratzen zituzten amen zalantzazko bertuteei erreferentzia zehatzak eginez— berehala iraungi zen. Bizitzaren hauskortasunez filosofatu zuten pixka bat; bide batez zenduaren zori ona kontsideratu zuten —zeinak, heriotza azkar eta oinazetik gabekoaz gozatu ez ezik, hiriaren suntsipenaren hondamendi latza aurrezteko zortea izan baitzuen, eta, Pasqual de Serafí bihurtu zitekeen indar misteriotsua ahal beste ez bezatzeagatik etor zitekeen arriskua behin uxatu ondoren—, berriketaldia futbolaren azken liga-eguneko gertakarietara moldatu zen modu fatalean, huts egin ezinezko pronostikoak txikitu eta aurreneko taldeen sailkapena itzulipurdikatu zuen egun malapartatua izan baitzen hura.

—Ehunda hogeita hamar urte—, errepikatu zuen ahopeka kafeteroak, parrokianoak balentria sublime, arbitroen azpijoko lazarri edo disparate ezin ilunagoei buruzko ika-mika fanatikoetan nahasten ziren bitartean. Inork ez zuen erreparatzen Estanislauk zenduen urteurrenak gogoratzeko zeukan mania bitxian. Bezeroak ez ziren harritzen, kafeteroak, likore-kopak bete edo kafeak zerbitzatzeko orduan, ahots mindu eta solemnearekin, esaten bazuen: “Osasuna lagun izan bazuen, gaur, Napoleon Bonapartek ehunda laurogeita hemeretzi urte egingo zituen”, ez eta jarraian “Ez gara ezer” jautiz gero etsipenez beteta, eskubiko begiaren kliska

espasmodikoarekin batera gertatzen zitzaiona. Horrela, indiferentzia unibertsalaren erdian, jokoa jarraitzen zion Honorat del Rom Forn plazako botikarioaren salbuespenarekin, (behin hiru eguneko errorea harrapatu zion Garibaldiren urteurrenean), kafeteroak zendu ospetsuen jaiotza edo hiletak gogoratzen zituen, hilobiaren bidea hartzen zuten hiritarrenekin batera, zeinetatik erregistro mental oso zehatza eramaten zuen, eta haren bukaeran, Pasqual de Serafi zorigaiztokoarena gehitu berri zuen.

—Osasuna lagun izan balu, gaur, Arquimedes Quintanak ehunda hogeitahamar urte beteko zituen...

Oroitzapenak, orduan Robert Ibars “Nelson” bezala ezagunagoa zenari zuzendua bera, barra inguruan gerarazi zuen nabigatzaile zaharra eta bere memorian sarri Arquimedes zaharraren figuraren ebokazioa zekarkion kafetegiaren transformazioa piztu zuen: O’Donell jeneralaren infanteriako erregimenduak, ohi bezala, formazio akasgabeen azaldu ziren karta-jokalariek ohiz okupatutako mahaietan; kanpainako artilleriak posizioak hartu zituen marmol zuriko barran, kutxa erregistratzailearen eta kafe-ontziaren artean, Estanislauen sudurretik bi arra betera; Prim jeneralaren boluntario katalanek Ebrora begira zeuden atzeko parteko leiho handietan zehar egiten zuten aurrera, bilarreko mahaiaren argi azpian, eguzki afrikar paregabe bihurturikoa bera, turbante eta tuniken nahasketa liluragarria hauts urrekarren artean mairuen zalditeriaren tropela garatzen zebilen bitartean...

Nelsonen nostalgiaz beteriko begien aurrean abiatu zen bataila: kanoien eztanda, fusil eta espingarden zapartatzea, balen txistukatzea, sable, baioneta eta aihotzen distira... Moilako Kafetegiko aulki, mahai eta burdinurtutako zutabeen artean, arrapalada eroak, karga izugarriak, talka hilgarriak, garaipen-oihuak, agoniako intziriak tartekatzen ziren. Auskalo nondik aterata —agian armiarmek nobletutako likore-botilen apalategi altuetatik— mairu amorratu batek, txilaba odol freskoz zikinduta Nelsonengana jo zuen barraren gainean. Marinela zaharrak berarengana hurbiltzen, imintzio lazgarria egiten eta eskuetan zeraman aihotza altxatzen ikusi zuen... Kafetegiko atea ireki zuen norbaitek: marokoa, eguzki-boladak jota, desegin eta hauts bezala hedatu zen. Bolbora errearen usain mikatza osterka kafetegi-aroma bihurtu zen, kanoien bonbak igandeko futbol-partiden pilota bihurtu ziren eta bilarreko mahaiaren argia betiko papera izatera mugatu zen, Tetuango bataila-eremua, Marokoko lurretan, 1860an, pixka batean argitu ondoren.

Robert Ibarsek, mundu guztiarentzat Nelson, emaztearentzat ere bai, begi-kliska egin zuen, Estanislauk kafe zerbitzatu berria gozatzeko azukre-koskorra desestaltzen zuen bitartean. Ehun urte baino gehiago baziren Tetuango sarraskiaren biktimak lur afrikarraren azpian ahaztutako hilobietan sartutako hezur-pilo anonimoak besterik ez zirela. Arquimedes Quintana zaharraren heriotzatik ia berrogei paseak ziren, baina kafeteroak ebokatutako urteurren-egun hura, bere gainean beti planeatzen zuen itzala, babeslea eta onbera, denboraren muga gaindituz, presentzia taupakari eta bizia bilakatu zen. Uste izan zuen desagertuen memoria zela lehenaldiaren sakonetik oroitzapenak berraurkitzen zituena, eta ez berea.

Marinela zaharraren intuizioak, orduz geroztik antzeko sentsaziok kolpatutako beste hiritar batzuekin konpartituta, hitzez sekula espresatua izan ez zen arren, susmoa izan zuen oroitzapenen intentsitate ezohikoa agian Llorenç de Veriuren Baixada de la Ferradurako etxearen desegitea —zeinaren kontzientzia pertsonala jabetzen hasia zen— hiriaren memorian

probokatzen zuen astinalditik zetorrela. Agian kaleek, plazek, etxeek, norbaitek bi ibaiek desesperatuki askatzen zituzten oroitzapenak eraipen eta sakabanatze saihetsezinetik erreskatatu zitzen. Berdin dio, ebokazioa ez zen sekula ordukoa bezainbat zehatza izan. Ia bere birraitona izan zitekeen zaharraren lehen oroitzapenak oso urrutitik zetozkion, Robert haurtxoa besterik izan ez eta aitaren ibai-ontzia moiletara itxarotera joan ohi zenetik. Ia beti aurkitzen zuen Arquimedes zaharra ere. Nabigatzaileak ferekak egin, itsas-barraskiloak eta txirlak oparitu edo ibai-ontzira igotzen zuen berarekin. Ibaik Tortosako hirirainoko berrogeita hamar kilometrotan patroirik errespetatuena zen, eta Robert aho-zabalik geratzen zen hari entzunez, batik bat patroiak Tetuango batailako bere parte-hartzea azaltzen zuenean. Historia hark beti txunditzen zuen. Iruditzen zitzaion oraindik entzuten ziola eztarria garbitzen zuenean, batailaren narrazioa hasterakoan eskuineko belarritik tira egiten zuenean.

Andregaiarekin –bere bizitza luzeko hiru andre ofizialetako lehenarekin– eginiko martxa azaltzen zuen, eta aurreko azken gaua, soilik intsinuatua, izan ere patroiak sekula ez baitzituen maitasunezko konfidentziak egiten. Denborak ez zuen hiritik banantzeak izan zuen inpaktua ezabatzerik lortu. Xehetasunak gogoratzen zituen: kintoak despeditzera batutako jendez beteriko moilak, agurrak, malkoak, Camps jaunaren hitz suhar patriotikoz dardaratsuak. Handiak soldaduei esaten zien ez zirela bakarrik egongo: bere koinatuak, Nicanora de Camps anderearekin ezkonduetako zalditeriako jeneral loriatsuak, zainduko zituen Afrikako lurralde etsai irredentoetan. Gero hiriaren ikustaldia zen, okre argitsu eta lehortukoa, non urteak joango ziren ikatzaren beltza atera arte, juxtu hasi berriak baitziren meatze-indusketak arroan; hiria ortzimugan urtzen zen, ibai-ontzia Segrekiko konfluentzia zeharkatu ondoren azken etxeen ondo-ondoan Ebrotik behera zihoan neurrian. Jarraian, begirada txunditu eta iheskorra Bartzelonako portura, Marokoko eguzkiaren liluramendua baino lehen. Han, narratzailea hain ebokatzeko ahalmen handiarekin abiatzen zen, esaten baitzen pikatxoi mairua eta Estanislaren aitonaren garaietatik apalategietan gordetako nakarezko inkrustaziodun espingarda billarreko mahai ondoan aurkitu zirela neguko gau batean, Arquimedes zaharrak kontertulioek eskaturiko batailaren narrazioari beste behin ekin ondoren. Robert de Tàpiesek –Nelsonen aita Josep Ibarsen espektoak dozena erdi ron-kopa edaten zituenean– konbikzio handiz baina trapuzko mihiak gaizki lagunduta, azaltzen zuen kafetegiko beladore bateko arrakala Prin jeneralaren beraren obra zela. Arquimedes zaharraren hitzak ohiz baino indar handiagoarekin ebokatuta, Reusko militarra Elizako plazaren aldetik zaldi gainean sartu eta zentauro baten antzera gurutzatu zuen Moilako Kafetegi hura. Ebroren atetik irten baino lehen, generalak, hautsez eta odolez estalita, sablekada bat eman zion Silveri Tonari, zeina seguru aski kabildar batekin nahastu zuen, izan ere parrokiarria azalez iluna baitzen, eta egiatan mairutarretako mairu bat zirudien. Silverik mirariz saihestu zuen kolpea, baina armaren orriak mahaiaren marmola puskatu zuen, orduz geroztik Jeneralaren Mahaia deitua izan zena.

Boluntario katalanen erasoaren ondoren, kontakizuna are gehiago animatzen zen eta kontertuliano gozatuek informazio xehea jasotzen zuten karga eta kontrakarga, eboluzio eta finta, izualdi eta oilarkeriei buruz, ekintza bere puntu gorenera iristen zen arte.

—Ez dakit nola gertatu zen, gainean baineukan. Aihotzaren distira ikusi eta senez kolpea fusilarekin geratzen saiatu nintzen: erdizka baino ez nuen lortu eta kolpe bat sentitu nuen masailan. Halako kolpea, arranopola! Tximista bezain azkarra izan zen: bigarren aldiz jo eta larrutu egin nahi izan ninduen: kanoikada bat jaurti nion: ilintikadak airean bota eta zaku bat bezala jausi zen. Hilik. Nire alboan oihi, eztanda eta korrikaldiak besterik ez. Zerbait epel zetorren nire lepoan behera eta hotzikaraz konturatu nintzen besoa eta ezkerreko mahuka odoleztatuta neuzkala. Nire aurpegia ukitu nuen: belarria moztu zidan putakumeak. Supituki

pentsatu nuen: “Arquimedes, mairuak ondo izorratu hau, hau mortala da”. Izututa, fusila bota eta korrika hasi nintzen, eroaren pare. Zer bilatzen nuela esango zenukete, mutilak? Medikuek? Ez barrearazi! No garbitzen amaitzeko? Hori pentsatzen baduzue, oso urrun zabilatzate!... esango dizuet, gazteak: hiria bilatzen nuen, Segre ibaia, Ebroa, ibai-ontziak, Carme... Baneukan Camps jauna eta Rodako Kasinoko beste malapartatuak ikusteko gogoia ere. Gaur-gaurkoz ere ez dut ulertzen nola ez ninduten zoriondu. Bat-batean, kraska sentitu nuen buru-oskolean: mundua biraka eta biraka hasi zitzaidan ziba bat balitz bezala, botagura etorri eta ilundu egin zen egun argitan.

“Konortea itzuli zitzaidanean, sanitarioek litera batean ninderamaten. Kanoikadak gelditu eta soilik fusilen deskargak entzuten ziren urrunean. Jada ez zen zauritik odola isurtzen baina bazirudien erregimentuko danborrak jo ta jo ari zirela nire buru barruan. “Zortea izan duk, txo”, esan zidan garraiatzen ninduenetako batek, Tortosako semea bera, “ezkerreko belarria zuritu diate, besterik ez; gaitz honegatik ez haiz hilko. Hemen dagoen lagun honi, berriz, lan zehatzagoa egin ziotek. Begira!”. Orduan konturatu nintzen ez nindoala bakarrik literan: nire hanken gainean, begi zabaldu eta lausoekin begira neukan buru bat zegoen. Jainkoaren potroak! Hura izugarria zen, erotzeko modukoa: gizajoak okotzetik lotuta zeraman oraindik kapela eta burugabetu zutenean erretzen ari zen puruan josita zeuzkan hortzak. Hauts eta odol-zipriztinak egon arren, ezaguna egiten zitzaidan. Azkenean, erdi zorabiatuta, gorputzaren arrastorik ez zutela aurkitu azaltzen zidaten andariei entzuten ari nintzelarik, nire memoriara ekarri nuen buru hura: hiriko elizaren atean gogoratzen nuen, Nicanora de Camps andereñoarekin ezkondu zen egunean, gorputzaren gainerakoari oraindik itsatsita, jakina. Barrabana halakoa, esan nuen nire artean, mundua arrautza-oskola da. Eta ostera zorabiatu nintzen. Hara non, egun hartan auskalo zergatik ospea deritzan harekin estali ginen. Ni neu ia-ia heroi bat nintzen. Oro har, txikizio gogaikarria eta kitto. Nire aldetik, beti gabetsi izan dut Afrikan ehortzitako belarria. Gajoa! Zer egingo du han bakarrik? Batzuetan soinu arraroak entzuten ditut, zalaparta-hotsak, eta pentsatzen jartzen naiz ea bataila-eremuan galdutako zorigaiztoaren bitartez iristen zaizkidan Marokoko gauzak ote diren. Baina, ai adiskideak!, batere gogorik gabe garbitu nuen mairuaz ere pentsatzen dut, nahiz eta esan beharrik ez dagoen nahiago dudala ni izatea historia kontatzen ari dena. Gizajoak, gutxienez, berea defendatzen zuen; gu Camps, Sallers, Romaguera eta Torres bezalako jendearen poltsikoa defendatzera bidali gintuzten.

Nelsonek ere bazekien Jeneral-andre alarguna hirira itzuli –dolu eskandalagarriak, diskurtsuak, banderak airean, familiarren eta lagunaren malko patriotikoak Plazako moilan lehorreratzerakoan– eta bertan betiko geratu zenean, maiz Arquimedesi deitzen ziola senarra hain modu loriatsuan erori zen tokiko bataila azaldu zieziaion. Beteranoak, Campstarren etxeiko ibai-ontzien patroia eta gero Torres i Campstarrena, ez zeukan beste erremediorik aretora joatea baizik, non oraindik ez zegoen Birjina Martirien koadroa, eta historia kontatzea. Baina beti isildu zuen buruaren eszena eta batik bat jarraipena, sanitario tortosatarrek konfiantzaz zekiena: Jeneralaren gorputza aurkitzeko ezintasunaren aurrean, zentzu hartan jasotako aginduak agindu, andariek kutxaren barruan sartu zuten heroia baten burua (habanoa eta guzti) kabilatar burugabetu baten hondakinekin batera, eta militar ospetsuaren paradako uniformearekin jantzi zuten ezkutuan.

Mende erdi beranduago, alarguna jada zendua zelarik beste munduan inolako zalapartarik gertatu gabe –bake hura honako egitate honi esleituta Moilako Kafetegian, alegia, Jeneral-andreak gustukoa izan zuela kabilatarraren gorputza, indartsua eta Tetuango heroia baino hobeto hornitua– gerren mamuak ostera astindu zuen hiria. Jendeak Bartzelonako jarrierari jarraitu zion, Aste Tragikoko gertakariak astindutako hiria izanik, eta Rifeko meatzetan zeuden

interes espainiarrak defenditzearren Marokora destinatutako hiru erreklutak hara joatea eragotzi zuen. Robert Ibarsek, etorkizuneko Nelsonek, hamar urte baino ez zeuzkan eta Arma plazako asanblada jendetsuen, eztabaiden, harrabotsen gomuta nahasia gordetzen zuen gertakarietatik, eta baita hiriaren beldurrarena ere, guardia zibilez kargaturiko ibai-ontzi bat Ebrotik igotzen ari zela jakin zenean. Orduan oraindik ez zegoen indar armatu iraunkorra hirian, trikorniodunak soilik salbuespenezko uneetan etortzen ziren. Emakumeak, Bartzelonan armadak erakutsitako basakeriak izututa, gizonetik beldurrez bizi ziren, eta etxean geratzeko konbentzitu zituzten. Andreak jaitsi ziren moiletara, ontziaren etorreraren zain, 1909ko udako arrats hartan hego-mendebaleko haizeak tenkatuta agertu berri zen seinale txarreko bela haren zain. Estekatu zutenean, emakumeak indar armatuak goratzen hasi ziren, bigundu eta txikizioa saihesteko. Guardiak, jasotako harreragatik nahastuta, lehorreratu eta Udaletxera abiatu ziren, gora eta gora artean. Baina, biharamunean, atxilotze-, galdeketa- eta jipoi-gau basati baten ondoren, Plazako moilatik bi ibai-ontzi itsasoratu ziren preso mukuru. Arquimedes Quintana, Roberten aitarekin batera builen buruzagietako bat, inkulpatu nagusietako bat zen. Epaiketa hastera zihoanean, Bartzelonako errepresio basatiak eta Ferrer i Guardiaren fusilatzeak sortutako nazioarteko zirrarak, gobernuaren erorketak eta hirian erreboltarako prest zegoen jendearen etengabeko presioak atxilotuen itzulera lortu zuten, zeinak, Tetuango beteranoa buru, isilik lehorreratu ziren Alargunen moilan.

Ehun eta hogeita hamar urte... Hiriaren gainontzekoan eta zegokion ordu-eremuan hamar eta erdiak ziren; Moilako Kafetegian hamarrak eta laurdenak. Establezimenduko erlojua, fundatzailearen mania bitxi batengatik semeak errespetatua eta argitu gabe geratua, beti hamabost minutu aurreratuta zebilen. Ebroren ahoko hormatik pasatu zen kamioia, hainbat deskonposizio-mailako ibai-ontziz betetako moilen gainean. Kafetegian gero eta jende gehiago zegoen Pasqual de Serafíren ehortearen zain... Eduard Forques, tradizio familiarrez erriberako bikeztatzailea –eutsiezinezko bokazioz saxofonista tenorra– Horaci Campells, hiriko serenoa, eta Manolet, Amu kalezuloko gozogilea, Nelsonekin batera zeuden. Kafea hartu eta hamahiru urtez geroztiko hiritarren obsesioez mintzatzen ziren, suntsitzearen larridurazko preludioa hasi zenean, aurreko egunean Baixada de la Ferradurako etxearen eraispinarekin hasitako preludioa.

Isilik zegoen Nelson. Estanislauk ebokatutako Arquimedes zaharraren gomutak hainbat urte aurreragoko udako goizalde batera zeraman. Gorritasun biziak pizten zuen ibaia, ibai-ontzien itzalak moztzen ziren moiletan, non nabigatzaileak abiatzeko prestatzen ari ziren. Marinelen siluetak orban urdinkarak eta gorriak ziren, arraun eta soken artean lanpetuak eurak. Txirriken karrakak eta pertxen zarata, ur beltza moztuz, patroien eta peoien ahotsekin nahasten ziren. Hark kitzikatu eta nahastu egiten zuen orduan: nerabe kezkatua, pixka bat galduta sentitzen zen trafiko hartan. *Carlota*, Torres i Campstarren ibai-ontzi distiratsua, lehen bidaiari ekiteko prestatzen ari zen, bere ureratze arrakastatsutik aste betera. Eta bera, Robert Ibars, eskifaiaren parte zen. Festaren biharamunean, zeinetik oraindik jauntxo apaindu eta sekulako kapelak zeramatzaten emakumeen liluramendua gordetzen zuen, –“beleak eta papagaiak”, Arquimedes zaharraren definizioan–, eta baita Carlota andereñoaren oroitzapena, hari modu xeble eta harroputzean behaturik, Tetuango beteranoa etxean azaldu zen amari esateko mutikoa berarekin zeramala Torres i Campstarrentzat nabigatzera. Patroiak Jaume jaunari aurkeztu zion arazoa, eta hark –ziur aski Lliberolan hildako etxeko nabigatzailearen alargunaren alde ezer ez egitearen kontzientzia txarrez– zenduaren semeetako bati lana ematea onartu zuen.

—Igo, gazte, esan zion goiz hartan Arquimedes zaharrak. Eskifaiak, arraunak muntatzen lanpeturik, agur-purrustadaz hartu zuen. Abiatu zirenean, moilei begiratzea saihestu zuen, bazekien amak, barruko belztasunarekin nahikoa ez balu bezala lutoz jantzita, larriminez so egiten ziola, itzaletan itzala, oraindik gaua baitzen Ebroko kalezuloetan.

Hiriko uretatik atera ziren, xehe-xehe ezagutzen baitzituen, eta, liluratuta, Arquimedes zaharrak aurkeztu eta ia ezer ezagutzen ez zuen ibaia deskubritzen hasi zen. Moiletara jaisten zen guztietan, ontzi batekin bidaia ekiteko gogoak jaten zuen. Baina aita ez zuen inoiz hain ofizio gogorrean gutziz nahi izan, eta ez zion inoiz ontziratzen utzi, Arquimedes Quintanaren iritziaren kontrara, haurraren arrazako nabigatzaile bat igartzen baitzuen honek. Goiz hartan, ibilbidea azaltzen hasi zitzaion: hura Riba-roja zen, beste hura Ascó, beranduago bistaratutako gaztelua, Miravet... Arrazoia zeukan Afrikako beteranoak: belaunaldi askoren ibaiaren pozoia zeraman odolean eta erriberan ikusitako herri askok harridura sortzen bazioten, ezer ez zitzaion arrotz egiten aitaren hezur galduak errai lohitsueta gordetzen zituen ur bizian.

Bidaia lasaia izan zen. Itzuleran, Miraveteraino, gizonak zirgatu behar izan zuten, ibaia ur-bazterretik oinez igoz. Handik aurrera, non gaua egin zuten, zaharra ez zen ibai-ontzira sartu, eta horrek komentario maliziatsuak atera zituen eskifaia artean, hego-mendebal indartsu eta mantenduak belaz igotzea ahalbidetu zien. Gertakari kezagarri bakarra Cova Planako harritzan gertatu zen, ikatzez kargatutako ibai-ontzi bat bistaratu zutenean.

—*Sant Lluís* da! —bota zuen Jaume Tàpiesek—. Matrikulatu zuen madarikatua!

—Hondoratuko al da!

—Halako beldurti-koadrila! Ez al duzue lotsarik? —zaharrak, purrustaka.

Ibai-ontziak ia elkar ukituz gurutzatzen ziren bitartean, *Carlotako* eskifaiak beste ibai-ontziari begiratzea ekidin zuen; soilik Arquimedesek agurtu zituen. *Sant Lluís*en patroia heriotza ideiarekin obsesionatuta bizi zen, hainbestearaino non hilkutxa eginarazi eta ontziko ganberan eraman ohi zuen beti, hil-jantziko arropaz osatutako fardel batekin. Eskifaia gizon batek huts egiten zionean, lanak zeuzkan ordezteko eta denek saihesten zuten ibai-ontzi tetrikoa topatzea, haragi gabekoaren hatsez betetako hura.

Aurkikuntza funebrearekiko enkontruz kezkatuta, hirira iritsi ziren. Aleix de Segarra pintatzen ari zen koadro baterako Tortosan jasotako marko ederra ardura handiz deskargatzen hasi zirenean, nabigatzaile-talde bat zaharrarengana hurbildu zen, hark operazioa palanka alboan zaintzen zuen bitartean eta mundu guztia erne zeukan berria eman zioten: printze oinordeko bat eraila izan zen Sarajevo izeneko toki urrun batean eta, hirian, norbaitek, nork ez zekiten, Jaume de Torresen kontra tiro egin berri zuen.

Kanpaiek Pasqual de Serafí goi-mailako harri-zulatzaila eta xakelari loriarik gabearen heriotzaren berri ematen zuten bitartean, Carlota de Torres andereak koadroaren garbiketak hain egun urrunean aretoan ebokatutako eskopetadaren lehertzea eta batek daki norainoko nahasmena gogoratzen zuen: Veronicak tiroa baino garrasi izugarriagoa jaurti zuen, azpila askariko txokolate-kikararekin eskuetatik ihes egiten zioalarik; Jaume jauna besaulkitik jausi zen aurpegi odoleztatuari oratuz; trementina-flasko bat mosaikoaren kontra txikitu eta haren esentzia odolarekin eta txokolatearekin nahastu zen; sustoaren eraginez Aleix de Segarrak airean jaurtitako paleta amonaren bularraldean pausatu zen. Munduaren nahasmenduarekin indiferente, aitonak biagoa egiten jarraitu zuen besaulkiaren bazter batean.

Camilak hasierako sustoa gainditu eta mundu guztia lasaitzea lortu zuenean, Aleixek konprobatu zuen Jaume jaunaren orbana –areto erdia zipriztindu zuen odolaren eskandalua alde batera– masailean urradura bat besterik ez zela, larria baino gehiago ikusgarria, balak apurtutako balkoiaren leiar-puska batek eragina, eta amonaren brusaren gorrimina ez zetorrela ezein zauritik baizik margolariaren paletatik. Sabaiko moldura batean sartu zen jaurtigaia, Jaume de Torresen erretratua, juxtu bekokiaren erdian, zehaztasun izugarriarekin, zulatu ondoren.

Berehala hedatu zen albistea. Rodako Kasino osoa Jaume jaun zurbil, beldurtuari klase-elkartasuna erakustera abiatu zen, eta berak ez zekien nola ezkutatu abandonatzen ez zuen eskuetako dardarizoa. Emakumeen artean jesarrita hartu zituen lagunak. Emakumeek, kitzikatuta, espantu eta gatzen flaskoarekin edo Karmengo urarekin Camilaren presentzia arduratua eskatzen zuten zorabio batzuekin ontzen zuten istorioa. Sàssolako azken baroiaren arrandiatik Romagueraren lehortasuneraino –inguruetako lurdun garrantzitsua bera– anarkistek, begiak itxita, anarkistei egotzitako atentatuarekiko sumina erakutsi zuten tonu guztietan, izan ere gizartea desegiteko prest zeuden ero erailtzaileak ziren anarkistak, eta, noski hiria aukeratu zuten bertoko zutabe ilustreenetarik baten aurka tematzeko... Salleres alargunaren meatzetako administratzaileak –anderearen etzatokian gaueko su-amatatzaile eta sumisoa bera– bide batez memorial odoltsua, zaurituaren dardarak areagotu zituen pentsamendu desegokia abiatu zuen industria-gizon bartzelonatar baten erailketa hurbila gogoratzean. Praxedes de Torrents jaunak, konformazio santuko adardun sakristiakoa bera, hariari jarraitu zion Madrilen pare bat urte lehenago garbitutako Canalejas ministroaren heriotzarekiko komentario ez oso sentitua egitean –liberala, azken finean–. Monegreko zalduna –kapela zulatuaren eta gorbata olio-orbanek zikindutako gorbataren artean burezur horizta– Alfontso XIII.a erregearen aurka ezkontza-egun berberean gertatutako atentatuaz luzatu zen, eta baroiak bere txanda errekuiperatzea lortu zuen, Bartzelonako Liceu Teatroan lehertutako bonben kasua aipatzean –mende-bukaerako hilakintza ospetsua, alegia– ezbeharren zerrendari amaiera historikoa ipintzeko. Iruzkina berbera egin zuen, ia-ia hitzez hitz, Limogeseko portzelanazko azken platerako sardinzarren bakardadearen aurrean pentsatutako aldaera batzuekin Rodako Kasino ia-ia hustuan, nora dozena bat jaun doi-doi iritsi ziren mundu guztiak anarkistaren begien distira doilorra iradokitzen zituen kaleen iluntasunari aurre egiteko erabakituta.

Biharamunean goardiazibil-parea eta barrutiko epaitegiko funtzionario bat, potolo odolbizia, eskubiko begian tik oso nabarmena zeukana –zeinarekin ematen zuen aitorrezinezko

elkarretaratzeetara gonbidatzen zuela— iritsi ziren hirira tartana batean. Funtzionarioak deklarazioa hartu zien lekukoei, luze miatu zuen aretoaren zoruko zuloa, jaurtigaia aztertu zuen zurginaren laguntzarekin eta, balkoiko eta kuadroko zuloak miatu eta modeloarekiko antzekotasuna laudatu ondoren, atestatuan egiaztarazi zuen bala kanpotik —puntu zehazten zail— baina Ebroren aldetik plaza ixten zuten akazien ilara kokagarritik jaurtikia izan zela. Berebiziko dedukziotik eta amaigabeko indagazio antzuetatik bi egunera, asperturik eta nahasmendurako betiko gonbidapena betazalean kokatuta, bezeria ez zen etxetik ateratzera ausartzen eta kontu handiz ibili ohi zen balkoi edo leihoetara ez hurbiltzeko, kolpe hilgarria hartzeko beldur. Bitartean isiltasun lodia jausi zen hiriaren gainean. Sukaldeko sekretuan Pere del Santsen historia zahar eta dardaragarria azaleratzen zuen Camilak, Tinaren kalezuloko itzalak labana bihurtu zitzaizkion kafetegiko harroxko harena. Carlota anderea —neskameekin berba egiteko amaren debekua ostera desobedituz—kalezuloko auzoengandik hitz bakar bat ateratzeko funtzionarioaren ezintasunaz jabetu zen, nahiz eta haiek, zalantzarik gabe, gauean zalaparta entzun eta harroxkoa zortzi labankadaz gurutzatuta erortzen ikusiko zuten, gero denborak biderkatuko zituen labankadaz, lurzorutik odola miazkatzera hurbildu ziren zakurren kopurua biderkatuko zuten bezalaxe. Isiltasuna biktimaren neska-lagunarekin errepikatu zen, hiltzaileen izenaz jabeturik, eta baita labanak Ebroko ur gautarretara bota ahal izango ziren moiletako puntua seinala zezaketen susmagarriekin. Hiria isildu egin zen orduan eta orain osteria isiltzen zen. Jende kanpotar armatuengandik labana edo eskopetak baino gauza beldurgarriagoekin defendatzen zen: funtzionarioek paperak erabiltzen zituzten. Hitz ulertezinak idazten zituzten eta gero jendea espetxera joan edo etxea, lurra edo ontzia bahitzen zioten. Gainera —galde egiten zuen Carlotak odolezko istorioak gutiziatu eta beldurtutako andereñoaren aurrean—, zer egin behar zuen hiriburuko jendeak hirian gertatutakoaz?

Carlota de Torresen oroitzapenetan, normaltasuna egun batzuk beranduago iritsi zen bat-batean etxera. Aitak, osteria leihoak igotzera arriskatu eta, gizon arrakastatsu eta seguruaren irribarrearekin batera —zeina soilik amaginarrebaren begirada gupidagabearekin kikiltzen zen— kalera irteteko beldurra galdu eta lehengo aire trebea errekuaperatu zuen.

Carlota de Torresek sekula ez zuen jakin zer gertatu zen. Azkar asko azaldu ahalko zion Camilak. Baina andereak, behin koskortuta, anarkistaren historia argitu nahi izan zuenean, aitzakiak topatu zituen aitaren aldetik: ordurako amona eta ama zenduak ziren eta urteak ziren Camilak Torres i Campsen etxea utzia zuela. Soilik neskamea ohartu zen amonak Graells administratzailearekin izandako elkarriketaz eta amaginarrebaren eta aitagarrebaren arteko berbaldiaz familiako gainerakoak lotan zeudelarik. Elkarriketa ekaiztsua izan zen: amaginarrebak aitagarreba asto, koldar eta lotsagabetzat tratatzen zuen. Nola hitz egin ahal izan zuen horrela eta, batik bat, nola utzi zuen gauzak hain urrun iristen? Ez al zeukan zentzumenik? Ez al zuen sakramentala ikusten? Berak aurkitu behar zuen misterioa. Zer aterako zuen ostruka bezala ezkutatuz? Ez al zuen ikusten tiroa abisua zela? Tiratzaileak nahita zulatu zuen erretratua modeloaren buru-oskola txikitu orde. Akabatu nahi izan balu, jada hil-atorrekin egongo litzateke... Berak konponduko zuen arazoa, ez beragatik, baizik alabari, ezkontuta zegoen krapula-puska —krapula inutila— enoratu behar zuen Adelina gaixoari sufrimendua eta lotsa aurrezteagatik. Iseka-tarte eder baten ondoren —zeinei Jaume jauna jeneral-andre defuntuaren antzeko genioa zeukan amaginarrebak txitean-pitean kontenplaziorik gabe moztutako protesta ahulekin erantzuten saiatzen zen—, anderea ezkutuan atera zen etxetik, Graells lagun zuelarik. Egunsentian itzuli zenean, lehen meatzari-taldeak lanera abiatzen ziren kale oraindik beltzak karburo-lanparek argiturik, eta nabigatzaileak moilak uzteko prestatzen ari zirelarik. Elkarriketa labur eta builarik gabea izan zen aitagarrebarekin, zeina bulegoan geratu baitzen amaginarrebaren etorreraren zain, eta orduan isilean geratu zen etxea.

Inork ez zion horri buruzko ezer aipatu Carlota de Torres andereñoari. Ez zen sekula jabetu ere egin Graciako hiri zaharrean, Bartzelonan, aitaren aurkako atentatutik egun gutxira izandako bataio batez. 1914ko abenduaren 13a zen eta hiriak jakinguraz jarraitzen zituen Sarajevoko erailketaren ondoren Europar lehertutako gerraren gertakariak. Egund bereberean errusiarrek Belgrad errekuiperatu zuten baina horrek hotz uzten zuen Joaquin Castells. Sol kafetegi dotoreko jabe berri eta distiratsua aseta sentitzen zen, samurtuta begiratzen zion bere alabari— garai batean Torres i Campstarren Erregaliz Estraktuak fabrikako langile izandakoa bera— zeinak besoetan haur jaio berria zeukan, denborarekin Carlota de Torresen antz handia izango zuen haurtxo ederra hain juxtu; hainbeste non, urteak aurrerago, ez baitzegoen Bartzelonatik pasatako hiritarrik Graciara joango ez zena Arma plazako etxeko emazte burgoiaren bikoitza kafea berotzen ikustera. Gaueko ordu ttikietan Camps andereak egindako bisitaren kausaz —sei hilabete lehenago inor agurtu gabe bere familiarekin hiria utzi zuenez geroztik— Joaquim Castells goitik behera aldatu zen. Inork ez zukeen igarriko, hilabete batzuk lehenago, kafeteroa Ebroren ondoan lignitoko meatze batean peoia zela eta inguruko tiratzaile finenaren ospea zeukala.

Ezagutzen ez zuen bataio hartatik berrogeita hamasei urte beranduago, Carlota de Torres andereak hasperen egin zuen. Meزامutiles inguratuta Pasqual de Serafíren etxera zihogan abadearen latinkadak igotzen ziren plazatik, baina bera ez zen ohartu. Denboran oso urrun zegoen: amaitu gabeko koadroa aitaren bulegoan baztertuta ikusten zuen. Aitonaren heriotzagatiko oinazeak, zeinak losusta bat besaulkian San Pedrorekiko afari batekin lotu zuen, osteraren errealizazioa geratzea behartu zuen. Azkenean, 1915eko udazkenean, balaren zuloa arduraz estalita eta Aleix de Segarrak birmargotuta, zeinak modeloaren mahuka bat, aitonaren heriotzaren oroigarri —zeinak bigizta beltz batekin doluz jantzi zuen—, erretratua, bernizez distiratsu eta Arquimedes Quintana zaharrak Tortosatik ekarritako marko ederrean kokatuta, kristau martiri faltsuek inoiz beren haragi kitzikatzailak lizunki erakusten zituzten, aretoko hormaren atalean esekia izan zen.

Gonbidatuen goraipamenak ahobatekoak izan ziren, oso lausengarriak eta sakonak. Torres jaunaren lehengusina propio baten iruzkinak laburtzen zituen, zeinak ziurtatu zuen hitz egin besterik ez zuela behar. Baina modeloak ahaleginik gabe eta areago ordezkatu zuen gabezia: Jaume jaunak, emazte, amaginarreba eta hiru seme-alaben artean mahaiburu, etengabe egin zuen berba. Bere irudi margotuaren pean bertan, anfitrioiari ongizate eta optimismoa zerion, eta hura bere hitz-jarioan nabarmendu ez ezik presente zegoen festaren edertasunean, alabaren hamalagarren urteurrenean, non ez zuen deus ukatu. Erretorearen bedeinkapen urduriak latinkadak jaurti berri zituen biribiltasun ukaezinezko jaki dotorez eta botila zein kopen beira gorritasun indartsuz pizten zituen Terra Altako ardo garratzez hornitutako mahaiaren gainean. Afariaren lehen partean kenduta, non jankideak isilik eta sukaldeko sekretuan Camilaren sarkasmoak probokatzen zituen zaletasunez jakietara oldartu ziren, berbak gai goriaren alde jarri ziren: Sarajevoko atentatuaren ondoren Europar piztutako gerraren alde. Suntsipena Frantziako alorretan edo Rusia urruneko estepetan, jipoiak ekialdeko frontean, Joffreren eraso inutilak Vosgesen, fronte italiarreko irekiera Trentinon eta Ekialde Ertaineko arazoak izan ziren gonbidatuen berriketaldien puntu esentzialak, aipatzen zituzten toki geografikoen egoera estranbotikoaren ideiarekin gehienak.

Festan mantendutako aliadofiloen eta germanofiloen arteko ezberdintasunak ezberdintasun, non ospakizunari zegokion aipamen kamuts eta soberazkoen pean nabarmentzen zen, hiriko ezein taldek ez zuen gatazkaren bukaera nahi. Ez al zegoen betiko iraunarazteko moduren bat?, galdetzen zuten isil-gordean Rodako Kasinoko buruzagi susmaberek? Zein arazok eragozten

zuen gatazka betiko iraunaraztearren Torres anderearen otoitzak, mezak, errosario eta bederatziturrenak entzunak izatea? Azken finean, ez al zuen erretore jaunak esaten alemaniarrek hereje protestante-aldra besterik ez zirela? Eta frantziarrak? Errege bati lepoa moztu ez ezik suntsipenez sartu ziren hirian 1808an oso setio gogorraren ostean, Arc de Triomf de l'Etoialen, Frantziako Parisen, garaipen napoleondarren artean oroitua bera, ohore aski zalantzakorra bestalde. Hitz egin al zitekeen Albion doilorrari buruz, Sàssolako baroiak aipatu bezala, Gibraltar eta beste laidoei buruzko ika-mika garratzetan liskartu baino lehen? Azken buru, jasotzea zegokien kolpe batengatik ez zegoen iletatik tiraka aritu beharrik. Batik bat liskarra hiriaren onerako bazen, hain modu ezustekoan bezain espektakularrean... Izan ere, Jainko hori –zioen Campsen alargun andereak–, noiz ikusi zen antzeko gauzaren bat? Kubako gerra-garaian halako mugimendu bat egon zen, baina ez dago alderatzerik oraingoarekin. Behin hilakintza abiatuta, ikatza etengabe eskatzen hasi zen Bartzelona: tonak eta tonak, lignitoko metak eta metak, gerrak bultzada ez sinistekoa eman zion industriako baporeak elikatzeke. Arroak, mineralaren eskari ezohikoak astinduta, espabilatu beharra izan zuen. Ustiatzen ari ziren meatzeak jo eta ke lanean hasi ziren. Antillako gerraren oparotasun efimeroaren ondoren itxi zirenak ostera funtzionatzen hasi eta berriak ireki ziren. Ibai-ontziaren flota ez zen iristen eta berriak eraiki behar izan ziren minerala Ebrotik behera trenbideko geralekuetaraino garraiatzeko. Nasak berriztatu egin ziren, bikeztatzaile-inurritegi bihurtu ziren. Meatzetan, ibaian, edonon behar zen jendea. Kanpotar-andana iritsi zen lan bila, hiria jendez gainezka zegoen. Merkataritza, ordurarte ahul, animatu egin zen. Kale nagusia, azokako plaza morisko zaharraren eta lehen harresiak gainditu eta XVIII. mendean bigarren nukleo bat egitera behartu zuen zabalgunearen artean, dendaz bete zen: erakusleiho distiratsuek Bartzelonako berrikuntzak erakusten zituzten Aleix de Segarrak egindako errotuluetan, zeina, ibai-ontzien eta jabeen erretratuak margotu ez ezik, merkatariek enkargatzen zizkioten publizitateko apeutan bere fantasia erakusten dibertitzen zen.

Birjina Martirien Aretoan, ardoen gorritasuna botilen eta kopen kristaletik jankideen masailetara igarotzen zen; mahaia hiriko jende ospetsuaren hainbat gradutako asetasun gastronomikoen erakusketa bat zen, murtxikatze eta degluzioko mugimendu nahitaezkoek astinduta eurak. Baroiaren kasuan motelak eta lantsuak gertatzen ziren hagin batzuen faltagatik –dentista eskarmentatu batek ez zituenak ordezkatu nahi, aurretik ordaindu gabeko hainbat faktura kobratu baino lehen–, eta nabarmen-nabarmenak alkatesaren kasuan okotzeko garatxo beltzagatik: eskrezentziak Jaume de Torres ernegatzen zuen gora-eta-behera bihurtzen zuen matrailezurren mugimendurik ttikiena.

Gosea asetzen zen neurrian, kasu batzuetan kronikoa zena, gero eta suhartsuago mintzatzen ziren jauntxoak. Postreetan, zalaparta gorgarriarekin bor-bor zegoen aretoa. Alabaina alaitasuna pikutara joateko zorian egon zen Sàssolako baroiak Carlota andereñoarentzat egindako oso brindis barrokoagatik, zeinean mundu guztiak Hipòlit de Mora –une horretan krema-platera baten gutizian galduta bera– lotsati eta urduriarekin ezkontzeko itun familiarra azaleratzen zuen, alusioz betea. Beste jankide batek, Salleres alargunaren meatzeen administratzaileak alegia, kopa altxatu zuenean lignitoari esker etorritako prosperitatea betikoa eta gero eta handiagoa izan zedin, Sadurní Romagueraren ahotsa, amorru eutsiagatik ziztrin eta tentsoa, brisa izoztua balitz bezala pasatu zen mahai gainetik. Jauntxoak isildu egin ziren, izututa, lurdun handiak bere hitzak ateratzen zituen bitartean: zenbateko prezioa ordaintzen zuen hiriak arrakasta zalantzakor hargatik? Zer gertatuko zen lurrarekin jendeak husten jarraitzen bazuen meatzetan eta ibaian sartzeko, hamabosteroko soldata ziurraren amukiak gutiziatuta? Lurra zen gizartearen oinarria. Romaguerak hainbeste mespretxatzen zuen ikatza, ez zituen lignito-meatokien indusketarik ametitzen bere lur-sailetan seme nagusiaren inpotentziaren aurrean.

Lurra ez zen beste edozein gehiegikeria, ordena naturalaren iraultza, nahasmendua, kaosa zekarren.

Lurdun handia azkar eta oparo mintzatzen zen. Haren andreak ez zekien nora begiratu; jakitun zen, batik bat emakumezkoek bere gizonaren portaeragatik umiliatuta ikusteagatiko asetasunez begiratzen ziotela, azken finean gizonaren irteerak aski ezagunak baitziren. Soilik Malena de Segarra, Aleixen izeba politikoa, martiriaz errukituta eta sermoiaz lepo, mozten saiatu zen jatunak distraituren zituzten komentario friboloa eginez. Baina kale Nagusiko bere arropa-denda berriari buruzko hitzek ez zuten erantzunik izan. Lurdun handiak begirada basatia bota eta langileen pretentsio jasanezinen kontrako jarioan jarraitu zuen, gero eta lotsagabe eta erreibindikatzailagoak baitziren; jarraian hiria, gerra europarraren eta meatzeen prosperitatearen ostean, hondatzera eramandako endekapen moralak erasan zuen. Jatun gehienak espantu hipokritekin hasi ziren. Erretoreak, adimenak, libazio ugariarekin motelduta, burukada gaitzesgarriak aurreratzen zituen abadia-kutsuko partsimoniarekin, eta andreak eskandalizatzeko prestatzen ziren, alde aurretik zehatz-mehatz bazekitena entzutean.

Zeinek uka zezakeen deabrua, Satanas bera, hiriko gauaz jabetzen ari zela? Noren obra izan zitekeen, bestela, erretore-etxearen aurre-aurrean irekitako Eden zeritzan orgia-zulo hura? Galbide- bizio- eta alproja-zulo –erretoreak igandero meza nagusiko sermoian jaurtitzen zituen ideiak errepikatzen zituen Romaguerak–, belar txarra zen Eden, higuinik gabe atera beharra zegoen. Alkatea, Gelabert de Móra jauna, Hipòliten aita, eskola-maisu baten eta Beltran doktore hiriko bi mediku gazteetako baten artean eserita, aipatua sentitu zen eta, krema-goilarakada eta pattar-trago baten artean, hilabete gutxitan ugaritu ziren establezimenduen legalitate eskrupulosoak argudiatu zuen. Edenek eskakizunak betetzen bazituen, zer egin zezakeen agintaritzak halako kasu batean, jokoaren mozkinetatik zati bat isilean sakelaratzeari buruz alkateak aipatu ez zuen xehetasunaz gain? Pere de Tobesen aita etxea kartatan galtzen bazuen; Joaquin de Tamariuk Simoneta Tamburini koristarekin jarraian hiru gau pasatzen bazituen lokaleko kamerinoetako batean, eta bere andrea, arroz-hautsen hodei artean, kolonia-uren apurketa, ile-tiradizo, harramatzkada ugari eta deabruaren eskandaluarekin, indarrez erreskatatzera bazihoan; Eustaquí Salvadorrek eutsiezinezko grina-older batean Filomena London, ezizenez Casilda Valls, Tarragonako alabarekin alde egiten bazuen; bikeztatzaile suhartsu batek, emankizunaren erdian, eszenatokira igo eta korista bati hozka egiten bazion (alkate jaunak ez zuen puntu zehatza aipatu); bariatate-emankizunak amaitzen ziren eran amaitzen baziren (alkate jaunak ere ez zituen xehetasun lizunak aipatu, han emazteak zeudelako); hori eta are gehiago gertatzen bazen ordena publikoa nahastu gabe, zer ikusteko zeukan alkateak arazo hartan?

Carlota de Torres andreak denbora behar izan zuen jakiteko, Estefania d'Albera andreak – bera baino urte batzuk zaharrago eta afarira gonbidatutako aingeru-taxuko nesketan eratsuena bera– zehaztasun-ilara erantsi ahal ziola alkateak nahitanahiez pudikoa izan behar zuen informazioari. Baina damatxoak, krema-platera zilarrezko goilaratxoarekin irensten lanpetuta, ez zuen egokitzen jo Edeneko maitasun-erresistentziako errekor berriak bertaratuak jakinaraztea. Ordura arte ascótar nabigatzaile baten esku, titulua Cebrià de Sansaren eskuetara pasa zen duela bi gau, honek, ofizioz marinel, zortzi aldiz jarraian larrua jo zuenean korista batekin epaimahai fidagarri baten aurrean, ascótarrek Simonetta Tamburiniarekin seigarrenean amore egin zuen bitartean. Ez zuen ere egoki ikusi aurreko astean Edeneko ganberazain eta koristen artean egindako bular-lehiaketako irabazlearen izena publiko egitea, ez eta gau hartan Birjina Martirien Aretoan batutako bakoitzak kabaretean zeukan izena izendatzeko hitzak aditzera

ematea. Zergatik esan behar zuen Arquimedes Quintanak, larunbatero, bilar-mahaiaren aurrean zutik, erregearen aurka oihu, burgesen aurka kristorenak jaurti eta, azken traka bezala, Errepublika aldarrikatzen zuela, Aleix de Segarrak, musikari ez ezik margolaria bera, Riegoren himnoa, meatzari eta nabigatzaileen artean oihukatua, pianoan jotzen zuen bitartean?

Hauek eta beste informazio batzuk erantsi ahal zizkien Alberako andereñoak hiriko lehen agintariaren hitzei. Baina ez zuen egin, agian udal-epaitegiko idazkaria ez konprometitzearren, harengandik jaso baitzituen txantajea bitarte: Edeneko gauak azaltzen ez bazizkion, etengabe mehatxatzen zuen doilorrak –deitoratzen zuen funtzionarioak foiletoiko adjektiboekin–, beste inoiz ez zela moja-jantziz mozorrotuko felazioa egiteko –zeinean andereñoa birtuosismora iritsi eta funtzionarioa burtzoratzen zuen–, ezaguna zenez ihauskatzeetan kode penaleko artikulua osoak botatzen zituela.

Bitartean, Romaguerak alkateari ihardesten zion. Gandorra jaitsi gabe, lurdun handiak diruaren legenarraren arriskuak kondenatu, meatzariei buruz epelak esan eta gatazkak aurreikusten zituen ordura arte bake-eredu izandako estraktu-fabrikan. Zeinek geraraziko zituen aurrerago langileak, hasiera-hasieratik ez bazituzten haien pretentsioak moztzen? Jendailari jakinarazi behar zitzaion eskertu egin behar zituztela jasotako soldatak; belar txarra atera egin behar zen... –errepikatzen zuen, inkisidore-moduan eta garrazki, baroiaren atxikipen arranditsuarekin.

Camilak hedatutako hainbat gauzaren artean, hiriaren memorian irarrita geratuko ziren Romaguerak gau hartan esandako hitzak. Neskamearen sumin sekretua probokatu ez ezik, azken finean lurdun handiak madarikatutako jendailako kidea bera, oradorearen mespretxuak –izpitsu eta lehorra, nagia digestibo orokorraren baitan– Jaume jaunaren amaginarreba sumintzen zuen. Anfitrionaren betebeharrak ahaztuta, lehertzeko zorian zegoelarik, musikaren zalapartak plazan aretoaren mahaiko kristala tintindu, lozorro koipetsuan murgildutako jankideak azkartu eta balkoira bultzatu zituen Jaume jaunak Carlotaren omenez alokatutako Harmonia Fluvial bandaren kontzertua entzutera. 1970eko apirilaren 13an, onomastika hartatik urte askotara, neskameek, Carmelak, Sofiak eta Teresak –Camila, Adelaida eta Veronicaren ondorengoak eurak– Jaume jaunaren erretratua garbitzen zutelarik, orainaldia modu menperatzailean inposatzen zen Carlota de Torresen oroitzapenen gainean. Udazkeneko gauean lainoz blai, bandak kontzertuari hasiera emateko erabaki zuen pasodoblearen ordeez –Straussen baltsa nahi zuen helikoi germanofiloaren eta Verdiren martxa batekin tematutako aliatuen aldeko bonbardinoaren arteko lehia modu salomonikoan konponduz–, Birjina Martirien Aretoko leihoetatik Pasqual de Serafí hilobiratzearen latinkadak sartzen ziren.

Txito bat bezala izerdituta, erretorea hatsa galtzen zihoan kapa plubialaren azpian, ohiz baino gogaikarriagoa udaberriko goizaren epeltasuna zela-eta. Nekez igo zen elizaren ateko eskailera-bururaino, zeinaren pean Pasqual de Serafíren zerraldo-eramaileak gelditu ziren; plaza jendez betetzen zihoalarik, pixka bat suspertzeko probestu zuen hiletei ekin baino lehen. Moilako Kafetegiko bezeroak jendetzara gehitu berri ziren, Estanislau buru. Gizonak hausnarketa-sortari ekin zion giza izaerari buruz, bizitzaren amets iheskor eta destinoaren ziurgabetasunari buruz, kolpez kafearen prezio-igoera gehiegizko eta ezustekoari buruz erretolikarekin hasi baino lehen. Monologoa Nelson zaharraren eskuineko belarri ondoan egindako etsipen-intziriarekin amaitu zen, erretoreak hileta-leloa abiatu zuenean.

Patroia ez zen jabetu; ez apaizaren latinkadak ez Nicolau de Monegre, Honorat del Rom, Eduard Forques, Horaci Campells eta Manolet de Robesen artean egindako berbaldia entzuten zituen. Arquimedes Quintanaren urteurrena zela-eta kafeteroak eragindako alusioak ekarritako oroitzapen-multzoa ez zen gutxitzen: kontrara, gelditu gabe hazten zen bere buruan. Edozein hitzek, edozein sentsaziok memoria-hariak bueltatzen zituen; zatiak buru-hausgarri baten pean bezala elkarlotzen ziren, Afrikako beteranoaren irudi zaharrak marrazten zituen. Hileta-otoitzak amaituta, segizioak kale Nagusia hartu zuenean, eta Nelsonen taldea Alargunen moilaren kalezuloko kantoiaren ondotik pasa zenean, patroiak ezin izan zuen astinaldia ekidin: portxe azpian Torres i Campsen korta zaharrak zeuden, eta, segizioaren marmar akonpasatu eta itzalduen gainetik, Trèvol mandoaren irrintzia entzuten zuela iritzi zion...

Irrintzia benetan entzun zen kalezuloan 1916ko egunsenti lanbrotsu batean, Trèvol, *Carlota* ibai-ontziko peoi batek uhaletik gidatuta, kortako berotik neguko hotzera atera zenean, Alargunen moilaren jaitsieran abiatzeko. Izotza eta ordua gorabehera, Ebroko nasetan ezohiko animazioa zegoen; aberearen etorrera, ttikia baina sendo eta bizia bera, komentarioak sortu zituen bertaratuen artean, gehienak nabigatzaile, behargin eta meatzariak zirelarik. *Carlota*ren palankaren azpian, Jaume de Torres jauna, konfiantzazko gizona lagun, Arquimedes Quintanarekin mintzatzen ari zen, zeinak kapela beti bezala Tetuango batailan galdutako belarrirantz begira zeraman. Patroiak tamainako urradura beltz dezente bat zeraman masailalboko hezurrean. Mintzo zen bitartean, min-keinu bat egiten zuen sarri. Oso mimetismo bitxia zela-eta bertaratuetako beste batzuek antzeko keinua errepikatzen zuten moilaren inguruan. Jordi Ventura Salleres alargunaren patroiak eskuineko eskua astintzen zuenean; Tomàs de Xerta Torres i Campsen peoiak, ezkerreko begia, hanpatuta eta ubela, ixten zuen bakoitzean; Jaume Glerak bolumen anormaleko ezpainak zabaltzen zituen bakoitzean... Alabaina, zauri-sortak eta hark eragindako jendeak –moilan zeudenak baino gehiago– jatorri berberean pentsarazi ahal zuten arren, garaiko kronikek (anonimoak, beti bezala), ez zuten arazo honi buruzko informaziorik ematen. Udaletxeko aguazilak –zeinak arazoaren jakin-minez eta epaitegiko idazkariaren iritziaren kontrara ikerketa bat bideratu zuen– apenas abiatu orduko utzi egin zuen, masailean hantura bitxiagatik eta Sorginen kalezuloan ustez inplikatuetakoz batzuekin izandako ezusteko enkontruaren ondoren agertu zitzaion min ziur aski

erreumatikoagatik. Gau berberean, Ebro ibaia gainditzeko sistema aldatzeko proiektua zela-eta Eden en buila egon zela zioten zurrumurruak konfirmatzeko proba-falta erabatekoaz informatzen zion idazkariak Estefania de Alberari –funtzionarioarekin oheratuta bera, amaren ustez santa Casildaren gaueko bederatziurrenean zegoela, eta doilorrak moja-jantzien azpian ligero gorria erakutsiz etengabe probokatzen zuelarik.

Hego-mendebalak putz egiten ez zuenean eta ibai-ontziek ezin zutenean belaz igo, eskifaia zen ur-bazterretik zirgatu eta ibaian gora garraiatzeko oso lan gogorra egiteko ardura zeukana. Gizonak abereez ordeztu nahi zituzten orain. Proiektuak, lignitoaren garraioa merkatzeko Torres jaunak bultzatua, susmo asko piztu zituen, eta ematen zuen Edeneko ustezko builak argitu zirela. Baina funtzionarioak ukatu egiten zuen buila hura gertatu izan zenik. Alabaina –ihes egin nahirik– benetan gertatu zela hipotesi modura onartuz, ez zegoen inon jasota ontziak abereekin garraiatzea, Ebroren deltako lur laueta aspalditik onartua bera, aldiz, ibaian gora –non zirgabidea maiz malkartsu, zail eta, leku batzuetan existitzen ez zen– ez zela bideragarria izango esan zenik. Ez zegoen finkatzerik ere ustezko hizketaldia pozoitzen joan zela Jordi Ventura Salleres alargunaren patroia iradokizun batzuekin, zalantzarik gabe Arquimedes Quintanarekiko betidanik izandako bekaitzak inspiratuak eurak –jarraitu zuen idazkariak Albera andereñoari informatzen, ordurako izterreko azal pixka bat, ligerotik goraxeago, erakusten ari zen urdanga hari, alegia. Afrikako beteranoa, bere urteak urte, *Carlota* Torres i Campstarren ibai-ontzi kuttunenarekin probatzen saiatuko zen. Idazkariaren iritziz, ilargia zingiran bilatzea bezala zen esatea Baltasar Teulak –Jordi Venturak bere amaren bertuteari buruzko zalantza batzuk adierazi eta gero– paretaren kontra bota zuela belarrondoko batekin. Orduko hartan –epaitegiko idazkariaren ahotsa apenas entzun zitekeen murmurioa zen Albera andereñoaren erakusketa maltzuraren aurrean, zeina emeki-emeki, galtzerdiak kentzen hasia zen–, hura gertatu izan balitz, segur aski finezien trukaketa meteorikoa gertatuko zen Eden en:

—Putasemea!

—Potrozimela!

—Kabroia!

Eta jarraian, iskanbila: ganberezainek eta koristek builaren zarata histerikoari maremagnuma gehituko zioten. Edena guda-zelai bihurtuko zen, eta, urte batzuk beranduago, kronistek gozatu ahal izango zuten zalapartaren deskripzioarekin: Arquimedes Quintanak Lignits Feliça meatzeko nabigatzaile baten partetik jasotako ukabilkada eta Afrikako beteranoaren erantzuna kontatzea, zeinak konorterik gabe utzi baitzuen matrailezurrean emandako kolpearekin; Jordi Venturari Tomàs de Xertak emandako ostia-zaparradarekin aztoratzea, hark besteari muturreko amorratua eman berri baitzion; Aleix de Segarraz errukitzea, ez baitzuen ez platerrik ez ontzirik apurtu pianoaren gainean, peoi ascótar batek besterik gabe emandako garondoko batekin muturrez jo ondoren; Claudi Campells –gerora haren kargua hartuko zuen Horaciren aita– hiriko serenoaren sarreraz mintzatzea, zeinak, bilareko makila barra atzean ezkutatu ondoren inork esan ez zezan abantailaz jokatzeko zuela, borrokan sartu eta ipurdian ostiko emanda kafeteroa kolpatzen tematutako zirgalari miravetar bat lurrean zambuluka jaurti baitzuen. Era berean kronistek jaso ahal izango zituzten korista batzuen oihuak –zeinak Sallerseko hainbat marinelek, egoera baliatuz, bilarreko mahaiaren azpira herrestan eraman zituzten azpiko gonon zurrumbiloz– edo Joan Canyes zapatari libertarioaren guda-oihua, La Carboníferako meatzari baten ezkerkada batek mundua bistatik galarazi aurretik:

—Heriotza jauntxoei! Gora Bakunin!

Alabaina –epaitegiko idazkariaren ahotsa zezel hutsa zen Estefania d’Albera andereñoaren sexu abegitsu eta gosetiaren kizkur beltz-beltzen ikuskizunak eragindako listu-irensketa zaratatsuek tartekatua, neska lore brodatu eta zetazko mendelez hornitutako ohazalean hanka-zabal zegoelarik–, haiek denak faltsiak ziren, burua nahasteko gogoa, asmakizun doilorrak. Goiz hartan Arquimedes Quintana *Carlota*rekin zihoala-eta moiletan bildutako gehienek erakutsitako zauri-sorta zoriaren produktua zen, eta ez zegoen zertan buelta gehiago eman.

Pasqual de Serafíren segizioa luzatu, murriztu edo gurpil-zoroan sartzen zelarik erdi aroko hiriaren joan-etorri eta gora-beheretan, Nelson zaharrak *Carlota*, hamabi lignito-tonarekin zamatuta, Alargunen moilatik emeki-emeki aldentzen ikustearen garraztasuna gogoratzen zuen. Hanka bat bendatuta upel bat kargatzean izandako istripu baten ondorioz, lurrean geratu behar izan zuen ontzi barruan gehien behar zutenean. Arquimedes Quintana zaharrarekin urte bete nabigatzeak marinel oso bihurtu zuen eta, gazte izan arren –zeinagatik ez zeukan baimenik Edeneko builatan sartzeko –patroigai ontzat hartzen zuten, zaharraren ondorengotzat, zeinak, belarri moztua adi baino adiago, bidaia zail bati ekiten zion behelaino dentsoko goiz hartan, non ontziaren belztasuna berehala desagertu zen arraunkada konpasatuaren arabera.

Bi egun beranduago, gorantz zetozen eskifaien ahotik jakin zuten Arquimedes Quintana Tortosan porturatu zela, nondik itzulerari ekin eta zirgalariak gurdi-abereekin ordezteko proba egin behar zuen.

Orduan giroa kolpez aldatu eta kezka eta zalantzak hasi ziren. Abendu hotza apiril bihurtu zen: lainoak desagertu ziren, bafada epela hedatu zen bailaran, zarra-zarra hasi zen euria. Zaparraden eraginez, Segre eta Ebro ibaiek neurririk gabe hazi ziren; ibai-ontziak ezin ziren abiatu. Laugarren egunean, euria bat-batean gelditu zen; bosgarrenean, Ebro ibaia, ur odoleztatueta marru sumina, jaisten hasi zen; seigarrenean, ekaitzak geldiarazitako lehen ibai-ontziak iritsi ziren, baina *Carlota* ez. Jaume de Torres jauna urduri zegoen, presente zeukan memorian *Ràpid* ontziaren naufragioa eta, ezbeharraren beldurrak larriturik, ez zen ez meatzera ez fabrikara joaten; denborarik gehiena Birjina Martirien Aretoko balkoian ematen zuen, begirada ibaien konfluentzian iltzatuta. Moiletan jendeak urak behatzen zituen *Carlota*ren silueta bistaratu nahirik, baina Pere Botesen alargunak –ontziaren erresistentzia biderkatu eta zirgalariak nekatzeko uretara upel handi bat soka batekin ibai-ontziaren popara lotuta botatzeko ohitura zeukan putasemearenak, alegia– segurutzat jotzen zuen Hiriko Plazan, emakume asaldatuen talde baten aurrean, ontziaren naufragioa eta eskifaiaren heriotza. Harpia beltz, lodi, hortzik gabeak enfasi berezia ipintzen zuen Arquimedes Quintanaren amaieran: aingirek irentsiko zuten aspalditik mugiezinak ziren gauzak aldatzeko ausardiagatik zigor modura. Kafetegi eta tertulietan, bezeria iradokizunetan desegiten zen. Rodako Kasinoan, jauntxoek, Romagueraren satisfakzio nabarmenarekin, galdutzat jotzen zuten *Carlota*. Edenen, non ebanistek eta igeltseroek sekula gertatu ez zen iskanbila baten txikizioak lasterka batean konpontzen zituzten, inork ez zeukan umorerik jokoari ekiteko. Aleixek, sekula jaso ez zuen jipoi baten ondoren kokotea minduta, bere ezinegona abeslari, ganberazain eta koristen atsekabeari gehitzen zion: haiekin igotzen zen zabaltzatik Ebro ibaia miatzera edo botikariarekin mintzatzen joaten zen, zeinari etorkizuneko kronikek Honorat Kafetegikoa deituko zioten, oraindik jaio gabeko bere seme eta oinordekoarengandik bereizteko. Botikaria bere etxeko teilatu gainean kokatzen zen eta bere letoizko largabista ederrarekin behatzen zuen Ebro ibaia –tresna hura Frantsesaren Gerra garaitik zen familiaren jabetza, birraitonak pistola-tiro batekin zaldun napoleondar harro bat garbitu zuenez geroztik. Hiriaren setioko konbateetako batean ofizialak Segre portaletik trostan sartu eta Arma plazaraino iristea lortu zuen bi hiritar sablez kolpatu

ondoren; hantxe jo zuen bete-beteen botikariaren balak, zeinak gerra-harrapakin gisara konfiskatu zuen zelaberearen poltsa batean aurkitutako largabista ederra. Tresna ez zen mirakuluz lokalizatua izan, eta horrek fusilatzetik salbatu zuen botikaria Sucheten tropek hiria hartu eta etxaldea arpilatu zutenean. Orduz geroztik lente hark izarrak eta planetak, Cabreraren soldaduak karlistadetan, hiritar biluziak eta urruneko belak kontenplatu zituen, baina 1916ko negu hartan ez zuen helburua lortzen: *Carlota*ren arrastorik ez. Zazpigarren eguneko arratsaldera arte –larrimina ia ezbeharraren ziurtasuna zenean– ontzia ez zen largabistaren ikuseremuan agertu, ur arreak gaindituz.

—Hementxe dauzkagu, bota zuen Honorat Kafetegikoak, teilatura igota. Oihua kalez kale hedatu zen, hiri osoa jaitsi zen korrika moiletaraino eta ur-bazterrean lotutako ontziak inbaditu zituen, *Carlota*ri harrera egiteko. Botikariak, Alargunen moilan –nora teilatuko behatokitik lekualdatu zuen– gertakariaren xehetasunak ematen zituen.

—Trèvol mandoa ikusten dut, Pere d’Atura zaputza dela esango nukeen peoi batekin; abereak zirgabidetik ezponda gainditu eta *Carlota* garraiatu zuen. Lortu dute! Arquimedes pirata ere ikusten dut, popan zutik, kaina maneiatuz. Tetuango belarria hazi zaiola dirudi.... Hara! Zer deabru da hau? Zer deabru...?

Jendetzak oraindik ezin zuen ikusi botikariak garbi asko ikusten zuena, eta jakin-minez hartu zituen azken hitzak. Baina behatzaileak ez zuen deus argitzen, sinesgaitzezko hitzak jaurtitzen zituen, ibai-ontzia hurbildu ahala gero eta handiagoak.

—Zer gertatzen da, Honorat? –galdetu zion antsiaz Jaume de Torres jaunak, ontziralekura iritsi berritan.

—Arranoa! –erantzun zuen besteak, *Carlota*ri largabistarekin so egiteari utzi gabe.

—Honorat, arranopola, esango al didazu zer gertatzen den?

—Ekarri zituen ama...

—Honorat, ostia! –Jaume jaunak, ernegaturik eta besotik oratuz.

—Ez ukitu, gizona, dena dantzan jarri eta ez baitut deus ikusten!

—Utz iezadazu traste hori!

Jendetzaren builak Jaume jaunaren eta botikariaren arteko tira-bira moztu zuen. *Carlota* hirira zuzen etorri eta Arquimedes zaharraren ahotsa entzun zen, ertzeko peoiari aginduz aska zezala mandoa ibai-ontziarekin lotzen zuen zirga; ontzia garraiatzeko zereginetik askatuta, abereak ur-bazterretik gora jarraitu zuen, Ebroren ahoaren bila estraktu-fabrikaren ia-ia aurrean kokatua bera. Jada ez zen tresna optikorik behar botikariaren harriduraren iturria ikusteko; hasieran orban gorritzat bat baino ez zen, *Carlota*ko buztin-karga babesten zuen arroz-lastoaren gainean; baina ibai-ontziaren gutxinakako hurbiltzeak xehetasunak gehitzen zizkion kolorezko masari. Goresmen-oihua altxa zuten moiletan. Hala ere ezinezkoa zen igartzea txaloen zein zati zegokion Arquimedes zaharrari eta zein eskifaieri, bidaiaren arrakastagatik, zein Françoise Herzogen figurari, Edeneko gauetako izar berri eta distiratsua bera –luma gorritzat eta adats gorrien eztanda bikaina–, zeinari Madamfransuà deituko zioten betiko.

Edeneko artista berriaren lehen emanaldien eraldian, bezeroak bidaiaren gertakariez jabetzen joan ziren. Arakatu zuten nola Arkimedes zaharra, istoriorik gabe jaitsi eta behin ikatza

deskargatu ondoren, garbitu, ileapaindegira bizarra egitera joan eta, arropa aldatuta, lau peoiekin, haiek ere patena bezain garbi, hiriko hotel batera abiatu zen. Tertulietan zigarroen suanda eta ron-usainen artean, hiritarrek peoiaren ahotik zehatz-mehatz jaso zuten *madamarekin* izandako enkontruari buruzko albistea, zeina haien zain zegoen, Edeneko jabeak, Arquimedes Quintanak eta hirurek akordua egin ondoren –Aleix de Segarra ez ezik sekretua ezagutzen zuten bakarrak eurak. Bezeria *Carlotaren* eskifaiaren hunkidura berberarekin urduritzen zen, haiek umore, miresmen eta begietan susto pixka batekin kontenplatzen zuten edertasun hura ikusi zutenean bezala. Zirgalarien atzelariak xehe-xehe azaldu zuen baita ere artistaren ekipajea ibai-ontzira lekualdatzea: aurrelaria eta bigarren peoia zinkeko bainuontzi handi batekin zamatuta zihoazen; atzelariaren hurrengoa eta hoteleko morroi bat bi kutxekin, eta azkenik *madameak* ixten zuen segizioa Arquimedes Quintana besotik hartuta. Atzelariaren iritziz, andre ederrak burgoi ematen zuen, itxuraz izuemaile eta barre sendoko erraldoiaren jabe –zeinak ironia onberarekin agurtzen zituen tortosatarrak– talde estrafularioaren ikusmiran ahozabalik.

Aurrelariari hitz eginaraztea zeregin latzagoa izan zen. Arenaleko bikeztatzailearen iritziz, haren puntu ahulez jakitun eta edariarekin samurtu nahirik, zaputzak ez zuen hitz erdirik esan zortzigarren ron-kopa bukatu arte, baina, abiatu zenean, ezin zen gelditu. Trèvol mandoa? Jainkoarren, Trèvol mandoa! Abere fin askoa; ematen zuen zirgatu besterik ez zuela egin bere bizitzan. Ebrok kikildu? Zein ergel edo zein malapartatuk hedatzen zuen halako ipuinik? Nornahi izanda ere, alferrik zebilen. Ez zela erraza izan? Jakina ezetz! Bestela, norena izango zen meritua? Gainera, Benissaneten buztina kargatu zutenez geroztik, lana astunagoa izan zen aberearentzat. Ez zen gauza bera ibai-ontzia hutsik ala txanbil, potin, terreina edo eltzez beteta garraiatzea... Azken finean, gauzak aski ongi funtzionatu zuten, Arquimedes zaharrak peoi atzelariari egindako oihu batzuk kenduta, Frantziatik etorritako anderearen aurrean handiuste agertzeko harrokeriaz baitzebilen. Bi egunetan iritsiko ziren hirira. Baina, bat-batean, Arquimedes Quintana kolpez isildu zen ur-bazterreko peoiari begira, eta geldi geratu zen, mezako santuetako bat bezala...

Aurrelariaren kontakizuna etenda geratu zen Afrikako beteranoak ibaiaren amarruak igartzeko zeukan gaitasun misteriotsua sortzen zuen polemikagatik. Batzuen arabera, arbasoen belaunaldietako jakinduriatik zetorkion. Odolean zeraman jaio aurretik; beste batzuen iritziz –Aleix de Segarrak, batzuetan txantxa txeratsuz, xaxatutako gutxiengo bat bera–, Arquimedes Quintanaren grazia Tetuango batailan mairuak emandako labankadatik sortzen zen: dagaren ebakiak bide sekretua ireki zion ibaiaren ahotsoa entzuten zuen belarrian. Eztabaidan, aurrelariak etengabe irensten zuen alkohola ura balitz bezala eta, historiari berrekitea utzi ziotenean, ahots zalantzatiz egin zuen, azaltzeko, nola zaharrak, urduri, Trèvolen martxa ahalik eta gehien presatu zuen ranbla batean babesteko, ezpondako masia hustu batetik gertu. Handik gutxira, airea sendotu egin zen, zerua ilun bihurtu, oso zaparrada indartsua Ebroren azala zulatzen hasi eta ibaia hari lurkaraz tartekatzen hasi zen. Ekaitzaren eta uhaldiaren hasiera azaltzen zuenean, ronak neurritik gora nahasten zuen narratzailearen burmuina. Orduz geroztik, masiako egunei buruzko kontakizuna, eguraldia lasaitu eta urak jaisteko zain, zezel hutsa bilakatu zen, zeinetik bezeroek ez zuten deus ulertzen. Halako moduan non inork ezin izan zituen baietsi Madamfransuàk hirian oinak jarri orduko uriola-garaian Arquimedes Quintanak izandako maite-aferen inguruan hedatzen hasi ziren zurrumurruak.

Bidairenen arrakastaren ondorioz, uztarriko abereekin zirgatzeko sistema berehala erabili zen arroako meatze guztietan. Bakoitzak bere kortak instalatu zituen moilako kalezuloetan, eskifaiak

berrantolatuak eta garai bateko zirgalariak, mandoek ordeztuta, peoi modura pasa ziren nasetatik atera eta ibaietako trafikora gehitzen ziren ibai-ontzi berrietara.

Ez zen berritasun bakarra izan ura baino nabigazio-sistema zaharrago batean. *Carlotaren* bidaiatik hilabete batzuetara, jakin zen Salleres alarguna egundoko ibai-ontzia eraikitzen ari zela, ibai-ontzirik handienarena baino tona-edukiera askozaz handiagokoa, azkon baten gisara nabigatu eta lignitoz kargatutako pontoi eta txalanak garraiatu ahalko zituen. Albisteak haserre sekretuak sortu zituen Birjina Martirien Aretoan eta itxaropen handia toki guztietan, Rodako Kasinotik hiriko tabernarik xumeeneko tertulietaraino. Inork ez zituen xehetasunak ezagutzen: Jaume de Torres jaunak konpetentziaren ekitaldiak zelatarazi zituen, proiektuan lanean zebilen jendea erosi eta Aleix de Segarrari, asmakizunaren kolaboratzaile artistikoari, mihitik tiratzen saiatu zen, baina ez zuen asko erdietsi.

Osteguneko kontertulioek Barca kaleko bikeztatzaileen tailerrean, eten gabeko mugimenduari buruzko eztabaida sutsuak, hilabeteetan jarraituak eurak, alde batera utzi zituzten egun batzuetan, eta ibaiaren bitartezko garraioa irauli zuen ibai-ontzi misterioetsuaren ezaugarriei buruzko kabalak aurreratu zituzten, nahiz eta Pere Metgesek, ideia aldeztu aurretik kontsultatzen ez bazioten, eszeptizismoz eta displizentziaz ezer berritzailearen asmakizunari buruzko zalantza serioak adierazten zituen.

—Zurgina zurgintzan, hargina hargintzan —zioen asmatzaileak, proiektuaren arima zela zirudiena aipatuz, alargunaren administratzailea, alegia. Berak, Pere Metgesek, diseinatu zuen ibaiarekin zerikusi zuen edozein artefaktu, arrantzako kaina automatiko eta ibai-ontzi anfibiotik hasita, hanka artikulatuz ekipatua bera, ur azpiko hondeatzaileraino, zeinari buruz garrantzirik gabeko detaile batzuk besterik ez ziren geratzen konpontzeko Segre eta Ebroko ohandzeetan kokatutako lignito-betak ustiatzen hasi baino lehen; asmakizunak, zeinak Pere Metgesen zorionerako —zioen pribatuan bikeztatzaileak planoak ikusita—, inoiz ez ziren praktikan jarri izan.

Salleres alargunaren ibai-ontziaren inguruko ikusmina 1928ko martxoaren azkeneko alemaniarren oldarraldi handiaren oihartzuna leuntzera iritsi zen, zeina Paris mehatxatzeraino heldu baitzen eta, ziur aski (askoz beranduagoko interpretazioaren arabera, Honorat del Romena hain zuzen, gatazkaren historia ofizialak arbitrarioki baztertua) Adelina de Camps anderearen erregu nekazekinek Estatu Nagusi germanikoan inspiratua izan zen. Dama, Carlotak lagunduta, arratsaldero joan ohi zen bere belaunalkian belaunikatzera —eliz parrokiari birraitonek oparitu eta andereak gerraren hasieratik bertatik irudi berri, lanpara, kuadro eta kandelarioz oparo hornitua bera— hilakintza jarrai zedin debotoki otoitz egitera.

Azkenean, konjetura eta misterioz beteriko hainbat asteren buruan, ontziaren aurkezpena maiatzeko azken iganderako aldarrikatua izan zen. Egun seinalatuan, jendetza jaitsi zen moiletara: ibaira ematen zuten balkoi, leiho eta zabaltzak jendez bete ziren. Andere-taldeek gainean loratu eta udaberriko goiza gorritz, urdinez eta arrosaz margotzen zuten eguzkitakoek. Emazte gerruntzedunak gertakariak oso-oso hunkituta azaltzen ziren, erruz mintzatzen ziren ibai-ontzi bereziari buruzko aieruak eginez, eta aukera erabiltzen zuten alargunaren maitekontuen arabera eskandalizatzen. Xedez aldatu zen kalaka hamaikak puntu-puntu, Edeneko talde alaia plazara iritsi zenean: Silveri Tona gitarra-jotzailea, urdin marinoz eta kanotierez jantzita, Aleix de Segarra hegal zabal-zabaleko kapela bat eta brusa beltzez, zeinaren gainean lepoko bigizta gorri bat kulunkatzen zen, eta Arquimedes Quintana, aldatzeko kapela, txaleko ona eta apreta berriekekin —frantziarraren bainuontzian egindako bustialdiak oraindik lurrinduta— arrosazko jantzi eta kolore bereko eguzkitako batekin apainduta zetorren Madanfrasuàren inguruan zebiltzan denak. Atzealdean, ganberazainak eta koristak, jokalaria eta hiritarrak

mukuru zihoazen. Mordoaren presentziak emakumezkoen indiferentzia nabarmena eta senarren ezkutuko begiradak probokatu zituen, zeinei atzerritarrarengan pentsatze hutsarekin listua zerien. Nahiz eta kosta egiten zitzaion onartzea hain emazte liluragarriak ohazala bandera frantsesaren kolorezkoa izatea, jaun germanofiloak ere ez ziren haren liluratik libratzen. Camps aitonaren begirada gaitzesgarria abeslariaren bularraldera –non aitaginarrebarena topatu zuen– alargunarekin batera zetozen agintarien etorrerarekin batu zen –belztasun izerditsua, lepo-ordez eta korbatez estututa, nondik xisteren tximiniak ateratzen ziren–. Harmonia Fluvialen zarata gorgarriak jarraitzen zien, banda Forques bikeztatzaileak kementsu zuzendutako martxaren interpretazioan oso emana zegoelarik.

Kohete bat aineratu zen alargunaren meatzetik, hiritik ibaian gora hainbat kilometrotara Ebroren ezker aldeko baratzeetako berdean eztanda egin eta uhintxo efimeroarekin orbandu zuen zeruaren urdina. Plazan, balkoietan eta moiletan bildutako jendetza mututu egin zen bat-batean. Marmar urruna, konpaktua entzuten hasi zen, non, haren hurbiltzearekin, traka moduko baten eztandatxoak kateatzen ziren. Burrumba hazten joan zen harik eta jendetzaren oihu unanimeak Ebroren erdian, ibaiaren bihurgune batean, ontziaren agertzea agurtu zuen. *Polifem* ontziak –horixe zen haren izena– ur berdea, lasaitasuna moztu eta, apar-ildo bat atzean utziz, Plazako moilara hurbiltzen zen bitartean, ikusleek prodigioaren xehetasunak bistaratzen zituzten aho-zabalik. Ibaiak bat-bateko dardarizoarekin islatzen zituen Aleixek, nola bapore handi bat, gurpil paladunekin hornitutako ibai-ontzi handiaren kaskoan margotutako kolore alai eta distiratsuak. Brankan, Lleidak eskultore batek zurean tailatutako maskaroi izu-emaileak erraldoi mitologikoa errepresentatzen zuen, zeinak izena ematen zion ontziari; bere begi bakarrak, bekainean kokatuta bera, ematen zuen mesfidantzaz ikusten zuela moiletan batutako jendetza. Brankako alboetan, gorriz margotutako letrak adats gorri eta bular mardoko sirenek eutsitako girlanden artean nabarmentzen ziren, Olga Sacristàrenaren kopia, Edeneko kupletista ezaguna eta Salleres alargunaren konfiantzazko gizonaren maitasun sekretua bera. Ibai-ontziaren barruak beste lore-girlanda bat zeukan eta gurpil paladunen lohi-babesgarria uretako landare estilizatuen sail entziklopedikoa zirudien, zeinen artean zilarrezko aingira sinuosoek harrapatutako karpa, barbo, bagre eta kolakak zeuden.

—Gora progresoa! —alargunaren administratzaileak, une hartan erakutsi nahi zukeen ahots ez hain betearekin. Garai bateko bulegariak, koltxoi-merituengatik administratzaile-kargura goratua bera, oraindik erakusten zuen gauari egotzi ahal zitzaion flakia: alargunak, zalantzarik gabe biharamuneko gertakari historikoak estimulatu, hainbeste zukutu zuen gaua, ezen kupletistaren kamerinorako ondorengo bisita etsigarriki platonikoa bilakatu zen.

—Gora progresoa!, epaitegiko idazkariak, eskuzabal kolaboratuz.

—Gora! Gora! —oihukatu zuten handikiek artisau, nabigatzaile eta meatzarien artean diz-diz egiten zuen kontrapuntu beldurgarria ito ezinik.

—Gora progresoa eta alargun urdanga! —bikeztatzaile batek, oihuka.

—Eta zenduaren adarrak! —jaurti zuen Torres i Camps etxeko patroik batek.

—Egoskor honek zenduaren adar postumoa aipatzen du —zehaztu zuen Claudi Campells serenoak, Edeneko emanaldien foiletoen autore eta puntalakurlo zorrotza hizkuntzari dagokionez.

—Gora progresoa! —andereek, desentonaturik insistituz.

—Gora sozialismoa!

—Gora aingirak!

—Eta igelak!

—Eta alemanak izorra daitezela!

—Ixo, kabroiak!

—Jendaila!

—Maritxuak!

—*Vive la France!* —kolaboratu zuen Madamfransuàk eguzkitakoa suhartsu astinduz eta germanofiloen haserrea probokatzen zuelarik— zeinei marimaisu gaizto batek abeslariaren hitzak itzuli zizkien, haiek ez baitziren iaioak hizkuntzatan. Musika-bandak, abadeak presatuta, oso martxa airosoa jo zuen. Udalbatza kaian jasotako oholtzara hurbildu zen, nondik alkateak diskurtso hanpursa bota behar zuen, kantu suhartsua *Polifemen* ureratzearekin irekitako etapa berriari eta hiriaren etorkizun distiratsuari, ibai zaharren alboan etzana bera. Diskurtsoa, ordea, ez zen sekula bota; alkatea, eztarria garbitzeko eztul egin ondoren, besoak keinu zabalean ireki eta hastera abiatzen zenean, hondamendia gertatu zen.

LLorenç de Veriuren etxearen eraisketari –zeinaz hiritarrak kolektibo modura Pasqual de Serafi hilobiratzen zuten bitartean albotik pasatzean konturatu ziren 1970eko apirilaren 13ko goizean– beste batzuek jarraitu zioten. Baina, suntsiketen hasierako izaera esporadikoek, beren hedatze irregularrak hiriaren gorputzean eta, eraitsitako etxeak hutsik zeudela jabeek bertan bizi ez zirelako, asko diluitu zuten efektua; jendea, gauza larriagoek kezkatuta, soilik azaleko modu distraituari jabetu zen, kroniken baiezpene gerokoak zentzu kontrarioan izan arren eta salbuespen bat edo beste, Honorat del Romena adibidez. Horrela, urte hartako udazkena aurreratuta, dolurik gabe eta bertan oinak sekula jarri ez zituen oinordeko ezezagun bati eskerrak, Edena desagertu egin zen.

Hiru saiotan eraitsi behar izan zen kafe-kontzertua, non arimarik ez zen sartu 1919az geroztik, egundokoa zelako. Erretore-etxearen eta Alargunen moilaren arteko etxe-multzo osoa hartzen zuen, baina ileapaintzaile baten kokapenak garai bateko sarreran eta meatze baten korta Ebrora ematen zuen patio batean itxituraren sarrerak halako moduan zigilatu zituen, non, egundoko hilobia –soilik denborarekin lorategi bihurtu zen labirinto begetalean ehizean zebiltzan katuek bisitatua– hiriaren erdi-erdian mantendu zen ukitu gabe, harik eta berrogeita hamar urte beranduago suntsitzaileek ileapaindegia atzeko aldetik inbaditu zuten arte.

Erortzen lehena kafetegia izan zen. Armiarmen hautsezko erresuma hautsi ondoren, non, armiarma-sareen tranpa mortalean trabatuta –non biktimen karkasak, euliak, erleak, tximeletak, zabukutzen ziren hilobi aereoak– biga eta teilatuen erorketak mostradorearen zeramika valentziarra txikitu zuen. Hautsa sedimentatu arte azaroko goizaren argi zurbila ez zen hondakinetan sartu, zeinetan oraindik geratzen zen Ramir d’Anglesola Edeneko fundatzaileak hustu zuen ron-botila, establezimendu hutsa etsipenez begiratzen zuen bitartean, ia inork gogoratzen ez zuen egun batean betiko itxi arte.

Antzokiaren erorketa, belusezko gortinazko ate handi baten bitartez kafetegiarekin komunikatua, dramatikoagoa izan zen. Altzairuzko kableak lotu behar ziren puntu zehatzen kalkulu txarragatik, makinaren lehen tiradizoa alferrikakoa izan zen; apenas probokatu zuen sabaiaren astindua eta saguzarren ustekabeko hegaldia; hirugarren saiakera arte, beharginen madarikazio-zaparrada baten ondoren, arratoi-multzoen jauziagatik pixka bat kezkatuta, ez zuten eraistea lortu. Eszenatokiaren moldura, Ramir d’Anglesolak beti aldarrikatzen zuen moduan Madamfransuà “Frantziako Pariseko antzokien *vedette* handiaren” emanaldiak hartzen zituen igeltsu polikromatuko fantasia barrokoa, artistaren lehen emanaldiaren karietara estreinatutako banbalinen gainean erori zen, funtzio hura Aleix de Segarra, gertakaria ospatzeko etiketaz jantzita, irribarretsu eta zoriontsuaren pianoaren notak ito zituen oihu izugarriekin eta zalapartarekin hartua izan zelarik.

Eraispenak goizeko aire grisera *madamearen* melodia tentagarrien, Aleixen pianoaren, Silveri Tona handiaren gitarraren edo Edeneko hormetan gera zitezkeen koristen buila probokatzailearen azken oihartzunak libratu zituenean, beharginetako bat izuagatik ernegatu

egin zen, kamerinoak egon ziren puntua erakutsiz batera. Aztoramendu orokorreko une baten ondoren, besteak baino langile lasaiago batek kideak erakutsitako puntura tentuz hurbildu eta konprobatu zuen hondamendietatik azaltzen zen burua ez zela giza hondakin bat baizik pieza eskultoriko bat. Aurkikuntzaren aspektu ezohikoa –buru hartako bekokian kokatutako begi bakarraren begiradaren erruz pixka bat izuemailea– agertzen zituen zauriekin batera –batzuk jada zaharrak, beste batzuk eraispenean sortuak– aurkikuntza estranbotikoa hondamendien artean geratzeko arrazoa izan ziren. Horrela, *Polifemen* brankako maskaroi gaixoak betiko frustratuta ikusi zuen Ebro ibaiko harrotasuna izatearen guraria, Edeneko egun distiratsuetan ernaldia eta orduz geroztik Salleres alargunaren ontzi handiaren aurkezpen-eguneko ezbeharrak ezbehar mantendua, gurpil paladunak mugitzeko ontzian instalatutako hegazkin-motorra egundoko eztandan zapartatu eta Plazako moila aurrean suntsitu zuenean. Zorigaiztoaren ondoren, jantzi urratu eta korrikaldietako harramazka eta izututako jendearen erorikoez gain –jendeak kapela, bisera eta eguzkitakoen artean ihes egiten baitzuen, soilik eskifaia baten hanka apurtuarekin mirakuluz amaitua bera– maskaroia Aleixek erreskate-lanetan erreuperatu eta Madamfransuàren kamerinoan egon zen beste ontzi motorduna eraiki artean. Gutxienez horrela eman zuen haren berri Salleres alargunak, ederra eta indartsua bera, konfiantzazko gizona, bandaren bonbardinoaren gainean, neskato izutu baten eta epailearen kapela sitsatuaren artean, konortea galdurik, abandonatzen zuen bitartean.

Artistak utzi zuen txokotik, erraldoi gizajoa, hiru koloreko ohazalaren gainean eta azpian, frantsesaren maitasunezko gauen lekuko izan zen. Bere olibondoeko zuraren mugiezintasuna egunero dardaratzen zen oheko ikuskizunaren eta bainuko erritualaren aurrean; Arquimedes Quintanaren eta Aleix de Segarraren arabera, gerrako beteranoak *Carlotarekin* igotako bainu-ontziaren barruan abeslariak egunero egiten zuen ohiko xaboitzearen ikusle ohiko, gorputz eder haren heldutasun beteak Poseidonen semearen begi zurruna eta gosetia kliskarazten zuen. Alabaina, maskaroiaren itxaronaldia hutsala izan zen: hiriaren eta ibaiaren etorkizun loriatsua, –eztandaren uhin espantsiboa airean altxatu eta bake-epailearen gainean erorrazai baino segundo batzuk lehenago aldarrikatua– sekula ez zen iritsi. Hilabete gutxi batzuen barruan, azaro aldean, Alemaniak, garaituta, armistizioa sinatzen zuen Kopenhagen; ikatzaren eskaria hiriko meatzetan, ordura arte hain sukartsua, brastakoan jaitsi zen. Meatzetako ontziralekuak industriak baztertutako lignitoz bete ziren azkarki; ibai-ontziak, garraiatzeko kargarik gabe, moiletan gelditu geratu eta hondamendia iritsi zen.

Arrakeroak izan ziren joaten lehenak. Inor ez zen hurbiltzen zamau berdeko mahietara eta jokalaria profesionalak –garai onetan hiriaren gainean oldartu zirenak eurak– laster hanka egin zuten. Nelsonek oraindik gogoratzen du petrolio-argiko gau-horitasuneko hazpegi gaixoen oroitzapena, perdularioek gerra aurreko ibai-trafiko urria hartzen zuten ontzi bakarretan sartzen zirenean. Langile kanpotarrek jarraitu zieten, meatzetan lanean aritzeko edonondik etorrira. Kafetegiak eta dendak ateak ixten hasi ziren. Rodako Kasinoko biago luzeetan, xake- eta karta-partida motelduetan, erretoreak kexu-errosarioa aletzen zuen, dohaintza eta limosna, ezko-erretze eta meza-eskaintzak eskasak zirela-eta. Adelaida santu hura bera ere –hemen erretoreak beti intziri hasperentsua ateratzen uzten zuen kasinoko sozioen interesa erakartzeko asmoarekin–, hura bera ere, lehen hain deprimitua, karitatezko praktikak utzi eta –ai, Jainkoa– nekez hurbiltzen zen elizara gerra amaitu zenez geroztik. Amarruzko zehar-esanek ez zuten eraginik handikien artean –gehienak lehen bezainbeste suntsituak eurak– gatazka europarreko parentesi arrakastatsu baina iheskorren ostean. Abadearen kontuek ez zituzten sekula betiko feligresia eskematikoaren, eta beste heterodoxoagoen –zeinen artean Arquimedes Quintana deabruarena mantentzen zen– ofrenda eta dohaintza urriak gaintzen. Urtero abadeak eskrupulu berberak zeuzkan, eta urtero hausnarketa berberarekin uxatzen zituen,

nabigatzailearen dirua sakelaratzzen zuen bitartean: zein zen bera, Jainkoaren ministro gizajoa, limosna bat baztertzeko errepublikar sinesgabe batengandik etorrira ere, Tetuango batailan festa egin zion mairuaren betirako atsedeenaren aldeko meza baten truke, nahiz eta berak ez zuen sekula ospatzen?

1970eko azaro aldean laino dentsuak eta euri hotzak ugaritu ziren; bai batzuek eta bai besteek kamerinoetako hondakinetan hondartutako erraldoiaren polikromia bigundu zuten; zurezko burua estali zuen lohiak, eta *Polifemen* begia, nabigazioko maskaroia goiz urrun batean Ebro lasai eta distiratsuan, betiko itxi zen 1919an, Edeneko azken egunetako ikuskizuna eramanez.

Urdin samurreko begi-niniak bezeriaren erorketa azkarra kontenplatu zuen. Jaitsiera zela-eta, soilik *madamearen* adarrek hausten zuten zurezko ametsa. Barietateetako buila, Aleix de Segarraren pianoaren hotsa, nabigatzaile- eta meatzari-talde aurkakoen oihu eta borrokak, gelditu egin ziren. Nekez igotzen zen eskifaia atzeritarrik. Jokalari profesionalen presentziarik gabe, egunez egun irauten zuten jokaldiak partida aspergarri, miserable, nerbiorik gabeak besterik ez ziren. Amaitu ziren baita ere jauntxoek bisita sekretuak kamerinoetara, nora basatiki kritikatzzen zutenaz gozatzeko joaten ziren. Eugenio Salbes jaunaren egundoko ilargia —Carbons La Margarida— jada ez zen Candelaria Llança empordatar txikitxo eta eromengarriaren izter artean hondoratzen. Asteazkenetan, Hausterrekoak kenduta, ez ziren Romuald Roderaren deiak entzuten —Lignits Roder a Cia—, zeina bekatuaren eromenarekin begietaraino iristen zen, gero, erruak larrituta, masailak ezpainetakoekin eta arroz-hautsekin zikinduta eta Tamburiniren lurrin gozoa mostatxoan erantsita, erretorea esnatzera itzultzen zen, absolutzio-eske. Oraindik azaltzen zen Harresien plazako botikaria, zeinari Victoria Planesek alde zurreko purifikazioa exijitzen zion bainuontzian, beti azalari zerion botika-hatsa belaki-igurtzi zehatzekin garbitu ahal izateko. Baina ordurako oso-oso arraroak ziren gizon antifazdunaren ezusteko bisitak, zeinak bi edo are hiru koristen kolaborazioa nahi izaten zuen, eta zeinari Arquimedes Quintanak, behin —seriotasun amorragarriarekin, letrak irarrita zeuzkan zilarrezko medaila, enpordatarraren maindire artean aurkitua—, udaletxeko bulegora itzuli zion.

Maskaroiko begi-niniak Jaime de Torresen eta Madamfransuàren arteko elkar ikustearen amaiera ere kontenplatu zuen. Abeslariarekin gutiziatuta zegoen ugazaba baina ez zuen hura erdiesteko unea aurkitzen. Eskopetadaren aferaren ondoren, amaginarrebak konplize-sare batekin bijilatzen zuen aitaginarreba, gona arteko labainkada berriak, alabari nahigabeak —beste aferan ezjakina, zeinari buruz errairik gabeko anarkistaren bertsioa susmo txarrik gabe irentsi baitzuen— eta beste odoljario ekonomikoa saihesteko; izan ere hura, Campsen alargunarentzat, eskandalua ekiditeko, urdangaren aitarengana (zein jarrera faltsua dontzeila limurtuaren malkoak malko!) erreguka joateko umiliazioa bezain mingarria baitzen. Jaime de Torres jaunak putetxeko gau urriekin konformatu behar izan zuen hirirako bidaiaren batean edo bestean, alternatiba bakarra ezkon-oheko hutsaltasunez, zeinak —Veronicaren lekukotzaren arabera, gehiegikeria ausartenera iristen ziren emazteak lotsagabekeriaren erpina kontsideratzen zuen hartan— espantu handiekin eta Edeneko prostitutak bezala gizatzartzeko sentsazio kitzikagarri eta bekatzukoarekin, senarrak zilborrean mostatxo engominatuaren mutur latzarekin atximur egitea onartzen zuenean. Emaztearen lehengusu baten ezkontzara joateko Bartzelonara egin zuen familia-bidaia batean parte hartzea eragotzi zion meatzeko galerietara ikuskatze-bisita batean egindako orkatila-bihurritze egokiak luzaroan antsiaz itxarondako aukera eman zion Jaime de Torres jaunari. Birjina Martirien Aretoko balkoitik kapela astintzen zuelarik, Faióko geltokian trena hartzeko *Carlota* igo zen familia agurtuz, poz-pez zegoen. Abiatu orduko, Jaime jaunak Graells bidali zuen Edenera, gau hartan neskameengandik nola libratu

hausnartzen zuen bitartean. Sorpresa handiarekin bere partetik, albistea ez zen mezulariaren ahotik etorri; Camilak eman zion *madamearen* onarpenaren berri, eta beste zerbitzariak saihesten eta enkontruaren bazkaria prestatzen saiatu zen, zeinean, abeslariak, sosik gabe, Frantziara itzultzeko dirua lortzea espero zuen.

Ordua baino lehen amaitu zen festa. Maskaroiak, beste batzuetan baino bainu luzeago eta janzkera arretatsuagoa behatu zuelarik, kolpez ikusi zuen, *vedettea* joan eta ordu bete egiten ez zuela, nola kamerinoaren atea tupustean ireki eta Madamfransuà sartu, ohean buruz behera bota eta negar batean hasten zen Frantziako kolore nazionalako ohazalaren zerrenda zurian. Abeslariak, kontsolaezin, ez zien ganberazainen eta gitarra-jotzailearen galderei erantzuten. Camilaren iritsierak, frantsesak zerrenda zuria malkoz blaitu eta urdinera pasa berri zenean, ez zituen gauzak ezertan argitu. Neskameak zekien gauza bakarra zen nagusiak –herrentasunak galai paperean gutxi faboratua bera, bazkaldu ondoren damarekin logelara sartzen zen bitartean– oihu bat bota zuela eta, jaunaren besotik libratuz, etxetik alde egin zuela laster batean. Negarraldiaren intzirien artean izen bat errepikatzeak oihuaren puntu zehatzarekin asoziatu zen Camilaren burmuinean. Neskameak egiazen zantzu bat izan zuen baina Madamfransuà bera izan zen bere intuizioaren egokitasuna baietsi zuena: bera zen emakumea, zeinaren besoetan Adelina Camps anderearen neba nagusia Pariseko Frantzian hil zen, artistak – destinoak garai bateko maitasunaren jaioterrira eraman zuela ezjakitun–, etxaldeko pasabideetako familia-erretratuen artean errekonozitu berri zuen txoriburu maite-maitea alegia.

Edeneko hondamenak betiko estali aurretik, 1919ko udazkenaren azkeneko agurren malenkonioa osterara itzuli zen brankako maskaroiaren begira. Ostera margotu zitzaizkion begi-nini urdinean Silveri Tona gitarra-jotzailearen agurrak, zeinak bertsotan agurtzen zituen gonbita garratzean batutako lagunak –Arquimedes Quintana, Aleix de Segarra, Ramir d’Anglesola, Claudi Campells eta beste itzal iraungiak–. Ostera ikusi zuen *madamea* kamerinoa betiko utzi zuenean, galako jantziaren luma gorria ohe deseginean galduta utziz. Gainerakoa –atzerritarraren ontziratzea Alargunen moilan, Camila lagun, zeina gitarra-jotzailearekin zihoan haren haur baten esperoan, eta baita Arquimedes Quintanaren eta margolariaren agurrak ibai-ontzi ascótarrean abeslariaren egundoko bainu-ontzia kargatuz–, ez zegokion kamerinoan ahaztutako maskaroi gaixoari, baizik Ebro udazkendarrari, nondik lehen kaioak igotzen ari ziren.

Bigarren zatia

Hamahiru santuetako uhartea

Baixada de la Ferradurako etxearen suntsiketarik urtebetera, eraispenak ohiko ikuskizunak ziren, tarte handiekin eta jarraipen frenetikoekin, hasierako gaiztotasuna bat-batean berrartuko luketen izurrite ahularen ziztadak bezala. Orduan, kaleetan, non jendea normaltasun fiktizioaren itxura ematen saiatzen zen hainbat zauriren artean, osteria entzuten zen makinaren hots makurra: egun batzuetan hauts mikatzeko hodeiek dena betetzen zuten, harik eta haize-bolada batek eraman edo lur hura gozitzen zuten eurite bakan haietako batek ohiko hil-mihise bihurtzen zituen arte.

Hondoratze bakoitzaren aurretik, aukeratutako etxea hustutzeko estuasuna zetorren, biluzik makinetara eskaintzeko. Horrek susmatu gabeko gauzak zekartzan argitara; urteak eta urteak haiekin emandako jabe berberak, ikustearen ikusteaz asko erreparatu ere egin gabe, harriduraz deskubritzen zituzten orduan. Baina, aurkikuntzek hasieran kuriositatea eta espekulazioak probokatu bazituzten, maiz itsatsita zeramaten hiriko bizi-zatiagatik bederen, berritsuenengan eraginik ez edukitzen amaitu zuten, bitxikeria-sorta amaigabeengatik indargabetuta. Vidal familiak sototik *Mortifer* atera zuenean karranka eta kirrinka artean, jendea indiferente agertu zen. Beste egoera batean hiritarren harridura piztuko zuen kanoia Frantsesaren Gerrako erlikia bat zen, gero olibondo-alor batean abandonatua izan zena Sucheten tropek hiria setiatu eta konkistatu ondoren. 1814an Vidalen herenaitonak jaso zuen –poligamoa ez ezik barberu eta zirujaua bera– zeinak eskua izain, bentosa, esentzien destilazio, afrodisiako misterioitsu, liho-irineko kataplasma eta suge-koipeko txaplatetan hautsita zeukan. Gizon trebea, piezaren kanoi-gurdi hondatua konpondu eta berria balitz bezala utzi zuen arma. Karlistadetan, gordeta zeukan botika-ostetik atera eta Alargunen moilako baterian kokatu zuen hiriaren defentsan kolaboratzeko asmoz eta gogoz, hiria Ebroren bestaldean operatzen zuten Cabrera jeneralaren indarren baluarte liberala baitzen.

Gedarra baino gau beltzago batean, baterian guardia egiten zuen espartingileak ibaian arraunen plisti-plasta entzuten zuela iritzi eta alarma jo zuen inori kontsultatu gabe.

—Karlistak! —oihu egin zuen trabukoa doituz.

Ebroko moiletan, Segreko gotorlekuan eta harresietan zehar errepikatu zen abisua. Zentinelek espartingilea imitatuz desarratu zuten ez bat eta ez bi aldiz. Hiritarrak ohetik altza, lasterka jantzi, armak hartu atakea kontzentratzen zela zirudien defentsatara abiatu eta su egin zuten itzalen kontra. Zazpi aldiz jo zuen kanoiak, zirujauak eta haren hiru emazteek —legala eta bi maitaleak, erabilia bera— zeinei artillero ausartak arenga bat egin zien alde zaurerako antagonismo amorosoa baztertu eta Historiara pasako zen konbate hartan kontzentratzeko, eta kronikek diotenez, barberuak beti maiuskulaz ahozkatzen zuten hitz hura. Tiroketaren ustekabeko pausaldi batean, hiritarrak konturatu ziren ibaitik ez zela ezein zaratarik etortzen.

—Garaipena! —jaurti zuen espartingileak tentsio-unea pasata trabukoa altxatuz— Garaipena!

—Suntsipen loriatsua, ez dugu bat bera bizirik utzi —erabaki zuen barberuak harro, bere gorputza kanoiaren kontra bermatuz, bere emaztez inguratuta, hirurak aurpegiak bolbora-kez estalita, garaipen-deiadarra baluarte baluarte zabaltzen zen bitartean.

Egunsentian, eguzki makartsuak esnatu zituen gotorlekuetan lotan zeuden hiritarrak, nondik ez ziren mugitu borroka arrakastatsuen ondoren, beste eraso baten aukera zela-eta. Zohardiak

gogortuta, nagiak ateraz, sareten artean begiratu eta aztoramenduak mutu utzi zituen: non zeuden karlisten dozenaka hildakoak, moiletan eta inguruetan ikustea espero zuten ontzi etsaien hondakinak? Egunsentiak, laino moreak lausotuta, Ebro patxadatsua argitzen zuen, etsaiaren arrastorik ez zegoelarik. Barberuaren baiespenak –espartin-saltzaileak suharki babestua hain zuzen– goxatu zuen, izan ere haren arabera, defendatzaileen deskargek –zuzenak eta hiltzaileak eurak– etsaia ibaiaren erdi-erdian harrapatu eta korronteak sarraskiaren hondakinak eraman zituen. Ziur gorpu karlisten uholde funebreak miresmena eta beldurra sortuko zuela beheargoko herrietan. Zirujauaren hitzak entzutean, heroi batek baino gehiagok gogoratu zituen agoniako garrasiak eta ilunpetik zetozen balen ziztua, adibidez Vell Senglar Fondako jabearen masaileko urradura, baluarteak igotzerakoan erdietsi zuen karlista baten sable-kolpeari arazorik gabe egotzita, hain zuzen. Etsaiak, ofizial bat bera –oso ongi gogoratzen zuen zurginaren baiespen borobila, erasoaren garaian ostalariaren ondoan baitzegoen–, astebete baino gehiago iraun zuen parapeto gainean sablea altxatuta eta Alexander Molina ostatuko jabeen dinastiako burua errematatzeke prest. Eta hantxe geratu zen harik eta botikariak, Honorat Kafetegikoaren birraitona eta ondorioz Honorat del Romen herenaitona, alegia –eszeptikoa, baina, badaezpada ere karlistarekin errukituta, bataila berreraikitzeak hain postura deserosoan ahazten zuena–, memoria egitea erabaki eta medikuak arazoa ofizial etsaia pistola-tiro batekin likidatuz kitatu zuela gogoratu zuen. Karlistaren irudia, egoera aspergarritik heriotzak libratua, bala errukigarri batek burezurra zulatuta baluartetik erori eta Ebroren korronteak eraman zezan uzten zuelarik, txapela berdea aldamenean flotatuz, medikua –Plazako Kafetegian, Rodako Kasinoaren aurrekaria bera, errealtatean parapeto baten atzean beldurrez dardarka kiribilduta egon baitzen– botikariaren azalpenarekin harrotzen zen. Esker onez beteta bere kasa zabaltzen zuen balentria eta mentalki erabakitzen zuen eskutitz anonimo batzuen infundioak baztertzea, non endredatzeileren batek ziurtatzen zion botikariak, azken finean zaldun akasgabea bera, emaztea lapurtzen ziola.

Mortifer delakoa, izugarrizko borrokaren lekuko, baterian egon zen gerraren amaiera arte olibak jasotzeko zaku-oihal batean bilduta. Gero osteratutako itxi zuten botika-ostean, non ileapaintzaileak maiz ateratzen zion distira, ondorengoek ere jarraitu zuten zeremonia intimoa hain juxtu –non emazte legalaren seme-alabek zein konkubinenek parte hartzeko pribilegioa zeukaten, gau loriatsuko artillera esanekoak baitziren eurak. Kanoi distiratsua zen, beraz, ongi koipeztatua, Vidal familiak ileapaindegiko denda-ostetik 1971ren udan atera eta kalean utzi zuena, biharamunean familiako beste ondasunen artean eramateko.

Karlistaden garaitik kargatutako piezak tiro egin ahal izatea behar bada bere lehenaldiagatik zor zitzaien arreta erakartzeko saioa izan zen eta ez, diogun, gaiztaginen baten obra. Uztaileko gauaren kilkerrek kitzikatutako iluntasunean, sualdia izugarria izango zen, nahiz ezein lekukotzarik inoiz ez egon, faltsurik ere ez, haren fede emateko; aldiz detonazioak hiri osoa alarmatu zuen eta, haren azpian gordetzeko ohetik salto egin zutenak kenduta –pentsatuz aurreko egunean amerikanoek espaziora jaurtitako suziria indarra galdu ondoren atzeraka erori eta Arma plazaren erdian zapartatu berri zela–, mundu guztia atera zen eztabaren arrazoia arakatzera. Alde batera utziz serenoa eta Carlota de Torres –zeinak beroagatik ezin zuen lorik egin eta etxaldeko bigarren estaian leihorik leihorik biluzik zebilen haize-bafada baten zain– inork ez zuen denborarik izan jaurtigaiaren ziztu makurra entzuteko. Teilatuen gainean parabola bat marraztu eta guardia zibilaren kasernako eskortan jausi zen bala, juxtu tokiko komandantearen kaiotetan, non oilo-txikizio izugarria egin zuen. Kipulaz betetako egundoko zerraldoaren agerkundeak –haietan gehienak hozituta– Inozenteen plazako 6. zenbakian, *Mortifer* delakoak baino ikusmin gutxiago sortu zuen –zeinak, azken buru, kasernako hegaztien estermioagatik (gauez eta eskalafoia mesprextatuz) zalaparta bat eta terrorismoagatik ikerkuntza antzua

ekarri zuen komandantearen emazteak eraginda. Hotzikara laburrak, enbase makabroarekin ia estropezu egindako bidaiarien izualdiak eta defuntuaren izena edo haren hilobiratzearen ordua galdetzen zuen jendearen berriketa pare bat izan zen kutxak erakarritako arreta guztia –urte batzuk aurrerago gertatutakoan ez bezala, denbora luzean zer esana sortu zuenean, izan ere 1920ko irailaren lehen astearteko gertaerak neke handiz ahaztu baitziren.

Atanasi Costa ikuskizun bat zen bere bi metro luzeko altuera eta gorputz puskarekin –gehien bat harritzekoak ale ziztrineko leinu batean, beren eskasiagatik armadak beti aberria defenditzeko ohoreaz gabetuak zirenak eurak. Baina jendea ohituta zegoen, ez zuen morroiaren ez bere balentrietan erreparatzen. Atanasik, bururatzen zitzaionean, peoi bezala nabigatzen zuelarik, Nelsonen ibai-ontziaren arbola laguntzarik gabe jasotzea; xaboi bustiko upel bat berak bakarrik ontziaren palankatik igotzea edo urdanga guztiekin larrua doan jotzea gogoko zuenea; Tortosako kapela-etxe bat lapurtzen zuen itsas ofizialordeko bat belarrondokoka kaleratzea; gauzen ordena naturaleko parte ziren. Baina, soilik bizkarrean zeraman neurritik kanpoko gorpua kabitzeko eraikia izan zen hain egundoko zerraldoaz zamatuta ikustea beste kontu bat zen, eta hiritarrak hunkitu egin ziren. Alabaina, lehen sustoa eta gero –koinakaz suspertu behar izan zen eszena makabroa tupustean estropezu eginda konortea galdu zuen Reusko bidaiari bat–, jendea Atanasiri jarraitzen hasi zen. Kale Nagusiaren hasieran, alferrez eta besoan upelak eta erosketako otarreak zeramatzen emakumez osatutako talde dezentea zeukan jarraika. Pasatzen zenaren ahotsa aise hedatu zen: erraldoia Serafí de Llosaren zurgindegira iritsi zenean, jendetza berriak zeukan zain, tailerrean sartuta zurgina kontra egon arren.

Moilako Kafetegian –1919ko meatze-arroko krisitik onik ateratako toki bakarretakoa bera, eta non, urtebete baino gehiago itxi zuten zuzen geroztik, Edeneko bezeria batzen zen– oso analisi fina egin zuten Atanasi zurgindegira iritsi ondoren gertaturiko gertaerei buruz. Erraldoiaren nahiak eta zurginaren erantzuna aztertu zituzten. Artisanak –ilehori jenioduna torero-bokazio sekretukoa bera– adierazi zuen bihotzez poztan zela bestearen berpizteaz (zurgindegian batutako jendeak ondo hartutako finezia eta Moilako Kafetegiko tertulian ere onartua), izan ere, hiltzat ematen baitzuten Beltran doktorearen ziurtagiriaren arabera beste mundura bidali zuen gaixotasun arraro bat zela-eta. Alabaina –pausaldi bat eta ez zuten eginda jarraituz– berak ez zeukan errurik eta, buelta anitz eman arren, ez zuen zerraldoa itzultzea ulertzen. Ez al zitzaion baliozkoa izan? Zerraldoak akatsik ba ote zeukan? Ez, ez da? Berak lana burutu, entregatu eta kobratu egin zuen; gainontzekoa, hots, destinoaren ustekabeko asmoak –zeinetan, bistan zegoenez, ontzi-gidariaren ezusteko berpizkunde sartzu behar zen–, ez zegokion artisau xume bati. Zein ausartuko zen borondate txarrez mintzatzen? Zerraldoa gorputz normal batentzako izatekotan, ez altu ez baxu, ez lodi ez mehe, hitz egitea zeukaten, osteria saltzea oso zaila izango zen arren. Nahi ala ez kutxa hura bigarren eskukoa zen –bigarren heriotzekoa, zehaztuko zuen Honorat Kafetegikoa jaunak–, nahiz eta Atanasiren hondakinak ez ziren bertan sartu, meztitu bitartean berpiztu egin baitzen zendua. Baina nork nahiko zuen hain neurrigabeko kutxa hura, inguruko inork ezin bete zezakeena? Beharbada, eta zalantza, Arquimedes Quintana zaharraren neurrikoa zatekeen. Baina Afrikako beteranoak, krisiaren, Edeneko itxieraren eta Madamfransuaren alde egitearen ondoriozko denboraldi txarra igarota, osteria osasun bikaina eta urtetako soka zeukala ematen zuen... Zurgindegiko jendeak eta baita Moilako Kafetegiko kontertulioek zurginaren hitzak arrazoizkoak jo eta zendu ohiaren erreakzioa goratu zuten. Zurginak adierazpena hausnartu ondoren, jende askok bestea deabruaren ipurtzulotik pasatzea espero edo beldur zenean, burua baiezkoan mugitu, zerraldoa osteria bizkarrean hartu eta etxerako bidea hartu zuen. Jendetzak osteria jarraitu zion. Atanasik –orduz geroztik Atanasi Berpizkunde deitua, alegia–, atea ireki baino lehen, laguntzagatik nahasita eta eskertuta, eskua luzatu zion taldeko lehenari. Zerraldoaren aurrean eta ehorzketetan betidanik erakutsitako

keinuairen aitzinean, jendea ilaran ipini zen automatikoki. Segizioa isila izan zen harik eta –gutxi gorabehera zazpigarren esku-ematean– norbaitek, kezkatuta, doluminaren ohiko formula erabili zuen: mundu guztiak, ohartu ere egin gabe, atsekabetu eta zirkunstantziazko jarrera hartu zuen, eta andreen negarraldi geraezina abiatu zen...

Zerraldoak ganbaran itxita bukatu zuen eta familiak haren errespetua galtzen hasi zen hasieratik. Aldi baten buruan arropa uzten zuten bertan; beranduago apal bat egiteko erabili zuten haren tapa, harik eta kutxa, bere izaera makabroa ahaztuta, etxeko beste edozein traste bezalakoa izan zen. 1971n –Atanasi Berpizkunde bigarrenez eta definitiboki Frantzia hil ondoren, non 1936ko Gerra Zibila zela-eta exiliatuta bizi zen– ilobek kutxa kipulaz beteta kalera atera zutenean eraikina husten ari zirelarik, inork ez zuen historia gogoratzen.

Ispilu handia, dozena erdi trasterekin batera, Sàssolako baroiaren etxaldeko ospetik geratutako bakarra zen. Bigarren baroiarekin hasi eta Aitonako noblezia-titulua erabili zuen leinuko azken kidearekin, hau da, Carlota de Torres andereak bere haurtzaroan Birjina Martirien Aretoko festetatik gogoratzen zuen zahar sitsatu eta patetikoaren heriotzarekin, asiloan, 1920an, amaitutako gainbeheraren amaiera zen. Lurrak eta etxeak hartzekodunen eskuetan galduz amaitu ziren, eta orduan, hiriaren suntsitzearen hasieratik urtebetetzera, etxaldearen azken jabeak, familia zaharrarekin ahaidetasunik gabe, eraitsi baino lehen likidatu egin zuen. Baina idatzita zegoen ispilua, antikuarioek gutiziatutako pieza ederra, ez zela hiritik aterako.

Carlota de Torres andereak Carmelaren ahotik jaso zuen sarraskiari buruzko informazio xehea: sokaren apurtzea, zigorkada bat bezain lehorra, mudantzetako beharginek ispilua balkoitik jaisterakoan; klean sokari heltzen zioten ernegua bizkarrez lurrera jausterakoan; beste beharginen oihuak balkoitik; fatxadako noblezia-armarriaren apurketa, erorketan ispiluaren ertz batekin tupust egiterakoan, eta azken txikizioa. Alabaina gauza bati buruz ez zuen informaziorik jaso: erorketaren tarte labur-laburrean, irudi-multzo handia batu zen ispiluaren azalera hautsezatutan, leiarreko laino hartatik ihes egin nahirik. Orduz geroztik, Salleres alargunaren patrietako bat, Jordi Ventura –plazan ikusmiran zegoelarik ispilua espaloiko lauzetan txikitzen aurrez aurre ikusi zuen bakarra, alegia–, amesgaizto izugarriak izaten hasi zen –zeinetatik, pila bat edabe inutlen ondoren–, Lleidako sorgin batek bakarrik libratu ahal izan zuen gaixoaren burmuinetik Bagra plazako jostunaren eper-zakurrarenera pasatuz. Atsoak sorginkeriak neke handiz errexitatu ahala, zakurra marmarrean, jauzi baldarrak egiten, begiak zuritan ipintzen eta hortzak erakusten hasi zen. Galtzak eta txalekoak urratu, jostundegiko manikiari erasan eta jostun-andrearen gonak hautsi zituen, Sant Francesc kalezuloatik ziztu bizian abiatu eta Ebrora salto egin baino lehen. BI mendean ispiluan gorde eta suntsiketak askatutako irudiak eraman zituen burmuin eroan. Baina zakurra ez zen erotu leinuko fundatzaile Sàssola baroiaren gau grinatsuen irudiengatik –zeina Ameriketako fortuna egin eta Espainietako errege Carlos VI.a Majestateak noblezu ondoren Bartzelonako familia aristokratiko eta suntsitutako emazte gaztearen jaioterrira erretiratu zen. Ez zuten nahastu erretorearen arratsaldeko errosario amaigabeek, ez eta, urte askoz geroago Tetuango batailako heroi baten general-andre alarguna bilakatuko zen Nicanora de Camps andereñoak aristokraziako kide batekin izandako siesta lubrikoek. Zakurraren eroaldia izan zen, leiarren hondo lausoetan ehun urte baino lehenago irarrita egon zen Sàssolako lehen baroiaren agonia eta heriotzagatik.

—Kristau ereduaren baten agonia —xuxurlatu zuen erretoreak, dardarti, baroiaren etsipena sekretuan mantentzen saiatuz. Ez aitortza izugarriaren ondorengo absoluzioak, ez gaixoen

oliadurak ez zuten aristokrataren oinazea biguntzea erdietsi. Hil hurrenaren begi izarigabeek ganberan esekitako ispilu barrokoari begiratzen zioten. Abadearen begietara ikusezin, esklabu izutuak, –zeinen presentzia baroiaren hitzetatik ezagutzen zuen–, lurrun kirasduna isuriz –izerdi sukartsuen bafada-, gorotz- eta ustelduren sunda-nahasketa–, bergantinaren sotoetan sartutako beltzen artean hasi berria zen epidemiagatik errukirik gabe Atlantikora jaurtikiak, ispilutik sartzen ziren. Garai bateko kapitain negreroaren hiletara joan nahi zuten, zeina esklabuen trafikoarekin aberastu zen, eta ez, beti esaten zuenez, tabako-laborearekin eta azukre-kainaberarekin. Gizonen, emakumeen, sakrifikatutako haurren irudiak esklabistaren animarengandik berrogei urte ezkutuan egon ziren; azken unean baroiaren ahulduragatik libratuak, ispilua bitartez itzultzen ziren, non neguko Ebro ibaiak ganbera barruan islatutako argi grisa laino atlantikoa bilakatzen zen. Ispilutik, pistola-tiroak, ontzigainean esklabu egoskorren talde bat garbituz marinelen matxeteen kolpe hutsak iristen ziren; baroiaren begi-nini sukartsuetan ostera marrazten zen kontramaisuaren lepotik oratutako mandinga etsiaren hazpegia, hark kareletik eseki eta ozeanora jaurtitzeko unean.

Sarraskiaren irudiak, Sàssolako lehen baroiaren heriotza-garaian enkistatuta eta etxaldea husten zuten eguneko txikizioak askatuta, betiko galdu ziren Ebron itotako eper-zakur gaixoarekin.

Nasi etxeko ukuiluetan aurkitu zuten Ford zaharra. Jabeek abandonatutako autoarekin suhartuta, –zeinak ez ziren eraikina husten ez gutxi ez asko arduratu–, haurrek, adimenez eta pazientziaz, burdin-pilo hura kalera ateratzea lortu zuten, nora zakurren zaunkek lagunduta, hauts-hodeietan eta armiarma-sarez estalita iritsi zen. Gauez norbaitek komentatu zuen Moilako Kafetegian trastea, segur asko, hirian ikusitako lehen autoa izango zela, baina hipotesia faltsua zen. Lehenengoa ez zen inolaz ere Nasi etxeko kortako fosil herdoildua izan, baizik kale Nagusia, 1920aren hasieran, puzkerka gurutzatu zuen Ford T bat. Txoferrak, hiriburuko meatze-ingeniari bat bera, probokatzen zuen miresmenaren jabe, Arma plazan hiru itzuli emanarazi zizkion, Torrestarren etxaldeko ate aurrean geratu baino lehen, non pertsonaia ofiziala hartu eta ospatzen ari ziren arroko inspeizio-bidaietan ezikusia egin zezan. Ergel hura, meatzarientzat izan ezik, beti ibai-ontziz iritsi eta bere presentzia maiz oharkabea pasatzen zen: langilezain zaharrek adi entzuten zituzten fakultatiboaren instrukzioak, ugariak eta teknizismo pedantez beteak, galeriak zulatu, betak aurkitu, harkaitzei erasan, bideak ipini eta sabaiak zurkaizteko; ibaian ez erortzen bezala saiatzen ziren instrukzio haiek betetzen, eta ingeniari jauna –ezjakin miserable haiengan zientzia-apur bat sartzeagatik puztuta– hiriko bere bulego ofizialera itzultzen zen hitz egitera. Baina, orduko hartan ingeniaria autoz iristeak halako zalaparta bat sortu zuen.

Autotik jaisterakoan, Felixa de Roderesen ahots ozenak jo zuen, bere balkoi kuttunean, plazako ekialde aldean, zentinela betikoa bera. Ingeniaria, hanka bat oraindik Fordaren ointokian, harri eta zur geratu zen burdin-sarera begira zegoen beltzez jantzitako figuraren aurrean; lutoz jantziak munduaren bukaeraren hurbiltasunaren zeinu hutsezintzat zeukan munstro gurpildunaren presentzia. Hiriko jauntxoak ezin izan zuen hotzikara bizkarrezurrean ekidin, Jaume jaunari afaltzen ari zirenean aitortu zionez. Aldiz, albisteak hotz utzi zituen hiritarrak, izugarrizko iragarpenera hain ohituta zeudelarik, izan ere iragarpen horiek eklipse, ekaitz, inauteri edo uholdeak zirela-eta bariazorik gabe egin eta geroago zinematografoaren eta telefonoaren inaugurazioan berreginak izan ziren, zeinak jada ez zetozkien madarikazio jainkotar

edo kataklismo planetario batetik. Hainbeste non Feliça de Roderesen ohiko tribuna Apokalipsiaren Balkoi gisara izendatua izan zen. Ikusleek, beraz, soilik aldzikari ilustratuetan ikusteagatik ezagutzen zituzten ingenio haiek miatzen jarraitu zuten, Jaume de Torres jauna, auzokoaren eszenak lotsagorrituta, aitzakia-sail nahasi eta kezkatuz apopiloa erreskatatzera plazara arrapaladan jaisten zen bitartean.

Erriberako sibilak, ostera bere senetik aterata, predikzio izugarriak errepikatu zituen hurrengo hilabeteetarako, hiritar batek –aitaren partetik Carlota de Torresen osaba bera– lehen autoa erosten zuela-eta. Munduaren akabera ez bazen, autoarena asmatu zuen orduan Feliçak: automobilistaren luzimenduko paseo batean, hirian atzera eta aurrera, galga apurto egin zen autoa Sant Francesc kalezuloaren mutur batean zegoenean. Nelsonek eta bere peoiek, batik bat Atanasi erraldoiak – hamabost egun lehenago hila eta berpiztua bera– plazako moilan irin-zakuak deskargatzen lanpetuta zeudela, Ebrotik txoferra eta bere neskalaguna atera zituzten, jaitziera zorabiagarria kostatik amaitu zen bezala amaituta, durduzaturik eta erdi itota.

Anderea hiriko gertakariei buruz informatuta zeukaten arren, ez Sofiak ez Teresak ez zuten garrantzizkoa ikusi autoaren agerkundeaz jabetzea. Apenas ohartu ziren hurrek kaletik atera berri zuten burdin zahar piloaz. Eta andereari ezagutzera eman arren, hainbeste urteren buruan armiarmaz estalitako hondakinetan segur aski ez zuten ibilgailu bikaina identifikatuko, aitaaren oparia alaba Hipòlit de Mórarekin ezkondukoan. Ezkongaz jantzita, Torresen etxaldetik elizako eskaileratara zeuden ehun bat metro atzeko eserlekuan amaren ondoan jesarrita egin zituen.

Behar bada Francescek, Sadurní Romagueraren seme gazteena bera, gogoratuko zuen Gerra Zibila zela-eta Nasi etxeko garajeon ezkutatutako Forda, baina hirira iritsi zenean, aurkikuntzaren biharamunean, autoa jada ez zegoen bertan. Gau berberean, norbaitek, hiriaren suntsiketa bitartean atezuan zeuden piltzarketariren batek, desagerrarazi egin zuen.

Jaume de Torres jaunaren erretratuaren azpian, non aurreko urteko txikizio indartsuak, Llorenç de Veriuren etxea inbaditu zuen hautsak probokatuta, 1914ko bala-zuloa ireki zuen oster, andreek ele-mele hiritarraren pozoia destilatu edo amaigabeko konpontxo korapilatsuak eta gaiztoak makinatzen zituzten gustu handiz, bizkotxoa txokolate-kikaretan bustitzen zuten bitartean.

Ford zaharra aurkitu eta biharamunean, zerbaitek astuntzen zuen giroa. Eguneroko bilkura aski aspergarria izan zen ia anis aski lehorreko kopatxoaren azken xurgada arte, anfitrionak beti limoi-ur freskoarekin erabiltzen zuena txokolatearen ondoren, zeinaren oretasun gozoeziaren artean maiz hautematen zen hondamendietako lurraren kirrinka makurra, heriotza- eta hilobi-predikzio maltzuraren gisara.

Denbora osoan disimulatu zuten. Txikitasunekiko interesa edukitzearen planta egiten zuten, hiria egoera larriari buruzko iruzkin hutsalak egiten zituzten, hitz egin zutenari buruz hitz egiten ausartzen ez zirelako, Carlota de Torres izan ezik, zeinari, deus ez zekienez, gero eta gogaikarriago egiten zitzaion berriketaldia. Azken baroiaren iloba Arcadi de Sàssolaren itzulera komentatu zuten arindura hipokritarekin. Zakar eta ernegagarri, esklabistaren ondorengoak kale-kantoiko Kafetegian sartuta pasatzen zuen bizitza, non zerbitzari zebilen, eta soilik urtean behin irteten zen. Eguna iritsita, Arcadi –zeina bere gaztaroko modaren arabera gogotik jantzi eta lineako autoen geltokira patxadaz joaten zen, hogeiko hamarkadako jantziekin atentzioa erakarriz, kanotier akasgabe eta bolizko kirtendun makulu eta guzti, leinuaren prosperitate galduaren erlikia bera,– Lleidako busera igo, hirira abiatu eta desagertu egiten zen. Urteko aurrezkiak amaituta, zazpi-zortzi egunetarako irauten zutenak, busen geltokira iristen zen Arcadi zikin, bizardun, begizulodun bat, parrandengatik suntsituta, zalantzi eta sosik gabe. Lineako autoan eseri, aurpegia kanotierarekin estali eta zerraldo lo egiten zuen bidaia osoan, harik eta, txoferrarekin zeukan oso aspaldiko itun baten bitartez, hirira iritxita, honek ibilgailuaren ibilbidea aldatu eta kale-kantoiko Kafetegia atean deskargatzen zuen bidaiaria. Handik, zerbitzari profugoaren itzulera mahai txeratsuekin agurtzen zuen bezeriaren barre artean, patroiak errukigabe bideratzen zuen garbitokira, nora builaka jarraitzen zion –“zerria, endekatua, nazkantea, putazalea, pasa zaitez espartzu eta lixibarekin garbitzera; urdanga-hatsa darizu!”–, patena bezain garbia egon arte ezer ukitzea debekatzen ziolarik. Urte hartan, Arcadiren desagertzea luzatu egin zen eta kafetegian kezkatzen hasita zeudenean, azkenean, aurreko egunean agertu zen, inoiz baino hondatuago, hamabi eguneko absentiaren ondoren.

Birjina Martirien Aretoan berehala prestatu zuten gaia; ez ziren Arcadik atzerapena azaltzen zuen polizia ustel, emazteki erromantiko eta makarra patibularioen bidez historiaren egia, aski korapilatua bera, arakatzen entretenitu. Andreek, axaetik bada ere, baroiaren ispiluaren txikizioa eta beste etxe handinahi batzuen hustuketa komentatu zuten, zeinak, etxeak, unea iritsita, trepetaz beteriko gordailu baino askoz gehiago ez ziren. Non zeuden Plana, Vallcora edo Veriutarren etxaldean ustezko ondasunak? Azken finean zer aurkitu zuten Ceferí de Vallsen etxeko ganbara misteriotsuan, pertsonaia bitxi haren katazulon? Ceferí de Valls gotzain baten seme naturala zen, eta Estefania d’Albera andereñoak, tertuliako zaharrenak, nekez zeukan haren memoria. Bitxirik ez, zilarrezko txanponez beteriko lapikorik ez ezkutaleku sekretuetan; soilik papertzarrak, pergaminoak eta zakartokira botatako liburu zaharren kuxak Honorat del Romen desesperazio ulergaitzaren aurrean, zeinak egunak eman baitzituen zikinkeria mugitzen zakarrontzian erreskatatu ahal izateko. Ez zen botikariak halako txorakeriak egiten zituen lehen

aldia –zehaztu zuen Nàsia Palauk nazka-keinuekin–. Familiatik zetorkion. Suntsiketen hasieran, Campellsen etxaldeko hustuketan, zitzu bizian joan ohi zen lekaleak narraskeriaz beteriko lamina beltz eta horiztekin egindako kukurutxoetan sartzen zituen dendari baten auzoen bila. Etxaldeko kutxa batean agertu ziren eta dendariak zatar-paper gisara erabili ohi zituen. Honoratek zoro zirudien, Nàsiak oso ongi gogoratzen zuen marmarrean entzun izana: “Halako astakeria! Goyaren aguafuertak babarrunak biltzeko!”.

Mintzagaia aldatu zuten baina erretorearen maiordomoaren arazoak ez zuen piperra berriketaldian gehitzea lortu, nahiz eta Carlota de Torresek, neskameek ongi informatuta, zehatz-mehatz azaldu zuen nola andrea (hil hurren batentzako ordu ttikietan abade-eske joandako jendearen kolpez kezkatuta) abadearen sotanarekin jantzita agertu zitzaien irekitzera. Presarekin, hotsarekin eta iluntzearekin bere bata zelakoan hartu zuen.

Estefania d’Albera andereñoak –mutxurdi zaharkitu eta mihiluzea bera, zeinak alkobako sekretuan oraindik ipintzen zituen monja lubrikoaren jantziak, eta garai batean 1922ko tifus-sukararekin hil zen epaitegiko idazkariarekin egindako demasen miraz blaitzen uzten zen– gaia abiatzea erabaki zuen.

—Diote...

—Zer? —Nàsia Palau ihar eta ezkelak.

—Zer? —Teresa Solanes oparo eta bigunak, oihuka.

—Zer? —Isadora Rubió zurbil eta ergelak.

—Jakin nahi duzuenetz —jarraitu zuen Estefania andereñoak anisa bukatu eta Carlota de Torresi zeharka begira—. Diote Francisc Romaguera bart iritsi zela hirira.

—Ene! —Isadora Rubiók, txundituta.

—Ene! —Teresa Solanesek, liluratuta.

—Ene! —Nàsia Palauk, harrituta.

“Bilaua”, pentsatu zuen Carmelak, mahaian limoi-urez beteriko leiarrezko pitxer bat uzten zuelarik, epaitegiko idazkariaren garai bateko maitaleari begiratu. “Hobe uholde batek eramango balu”!

Carlota de Torres andereñoak ez zuen ahoa zabaltu eta Estefania d’Alberak anfitrionaren isiltasun zakarraren aurrean asmatu zuela ulertu zuen arren, sakonago miatzen ausartu ez eta alde egitea erabaki zuen. Alabaina bere bat-bateko interesak hiriko sereno Horaciren gau-abenturei buruz, ez zuen lortu ez Teresa, ez Nàsia harrotzea. Romaguerari buruzko gaiarekin bestearen ez jarraitzeko errenuntziagatik etsita, aharrausiz aharrausi urgentsia handiko zeregin lainotsuak aipatzen hasi eta laster alde egin zuten.

Bakarrik gelditzean, are suminduago agurraren konplimendu hipokritengatik, andrea zutik mantendu zen pixka batean mahaiaren alboan, burumakur, pitxerra hartu eta aretoko hormaren kontra lehertu baino lehen. Carmelari, Sofiari eta Teresari iseka egin ondoren leiar-puskak eta limoi-zatiak jasotzen zituzten bitartean —lurrean zilarrezko txanpon sakabanatu gisara luzitzen zuten limoi-zatiek—, etxea gurutatu zuen marmarka, ateak danbadaka joz, jeneral-andrea izan ezik ganberetan eta pasabideetan esekitako koadroetako arbasoak izutuz. Ondo asaskatu ondoren, aretora itzuli eta butaka gainean bota zen.

—Orain egin, gero desegin. Ondoren, oster a buelta... —Carmela zaharrak marmarka, sukaldeko butano-bonbonaren pasoko giltza irekitzen zuen bitartean. Errekonoitu beste erremeriorik ez zeukan: gasa ikatza baino azkarragoa eta garbiagoa zen, baina ez zen ohitzen; garai bateko suak amesten zituen, nork esango zukeen, hiriaren galera hasi orduko beste haiek ordezkatuak, hain zuri eta garbiak eurak, ospitaleko aparatu beldurgarriak gogoratzen zizkietenak.

—Egin eta desegin, baina beti hari bera —amaitu zuen Sofiak, bestearen hitzei adi.

—Badira gauzak inoiz ezabatzen ez direnak.

—Inoiz ez.

—Ebro edo Segre ibaiak bezala dira —Teresak, parte hartuz—. Ura ez da inoiz erabat pasatzen.

—Begira hau —Sofiak, ziztatuz—. Non ikasi zenuen hori? Jaume jaunaren ohean?

—Ez egin builarik, madarikatua!

—Ez kezkatu, andrea! Defuntuek belarri gogorra daukate...

—Baina bizidunek ez.

—Andereari buruz ari bazara, aurreztu sufrimendua. Bere aitak ezkutuan bilatzen zintuela ez dakiela uste al duzu?

—Ezagutzen dut norbait aurkitua izateagatik gutiziatzen zena, baina begiratu ere ez zioten egiten...

—Zerria!

—Aski da —moztu zuen Carmelak. Ezagutzen zuen borroken amaiera: miseria-inbentario bat, non egiek, iradokizunek eta gezur ustelek dena zikintzen zuten. Ez zegoen satsa mugitu beharrik, historia zaharrak azaleratu beharrik, aski ziren berriak. Zertarako Jaume jaunaren gona-kontuetan arakatu —“goian bego”, erantsi zuen neskameak—, hura beti prest emakume bat harrapatzeko, berea izan ezik, tentel erkin hura, zeinari buruz gezurra zirudien pentsatzea haur batzuk izan zituela, bi mutil eta neska bat, gaztelua baino handiagoak? Urteak paseak ziren Camilaren izter marduletan egin kilimetatik, zeina berak —besteak Edeneko gitarra-jotzailearekin ihes egin ondoren— konfiantzako neskame gisara ordezkatu zuen 1919an. Asko pasa baita ere, Jaume alargunduak, zaharra baino inoiz baino grinatsuago, Teresa pasabideetako ilunpetan zokoratzen zuenetik. Garai hura joana zen; hobe gogora ez ekartzea.

Besteen ika-mika moztuta, Carmelaren pentsamendua etxekoandrearengana itzuli zen. Zer dela-eta azalduko zen Romaguera? Hiriaren suntsiketak urteen hondoetatik zekarren eraisketaren zain zeuden, eraikinetatik traste zaharrak ekartzen zituen bezalaxe. Agian hobe zatekeen etxeak barruan zeukaten guztiarekin hondoratzea, *tabula rasa* egitea, beste urte eta beste bizitzetaz bustitako tramankulu zaharrik gabe berriro hastea. Romagueratarrik gabe, iraungitako denbora bateko espektro. Baina ez ziren gauzak. Aski ondo zekien. Sukalde handiaren erdian jesarrita, portzelana, aluminio, zilar eta kupreak argitasun arinez orbaintzen zituen argi lausoak bilduta, ideia erotasunaz jabetu zen neskame zaharra, denbora aldaezinaren kontra borrokatzearen hutsaltasunez, zeinak sakonean maiz haserre-suminez hozitzen ziren laboreak zeramatzan. Alferrik izan zen aurreko gauean Torres etxeko antzinako administratzailea, Ramon Graells, bilatzera joatea, hurrek Nasi etxeko kotxeratik ateratako Forda eramatera norbait bidal zezan.

Orain, autoa, Vall Secako troskan burdina-pila gardostua besterik ez zen, informatzera joan zitzaion Graells mutikoaren arabera, aitaren irudi kalkatua, barraskilo-habia bat baino likatsuagoa bera. Bere eraginkortasunaz harro, ez zen anderearen hotzikaraz jabetu trasteari sua eman zion tokia aipatzerakoan. Garrek autoa jan zuten, baina ez zen karrozeria herdoilduan, ez armiarmaz beteriko tapizeria hautseztatuan pozaldi zalantzakorra eta heriotzaren arrasto higuigarria markatuta geratu zen tokia. Alferrikakoa izan zen autoa erretzea, etxekoandrea Sadurní Romagueraren seme gazteena hirian zela jabetu ez zedin ia bezainbeste: beti izango zen Estefania bat, Nàsia bat, Isadora bat edo beste edozein sorgin zauri zaharrean aztarrika ibiltzeko prest.

Carmelak aipatzen zuen haria 1925ko goiz bati lotuta zegoen. Aretoaren iluntasunaren erdian – Ebroren ontzi ustelduz beteriko moiletatik igotzen ari zen belztasun likatsua bera–, Carlota de Torres andereñoak uste izan zuen, bera eta Hipòlit de Móra ezkon-bidaiatik bueltan Bartzelonako trenetik jaistean, Faióko geltokian liluratu zuen eguzkia berrikusten zuela. Bizitokian, hiritik ibaian behera kokatuta bera, bere meatzeetatik ikatza deskargatzen zuten ibai-ontzietakoren batek itxaron behar zien, eta haiek, meatzeak, 1919ko hondamenditik salbatu ziren ale bakarrak ziren, eta ia ekoizpen betean zebiltzan. Baina ezein nabigatzailerik ez zen azaldu, hartu, ekipajea jaso eta ontzira eramateko.

—Imajinatzen dut bidali zenuela telegrama –esan zuen, haserre, nasa hutsik ikustean.

—Bai, anderea; jakina baietz. Agian geltokiburuak jakingo du zerbait edo enkarguren bat izango du guretzat.

Ez zen modurik izan trenzaina aurkitzeko. Banderola gorriarekin trenari irteera eman ondoren, alde egin zuen.

—Aski arraroa da ba hau. Begira...

Zoratzeko moduko errepikapenez txitxarrek ebakitako suzko atmosferaren bitartez, Bartzelonako fabriketara destinatutako lignito-mendiez harago, moiletan estekatutako bi ibai-ontzi ikusten zituzten, baina ez ziren igartzen peoiak ontzietan ez eta ganduaren tela zurixkak urdindutako mineralaren belztasun distiratsua garbituta ere.

Kezkaturik eta zalantzatsu, hipotesitan galtzen zen Hipòlit. Telegrama baten atzerapena, azken orduko arazoak ibai-ontzien bidaian, baita endredoren bat ere, aski probablea Ebrok udan zerman ur eskasagatik, zeina arrisku-iturri izan ohi zen harrizta eta hondo gutxiko tarteetan, non ez zen batere arraroa bigarren mailako patroiek gidatutako ibai-ontziak trabatuta geratzea. Berriketa lardaskatuak ezer konpondu ez ezik emaztearen urduritasuna areagotzen zuen, neurria galtzeko zorian utziz. Minduta, umiliatuta sentitzen zen. Nork imajina zezakeen Carlota de Torres i Camps –inoiz ez zuen senarraren abizena erabiltzen–, maletaz inguratuta, bere lignitoa kargatzen zuten tren-geltokiaren ondoan, bere ontziek gurutzatzen zuten ibai baten eta jabego-eskubideak zeuzkan nabigatzaileen alboan itxaroten? Non zeuden Torres i Campstarren beharginak Faión? Suminak ziztatuta, joan-etorri sutsua hasi zuen moilaren alde batetik bestera. Eguzkitakoa irekitzen zuen, gero itxi. Bidea arakatzen zuen, marmarka, osteria irekitzen zuen eguzkitakoa; Hipòlit, maletak eguzkitatik erretiratu eta portxearen itzalean ipiniz, hirira telegrafiatzeaz mintzo zen.

Gauak gedarrez betetzen zituen aretoko txokoak balkoiko geranioak desmargotu ondoren; Ebro patxadatsuan izarrak islatzen ziren. Baina Carlota de Torres anderea ez zen besaulkitik altxatu

argiak pizteko. Batzuetan angustiaz eta bestetan kitzikapen arraroz erotuta, bere agoniaren lekuko zen hiriaren soinu lausoak entzuten zituen. Beste edozein unetan hark sumina pitzaraziko zion, gero eta indartsuago, eta amaieran egoera kritiko bilakatuko zen. Baina, arrats hartan beste kezka bat zeukan: zuloz betetako kaleetan ibiliko zen Francesc Romaguera, gorroto zahar batean ainguratuta, ahanzturari arrakalarik utzi gabe, inor ezagutzen ez zuen plantak egiten, jendeari iskin eginez, Gera Zibila amaitu zenetik hiria zapaldu zuen aukera gutxietan bezala. Orain ere ez zuen Torrestarren etxeko atea joko. Hala ere, aski zen haren izena aipatzea –Estefania d’Albera gizatxarrak ongi asko zekielarik– 1925eko egun hartan, Faióko tren-geltokian sentitu zuen indar berberarekin sakonean astindua sentitzeko.

Bihurgune batean Forda ikusi zuenean, bideko ildo-arrastoetan zabuka, Carlota de Torres, egoera erridikuluaren amaierarekin arinduta, familiaren kontra artilleria eragiteko prestatu zen. Autoa geltokian geratu zen, baina, aitaren ordeztu edo Ramon Graells bereizezinaren ordeztu, Sadurní Romagueraren seme gazteenaren figura altu, sendoa atera zen. Hura eta Carlota umetako lagunak ziren, nahiz eta biak kolegiara joan zirenetik –neska Lleidako monjen barnetegi batera eta mutila Madrilera, non osaba-izeben etxean bizi eta abokatu izateko ikasten zuen– apenas ikusi zuten elkar. Mutila soilik abuztuan joan ohi zen hirira, Carlotak familiarekin balnearioren batean uda pasatzen zuenean. Hain aldatuta zegoen Francesc, Torrestarren neskak nekez lotu ahal zuen haren irudia hamar urte lehenagotik gordetzen zuenarekin. Elkar agurtu eta Carlotaren samina bat-batean desagertu zen. Francescek ekipajea auto gainean kargatu eta ezin izan zuen irribarre bat erriprimitu, ikustean nola Carlotak txoferraren alboko jesarlekua hartu eta Hipòlit atzekoetan uzten zuen, auto gainean sartzen ez ziren bi maleten artean. Geltokia utzi zuten. Francesc, bat-batean serio, ibaiko inaktibitateaz eta familiaren absentsiaz geltokian mintzatzen hasi zitzaion. Ebro gainditzen zutelarik errepede harritsuan barrena –mendeetan zehar zirgalarien oinek eta, Arquimedes Quintanaren bidaia ospetsuaz geroztik, abereen apatzex zapalduetako bideari paraleloan– ezustean, laster suminez eraldatuta, geratzen zenaz jabetzen joan zen: greba batek paralizatzen zuen meatze-arroa. Bai, jasoa zuten etorreraren berri ematen zuen Bartzelonako telegrama, eta haien bila joatekoak ziren Faióra, baina azken orduan, lehenestea hobetsi zuten, ez Jaume jauna, ez Graells bidaia egiten ez arriskatzea. Hobe han ez agertzea. Francescen aitak, hiriko alkatea zelarik Primo de Rivera jeneralaren estatu-kolpeaz geroztik, 1923an, burgesei gomendatu zien, gutxienez ordena publikoa bermatzeko hirira eskatutako indarrak iritsi bitartean. Horregatik joan zen Francesc –Carlota ezkon-bidaian joan zenez geroztik hirian oporretan– bidaiariaren bila (orain bera izan zen atzeko jesarlekuko memelo gizajoa ahaztu zuena, ibilgailuaren astindu bakoitzean mailetek erdi zapalduta).

Greba? Torres etxeko meatzariak greban? Hura ez zen Carlotaren buruan sartzen, nahiz eta Francescen hitzek ez zioten zalantzari lekuri uzten: pikatzaileek, orgariek, barrenatzaileek, errementariek, ukuluzainek planto egin eta lanari uko egiten zioten, soldata igo eta lan-baldintza hobeak lortu arte. Ibaiko jendearen laguntza ere bazuten. Ibai-ontziak ez ziren ateratzen: hustuta edo mineralez kargatuta moiletan itxaroten zuten, jabeen eta langileen arteko negoziazioen emaitzen zain, baina elkarrizketa ez zihoan bide onetik. Eta fabrikak –igarri nahi izan zuen– ze jarrera zeukan langileekiko? Txoferrak, egitateak azaldu ahala serioago, fabrikako jendeak besteen bidea hartu zutela azaltzen zuen neurrian, Carlotak Romaguera aitari entzuten ziola iritzi zion. Birjina Martirien Aretoan, jauntxoek kasinoko tertulian, lurduna haserre bizian jartzen zen nonbait langile-agitazioa egonez gero, eta esku gogorra, errukigabea, eskatzen zuen Errusiako hondamendia bezalakoa ekar zezakeen egoerak mozteko, non masa proletarioak –“Jainkorik gabeko zorritxoak, patibuloko gai”– tsarra destronatu zuen komunismoa ezartzeko. 1918az geroztik, kanpotarren joanarekin sortu krisiarekin, arroa olio-

putzu bat zen, baina aspaldion bor-bor zegoen eta ezin zen onartu. Jendaila erauzi beharra zegoen. Sozialistak, boltxebikeak, anarkistak, errepublikarrak: denak zaku berean eta Ebrora, harri astunarekin. Lurdunaren jarrerak –Jaume de Torres jaunaren protesta xumeak sortzen zituen bera, biolentziaren beldur baitzen Sadurní Romagueraren adierazpenek izututa, gero eta gogorragoak eurak– Francescen onarpena zeukan, eta hori Carlotaren gustukoa zen. Sekula ez zioten ez hitzik ez botorik eman meatzetako edo fabrikako gatazketan, zeinei buruz, bestalde, beti oso ideia elementala zeukan, modu arriskutsuan eta eksklusiboan kastako harrotasunean errotuta, baina aitaren jokaera biguna iruditzen zitzaion, ia herabea, eta ezin zuen harekiko halako mespretxu bat ekidin, langileen arazoez Sadurní Romaguerarekin eztabaidan somatzen zuenean.

Carlota de Torres i Camps Francescek hunkituta sentitzen zen. Lagunaren presentziak eta hitzek modu arraroan, ezezagunean inarosten zuten. Kilima setatiak dardarazten zion bizkarrezurra, izerdiz blai, larruzko jesarlekuaren bizkarrean likatuta; bihotzak danbada azkarragoak zeuzkan, Hipòlit, zeinaren matrimonia egindako ekarpen bakarra –bi meatze, lur-sail eta akzioetako baloreak izan ezik, zeinek, Carlotaren begietara, Torres eta Móraren artean aspaldi itundutako ezkontza justifikatzen zuten– hiru haurdunaldietarako ezinbesteko espermatozoideak izango ziren, maleten astinduetatik ahal zuen modura defendatzen zen bitartean.

Amat meatzearen alboan topatu zituzten lehen meatzariak eta martxa mantsotu behar izan zen. Taldeak errepidea oztokatzen zuen eta haizetakoak ixten zihoan hazpegi itzaltsuko masa enmarkatzen zuen, autoa poliki mugitzen zen bitartean, ia-ia pertsona baten pausoan. Francesc Romaguera zurbildu egin zen, Carlota leihotatik begira zeuzkan eta ondoeza ia jasanezina probokatzen zioten begiak ez ikustearen plantak egiten zituen. Inoiz ez zuen jende hura hain hurbil sentitu. Beti kontsideratu zituen urrunak, bitxiak. Batzuetan arrarotasun zoologiko bezala azaltzen zizkien hiriko adiskideei, maiz hirira gonbidatzen zituen Lleidako erlijiosoen barnetegiko kide zaharrak eurak. Fabrika ez ezik, ezinbesteko bisita zen familiako meatzea ikustea. Maiz aita petulante eta berritsuak lagunduta, andereñoekin galai, edo Graells lagunkoiaren tutela melengaren pean, adiskideak ikuskizunarekin liluratzea zuen gustuko. Galeria nagusiaren ahoraino eramane ohi zituen, hauts- eta izerdi-nahasketa batekin estalitako abereek tiratutako lignitoz beteriko bagoien presentziarekin izutzeko; burdinolara sartu ohi zituen, beti misteriotsua, su-txinpartaz ziprztinduta bera; ukuiluetara eta moiletara eramane ohi zituen materiala ibai-ontzietan sartzen ikusteko. Iluntzean aretoko balkoira ateratzen ziren, meatzari-taldeak, ilintziak bezain beltz, lanetik karburo-kriseiluak piztuta lanetik zetoze behatzera. Beraren eta mundu haren artean beti egon ohi zen iragazki bat, errealitatea beste alde batean zegoen. Orain, bat-batean, meatzariak ez ziren jada silueta anonimoak, presentzia bizi, meatxagarriak baizik, Carlota de Torresen autoa trabatzeraino. Azkenean, langile-masa argitu eta autoak abiadura berrartu zuen. Eszenatokia osteraren errepikatu zen hiriko transbordadorera iritsi baino lehen, eta pare bat harrik jo zuten Forden kapoan olibondo-sail batzuetatik pasatzerakoan. Transbordadorean eginiko zeharkaldiak erabat sumindu zituen. Marinela agurtu ere ez zituen egin; nekazari batzuk plataformaren beste muturrera erretiratu ziren, bidaiariei konplimenturen bat eginez gero, grebalariekin ika-mikak izateko beldurtuta –azaldu zion Francesc Romaguerak Carlotari–.

Itzulera arraroa izan zen, Parisera egin ezkon-bidaiaren amaiera gisara Carlotak imajinatzen zuen ez bestelakoa: hiri ezezaguna aurkitu zuen, mundu zoriontsuaren aurpegi garratza, ordura arte ezkutuan gordea. Juxtu Parisetiko opariak banatzeko afari animatu baten ondoren, aretoko leihotatik asanbladara bidean zihoazen meatzari-taldeak ikusten zituen bitartean, beste irudi batek, Francesc Romaguerarenak, betetzen zion pentsamendua indar ezusteko, ezezagun eta

asaldatzailearekin. Bere gorputza, Hipòliten abilezia-faltak pizten jakin ez zuena, aztoratzen ari zen. Obsesioak ez zion atseden hartzen uzten. Bi egunen buruan aitzakia ederra izan zuen Francesc etxaldera ekarrarazteko. Carmelari deitu zion, Camila Edeneko gitarra-jotzailearekin alde egin zuenean hartu zuten neskameari alegia. Neskak, bera baino pixka bat zaharragoa bera, jaun-andreen konfiantza irabazten jakin zuen fideltasun eta sumisioaren bidez. Camps amonaren itzal, duela urtebete-edo hildako anderearen heriotza arte, Carlotaren konfidente bihurtu zen berehala. Nagusiaren argibideak entzun, buruarekin baietsi eta etxaldetik irten zen Francesc Romaguerari kotxearen guanteran aurkitutako errebolberrera berea ote zen galdetzeko.

—Egin, desegin... —Carmela zaharra marmarrean, sukaldean, bakarrik.

Aretoan, etxeko beste aldean eseritako anderearen memoriaren hariari jarraitu ahal zion; bere oroitzapen propioa gehitu ahal zion, Segre Ebroarekin lotzen zen bezalaxe, eta gau urruneko ilunpeak inguratu zuen Torrestarren etxaldetik atera zenean, Francesc Romaguerari, Hipòlit jauna beldurrez hilda, Fordetik ateratzen ausartu ez zen armari buruz galdetzera, autoa arakatzean aurkitu baitzuen. Forn Malda hartzerakoan meatzari-pila batekin egin zuen topo. Udaletxera zihoazen Ponteko meatzean asanblada egin ondoren. Gauaren beraren eskrezentzia zirudien masa beltzak hunkituta, hormaren kontra itsatsi zen. Gizonak ez zuten ikusi. Batzuk ezagutu zituen, euren artean Terror, zeina, jabeek, Torres jaunaren eta burges batzuen artean izandako elkarriketen arabera langileen errebindikazioen eragile, erresistentzia-kutxaren antolatzaile eta arroko grebaren erantzule nagusia kontsideratzen zuten. Etorri zenetik bi urtera, kanpotarra, zeinari buruz gauza handirik inoiz ez zen ezagutu, nahiz eta lehenaldi misteriotsu eta iraultzailea egozten zitzaion, lider bat bihurtu zen. Aingiren Tabernan bizi zen, non, lana bukatu ondoren, irakurtzen doan irakasten zion bertara joan nahi zuen orori. Horrela batzartoki bihurtu zen lokala, non langileek arroko lehen errebindikazio antolatua gauzatzen zituzten. Halabeharrez, kanpotarra burgesen jopuntua zen, Rodako Kasinoko jauntxoaren mamu beltza. Carmelak gutxitan ikusi zuen; haren aldameneari zihoan Arquimedes Quintana zaharrari zuzendu zizkion hitzen azentu bartzelonatarretik antzeman zuen, hura berriz nahastezina zelarik bere gorpuzkera erraldoiagatik. Bere anaia propioa ikusten zuela iruditu zitzaion, zeinarekin Carmela etengabe borrokatzen zen arazo haietan nahas ez zedin, horrek Torresen meatzeetan edo fabriketan hobeto ordaindutako lanpostua erraztuko baitzion. Gainerakoa, karburo-argiren baten distirak apenas hausten zuen masa bat zen, non ezinezkoa zen hazpegiak bereiztea.

—Guardia zibila!

Indar errepresiboak, Faión errekisatutako ibai-ontzietan etorrita, zeharkale batetik irten eta grebalarien aurka kargatu zuen. Kolpeak eta intziriak lehertu ziren. Neskameak, izututa, Forn Maldako okindegirantz alde egin eta atearen alboan metatutako erromero-zakuetara hurbildu ziren.

—Putakumeak!

—Aurrera!

—Kabroiak!

—Segi Sol kalezulotik!

Intziri bat sentitu zuen Carmelak alboan; meatzari bat agertu zen labeko atean zegoen lanpara baten argitara. Buruari eutsi eta astinduka zebilen. Guardia zibil batek eraso egin zion baina

figura erraldoi batek, Atanasi Berpizkundek, bidea moztu zion, eta guardia, zartako itzelak bultzatuta, okindegiko atearen kontra itsatsi zen.

Tiroak entzun ziren. Eskutik oratzen ziotela sentitu zuen Carmelak.

—Ze ostia egiten duzu hemen? —esan zion Arquimedes Quintana zaharrak Llorenç de Veriuk kide zauritua zeraman bitartean—. Hil zaitzaten nahi al duzu? Alde!

Meatzari-masak Sol kalezulotik alde egin zuen, guardia zibilek xaxatuta. Lurrean, figurak intzirika. Carmelak hormara itsatsita alde egin zuen Romagueratarren etxalderantz. Vell Senglar Fondatik igarotzean, sekula izena gogoratzen ez zuen ingeles hura ikusi zuen balkoitik begira; atzerritarrak antsiaz begiratzen zuen moiletara, non grebalariei oihuak entzuten ziren.

Hodei batzuek ilargia ezkutatu eta gaua hiriaren gainean trinkotzen amaitu zuten. Ez Carlota de Torres anderea, saloian, ez Carmela zaharra, sukaldean, ez ziren konturatu. Memoriaren hariak, anderea eta neskamea, duela berrogeita bost urteko gau batera zeramatzan, bi hilabeteko borroka ondorengo meatzarien grebaren porrotera, non Ebroren alboan Arnau Terreren gorpua aurkitu zuten bihotza ipuru-adar batek gurutzatuta.

Sol kalezulotik gora zihoala, Nelson zaharra ez zen jabetu Carmelaren oroitzapenak gurutzatzen ari zela, une hartan neskameak proiektatuak puntu zehatz hartan, non 1925ean, guardia zibilak grebalarien manifestazioaren aurka kargatu zuen. Memoriaren bafada garratzak bildu izan balu, unea berbizarazi izan balio, zaharrak instintiboki mugituko zuen burua, orduan bezalaxe, soilik beso ezkerrean urratu zion fusilaren kulata saihesteko unean. Jarraian, gaztetasunaren indarra berrosatuta, zaplaztekoa emango zion hormaren kontra estutzen zuen figurari: guardia zibila zaku bat bezala jausiko zen, tiro baten suak ilunpea moztu eta giza masa kolpe eta oihuen artean aztoratu baino segundo bat lehenago. Bala bat bezala lasterka egiten zuen norbaitekin egindako estropezuaren bultzada sentituko zuen, zauritu bat artatzen ari ziren Arquimedes Quintana eta Llorenç de Veriruekin egingo zukeen topo. Afrikako beteranoak, emakumezkoari:

—Ze ostia egiten duzu hemen? Hil zaitzaten nahi al duzu? Alde!

Nelson oroitzapenen zurrumbiloan egon izan balitz, agian Carmela errekonozituko zukeen hormaren kontra itsatsita alde egiten zuen figuran, eta agian burutik pasatuko zitzaion galdetzea zer egiten zuen arrats hartan beti jendearen berriketetan beti Jaume de Torresen azpian hanka zabalik pintatzen zuten andre balakari hark. Nelson zaharra Carmelaren oroitzapenean egon izan balitz, bere burua hogeitabost urte zituela ikusiko zuen, goitik beherako gizon alai eta zuzena, *Neptúren* patroia, hura Salleres alargunaren ibai-ontzirik finena zelarik, eta berebiziko nabigatzaile-ospearekin, Vell Senglar Fondan apopilo zebilen ingelesak hondoko hau esan zionean Moilako Kafetegian:

—Robert Ibars, gure Nelson almirantea baino nabigatzaile hobea zara!

1922ko urri aldera iritsi zen hirira Mister Oliver Wilson. Faióko geltokian jaitsi, beti lepotik zintzilik zeraman domina-sorta ondo beteak aldarrikatutako beateriagatik Gotzain goitizena zeraman ascótar baten ontzian gaintu zuen Ebro ibaia: medailak, nabigatzaileen zaindaria eta naufragioetan zein ibaiko beste ezbeharretan gordetzeko ardura zeukan Karmengo Ama Birjinarenetan hasi eta beata italiar oso miraritsuenetan amaitzen ziren. Aipatutako beatak ascótarren debozio osoa zeukan zeren, larrubizitan uzten zuen desinfektatzaile kiskalgarri batekin erdibana, maritzar tortosar batek bekatuaren oharrean itsatsitako zomorro porrokatu eta amorratu batzuetatik libratu berri baitzuen (*“Phthirus pubis, arrunki zorriak”*, marmartu zuen gaiztoki Honorat Kafetegikoak, betiko agnostikoa bera, botikaren mostradore azpitik flaskoa erremedioarekin pasatzen zion bitartean, konturatu gabe ezen jatorrizko izen latindarrak —nabigatzaileak formula liturgikotzat interpretatua bera— botikaren ahalak gehitzen zituela). Miraritik astebetara, ascótarra azkura erogarria ahazten hasia zelarik, Wilson jauna Plazako moilan lehorreratu zen mundu guztiaren jakinminaren aurrean. Gotzain deituriko hark, eskifaia kanpotarraren ekipajea bizkarrean hartuta jarraiturik, Vell Sanglar Fondara lagundu zion.

Aurrerago, katalanez aski zekienean, mister Wilsonen Aleix de Segarra eta Arquimedes Quintana zaharrari aitortu zien ostatuan sartu zen lehen aldian ezer ez ziola aldaketa sakonaz, bere bizitzak etxaldean izan zuen erabateko norabide-aldaketaz, ohartarazi. Jaiotzez zeuzkan fakultate premonitorioen galera, Gotzainen burdina miraritsuek bere burmuineko eremu

magnetikoan probokaturiko aldaketei egozten zieten. Moilako Kafetegiko tertulian, non dena pasatzen zen kritika suntsigarriaren galbahetik, ondorioztatu zen ingelesaren baieztapenak bazuela egiatik zertxobait; bere etorreraz geroztik, Wilson jaunak aurrerapen nabarmenarekin detektatu zituen Segre eta Ebroren uholdeak, elurtearen arrarotasuna, patroir miravetar baten naufragioa, hiru meatze-suntsiketa, soka-egile baten adarrak, serenoaren koliko nefritiko bat eta epaile anderearen erditze goiztiarra. Alabaina, metalaren eragin negatiboa izan edo bidaiaren nekea izan, izaera modu iragankorrean murrizten ziona, egia esan kanpotarra armagabe eta ezustean sartu zen Vell Senglar Fondan.

Mister Oliver Wilson ingeles flematikoaren irudi topikoari atxikitzen zitzaion beti munduan zehar bidaiatzen zuenean. Hotz, era guztietako emazteen aurrean zurrin agertzen zen (egundoko valkiriak izan, zein italiar suhartsuak, Polinesiako indigenak, Antilletako mulata nagiak, japoniar portzelanazkoak), baina babesgabe Agatòclia Molina ostatuko alargun jabe ederraren aurrean. Edertasun erriberatarren hezur-mamietaraino asaldatuta, Jorge V.a Maiestatearen menekoak ez zituen begiak itxi neka-neka egon arren. Hiru gau beranduago, mister Wilson, Agatòcliaren irudia bere burutik uxatzen eta hirira eraman zuen lanean (Ebroko arroari buruzko ikerketa geologikoa) kontzentratzen saiatzen ari zen bitartean, ostalera atea jo gabe sartu zen ganberan.

Une horretan bertan, ingelesaren erruz, gorriak pasatzen ari zen Gotzain. Hirian pasatzen zuen gaua eta bakarrik joan zen Moilako Kafetegiraino afaria ron-kopa batekin borobiltzeko, zer etorriko zitzaion susmatu gabe. Jesarri ahala, alboko mahaiko bezeroak han inguruko nabigatzaile bati buruz mintzatzen hasi ziren, esker gaiztoko berendiari buruz. Zorionez, tertuliakoek antza ez zuten haren izena gogoratzen, eta horrek pixka bat lasaitu zuen Gotzain. Mahaian uzkurtuta, atenzioa erakarri gabe altxa eta joaten ausartu ezinik, kontuan hartuz kontertulioak kenduta han zegoen parrokiako bakarra zela, faboreak ostikoka ordaintzen zituen doilorraren kasua irentsi behar izan zuen. Urrunago joan gabe –zioen Honorat Kafetegikok, Aleix de Segarrak baieztatu eta Arquimedes Quintana zaharrak errematatuta Estanislauri begi-kliska egin eta pipari bi xurgada kenduz–, apenas lau egun ziren beata italiar batek burua larrutzen zioten zorri-inbasiotik salbatu zuela lotsagabea, eta doilorrak ibai-ontzian hereje protestante bati toki eginez ordaintzen zuen faborea. Bai, ingelesa ez ezik, protestantea! Eta ez hori bakarrik: dena borobiltzeko, hirian ostatu bilatzen zion... Vaticanon jabetuz gero, eta jabetuko ziren, zeren Feliça Roderes, Apokalipsiaren Balkoiko hontza betiraunkorra bera, hilero Erromara bidaltzen zituen anonimo korrosibo haietako bat erredaktatzen arituko zen jada, patroiak ez zien bizitza honetan eskumikuari eta bestean infernuko zorri betierekoei iskin egingo. Nola egingo zuen barre jokaldiarekin ingeles doilor, deabruaren hereje, Albió perfidoaren menekoak!

Une zehatz haietan, Moilako Kafetegiko bezeroen suposizioak gorabehera, ingelesak ez zuen barrerik egiten; meditazio ekologikoaren proiektua desegin berri zion edertasun erriberatarren xarmetan urtzen ari zen, eta ez zirudien intentziorik txikiena zeukanik Ebroko nabigatzaile baten arimari buruzko elukubrazio metafisikoetan energia alferrik xahutzeko. Goizean, jantzi bitartean, Oliver Wilson jaunak, oraindik makal eta herbal, ganberako balkoitik begiratu zuen Sant Francesc kalezuloitik segizio bitxia jaisten ari zenean. Faiótik bidaia egin zuen ibai-ontziko eskifaia dominaz kargaturiko pirata estafalarioak gidatuta errekonozitu zuen. Bi meзамutilek laguntzen zioten, gandelario piztuekin, zeremoniaz jantzitako abade bati. Ingelesak, ordea, ezin zuen imajinatu bera zela prozesioaren arrazoia. Pare bat hilabete pasa behar izan ziren –misterrak

kasinoko tertulia aspergarritik Moilako Kafetegira lekualdatzeko behar zituenak, non Aleix de Segarra, Honorat Kafetegikoaren eta Arquimedes Quintanaren laguna egin zen— barrealdi artean konturatu aurretik erantzukizuna zeukala Gotzainen penitentziazko gau batean —goizeko zeremoniarekin errematatua bera—erretoreak, nabigatzaileari limosna polita luzatu ondoren, ibai-ontzia exorzizatzea onartu zuenean, Faión ontziratutako hereje protestante baten edozein arrastotatik garbitzeko.

Herritik jaurti zutenean Arnau Terreren heriotza zela-eta sortutako istiluengatik, ingelesak Agatòclià Molina eraman zuen berarekin, zeina bi hilabeteren buruan Wilson andere bihurtu zen Liverpooletan. Era berean eraman zituen meatze-arroari buruzko ikerketa amaitu gabeko bat eta maitasun-poemazko sorta sekretua, non, ostalersaren aldakak paleozoikoko geosinklinalen edertasunarekin eta haren pubiseko ilea garo fosil batzuen fintasunarekin alderatzen zituen, beste joera erotiko-geologiko-paleontologikoko aurkikuntza intimoagokoekin batera. Bikotea Tortosarantz abiatu zen, gariz kargaturiko *Neptú* ibai-ontziarekin. Jendetza garratza, greba handian garaitua, aurkeztu zen moiletara agurtzeko; Nelsonek irteera eman zuenetik ontzia Ebron behera galdu zen arte paineluak astindu zituzten, abuztuko goiz baten argitasun oraindik zalantza-koaren artean. Baina ez zen Nelson izan ia mende bat beranduago gertakari hura gogoratu zuena, baizik Carmela zaharra Torrestaren sukaldean. Gogoratu izan balu, oraindik iritsiko zitzaizkion geologoaren joanari lagundu zion eskerroneko eta sinpatiazko bafada; Estanislau Corberaren susmoak, malkoetatik gertu; Honorat Kafetegikoaren jarrera serioa; Aleix de Segarraren tristezia eta Arquimedes Quintanaren desolazioa, eguzki liluragarri bihurtzeko zorian zegoen urre gandutsuz ukitutako portuan. Nelsonek osteria ikusiko zituen mister Oliver Wilsonen mostatxo gorriaren muturrek ezpainen dardara traizionatzen ziotela, kapela eskuan, gari-zakuen gainean zutik, Agatòcliaren alboan, hiritarrak agurtzen zituen bitartean.

Baina ez zen Nelson zaharra eszena gogoratzen zuena, baizik Torrestarren etxeko neskamea. Eta Carmelari, Birjina Martirien Aretoko errezelen artean gordeta, ingelesaren irudia, oraindik 1925eko uda hartan —hain urrun—, haren joana kontenplatu zuen gorroto berberarekin bilduta iristen zitzaion.

Sol kalezuloaren izkina hartuta, non konturatu gabe Carmelaren oroitzapenak gurutzatu zituen, Nelson zaharraren figura, orain hiriko moila isiletan erremediorik gabe usteltzen ari zen ibai-ontzi baten patroia, Júlia Quintanaren begi-nini orlegietan marraztu zen. Emakumezkoa agerkundeari begira zegoen pixka batean. Inoizko marinela Harresi kaleko igoera hartzen zuen bitartean, Júlia arinduta sentitu zen. Leihoan itxaron bitartean burutik pasa zitzaion ezen agian Robert —berak, mundu guztiak ez bezala ez zekien hari Nelson esaten— Moilako Kafetegira azaldu ez eta Estanislau Corberak ezin izan ziola mezua eman. Nabigatzailearekin hitz egin nahi izanez gero, kaleko enkontru badaezpada-koak kenduta, gertatzen zirenean ahalik eta laburrenak izaten saiatzen ziren bata zein bestea, Júlia kafetero-arengana hurbildu ohi zen; Nelsonen etxera joateak edo besterik gabe enkargu bat bidaltzeak jelskortasun-eszena bat zekarren haren emaztearen partetik. Emakumeak, ederra bere gaztetako urteetan, sekula ez zuen sufritu Robert eta beraren arteko haurtzaroko lotura, bera Arquimedes Quintanaren alaba izanik, zeinak neskato bat nahi zuen, baina lehen bi emazteekin semeak baino ez baitzituen eduki.

—Nire hazia zabarregia da —esan ohi zuen malenkoniaz tartekatutako umorearekin—, beti ateratzen zaizkit arrak; osasuntsu eta indartsuak, baina mutilak. Behar bada eztiarekin eztitu beharko nuke emaztearengana jotzera egin baino lehen.

Ez eztiak, inoiz dastatzekotan, inork ez baitzuen argirik egiten, ez ezein formula magikok, ezkutuan Carmek eta gero Joanak prestatuta, ez zuen emaitza onik eman: haurduntza bakoitzak esan nahi zuen beste buruhandi bat munduan. Hirugarren ezkontza eta gutxira, Marina Torrentsek, zeinari inork ez zizkion asmatzeko ahalik ezagutzen, Plazako moilan geratu zuenean emaztea haurdun gelditu eta alaba bat izango zuela esateko, Afrikako beteranoa, hirurogei urte egiteko puntuan, eszeptiko azaldu zen. Alabaina predikzioa bete egin zen. Carlota de Torres jaio zen egun berean jaio zen, eta Robert Ibars baino hilabete batzuk geroago, 1900eko udazkenean. Horrek sorgin-ospea eta nabigatzailearen partez urrezko belarritakoak ekarri zizkion Marina Torrentsi.

Ràpid ontzia Lliberolan naufragatu ondoren, Arquimedes Quintana patroï desagertuaren seme Roberten ardura hartu eta Ebroko marinelik onena bihurtu arte kudeatzen hasi zenean, mutilak denbora asko pasatzen zuen zaharraren etxean. Júlia bere laguna egin zen, izaeraren garrantasunak bigundu eta adimenez eta samurtasunez gidatzeko gai zen bakarra bera. Aitaren onespén marmartiarekin, zeinak arrazoia ematen amaitu zuen, Robert *Carlota*ren tripulante bezala galtzea zekarren arren, Torrestarraren etxetik alde egitea aholkatu zion Marinak. Ura baino gardenagoa zen mutilak, zaharraren babesa izan arren, ez zuela gauza on askorik egingo eta ez zela peoia izatetik pasako. Benetan Torrestarren negozioak kontrolatzen zituen Ramon Graells zen; fabrika eta meatzeetan haren sokakoak baino ez ziren aurrera ateratzen. Salbuespen bakarra Arquimedes Quintana zen, jeneral-andrearen garaietatik ukiezina eta patroï bezala prestigiotsuegia konfiantzazko gizona harekin tematzeko. Baina nabigazio-urte gutxi geratzen zitzaizkion eta, erretiratu ondoren, Graellsen metatutako erresumina Tetuango heroiarekin kitatuko zuen Robertek. Salleres alargunarekin joan beharra zegoen —borobildu zuen Júliak—; andereak jende berria behar zuen, hiriaren begietara erridikulu utzi zuen *Polifemen* hondamendian administratzailearekin batera botatako bi patroïak ordezkatzeko. Robert alargunarekin elkarriketatu zen egunean, neskameak areto handi batera pasarazi zuen nabigatzailea. Hondoan, galeria beiradun batek etxeko ibai-ontziak porturatzen ziren moilara ematen zuen, Segre eta Ebroren konfluentziaz hurbil. Alargunak, setazko kimonoz jantzita, besaulki batean jesarrita, ez zion haren agurrari erantzun. Luze behatu zuen ahoa zabaldu gabe tití-klaseko tximu batekin jolasean, zeina, noizean behin bisitan joan eta Robertek uniformeaz jantzita, Ebroko moilan emaztearekin paseatzen gogoratzen zuen merkataritza-nabigazioko kapitain baten opari exotikoa zen.

—Ibarsen semea... —marmartu zuen andereak bere baitan, eta berehala ozenago—: Oso gaztea zara, baina mundu guztiak goratzen du zure abilezia ibaian. Egia al da hain ona zarela? Ez duzu deus esaten? Ikusten dut aingirek mihia jan dizutela. Espero dut aski tarte geratzea Jaime de Torres gezari esateko, hurrengo astetik aurrera Salleres etxeko patroï gisara nabigatuko duzula. Orain, joan zaitez.

Aretoko atera iritsita, alargunaren ahotsak iltzatu zuen.

—Robert! —Andereak tximuarekin jolasteari utzi, eta animalia aulki tolesgarri berde baten bizkarrean gora abiatu zen—: Aurtan Salleres etxeko ibai-ontzi batek irabazi behar ditu iraileko lasterketak.

Jaume de Torres jauna ez zen batere herratsua; laster ahaztu zuen Robert alargunarekin joan izana. Ulertu zuen baita ere irailean Arquimedes Quintanak ibaiko festan parte hartu nahi ez izatea. Pirata zaharrak urteen kraskadura ematen zuen aditzera, nahiz eta urrutitik igartzen zitzaion ez zuela ikaslearekin lehiatu nahi. Baina Carlota de Torresek ez zion sekula barkatu. Nelsonekin kalean topo egin edo etxeko balkoitik Ebron bistartzen bazuen, ezin zuen ekidin Torres etxearen umiliazioaren gomuta, urte askoren ondoren lehen aldiz, bere izena zeraman ontzi batekin nabigatzen ikasitako zorritzotako hark ibai-ontzien lasterketan bentzutua izatea, alegia. Kolpea are gogorragoa izan zen ibaiko festa-egunean oturuntza handi bat egiten zelako bere eta Hipòlit de Móraren arteko ezkontza ospatzeko, eta andereñoak, gonbidatuen disimuluzko pozaren jakitun, porrota jasan behar izan zuen; zirkunstantziazko aurpegi atsekabetuekin bada ere, anfitrioiaren umiliazioarekin gozatu zuten.

Garaipenak Salleres alargunaren patroia bezala finkatu zuen Robert; ez zuten eraginik izan gerra europarraren ondorengo krisiak eragindako jendearen kaleratzeak. Júliarekiko adiskidetasuna aurrera zihoan; baina, soldaduska egin ondoren, Robert neskatan hasi eta neskalagunaren jeloskortasunaz jabetu zenean, diskretuki urrunditu eta patroia bizi, mirariak eta eroaldiak, hurbiletik jarraitu zituen. Urte haiek ikonografia nostalgikoan ugariak ziren hiriko berriketaldiek erantzunik gabeko galderekin margotutako abenturak. Zer gertatzen zen *Neptúrekin* —ontziak bataiatzeko orduan, alargunak ahulezia zeukan izen mitologikoekin— eskifaiekin desagertzen zenean? Egia al zen Nelsonen deabruzko peoiek deltaraino jaitsi, Marinako bijilantziari iskin egin, itsasora irteten eta kontrabandoa egiten zutela? Sinesgarriak al ziren beren defuntuen izenean zint egiten zuten mirabetak batzuen hitzak, zeinen arabera espedizio ausart haiek —zeinetan merkataritzako kapitainak ere zerikusi zuela ematen zuen— parte hartzen ikusi zutela? Hura dena ez al zetozen bat Marinako ofizialaren historiarekin —zeina agintariekin burutik ukituta kontsideratzen zuten txosten batean largabistarekin kontrabandoko ibai-ontzi bat antzeman zuela zioelako, eta zeinaren branka dama ezin dotoreagoa zetozen, luma urdineko kapela eta eguzkitako zuri batekin?

Júliak ondo ezagutzen zuen Robert: eroaldi haiek egiteko gai zen, haiekin ez harrotzeko bezalaxe. Beste gauza batzuk ere bazekizkien alargunaren neskameen bidetik: ez zuen Salleres alargunaren ohea berotzen eta, kontrabandoaren istorioak egiazkoak izan zein faltsuak, patroia —zeina Vell Sanglar Fondan ingelesak Nelson izenez bataiatu zuen— ez zen anderearen deferentziaz liluratzen utzi. Nabarmen geratu zen arroken greba handian. Bi aldiz pentsatu gabe egin zuen bat Robertek, alargunaren suminari aurre eginez. Salleres andereak karabina-ahoa zirudien langileen kontrako epelak esaten, baina bakarra izan zen Romaguera alkateak, beste burgesen babesarekin, eskatutako guardia zibila interbentzioari aurpegia erakusten, eta soilik bera arduratu zen istiluetan zauritutako bere meatzariek, medikuak eta botikak ordaindu baitzizkien.

Ezkontzaz geroztik, Júliak ez zuen osteratzen Nelsonekin hitz egin manifestazio-gauera arte, Arquimedes zaharrak, grebalaria sakabanatuak izan ondoren, eurekin etxean geratzera behartu zuenean, guardia zibilek beteriko kaleetan bere kasara ibiltzea debekatuta. Beste meatzari eta nabigatzaile batzuen presentziak pribatuan eta zurrumurruei bide eman gabe hitz egitea

eragotzi zien. Arnau Terreren heriotza eta geologo britaniarraren kanporatzea gertatu zenean, Roberten lehen alaba gaixotu egin zen. Astebete baten buruan, patroia ezustean aurkeztu zen Quintanatarren etxean, Júliaren alboan eseri eta hiru ordu pasata joan zen ahoa zabaldu gabe. Gau hartan bertan hil zen ttikia.

Júliak ez zuen huts egin beilan. Aleix de Segarrak Roberten irudia, begizuloz eta zurbil, jantoki txikian gizonen doluan buru –gogorik gabe baina amaren desesperazioaz errukituta, ontzigidariak hala eskatuta– zenduaren erretratua margotzen zuen gelatik zetorren trementina-usainarekin lotuta kontserbatzen zuen. Robert, estatua bat iduri, dolumin-formulei erantzuteko ezinbesteko hitzak besterik ez zituen ateratzen. Hilerritik bueltan, etxera igo ordeztu, moiletara joan zen, alargunaren pontoi batera igo, arraunak toletetan kokatu eta Ebron behera abiatu zen jendearen harridura artean, ohitura funerarioen apurketa sinestezinak izututa. Miravetetik gertu aurkitu zuten, hartxintzarretan buruz behera, konorterik gabe eta lohiz beteta; esku-ahurrak haragi bizitan zeuzkan, arraunketa basatiak larrututa; bere gorputzak panpin baldar bat zirudien.

Begi berdeek maleziaz miatzen zuten; aldiaren behin gaztetetasunaren distira eta samurtasun ironikoa erreuperatzen zuten. Orduan Nelsonek oroitzapen atsegin bat topatzen zuen Júlia ikustean. Ez zioten elkarri deus esaten. Ganbera hutsean zutik, elkar begiratu besterik ez zuten egiten, lau hormen artean galduta, non altzariak eta Afrikako beteranoaren erretratuak –Aleix de Segarrak Edeneko bilar-aretoan saio gogoangarri batzuetan margotua bera– urteen poderioz utzitako arrastoak irmoki mantentzen ziren. Leihorantz desbideratu zuen soa, uztailleko gauean hego-mendebalaren sargoriak lodituta, galtzen utzi zuen. Patioko parran pausatutako kilker batek bere karranka entzunarazten zuen.

—Agur esan nahi nizun —marmartu zuen Júliak—. Bihar joango gara...

Dardara sentitu zuen Nelsonek. Bazekien hura gertatuko zela: Júliaren seme-alabek beste nonbait bizitzea pentsatzen zuten, suntsiketak hasi baino lehen ere beste hiritar askok etorkizunaren ziurgabetasunak bultzatuta irteera abiatu zuten bezala, hiritarren irmotasunak hiri zaharretik oso hurbil eraikitzen hasi ziren hiri berria gauzatzea itxaron gabe, non aurreikusita zegoen lehen familiak instalatzen hasiko zirela. Esaten entzuna zeukan, baina hura ez zela sekula gertatuko sinistu nahi zuen. Júliak falta barik ikusi nahi zuen enkargua Estanislauk eman zionean, lur-jota geratu zen.

Ziur asko —gutxienez hori mantendu zuen Honorat del Rom-ek Moilako Kafetegiko azken tertulietako batean— hiriaren ez zela hiritar guztientzat egun berean zendu. Bakoitzak une desberdin batean hiltzen sentitu zuen, urtetako hondamendian zehar, eta agian Júliaren agurra izan zen puntu hau markatu zuena Nelson zahararentzat. Sekula ez zen lehenago hautsi anderearekin lotzen zuen hari misteriotsua. Une gogorrenetan, huraxe zen benetan sostengatu zuena, batere esan gabe gainera, alabaren heriotza ondoko eromena eta gero ibai-ontzi miravetar batetik lehorreratu eta moilan Júlia aurkitu zuen egunean bezala. Beren sentimenduak orduan mamitu ziren: begiratu gabe ihes egin behar izan zuen hura besarkatu eta bere gorputzeko eta arimako partikula guztiak haren ondoan urtzen zitzaizkiola sentitzera bultzatzen zuen indarrari eusteko. Begi, azal, zakil, adimen, bihotz, hezur, giharrekin maite zuela konturatu zen. Sasoi hark, bera jabetu baino lehen emazteak susmaturik, erremediorik gabe blaitzen zuen. Beti iraun zuen: aski

zuen erdi ikustea nahastuta sentitzeko. Orain Júlia bazihoan, ontzi suntsituz beteriko moilak zeuzkan hiri deseginetik desagertzen zen, eta intuitzen zuen ez zuela aurrerantzean ikusiko.

—Hartu hau, Robert. Iruditu zait atsegin zenukeela horiek edukitzea.

Argazki zaharrak, paper horiztaren gainean margotutako garai hilak. Lehenengoan Arquimedes zaharra agertzen zen Edeneko atean, Alexis de Segarrarekin eta Madamfrasuàrekin, 14ko gerraren amaiera aldean. Bestea bazkari batean hartua izan zen, 1928an, Afrikako beteranoak, laurogeita zortzi urte zituela, lagunena eta erretiroa hartu arte nabigatu zuen hamazazpi eskifaletatik bizirauten zutenengandik omenaldia jaso zuenean —kontuan hartuz erretiroa arroko greba handiaren jarraian gertatu zela, Arnau Terreren heriotza eta ingelesaren kanporatzean. Indarra huts egiten hasi zitzaion, Ebron kasu bakarra izan zen bitalitate kezkarriaren gainbehera bat-batean gertatu zen. Lanerako gai ez, alargun eta inolako bizimodurik gabe, Masos meatzeko sindikalista batekin berriki ezkonduko Júliarekin bizitzera joan zen. Tetuango batailaren errelatoak nabarmen uzten zuen bere burmuinaren ahulezia progresiboa: gainbeheraren hasieran errore susmagaitzak zirenak erregimentuen egoeran, edo aldaketa bat jeneralen izenei zegokienez, gero eta larriagoak bihurtu ziren. Karga faltsuak azaltzen zituen, mairuak belarria moztu zion aihotz-kolpeen zenbatekoak biderkatzen zituen, supituki kapitain edo artillero bihurtzen zen, tropen mugimenduak aldatzen zituen. Zalditeriako jeneralaren belarri-mozketak itxura desberdinak eta aldakorrak hartzen zituen: Alfontso XIII.a izango zen, edo Jaume de Torres jauna. 1931ko apirilean, militarren burua bere aitarenarekin nahasteko bezperan, zaharra ibai-ontzi ascótar batera igo zen inori deus esan gabe. Tortosan lehorreratu, aspaldiko lagun batekin argazkia atera eta ostera Ebro gurutzatzen hasi zen. Patroi guztiek ezagutu eta ontzietan hartzen zuten. Benissaneten epelak esan zituen erregearen aurka, urte asko itsu zegoen eta maitasunezko abestiak egiten zituen zirga-aurrelari zahar batekin. Xertan, koinatu bat bisitatu zuen, lehen andrearen anaia bera, piztia harekin ez ezkontzea aholkatu ziona (beti eskertu zuen ohar hura nahiz eta kasurik egin ez); Gracian, bigarren emaztearekiko doluen eta hirugarrenarekiko ezkontzaren artean, harremanak izan zituen eskola-maistra bati buruz galdetu zuen, baina hura hogeitaz urte lehenago hila zen eta bera joana zen isilean hilerrira loreak eramatera, errukituta adiskide tabernari batek azaltzen saiatu zen bezala; Flixen, zorabioak izaten hasi eta kaleetan galdu zen, betetzen zituen beroaldi elektoralaz ohartu gabe. Torres etxeko bikeztatzaile zahar batek aurkitu zuen, mitin batean batutako jendetzaren atzean galduta zebilenean, han jaso eta familiari telegrama bat bidali zion.

Ikusi gabe, argazki horizta begiratu, ilargirik gabeko Ebro ibaian zehar eginiko nabigazio desesperatua birgogoratzen zuen, zeina *Neptúko* eskifaiek, korrika eta presaka hauteskundeetako giroak piztutako kafetegietan bilduta, ez zuen sekula ahaztuko. Nork uler zezakeen —Atanasi Berpizkundek esaten zuen bezala— nola demontre ez zituzten hezurak harritza baten aurka hautsi edo irla batean txopako gurpilleraino sartu? Nekez aurkituko zuen azalpenen bat Nelsonek berak, ibaian zerbait ikusgarri egiten zuen bakoitzean bezala. Lur-jota iritsi ziren Flixera. Ikustean, gizajoak ez zituen errekonozitu. Eskifaiek atsedean ttiki bat hartzen zuen bitartean, Nelson zaintzen geratu zen. Itzulerara abiatu zirenean, haizeak jotzen zuen. Bela handia eta gabia igo zituzten. Koltxoi batean luze etzanda, txopan, Arquimedes zaharrak, isilkako uneak —non zeruari edo bela atezatuei ahozabalik begiratzen zien— eta lokamuts edota berbaldizkoak tartekatzen zituen. Roca del Merron, bigarren emazteari deitu zion; Embrolla de Riba-rojan, Madamfransuàren kuplé bat abesten zuen; gero, hitzaldi luzea izan zuen Prim

jeneralarekin eta haren emaztearekin. Faió bistaratuta altxatzen saiatu zen, eskuineko besoarekin zeruko puntu bat seinalatzen zuen bitartean. Nelson eta peoiak biratu egin ziren: arratsaldeko eguzkiaren printzek urrez tindatzen zuten globo baten esfera. Haizeak eraginda, ontziaren gainetik altxatzen zen ibaiaren kanalean.

—Ponze da! —oihukatu zuen Atanasi Berpizkundek.

Globoa, auzoak eta Feliça de Roderesek aldarrikatutako katastrofe planetario ekidinezinak probokatzen zituen, gero eta bolumen handiagoa hartzen ari zen. Ontzi-giadariak kutxa karratura ahokatutako tripulatzaileak bereizten hasi ziren; Ponze ingeniaria, Flixeko industria kimikoko baten zuzendaria, eta bere emaztea ziren. Ezkontideek maiz baliatzen zuten itsasoko haizea globoarekin aireratu eta Ebro ibaian gora abiatzeko. Globoa, ibai-ontziaren arbolaren gain-gainean zegoela, aeronautaren ahotsa entzun zen:

—Nelson, Nelson!, Entzuten al nauzu, deabruzko pirata?

—Bai, ingeniari jauna! Zertan gara?

—Oso lasai ikusten zaituztet. Ez al dakizue ezer?

—Jakin, zer?

—Irabazi dugu! Erregeak atzerrira hanka egin eta Errepublika aldarrikatu berri dugu! Gora!

—Gora! —*Neptúko* eskifaiak, denak batera.

Haizeak agudo urruntzen zuen globoa. Ingeniariaren beste garaipen-hots bat osteratzen eta haren andrearen painelua ikusi zuten aireratzen. Baina Arquimedes Quintana, Edeneko gau-minetan Errepublika hainbat aldiz aldarrikatua, ez zen ezertaz ohartu. Beraren eta gauzen artean heriotzaren sega pasa baitzen.

Argi gogoratzen zuen tronboiaren soinua –bandako beste instrumentuetatik bakartuta–, gau haren hondo bezala. Batzuetan urrun ebokatzen zuen, apenas entzungarri, hiriaren goiko aldean, non kalezuloek erroitzen nortasun primigenioa errekuaratzen zuten, nondik Castelleko mendizerrak eurien ura Eborara biberatzen zituen. Geroago, labirinto erdiarotarraren zokoak jarraitzen entzuten zuen, moteltasunak eta azkartasunak tartekatuz, eta behin kalejiraren ibilbide aurreikustezinean, Elizako plazako espazioan hedatu egiten zela iruditu zitzaion. Carlota de Torres andereak espazioan eta tokian zehazki kokatzen zuen arren, oroitzapen galdua zen, agian bandak, aita alokatuta, Torres familiaren urteurrenak eta onomastikak aretoko balkoiaren pean ospatzen zituen urteroko kontzertutik eratorria bera, zeren, andereak ebokatutako gauean bandak ez zuen ezein tronboirik jo. 1914ko gerraren amaierako meatze-krisiak Harmonia Fluvialeko musikariengan ere izan zuen bere eragina. Kale osoak hutsik utzita, Bartzelonara lan-bila joandako jende-andana luzearen lehena helikoia izan zen, ofizioz igeltseroa; haren ondoren, saxo tenorra, bonbo bat eta bi klarinete. Tronboia azkena izan zen, fagotarekin batera. Fagota hirira itzuli zen hiriburuko zarata jasanezinak erotuta, baina musika-tresna saltzea beste erremediorik ez zitzaion geratu, musikalak baino ezinbestekoagoak ziren beste premia batzuk kitatzeko. Horren ondorioz, banda oso kaltetuta geratu zen eta Arenaleko nasetan eginiko entseguak patetikoak ziren. Zuzendariak, inspirazioak eraginda, piezaren une goren batean bonboaren sarrera gorgarria edo saxo tenorraren indar gehiago exijitzen zuenean, pikondotik jaitsiarazi beharra zegoen, gogoratuz, lehena Bartzelonako lanean ari zela bi urte lehenago, eta bigarrena garagardo-fabrika batean hasi zela, hiriburuan bertan. Ez 1914a baino lehenagoko normaltasun eskasak –krisi handiaren unerik larrienaren ondoren errekuaratu bera–, ez Ebroko zubiak, eskolak, ez moilak inguratzen zituen horma eraikitzeari esker izandako lan-suspertze laburrak –Madrilen bizi eta Primo de Riveraren ministroen artean influentzia zeukan herriko emazte bati esker egindako obrak denak– ez zuen eragin handirik izan bandan. Bi bokazio sortu ziren, bat biolin-jolea eta bestea danborra, eta portuko obretako ingeniari-arduradunak zeharkako flauta baten ezintasuna eskaini zuen denbora-tarte batean. Baina tronboia ez zen ordezkaturik izan, ez zegoen haren alerik, korrika, 1931ko apirilaren 14an, Errepublikaren etorrera ospatzeko, bildu ziren musikarien artean.

Tronboiaren zatia, beraz, Francesc Romagueraren presentziak 1971eko udan, hirian, Carlota de Torresen memoriaren ibaian eragindako oroitzapen arrotza zen, eta, insomniozko ordu luzeetan, Faióko tren-geltokitik, 1925eko greba handian, herri-suharreko gau hartara eraman zuen, non hiriko kaleetan espektro odoltsu zahar bat agertuko zen.

Ponzen globoa moilen gainean hegan egin eta, zubitik harago, suzko ilunabar baten atzetik galdu ahala, Harmonia Fluviala *Marsellesaren* doinura hiria gurutzatzen hasi zen, zerutik aldarrikatzen zuten aeronautak pasatu baino lehen. Alabaina, ordu baten buruan musika-tresnak mututu egin ziren supituki, eta osteria jotzen hasi zirenean, askoz beranduago, himno iraultzailearen notak Alargunen Moilan jo zen hileta-martxa batekin ordezkatuak izan ziren. Neskameetako batek, Veronicak –kontu handiz ibili baitzen festa errepublikarrean parte hartzeko enkargu baten abantailaz baliatu zirela ez aitortzeko–, zehatz-mehatz azaldu zion aretoan batuta eta gertakariekin aztoratuta zegoen Torres i Camps familiari. Júlia Quintanak telegrama bat jaso zuen, non Nelsonek aitaren heriotzaren berri eman eta abisatzen zion

Neptúren etorreraz haren gorpuarekin. Jaume jaunaren hunkiduraren aurrean, etxeko nabigatzaile izandakoaren heriotzarekin, Carlota-ren indiferentziarekin eta besteen beldurraekin atsekabetuta, Veronikak, oraindik oso hunkituta, ibai-ontziaren agerkundea –argiak pizturik, zeinaren zain jendeak, moilan, erregearen ihesa eta Errepublikaren aldarrikapena ospatzen ari zen– azaltzen jarraitu zuen. Zenduaren bi seme-alaben presentzia adierazi zuen, lehen andrearen bat eta bigarrenaren bi, eta ez zuen nabigatzailearen ezkontza-bokazioaren emaitza sortutako koinatu-, koinata-, iloba-, biloba-saldorik ahaztu. Torres familia mandoaren irrintziagatik ere konturatu zen –zeina, ontzia moilara hurbiltzen ari zelarik, *Neptúren* gainetik kortaren hurbiltasunaz jabetuko zen– eta baita ere Arquimedes Quintanaren alabaren patxadaz, zeinak ez zuen ez builarik ez beste oinaze-adierazpenik egiten, zendua manta batekin biltzen zuten bitartean (hemen, neskamearen ahotsak tonu fidakaitza hartu zuen, hainbesteko isiltasunak sorrarazten zion gaitzespena aditzera emateko). Azken erremate gisara, segizioaren formazio espontaneoaz, defuntuari etxera laguntzeko *Marsellesaren* ordezkari hileta-martxa jotzeaz, eta behin heriotzaren itzala uxatuta, festaren jarraipenaz informatu zuen Veronicak. Behin txostena amaituta, neskamea sukaldara joan zen, non bera eta Adelaida hausnarketa-mataza batean galdu ziren, ulertzeko ezgai zergatik Bigotes ihesean joana zen –hirian hola deitzen baitzioten erregeari– eta zergatik lau txakur txikiengatik haren tokian erregina, izen estrafalarioz Errepublika deitua, jartzen zuten.

Tronboiaren oroitzapen faltsuak obsesionatzen zuen. Musikak blaitu zituen gaueko orduak, muga lausokoak, zeinak, monarkiaren erorketari buruzko lehen berrien kezka eraginda, nahas-mahas asmaezinean zamalkatzen zirela zirudien. Aita, larrituta, luze geratu zen bulegoan. Gauerdia pasa arte ez zuen oheratzen somatu. Carmelaren ate-joka diskretuak balkoiko leihotik kalejira begiratzuz harrapatu zuen. Arma plaza betetzen zuen jendetzak Errepublikaren eta berak bere bizitzan inoiz entzun gabeko pertsonaia-zerrendaren aldeko gorak jaurtitzen zituen. Goresmen-oihuek Harmonia Fluvialeko kide guztien musikak itotzen zituzten, hainbestearino deboilatutak, non bonbardinoak –errepublikaren aldeko suharrak hain lan nekosoak ekartzekotan– inoiz osteratzen ez sartzeko zina egin baitzuen.

Carlota de Torres albiste txarren beldur zen: segur aski alferrik itxaron zuen neskameak kotxera atzeko atexkan. Huts egin zuen: linternaren argitara, kaleko harrabotsak izututako Carmelaren hazpegien atzean, Francesc Romagueraren figura azaldu zen.

Eguna argitzen ari zen neskameak Francesc Romaguera etxearen atzeko aldeko pasabideen labirintoen artean osteratzen zenean. Jarraian lehertu zen buila ia ganberaren balkoi azpian. Hasieran bere huts batean pentsatu zuen, jendetzaren zalapartak eraginda, eta ohe erdi eginean etzanda mantendu zen, oraindik dar-dar, hura betetzen zuen gizonaren usainaz gozatuz. Bestearen gorputza nahi zuen bere gainean, Francescen aurpegiaren igurtziaren laztasuna bere sabelean –berak bi izterrekin estutzen zituen haren aldaken zama sarketa bitartean–, haren hatsanka grinatsua, gero eta sinkopatuagoa, harik eta, husteko unean, arku bat bezala atezatzen sentitzen zuelarik, intziri erlats bihurtzen zen, zeinaren sustraian, Carlota de Torresi suntsiduraren desesperazioa antzematea iruditzen zitzaion. Arraren orgasmoak herrestan eramana sentitzen zen orduan. Poliki-poliki bertigotik ateratzean, beti gizonaren gorputza bilatzen zuen indarrik gabe, deseginda bere alboan. Samurtasun baldarrez laztantzen zuen baina maitaleak laster ihes egiten zuen ohetik, izara zimurtuen artean soilik bere hatsa utziz. Carlota nahiago zuen galderarik ez egitea Francesc Romagueraren sentimenduei buruz Faióko tren-geltokiko topaketaz geroztik, baziren sei urte, greba handia zela-eta. Orduan ere Carmelaren baldintzarik gabeko konplizitatearekin eta Hipòliten nahigabeko kolaborazioarekin,

meatzeak zirela-eta egindako bidaian, maiz ikusten zuten elkar. Lehen aldiz Fordean jo zuten larrua, kotxeran, non berak eraman zuen Francesc errebolberraren aitzakiaz. Orduan ere lehen aldiz Carlota de Torres, emana, zaurkor, eromenezko orgasmo batean urtu zen, ordura arte ezezaguna bera, zeina soilik Francescen besoetan lortzeko gai zen. Hura Madrilera itzuli zenean, Carlotak balkoiko gortinen atzean ezkutatuta begiratu zuen ibai-ontziaren joana; jarraian hormak dardararazi, mundu guztia kikildu eta Jaume jaunak, hari ez entzuteko, etxetik alde egitera –meatzera, kasinora, infernura– behartzen zuen haserrealdietako bat izan zuen. Intuitzen zuen Francescek ez zuela maite eta hura ez zela sekula aldatuko. Bere harremanak topaketa haiek izango ziren, lurdunaren semeak hirira egiten zituen bisita labur haietan eginak. Gaueko elkar-ikusteez, grina asetzeko besarkada beti laburrek, minduta uzten zuten; orduan arraren usaina bilatzen zuen izerdiz betetako izaretan, azal propioan, non Francescen haziarekin bustitako eskuak indarrez igurzten zituen.

Lehen aldian entzun nahi izan ez zuen oihua osteratzen zen, argi, nahasezin, bandaren murgatik at, zeinen kideek, bonbardinotik hasita, kalejiratik aldentzen hasi ziren, musikarik gabe utzi arte, egunsenti zalantzakorra Ebroko uretan dirdaitzen hasi zen arte. Ezin izan zuen saihestu: mamua, ustez desagertua, biziberrituta zegoen kaleetan, denboraren eskola pitzatzen zuen. Kezkatsu, mugitu egin zen. Etxalde inguruan bizi zen hiriak, Carlota de Torres sekula ez ezagutzen, ez ulertzen saiatu ez zen mundua hain juxtu, greba handian ere ez, bere kasa bizitzeko insolentzia zeukan, bere memoria gordetzeko eta kaleetan zehar mehatxu bat bezala oihukatzekoa. Zer egiten zuen guardia zibilak kasernan itxita? Zergatik ez zen ateratzen jendaila tiroz eta kulata-kolpe sakabanatzera, 1925ean bezala? Errepublikak! Honela zioen Francescek: nahikoa zen dozena erdi kanoikada jendilaje hura kikildu eta gauzak bere tokira itzultzeko. Gero, garbiketa on bat, saldu-koadrilatik hasita, zeinak, bere klasea ukatu ez ezik langileen alde jartzen baitziren. Hirian ere baibaitzeuden. Eta ez soilik Aleix de Segarra, azken finean euli bat akabatzeko gai ez zen inozo bat... Baina guardia zibila ez zen ateratzen, nahiz eta jada ez zegoen haren galdezka joan beharrik; greba handiaz geroztik, indar errepresiboak toki permanentea zeukan, ondo babestuta, hirian. Trikonioen iritsiera Barca kalezuloko lekaimenek hiri sinesgabea baino toki abegitsu baten bila konbentua uzten zuten egun berberean gertatu zen. Carlota de Torresek zehatz-mehatz gogoratzen zuen: zuri-beltzez jantzitako ilara ibai-ontzi batean igo berria zen, beren ondasunez kargatuta, eta euren artean ondoko hauek ziren nabarmenenak: harmonium zahar bat eta kaperako santokristoa, Gotzainen ontzia Segre eta Ebroren konfluentzian agertu zenean. Bi ontziek ia elkar ukituz gurutzatu ziren Alargunen moilan. Erlijosak joaten uzteko bekatu ikaragarriak izututa –Feliça Roderesek, Apokalipsiaren Balkoitik partekatutako iritzia bera, zeinari ordenako arazoak poltsikoa irekiz konpontzeko errefraktario ziren guardiek ez entzun egin zioten–, Gotzain ahalik eta gehien hurbildu zen beste ontzira, ama nagusiaren aurrean bere sufrimendua erakusteko. Erlijosak ikustean, goardien komandanteak, ibai-ontzia deltatik igotzen ari zen arroz-zakuen aurrean, tropak formazioan ipini eta armak aurkeztu zizkion. Arranpaloa bezain zurrin, trikornioek, karelaren kontra jo zuen potolo batek izan ezik, ordena bete zuten, Ebron garbitzen ari ziren emakumeen eta moiletan lanean ziharduten nabigatzaileen begiradapean, ibai-ontziaren mugimenduak desorekatuta. Orduz geroztik, indarra hiriko paisaia integratu zen, brigada berehala onartua izan zen Rodako Kasinoan, non bere presentzia uniformeduna, bibotedun eta harroa, ordena-berme bat zen jauntxoentzat, meatzarien errebindikazio gero eta antolatuago eta sendoagoen aurrean urduri. Baina non zeuden orduan? –zioen Carlota de Torresek, 1931ko apirilaren 14ko gauean–, zergatik ez ziren atera eta buila errepublikarra moztzen? Zergatik ez zuten azken taldeek jaurtitako oihua, odol-iragarpen bat bezala izugarria, itotzen?

—Gogoratu Arnau Terror!

1971n paisaia ez zen berbera. 1931ko apirilaren gauean oihua entzuten zen toki gehienak ezezagunak ziren orain. Oroitzapenaren multzoa hondakinetan galtzen zen, orduko mugarririk gabe. Senalla plazan —Arnau Terreren memoria berpizten zuen ahotsa entzun zen lehen tokia bera— etxe bat besterik ez zegoen zutik. Ahotsa Arma plazarantz bideratu zen ibilbidean, eraikin hildakoen zauriek memoria desbideratzen zuten. Llorenç de Veriuren hezurak Terueleko lugorri batean sartuta zeuden hogeita hamar urte lehenago, eta haren etxea hirian erortzen lehena izan zen suntsipenen lehen egunean. Carlota de Torresi iruditzen zitzaion ezen oihuak, soilik bere burmuinean entzuten zena bera, ganberako balkoitik igo eta isiltasuna berpizten zuela. 1931ko apirilaren 14an kolpatu zuen sumin berbera oster a bizitzen ari zen, jabetzean, ezen aurreko kalejirarekin zerikusirik ez zeuzkan ahotsen bitartez, meatzarien heriotza ez zela ahaztua izan; bizirik jarraitzen zuen Arnauren hilotza Ebroren alboan aurkitu eta sei urte geroago. SELLERES alargunaren auresana betetzen hasia zen, jauntxoaren artean kanpotarraren heriotza aringarrik gabe kondenatzen eta ondorioak sumatzen lehen botereduna zelarik.

—Gogoratu Arnau Terror!

Errepublikaren aldarrikapenaren gaua kotxeraren atzeko ate ondoan ere entzun zuen Carmelak, juxtu neskameak Romaguera ateratzeko irekitzera joan zenean. Ez zuen giltzarrapoa askatu. Taldea urrundu eta Forn Maldaren beste talde bateko abestiekin nahastea itxaron zuen. Francescek ez zuen ahoa ireki, baina Carmelak sentitu zuen nola urruntzen zen: hori bete-betea zegokion, nahiz eta, egitateak gertatu zirenean bera ez zegoen hirian, eta ez zuen meatzarien liderraren heriotzak eragindako zalapartak bizi.

Riberreko bidearen alboan aurkitu zuten gorpua, harkaitz baten azpian Ebrotik gertu. Ipuru baten gainean zegoen, eta adar batek zulatzen zion bihotza. Hilotza aurkitu zuen arrantzaleak, abisua ematera hirira iritsi ahala, norbaitek istripu batean hil zen bertsioa zabaldu zuen. Baina galdera berehala sortu zen: zertara joan zen Arnau Terror hara, hiritik hiru ordutara, alde hartan alorrek zeuzkaten nekazari gutxi batzuek besterik erabilitako bide batetik? Aurreko gauean etxeratzerakoan, San Francisc eta Arma plazarekin bat egiten zuen kalezuloraino lagundu zioten lagunak ziren bizirik ikusten azkenak. Berak bakarrik jarraitu zuen Aingiren Tabernara sartzeko. Baina Arnau —ziurtatu zuen tabernariak— ez zegoen oraindik etxean berak azken bezeroak agurtu zituenean, ia ordu bete beranduago. Bere ohean ere ez zuen lorik egin, istripuaren berri izan zuenean konprobatu zuen bezala, eta ez zen bere neska-lagunarekin ere egon. Zer gertatu zen San Francisc kalezuloko iskinaren eta tabernaren artean? Nork irents zezakeen, Arnau heriotza aurkitu zuen tokira nahita joan zela, suposatuz, harkaitzaren gainetik ipuru baten gainean ezustean erori eta bihotza zulatzen zion adarraren istorio absurdua? Krimenaren susmoa ziurtasun bihurtu zen arratsalde erdian, mister Oliver Wilsonek ohiko txango geologikoetako batetik bueltan gauzak jakin zituenean. Ingelesak, ostatuaren aurrean bildutako talde baten asalduraren erdian, ziurtatzen zuen ezen, goiz-goizean, Ebroke bailarako harkaizti azpian lagin mineralak jasotzen zituen bitartean, Riber bidetik hirira presaka itzultzen zen norbait ikusi zuela. Atzerritarrak emandako xehetasunen arabera —platoko kapela, errentasun arina ezkerreko oinean—, pertsonaia hiriko aguazila besterik ezin zitekeen izan, alkatearen eskuineko eskua alegia. Gau aldera, jendearen amorru inpotentearen aurrean, sikarioak, goardia zibilek lagunduta, Vell Senglar Fondan aurkeztu eta hiritik berehala kanporatzeko agindua jakinarazi zion mister Wilsoni. Geologoa, beti edukatua eta korrektua —hainbeste non, Nelsonen ezkontza-egunean, bazkarian ronez blaitu eta zutik ezin zuelarik egon, Atanasi Berpizkundek

lepoan itzuli zuenean ostatura, kapela burutik kentzen ez zen ahaztu jendea agurtzeko—, une hartan bere senetik atera zen. Hitz ulertezinak oihukatuz, funtzionarioaren kontra oldartu zen, eta guardia zibil pareak lanak izan zuten hari eusteko. Geologoak eta Agatòcliak ekipajea egiten zuten bitartean, indar errepresiboek ostatuaren atean guardia egin eta ez zuten inor sartzen uzten. Eskualdeko instrukzioko epailearen kalesak eta furgoiak hilotzarekin ordu ttikietara arte itxaron zuten hiritik at, hiribururantz gurutatu aurretik. Biharamunean, mister Wilsonen eta Agatòclia Molinaren joanetik ordu gutxira, hiritarrek, jendarte isilak moiletaraino lagunduta, hilotza Riber bideko puntu hartan aurkitzearen arrazoia atzitu zuten. Udal-mugen banalerrotik metro batzuk harago zetzan; arazoa, beraz, hiriko jurisdikzioari zegokion, non Damià de Penyalver Txit Agurgarria zen epaile titularra, eta mediku forentsea Ricard Canota jaun agurgarria ere, hurrenez hurren hiriko alkate Sadurní Romagueraren koinatu eta lehengusu. Izapideen emaitza ofiziala istripuzko heriotza izan zen eta, protestek, euren artean nabarmenenak Moilako Kafetegikoek, ez zuten ezertarako balio izan. Behin hasierako amorrua itzalita, ematen zuen arazoa ahaztuta zegoela, baina beste hiriak —Carlota de Torresek ahaztu edo mespretxatua bera— presente asko izan zuen urteetan zehar. Horrela nabarmendu zuten Errepublikaren aldarrikapen-gauean, Sociedad Recreativako zinema-aretoan, hirukoloreko banderez apainduta, egun batzuk aurrerago errepikatutako ahots haiek, Aleix de Segarrak, Arquimedes Quintanaren heriotzarekin deprimituta, Udaletxeak hala eskatuta, erregimen politiko berriaren errestituzioa piano-kontzertuarekin ospatu zuenean.

—Gogoratu Arnau Terror!

Ia berrogei urte beranduago, Carlota de Torresen ebokazio-unean, berpiztu nahi izan zuen oihuaren oroitzapenak. Baina, suntsiketek desitxuratutako kaleetan galduta, entzungarri egin aurretik desintegratu egin zen Alargunen Moila gainean, ontzi mortuetako masten ia ondo-ondoan.

Júlia Quintana agurtzeak sakonki nagitu zuen Nelson zaharra. Moilako Kafetegira itzuli bitartean, argazkietan aurkitutako oroitzapenak beste egun batzuk ekartzen zizkion gogora. Batzuetan, argazkiak nabar-nabarmenak ziren, beste batzuk zurrunbiloan biraka aritu eta errauts-kiribiletan desegiten ziren, harrapatu nahi izanez gero.

Behin eta berriro agertzen zen Arquimedes Quintana: *Neptúren* hondoan etzanda ikusten zuen haren hilotza, Ponze ingeniariaren globoa ontzi gainean igarotzen zelarik 1931ko apirilean, eta arranguraz gogoratzen zuen bere hoztasuna ezbeharraren aurrean. Ez zuen haren irismenean erreparatu hilerrian ehorzteko momentura arte. Batzuetan zalantzaz galdetzen zion bere buruari idorte haren arrazoiak. Ez lehorreratzeak Alargunen Moilan, jendetza alboan metatuta, ez Júliaren oinaze isilak aitaren gorputzaren aurrean, ez zuten lortu bere indiferentzia moztea. Beila-orduan ausente egon zen, ia ez zituen berbaldiak entzuten. Ez zuen egoera politiko berriak bertaratuen artean pizten zuen sugarrean, kalejiraren hondoko musikarekin, partekatzen. Erregea, Errepublika... Zer zen hura? Zer esan nahi zuen? Júliaren gizonaren hitzak, erregimen berriak ekarriko zituen aldaketekin ilusionatueto bat zelarik, ez ziren bere azaletik pasatzen. Oinazeak supituki kolpatu zuen hilerrian, Jeremias ehorzleak –kalikeño beltza ezpain-ertzean, pipermorro-sudurra eta beti hordi dagoenaren begirada uherra– nitxoaren ahoa baldarki estaltzen zuenean apirileko egunaren urdin distiratsuen pean; hondora zihoala sentitu zuen, bakarrik sentitzen zen hustasun ilunean, ezin besarkatuzkoan, izotzezkoan. Gauean ez zuen lorik egin eta oster *Neptúrekin* ibairatu zenean intuitu zuen Ebro bera ere arrotz gelditu zitzaiola. Beraren eta ibaiaren arteko lokarria apurtu egin zen, eta hori ez zen eskifaia konturatu gabe gertatu, ez eta ibai-ontzia bera ere –Atanasi Berpizkundek esan ohi zuen bezala– zeinak tarte batean nabigatzeko finezia galdu baitzuen. Durdizatuta, Nelsonek erretzat eman zuen bere sasoia, zaharra sentitu zen. Orduko memoria hiru asteren buruan amaitu zen larridurazko amesgaizto bat zen, egun zorizkoa baina funestoa ere bai, bere nabigatzaile-historiako orban beltz bakarra.

—Gaur bidaiari bat eramango duzu —eman zion aditzera ukuilu-zainak, Simó de Figueresek, kortetara sartzen ikusi zuenean—. Neskameto bat jaitsi berri da, ikusgarri den huraxe, administratzailearen partetik esatera.

Harritu egin zuen. Bidaiarien mugimendua ibaitik etengabea zen baina ugazabak ez ziren sekula sartzen: hartu edo ez hartu patroiei zegokien. Administratzaileak, hain zuzen alargunak, bere ohean instalatu zuen hirugarrena *Polifemen* hondamendi ostean, neskame bat bidali bazuen egunsentian, kasu berezi bat izango zen.

—Nor da?

Ukuiluzain zaharrak mando baten bizkarraren lisotasun epela laztandu zuen muturgainekoa ezarri baino lehen; dardar indartsuak gurutzatu zuen animaliaaren azala, uhin bat balitz bezala, lasto- eta gorotz-usain bero eta mikatzez betea.

—Ikusi. Moilan dago. Neska iritsi den ia aldi berean iritsi da. Neskato hau sarriago bidali beharko zuketela hona... Jainkoarren, horiek izterrak!

Leihora hurbildu, begirada bat bota zuen nasetara. Tindu morez margotutako ortzimugaren ondo-ondoren ateratako eguzkiak argitutako ontzien alboan, Francesc Romaguera ikusi zuen. Jauntxoaren bi pausotara, morroi batek zaintzen zuen ekipajea.

—Zergatik ez duzu unea baliatu eta ibaira botatzen, Nelson? —marmartu zuen ukuilu-zainak haren atzean—. Putakume bat gutxiago... Eraman morroia ere, balakari horrek ez du besterik merezi. Edozer gauza egiteko gai dira jaunaren begirada edo hitz baten truke. Ez al duzu inoiz entzun, estoldetako arratoi hau, ugazabak dion begirunez harroputzarena egiten? Nire senetik ateratzen nau! Dohakabea! Jaunak urtean behin petaka luzatzen die, eta horrek bizi diren miseriaz ahantzarazten ditu... Komeni bada emaztea edo alabak izorratzea uzten diete...

Nelsonek ez zuen haserretzeko gogorik ere izan; azken finean bi zeregin izango lituzke. *Neptú* ez zen berea, Salleres alargunarena baizik. Administratzaileak Francesc Romaguera ontziratzea agintzen bazuen, ez zegoen ezer esaterik. Mihiari kosk eta izorratu. Kortetatik atera zen, ukuilu-zainak, ero-haizeak jota, jauntxoaren aurkako hitzak jaurtitzen segitzen zuen bitartean; marmarti zaharrak bazuen aitzakia egun osoan ernegatzen egoteko. Berandu gabe igoko zen ganbela batera animaliei munduaren miseriei buruzko diskurtsu iraultzaile bat botatzeko, goiz hartan neskamearen aldaken graziak goxatutako diskurtsua bestalde.

Nelsonek moilara jaitsi, mundu guztiari egunon emanez agurtu, bidaiaria ontziratzen lagundu eta Atanasi Berpizkunderi ekipajea igoarazi zion. Patroiaren tokitik, txopan, mendean zeukan ontzia. Peoien aurpegi latzek jauntxo apainduaren presentziak eragiten zien umore txarra erakusten zuten. Romaguerak, maleta gainean ikatzez ez zikintzeko ardura handiz eserita, zigarro bat piztu zuen morroiaren agurrei displizentziaz erantzun baino lehen, *Neptú*, behin palanka kenduta, mantso-mantso nasatik abiatu zenean.

Hiri osoak begitan hartuta zeukan Francesc Romaguera, eta fobia horretan ez zeukaten zerikusirik hiriburuko auzilarien gauek Carlota de Torresekin —ahoz aho zebiltzan gauak eurak— zeinei buruz Adelaidak eta Veronikak informazio zehatza eta xehea ematen zuten, Carmela, ganberako atearen zentinela erosezin eta jeloskorrengandik ezkutatuta, pasiloetako ilunpetik entzundako ohantzearen karrankarik, intziririk edo builaren hasperenik gorde gabe. Ohe-kontuetan, jendea miazkada pozkorraren aldekoa zen, eta Carlota Torresen maite-jolasek Sadurní Romagueraren semearekin jada ez zeukaten sei urte lehenago jendearen atentzioa merezi izan zuen berritasunaren interesik. Bestalde, andereak Hipòlit engainatzea fatalitate antzinako eta oso ezagunari zegokion. Honorat Kafetegikoak zioen —ordurako erretiratu eta bere denbora botanikako eta farmaziako lanabes-kolekzioei, eta irakurtzeko grinari, ematea serioski pentsatzen ari zena bera— ezen familiaren gainean patu-moduko bat zegoela, modu gutxi-asko nabarmen baina hutsezinezkoan, belaunaldietan zehar zerikusia zeukana kideekin. Horren arabera, lagin modura, ikerketa definitiboaren aurrerapen gisa, konstatatzen zuen, ezen Salleres alargun-familiako mota esanguratsu askoa zela, non senarrek emeak ernaldu, hil eta ezkon-ohean konfiantzazko gizoni toki egiteko ezinbesteko denbora irauten zutela (urtea gora, urtea behera). Aldi berean botikariak Sans familia erotzen zituen nahaspila legalak nabarmentzen zituen, beti auzibide legeletan sartuta, belaunaldi batetik bestera akatsik gabe igaroak, hainbeste non esan ohi zen, alegia, Juli Sansa zulora joan zela gutxien-gutxienez lustro oso bat gozatzea pentsatzen zuen oso prozesu korapilatsu eta oparoa instant batean irabazita. Nork uka zezakeen Saboagatarrak denak —balio ukaezinezko ontzi-gidariak eurak— bizitzan gutxienez behin trabatzen zirela Ferradurako irlan, zorigaizto are harrigarriagoa kontuan hartzen

bazen arriskurik gabeko puntu bat zela non inoiz beste ontzirik ez zen trabatu? Quintana de Rocatarrak beti hiltzen ziren ostegunez; Olivertarrek lignitozko betak susmatu eta mandragora aurkitzeko dohaina zeukaten; Castellótarren behorak beti antzuak ateratzen ziren eta patu saihetsezin batek kondenatzen zituen Mórako gizonak zegozkien emazteek engainatuak izatera. Adardun-tradizioa (baina ez kabroiak –zehazten zuen botikariak–, zeran Móratarrek ezin zuten enoratzen zutenera makurtu, ez eta emazteen bertutea zalantzan jarri) soilik Desideri Móra egon zen hausteko zorian, ezkondu eta sei urtera, oraindik emaztea adarrak jarri gabe baitzegoen. Gertaera horrek halako inpazientzia sortu zuen hiritarren artean, non jendea ez zen arinduta sentitu, harik eta anderea Lleidako zinegotzi batekin laprast egin zuen arte. Patua bete zenean, emaztea, adiskide bati aitortu zion bezala, gustatu ere ez zitzaion (eta dena esateko, memelo hutsa zen) gizon baten ohera sarrarazi zion bulkada ulertzeko ezgai, Desideriren ondora itzuli zen gorputz-ariman, zeinarekin benetan maiteminduta zegoen, beste inoiz hutsik egin gabe, ez eta pentsamendu hutsez ere. Hipòlit de Mórak destino familiarra jasan zuen, baina, amaginarreba ez bezala, Carlota de Torres ez zen lasaitu ezusteko saio batekin. Greba handiaren ondoren, Francesc Romaguera hiritik agertzen bazen, meatzetako paper-arazoak sortzen ziren, zailtasunak Marsellako botika-enpresarekin –fabrikako erregaliz-estraktuaren inportatzailea bera– edo arazoak Torres i Camps eta Móra i Torrestarren balore-inbertsio ugariekin. Hipòlitik Madrilera edo Frantziara joan behar izaten zuen. Hori, bestalde, beti gustukoa zitzaion berari: egokiera, luxuzko putetxeak bisitatzeko baliatzen zuen, non beti —konpentsazio-legez, Honorat Kafetegikoaren arabera– neskaxa ilehori, argal eta gozoak exijitzen zituen.

Hiriaren ertsaitasuna Romagueraren aurka –zeinaren adar bat *Neptúren* eskifaiaak ontzian sartutakoan egindako marmarrak ziren– 1925eko udatik zetorren, abokatua bere aita baino harroago eta gogorragoa agertu zenean meatzariekin. Arnau Terreri belarrondokoa emateraino iritsi zen Udaletxeko ate ondoan izandako istilu batean, non, grebalarien ordezkariak alkatearekin bilduta zeuden ugazabekin hitz egiteko bertara sartzen saiatzen ari zirenean, hark agiraka egiten ziolarik. Memoria hiritarrak jauntxoaren irudia gordetzen zuen, langileen liderrarekin izandako gertakariaren ondoren manifestarien “jendaila gorriaren” aurka asaskatuz, guardia zibilak babestuta. Arnau hil zenean, Romaguera gaztea ez zegoen hirian; Madrilera itzulia zen aste bete lehenago, baina inork ez zuen absolbitzen –Rodako Kasinoko kontziliabuloetako kontserbadore amorratueneke ere ez– krimena eragitean zeukan erantzukizunetik. Gogoan zeukaten jauntxoak liskarrean jaurtitako mehatxuak, asanbladak eta manifestazioak erreprimitzean jokaturako papera. Meatzaria hiltzeko aginduaren autoreari buruz ez zegoen zalantza-izpirik. Krimena gertatu eta urtebete ez zela, mister Wilsonen Riberreko bidean ikusitako aguazila astebetea suntsitu eta asko hitz eginaraziko zion gaixotasun arraro baten biktima izan zen. Heriotzaren urrats batera, borraroa, izututa, alhadurak janda, Sadurní Romaguera madarikatzen hasi zen, zeinaren erruz –egiten zuen oihu– eskuak Arnau Terreren odolarekin zikinduta zeuzkan. Familia, aztoratuta, beilako jendea ganberatik bota eta hil hurrenaren oihu izugarriak estaltzen saiatu zen ahoa toaila batekin estaliz, baina jada ez zegoen erremediorik. Mundu guztiak entzun zituen haren hitzak eta hiria historiaz jabetu zen: liderraren atxilotzea Aingiren Tabernara lo egitera zihoanean, preso udalerritik kanpo lekualdatzea, errebolber-tiro batekin asasinatzea, zaurian ipuru-adar bat sartu izana istripua simulatzeko... Aguazila, mozalean zehar atera ezin zuen agoniaren estertorea irentsiz, bi egun geroago hil zen, ziertoak dardaratutako egunsentian. Defuntua ehortzia –arrats morea, hilerriko nekosten artean segizioa lau katuak bilduz–, ematen zuen aguazilaren

errebelazioak hiltzailearen irudiarekin batera desegingo zirela. Baina hiriaren isiltasunak ez zuen ahanztura esan nahi. Horrela bada, garbi geratu zen Errepublika aldarrikatu zen gauean, jendaldea hiriko kaleetan Riberreko bidean garbitutako liderraren izena oihukatu zuenean.

Azken gertakariak Francesc Romaguerari buruzko edozein zalantza ezabatu zuten. Nelsonek eta eskifaiak ezagutzen zituzten jauntxoaren erregimen-aldaketari buruzko adierazpenak, bere aitarenetan kalkatuak, zeinak ere haserre bizia erakusten zuen alkate errepublikarrak bere tokia hartu zuenetik. Aita eta semea oihuka ibili ohi ziren Rodako Kasinoan, non hainbeste hitzezko liskar izan zituzten hiriko medikurik gazteenarekin eta konbikzio errepublikarreko beste kide batzuekin, zeinak aurrerantzean ez ziren jauntxoaren egoitzara itzuli. Ordurako, kasinoko ispiluak Von Müllerren monokuloarekin jolasten ziren –“nazi nazkagarria”, Estanislau Corberak Moilako Kafetegian marmartzen zuenez–, Romagueraren bitartekaritzaz Ebroren alboan lursail handi bat erosi zuen alemana bera. Atzerritarrak irrati-emisora bat eta behatoki meteorologiko bat instalatu zituen bertan. Neskaxa gazte eskultural arioak, oso-oso altuak eta Alemaniatik etorriak, hiritik igarotzen ziren jabegoaren bidean; nabigatzaileek eta arrantzaleek, txundituta, azaltzen zutenaren arabera, negu gorrian Ebroko ur izoztuetan igeri ibili ohi ziren.

Goiz hartan, Nelsoni bost axola horrek. Uretaratu orduko, lozorroaren oskolean itxi zen *Neptú* arerioa begiartez behatzen zuen bitartean. Eguzkiak agudo argitzen zituen uraren urdin ilunak; urertzetan, bagoiak, animalia etsiek garraiatuta, meatzetako nasetako bideetan eta zaborrezko pendizetan abiatuak ziren. Arraunketaren kadentziak lozorrotu egiten zuen patroia. Bere burmuinaren barruan pentsamendu ilunak metatzen ziren: alaba zenduaren oroitzapena, beti presente, Arquimedes zaharraren irudiari lotzen zitzaion eta laxotasun izugarri batek behingoz amaitzeko gogoia pizten zion: tiro bat zen ihesbidea jasanezinezko egoera batean, eta ideiak obsesionatu egiten zuen.

Nabigatzaile zailduen eta orekatuenek ez zioten gertakariari Arquimedes Quintanaren heriotzaz geroztik Nelson barrutik jaten ari zen abaildura beste azalpenik aurkitu –destinoaren jokaldi gaiztoa izan ezik, zehazten zuen Honorat Kafetegikoak–. Patroiak berak ere ezin zuen distrakzioa ulertu: zarata ikaragarria izan zen, gila zapartatu balitz bezala. Mugimendu sor batekin, kainak Nelsonen izterrak jo eta airean bota zuen karela gainetik. Zerua zurrumbilo bat bezala biraka ikusi zuen, uretan bizkarrez erori baino lehen, brankako bitetan eusten saiatzen zen bitartean. Atanasiren madarikazio erdia besterik ez zuen entzun, ohiz luzeak jaurtitzen zituen arren, ete berea irentsi zuen –Tetuango beteranoarengandik hartuta, erribera osoan ezagutzen zuten “jainkoaren barrabilak” motx bat besterik ez– ur-trago luzearekin batera. Talka sentitu zuen hondoko harriekin eta, eztulka, zutik jartzerik izan zuenean, hondamendiaz jabetu zen: irla batean jo berriak ziren. Arraunkadak beren bankuetatik erauzi zituen arraunlariak, mandoak desesperazioz ostiko egiten zuen, ontziak ababorrean egin zuelarik desleikututako ikatzaren masa beltzaren artean zutitzen saiatuz.

Ia berrogei urte beranduago, Moilako Kafetegira zihoan bitartean, Nelson zaharrak –Júliaren agurrak berpiztutako oroitzapenez beteta– topadaren lotsa, inoiz ez ezabatua, berpizten zuen. Zorionez ibai-ontzia ez zen txikitu. Hala ere, lignito-tona asko bota behar izan ziren uretara libratzeko. Urradura bat edo beste, peoiak onik zeuden. Soilik jauntxoa, tolet baten kontra jo ondoren, zorabiatuta, modu eskandalagarrian odola zeriola zegoen.

Lotsaren astinduak Arquimedes Quintanaren heriotzak sartu zuen lozorrotik aterarazi zuen. Kolpeak eta mineralaren galerak ariman sartu zitzaizkion, alargunaren defentsa izan zuen arren –“Infernura ikatza. Nelson Ebroko patroirik onena da”–, eta orduz geroztik ezin izan zuen Ferradurako irlaren paretik pasa gertakaria gogoratu eta ontziak hondoaren aurka egindako karranka entzun gabe. Uhartearen adimenaren iltzatuta geratuko zitzaion, bost urte geroago, Ebroko ibai-ontzi bateko patroia estimuko zauria edo Salleres alargunaren lignito-ona batzuen galera baino nahasmen handiago batengatik.

Ez zebilen hego-haizearen bafadarik batere. Mundua, uztailleko bero sapak jota, pitzatu egiten zela zirudien. Ibarraren isurialdeetako harritza hori eta gorrien artean beleak karranka ari ziren. Mandoa mantso-mantso zihoan ezkerreko ertzetik ibai-ontzia zirgatzuz. Tortosatik bueltan, hiritik jada gertu, *Neptú* ontzia Ebro ibaian gora zetorren arroz- eta buztin-karga handi batekin. Ferradurako irlatik gertu, Joanet del Pla, pertxarekin brankan saiatzen zelarik animalia ahalegina arintzeko, oihu handi bat jaurti zuen bat-batean, irlan sahatsez beteriko puntu bat seinalatzen zuen bitartean.

Nelsonek ez zion kasu handirik egin. Beste pentsamendu batzuk zeuzkan: Faióko moiletan goizgoizetik Marokon izandako matxinada militar bati buruz hedatzen ziren albiste oraindik nahasiek kezkutzen zuten. Bai, Afrika urrun zegoen eta berriak komentatzen zituen patroir miravetarrak hura ez zela deus izango ziurtatzen zuen, hutsean geratuko zela, baina denek gutiziatzen zuten hirira iristea, non oraindik bor-bor zegoen Fronte Popularraren garaipena otsaileko hauteskundeetan. Jendeak esperantza erreperatu berria zeukan Errepublikaren aldarrikatu geroztiko frustrazio batzuen ondoren, baten bat hain mingarria eta hain oihartzun handikoa hirian, adibidez Asturiaseko meatzarien iraultzaren errepresioa. Ostera ilusioa zegoen, eta edonon –sozialistak Moilako Kafetegian, ezkerreko errepublikanoak Zentralekoan eta komunistak Harresikoan, Aingiren Tabernan non libertarioak batzen ziren, ia aurrez aurre– jendeak konfiantza zeukan garaipenaren fruituan. Baina Nelsonek ez zituen gauzak hain argi ikusten, ez zuen egoeraren libragailurik bistaratzen ez eta hirian militanteak zeuzkan partiduetarik zeinek zeukan mitin bakoitzean agindutako paradisua erdiesteko benetako aukera. Diskurtsoek nekarazi egiten zuten, teoria politikoek ahoa zabalarazi eta nekarazi: ez zituen ulertzen. Zentzu arruntak ez zion beste baliabiderik eskaintzen xede politiko bakoitza zegozkion buruzagien ezaugarrietatik bereizteko. Jarrera hark –aski argitasunarekin saihestutako buruhaustez bete, hain zuzen– gauzak terreno ulerkor, egunerokora zeramatzan, zerua kipulazkoa zela eta hozkadaz ekin ahal zitzaioela sinestarazi nahi zioten itxurakeriaz biluztera. Liderrak hezur-haragizko jende bihurtzen zituen, kafea bere alboan hartzen zutenak, meatzean ikatza atera edo ibai haietatik nabigatzearen nabigatzeaz nekatzen zirenak; ezkontzen zen jendea, gaixorik paratzen zena, dantzara joan ohi zen jendea; bizitzaren erasanetatik pasatzen ikusten zuen jendea, maitatua eta agian aspergarria. Bestalde ez zuen batere argi ikusten, ez behintzat Atanasi Berpizkundek bezainbat argi. Peioak komunismoan ikusten zuen konponbide eztabaidea, eta partidurantz jo ohi zuen. Non zegoen egia munduko arazoak konpondu behar zituztenen arteko diskrepantziak etsai komuna ahaztu eta euren artean larrutzeraino pozoinduak baziren? Azken finean, ez ote zuten ugazaba bat beste batekin trukatu eta orain arte bezala edo gehiago lanean jarraitu beharko? Posible al zen gauzak aldatzea? Atanasik zioen Errusian... Baina Errusia urrun zegoen eta auskalo zer zegoen egitik propagandak zioenean.

Batzuetan uste zuen buruan bueltaka zebilzkion gauzez Aleix de Segarrarekin hitz egin beharra zeukala, baina ez zen horretara ausartzen. Aleix de Segarrak Arquimedes Quntanarekin izandako harremana zela-eta, Nelsonen eta artistaren artean errespetuzko oztopo bat zegoen. Marrazkilariak kikildu egiten zuen. Ez zuen partekatzen Aleix de Segarra eta beste jauntxo errepublikar batzuekiko –inoiz langileekiko sinpatia zeukatenak eurak–, mesfidati sentitzen zen jende askoren deserosotasun-klasea, mendeetako errezeloarekin ilunki oretua bera. Norberaren klasea ukatzea azken finean desegin nahi zutenen interesak defendatzeko, ume temosoen bihurrikeriatik harago zihoan ala –batzuek argi adierazten zuten bezala– hanka bat alde banatan finkatzeko modua zen, haizea nondik jotzen zuen beti abaroan aurkitzeko? Holako ezer ez zitzaion probablea iruditzen Aleixi zegokionez, jauntxoek betiko zokoratua egonik. Edeneko garaietan egindako erokeria batzuk jarrera barkaberaz kontenplatu zituzten arren, kontserbadoreek ez zioten barkatzen bere jarrera Arnau Terreren heriotzari buruz eta are gutxiago haren aldeotasun argia Errepublikaren alde lehenago eta Frente Popularraren alde orain. Azken garaietan, gainera, Nelsonek gutxi ikusten zuen...

Patroiak ez zuen astirik izan Aleixen isolamenduaren arrazoiari buruzko espekulazioetan korapilatzeke, artisten ustezko maite-jolasak alegia –izugarriak, iraingarriak, diabolikoak, Feliça Roderesen iritziz, Apokalipsiaren Balkoitik askotan lausoki aipatuak eta Lleidako gotzainaren aurrean konfidentzialki salatuak–, Joanet del Plaren oihuek pentsamenduak uxatu baitzizkioten.

—Zer gertatzen da?

—Gorpu bat ikusten dut irlan, sahatsen artean.

—Arranopola –bota zuen Atanasi Berpizkundek–. Itotako bat izango da.

Nelsoni zintzurra korapilatu zitzaion. Joanet ez bazen nahasten –gauza ia ezinezkoa oso ikusmen zorrotzekoa zelako– beso bat emango zukeen handik urrun aurkitu eta gorpua jasotzeko estualdian ez egotearren. Eginbehar hura bete beharrak, humanitarioa bezain legala, gaixoarazi egiten zuen: heriotzaren irudia beti hunkigarria bazen, ibaian nazkagarria, izugarria izan ohi zen. Lliberolan desagertutako aitagan pentsatzen zuen beti, ziur aski, dohakabe haiek bezala, zahagiak bezain puzturik, lohiz zikin, aingirek murtzikatuta amaituko zuena. Bakoitzean, denborak irudi obsesiboak kentzen zizkion arte, gorroto zion ibaiari, madarikatu egiten zuen.

—Non dago?

—Irlaren muturrean.

Mandoa gelditu, zirga askatu eta uharterantz bideratu zuen branka. Ebro, ispilu txinpartaduna, xarmagarri zegoen; bafada urdinska eta likatsua dardaratzen zen Ferradurako irla gainean. Joanet lehorreratu eta hartxintxa-zerrenda batetik landaredi artean bistaratzen zen formarantz abiatu zen. Nelsonek ez zuen begiratu nahi. Nor izango ote zen? Hiritarren bat? Bestela, nondik eraman zuten urek, non ari ziren haren bila larriturik? Lehorreratzea erabaki zuenean, barre-algara lehertu zen sahatsen artean. Nelsonek galde egin zuen, aurkikuntzak ez ote zuen peoia nahastu. Madarikatu egin zuen.

—Nelson, etorri! –besteak, oihuka–. Sekula ez duzu holakorik ikusi.

Ibai-ontzitik salto egin eta sahatsetara abiatu zen. Espartinen artetik, oinazpietan hosto lehorrak bezala hausten ziren lohiz estalitako harrien erredura sentitzen zuen. Beso bat airean altxatuta

ikusi zuen, esku bat hiru hatz mutilaturik. Sahatsen adarrak bazterturik, gorputza lohiz beteta ageri zen, aurpegia masail bat uretan sartuta eta bestea erdi deseginda. Begi baten zuriak dirdai bi lohigune beltzen artean dirdai egiten zuen, begi-nini geldiak hodeirik gabeko zeruari begira.

—Estatua bat! —jaurti zuen Atanasi Bepizkundek.

—Santu bat! —Joanet del Plak arinduta, figura ureztatuz garbitzeko asmoz—. Elizako santu bat!

Lohia irudiaren masailean behera irristarazi, eta haren polikromia bistan uzten zuen: masailen arrosa zurbila bizarraren ilundurara pasatzen zen, luze eta kizkurra bera, non ezpainen gorria lehertzen zen.

—Gotzain bat dirudi —marmartu zuen hirugarren peoiak, zeinak animalia eskuineko ezpondan lotuta utzi eta irlatik bereizten zuen kanala igeri pasatu zuen.

Nelsonek irudiaren garondotik igurtzi zuen eskua.

—Lagundu.

—Utzi, utzi...

Atanasi Bepizkundek figura erraldoia destrabatu —bizirik balego bezala mugitu zen besoa— eta zuzen ipini zuen. Bularra, non zur polikromatuak dalmatika bat erakusten zuen, arrakala bat zirudien: zuloz beteta zegoen, pipiak janda bezala.

—Eskopeta-tiroak dirudite —bota zuen Joanet del Plak.

—Arrazoa daukazu —esan zuen Nelsonek, taila sahats batean bermatuta uzten zuten bitartean. Mandazainak, irlari jarraituz, oihu egiten zien.

Hegoa, hura ere urrezkoa, zuritasuna lohiak orbainduta, ikusgarri zen ihien artean; gazte ilehoriak begirada urdinez begiratzen zuen, sudurrik gabeko fisonomiatik.

—Arraioa, aingeru bat!

Ezkerreko hegoa falta zitzaion, soilik esku bat zeukan eta gorputza zauriz beteta zegoen.

—Txo gizajoa!

Bigarren bizarduna, ia biluzik eta eskuin eskuan burezur batekin, aingeruarengandik hurbil eta laugarren irudiaren alboan agertu zen, azken hori bizar zuriduna, ixa moduko gurutze bati besarkatuta hura ere. Santua, ilehori eta txoratu-aurpegiarekin, ez zen sahatsetara iritsi; ur mortuetan trabatuta aurkitzen zen urertzetik dozena erdi bat urratsera, hiru deabru ttiki adardun, sarde burdinezkoekin eta margotutako figura-piloa zeuzkan aldare-frontis batekin. Gorago, irlako kanal baten sarreran, burugabetutako santu baten irudia ahoz behera zetzan tunika urdinez jantzitako birjina baten alboan. Belaunaulki beltz bat duela urte asko uholdeak utzitako makal baten erroetan trabatuta geratu zen.

Santuak uretatik atera eta irlako punturik altuenean ipini zituzten sahats batzuen artean.

—Hilda daudela dirudi, ez da, Nelson? —Joanetek marmarrean, pixka bat lelotuta hainbat irudiren artean.

—Gutxienez, hil egin dituztela esango zenuke. Goazen ibai-ontzira, azkar.

Karpa batek ebaki zuen uraren azala: ematen zuen arrainaren zilarrezko distira, tanta irisatuz bilduta, jauziaren puntu gorenean ibilge geratu zela. Uretaratzean egin zuen zaratak ibarra zanpatzen zuen isiltasun astunaren neurri zehatza eman zuen.

“Amat meatzeko galbaheak entzun beharko zenituzke”, esan zuen Nelsonek ontziratu bitartean. Nabigazioari ekin zioten ostera. Ezpondara bidean inor ez zegoen. Bat-batean erreparatu zuten ez zutela inongo ontzirik aurkitu hirira jaisten, eta zoritxarreko aieru batek estutu zien bihotza. Nelsonek adi paratu zen: ez zituen oraindik galbaheak entzuten. Moilak ia bistaratuta, mando bat trostan agertu zen olibondoen artean. Ortzimugan, Segrià aldera, ke-zutabeak igotzen ari ziren zerurantz.

Júliaren etxetik Moilako Kafetegira jaistean, Nelson zaharra antzinako komentu aurrean gelditu zen. Biharamunean, lurrera jausiko zen eraikina, beste horzkada bat hiriaren suntsipenaren etengabeko prozesuan. Une batez Honorat del Rom-ek maiz espekulatzen zuen ate haren atzean ezkutatutako misterioan pentsatu zuen, eta Aleix de Segarraren figura ebokatu zuen, goiko galeriatan ikusi zuen azken aldietako batean. Margolariaren figura desagertu egin zen, patroiak kalean behera jarraitu zuen: oroitzapenen haria 1936ko uztailaren egunera itzuli zen, non ibai-ontzia Amat meatzearen aurretik pasatzen zen. Instalazio abandonatuak kezka begiratzeko zituztelarik, kolpe bat entzun zen brankako gurrupilean.

—Beste bat! —bota zuen Atanasi Berpizkundek—. Hiriko elizako San Blas dirudi honek!

Nelsonek, gero, marruskadura itzela entzun zuen istribor aldean: ondoren, zurezko bizarduna Ebron behera galdu zen *Neptúren* ildoaren apar artean.

Komentuaren aurriaren bibrazio premonitorioak arratoiak izutu zituen. Izu-ikaraz txilioka, animaliak areto hustuetan barrena sakabanatu ziren, zulo eta estoldetan ihesbidearen bila. Haietako bat ataria gurutzatu zuen, non jada ikusgai zeuden kable tenkatuak makinen lehen astinduaren ondoren, eta horma batetik igotzen saiatu zen: azazkalak, labanak bezala zorrotz, anderearen zapata batean josi ziren, jantzitik gora perla-iduneko bateraino igo aurretik, bularraldea baino gorago, non arroparen suzko gorritasuna amaitu eta haragi biluziaren arrosatasun leuna abiatzen zen. Bibrazio indartsuago batek horma astindu zuen; arratoia lurrera jauzi zen, atzamarkada batekin perla batzuk eta kapelaren koloretako luma batzuk zeramatzalarik. Halarik ere, irribarrea ez zen anderearen ahotik desagertu eta ez zitzaion begietako txinparta maliziotsua agortu. Beste astindu batek, aurrekoak baino indartsuago eta iraunkorragoa bera, alboan eseritako pianista mugiarazi zuen. Ematen zuen musikariaren hatzak tresnaren teklatutik labaintzen zirela bigarren lerroko koristak dantzan ari ziren bitartean, atariko beste aldean kokaturiko meatzari, nabigatzaile, nekazari eta artisau-multzoa entzun ezinezko oihu suhartsuan lehertzen zelarik. Beste tenkada izugarri batek, arratoin txilio makurrak eraginez, irribarrea ebatsi zion kapela lumadunaren emazteari: margo-ezkata baten eraispenak haren ezpainak desitxuratu eta agerian utzi zuen hormako igeltsu-geruza arolaren zuritasuna, zeinaren gainean Aleix de Segarrak Edeneko egunetako irudi zaharrak, nostalgia ironikoz, gauzatu zituen egundoko horma-irudi handietan.

Monjak joatean, 1925ean, margotu zuen lehen horma-irudia zen hura, eta horrek, herenaitona lizun batek, bere bekatuengatiko penitentzia modura, ordena erlijiosoari utzitako komentuko eraikina errekuuperatzea ahalbidetu zion. Familiako artxiboetan agertzen ez zen arren –Aleixek ardurarik gabe erabiliak bestalde, bibliotekako apal altuenetan kokaturiko orri-sorta hautseztatuek oso gutxi motibaturik– kaleko zurrumurruak Domenec de Segarra jaunaren galbidea zehazten zuen, kongregazioak Homs kaleko etxalde bat okupatzen zuenean monja bat limurtu eta desloratzean. Konkistak –garaiko mihi gaiztoek ama nagusiak antolatutako tranpa bati eta ez Segarraren limurtze-indarrari egotzia, gizona aski zaharra eta higatua baitzen– etsita utzi zuen alproja; erlijiosoa –abitu azpiko misterio pizgarriaz erantzia, zeinaren azpian krapularen desirak xarma erogarriak imajinatzen zituen– aldakez urria, bularez biguna, erremediorik gabe ergela gertatu zen, eta, dena borobiltzeko, infernuko zigorrekiko panikoa sartu zion. Amanagusiak hala eskatuta apaizak manipulaturik, beldur eta bekatariaren barkamengogoa eraikina komunitate piadosoaren esku jartzean amaitu zen, –soilik aldi baterako, berreskurazinezko dohaintza bihurtzeko bidean zegoena moztu zuten esku-hartze familiar egokiei esker–. Orduan norbaitek aurreratu ahal izan balizkio 1930ean Moilako Kafetegian izandako espiritismo-saio bateko errebelazioak, beste modu batera gertatuko ziratekeen gauzak: Estanislau Corberaren amonak, behor italiar batean berbizitua, Sienako Palioa irabazi berri zuela –kafeteroa harrotasun legitimoz bete zuena– eta beste herritar batzuei buruzko gauza harrigarriez jabetuta (Honorat Kafetegikoak kantinera izan zen armada napoleondarrean Egiptorako espedizioan; Salleres alarguna, senatore erromatarra; eta estankeroa, Garibaldi), Aleix de Segarraren arbasoak ikusiko zukeen bere destinoa ez zela infernuko galdarak izango, baizik Hegoko itsasoetan koko-mamiaren trafikoari emandako ontzi holandar baten kontraestre bezala haragiztatzea. Baina hura ez zen gertatu, zorigaitzokoaren izua ez zen

urritu eta eraikina monjei utzi zitzaion. Segarra familiak berrogei urte geroago arte ez zuen berreskuratu, erlijiosoek hiritik atera zirenean, Gotzainen ontziarekin guardia-zibilen lehen destakamendu finkoa iritsi zen egunean. Kointzidentzia inoiz ez zen ustekabekotzat hartu eta oso tertulia distiratsua probokatu zuen zurginen tailerrean, non bertaratutakoek modu errukigabean miatu zuten, xehe-xehe, abituak uniformeen truke, gurutzeak fusilen truke eta tokak trikornioen trukeko merkatu haren sinbolismoa.

Komentua errekuperatu eta biharamunean Aleixek sufrea erre zuen geletan, lixibaz garbitu zituen zoruak, ateak eta leihoak, eta ezkaia- eta erromero-pusketak banatu zituen alde guztietan. Esentziak sakoneraino ondo xurgatu zirenean, hormak margotzen hasi zen, Eden en igarotako egun pasatuen oroitzapenak gauzatzetik hasita –urteak behar izan zituen prozesua bera– harik eta hiria erraustu zuen haizete beltzak artista desagerrarazi zuen unera arte.

lhesbidea aurkitu berri zuen arratoi atzeratuak. Isats zuritua sukaldeko hodietako zulo batetik labaindu zen, ataria eta lehen estaia lotzen zituen eskailerak astindu eta inguratzen zituen hormetan margotutako inauteria dardararazi zuen: ematen zuen hortzik gabeko maskarak, deabru adardunak, sorgin lizunak, trapuzko loreak ipurdian, edo adats irineztatuko sudur handi estranbotikoak hormetatik desengantxatu eta eskila eta kazolako zaraten konpasera mailadietatik saltoka hasi nahian zebiltzala. Ez zen Rodako Kasinoko edo Birjina Martirien Aretoko inauteri azukreztatu eta faltsua –arlekin anbiguo eta feriako markesa maskaradunak–. Hiriko inauteri zaharra zen, Honorat Kafetegikoak ezkutuan akerrez mozorrotuta irten eta buru adardunarekin jendeari eraso egitera bultzatzen zuen indar antzestrala; Portxeetako arrainzalea urduritzen zuena, harik eta aitonaren uniformeak, Cubako gerrakoa alegia, jantzi eta kardinalarengana –Estanislau Corberaren mozorro ezezaguna bera– joan eta ibai-ontzi bateko ganberan harekin larrua jotzeko aurpegia estaltzen zuen arte, euren arteko anonimatua hautsi gabe; Romagueraren etxe aurrean figura beltz izugarria orduak eta orduak ibilge mantentzen zuen indar berbera.

Figura tragiko hura –zeinean mundu guztiak Arnau Terreren adiskide zaharra igartzen zuen, eskaileratako ezker aldean margotuta zegoen– artista eta Malena, haren izeba politikoa, urtebete lehenago alargun geratua, ezkututzen zituzten bi aurpegitzarren alboan. Heriotzaren lehen urteurrenaren eta hileta-meza makabroaren errepikapenaren beharrian nekosoak paseak ziren –tumulua aldarepean, errezo lugubre eta poxpolo-usaina– eta baita konplimenduzko bisita ekidinezinak beren dolumin-sorta hipokrita eta guzti, eta Malenak errazki laga zuen bere burua konbentzitzen, soilik pare bat urte zaharragoko ilobak xaxatuta, ezkontza garaiko gristasuna mozorroaren sekretupean ahazten hasteko. Beti horrela geratu behar al zuen –intsinuatzen zuen Aleixek– Ignasi osabaren, familiak ezkondu zuen senar baten gomutan iraungitzen? Etxean zarratu behar al zuen betiko, aurrerantzean bizitzaz batere ez gozatzeko? Zergatik ez zen kalera ateratzen, errepresioak asaskatu eta mamuak hedatzeko hiriak baliatzen zuen inauteriaren eromen anonimoak eramaten laga?

1971ko egun hartan, bere gaixo-ganbera isilean, Malena zaharrak osteria sentitzen zuen Aleixen ahotsa 1926ko arratsean bezala: lasaia, akuilatzailea. Neskameak festara joanak ziren, berak ganbarako kutxetan gordetakoen artean hautatzen utzitako jantziekin mozorrotuta, non hautsa eta armiarma-sareak partekatzen zituzten aitona Hermes en asmakizun mekanikoekin, amaitu gabeko eskulturekin eta izeba Severinaren automatekin. Malena eta iloba bakarrik zeuden etxean, taldeen murgak kalean entzuten, eta berak intuitu zuen ezen bere inguruan hazten

sentitzen zuen iruzur ikusezinak betiko nahastuko zuela, iloba hizketan hasiko zenean –hitzak, Aleixi zegokionez, isilean beti barrea sorrarazi zion Malenari. Sekula ez zuen gorteatu agerian; hain diskretua zen ezen bere intuizioa zalantzan jartzen hasia zen, zeinak, Ignasiren ezkontza ondoren Segarratarren etxaldean instalatu eta gutxira, 1914ko gerra baino pixka bat lehenago, iloba politikoa sentimenduak, oso detaile ttiki, ia somaezinen bidez iragarraziz zizkion. Kezkaz jabetu zen, Edeneko une gorenetan, jeloskortasunaren ausikia sentitu zuenean erantzuten ziola, Madamfransuà eta kafe-kontzertuko bakanalei buruzko berriketak gai kuttuna zenean andere hiritarren txokolate-meriendetan. Eta halaxe jarraitu zuen frantsesa joan zen arren, Aleix Arquimedes Quintanaren ibai-ontzian desagertu eta egunak eta egunak igarotzen zirenean, halako ausentzian non, Ignasik, emaztearen erreakzioez jabetu gabe, maitale tortosatar baten existentziari egozten zion. Jaume de Torresen komentario amorragarriak entzun zituen, hiritik deltaraino gertatzen zenari buruz bere nabigatzaileei esker ondo informatuta. Iloba berragertzen zenean, hotsasun zaurgarrikoa izan ohi zen harrera, zeinen arrazoiak asmaezinak ziren Aleixentzat. Ignasiren bat-bateko heriotzak –bihotzeko atakea, Beltran doktorearen diagnostiko zuzen bakarrenetarikoa– Aleixen samurtasun-adierazpenak areagotu zituen. Babesgabea sentitu zen zenduaren presentziarik gabe, beste ezer baino gehiago aitakoia zelarik; Aleixekin buruz buru aurkitzeak beldurtu eta aldi berean kitzikatu egiten zuen: doluminen zurruntasunak ez zituen sentimendu asaldagarriak apaltzen. Aldi baterako desagertzea pentsatu zuen, etxekoen aholkuak entzutea, aire-aldaketa errepikatzen baitzuten “maitagarriki maitatuaren” ausentziak zekarkion “oso oinaze mingarria” gutxitu arte –zioen izeba Assumptak Bartzelonatik eskutitz kontsolagarri batean. Baina ihesa, izebak aringarri bezala proposatzen zuen Vichyko “lasaitasun lasaia”, ukatu zuen azkenean. Ez zen hiritik mugitu, ilobarengandik urruntzeko ezgai. Baina Aleix, orduan, apenas egon ohi zen etxean; jateko orduan ikusten zuen, eta ez beti. Gauetz, komentuko horma-irudietan egun osoan lan egin ondoren, margolaria Moilako Kafetegian zegoen bitartean, bera esna egon ohi zen. Iritsi, bigarren pisuko geletara bidean pasiloa gurutzatu, eta luzatu egiten zen, antsiar eta beldurrez. Bere irudimenaren arabera urratsak gelako ate aurrean zertxobait gelditu ondoren, eskaileran gora galtzen zirenean, arindu egiten zen, baina bihotzaren taupada azeleratuak, uholde baten pilpira sakona bezala, kostata baretzen ziren. Mozorrotu eta inauterian esku-hartzeko Aleixen lehen proposamena –ezezkoa baino gehiago terrorea uxatzeko, urteurrenaren ospakizun tenebrosoek etxean berpiztu zuten defuntuaren oroitzapenaren aurrean bere burua zuritzeko– saio ahula izan zen. Baina Aleixen ahots akuilatzaileak –zeinak, gutxika-gutxika eta sinesten ausartu gabe, emakumezkoaren sentimenduak azaleratzen lagundu eta jada ez zuten bere jarrierari buruz engainatzen– erraz menderatu zuen konbikziorik gabe mantendutako erresistentzia.

Berrogei urte beranduago, Aleixen ahotsa bizirik zirauen Malena de Segarraren memorian. Kaleetako builaren artean anonimatoa ahalbidetzen zien mozorroak prestatzen hasi ziren kitzikapen- eta askatasun-sentsazio erogarri bezain intentso mantentzen zen. Eskaileretako margoetan, bi mozorro veneziarren atzean, une haietako gakoa zegoen, komentuko lehen pisuko hormetan gauzatuta geratuko zen istorioaren hasiera. Orduz geroztik zigilatuta zegoen atea, oroitzapena eraikinarekin batera hondoratzea nahi zuen Malena zaharrak. Anna bidali zuen, neskame diskretu eta fidela, suntsipena jagotera: inor ez zedila ziegetan eta kaperan sartu. Aginduak zorrozki bete zitezela lortu zuen. Edeneko aurrietan *Polifemer*en nagusiaren aurrean izutu ziren langile berberak, atariko horma margotu handiek harrituta, ez ziren ausartu eskaileraren maila bat bera igotzen. Beheko plantan altzairuzko kableak zutoinen oinarrian lotu eta makina boteretsuak abiatu zituzten, zeinen lehen astinduak eraikinaren hormak dardararazi zituen arratoien terrorea probokatu zuen.

Sor Andrea azorriatzen zen gelan —errezelen artean Barcako moilan lanean ari ziren ibai-ontzietako langileen gorputz ia biluziak eta Ebron igeri ari ziren nerabeak ikusten zituenean etengabe erasaten zioten pentsamendu lizunak kanporatzeko— makinak lehen tiradizoak, han umiliazio gogor askoak jasandako emakumearen gorputza inkontzienteki kalte-ordainez kitatzeko modura Aleixek hormetan dekoratutako biluztasun mitologikoak animatu zituen.

Inauteriaren ondoren Aleixek komentuko lehen pisura eramane zuenean erakutsi zion lehena zen. Ordura arte soilik atariko horma-irudiak ikusi zituen, jeloskortasun zaharrak berpiztu zizkion Madamfransuàren irudiekin. Pudore-, kitzikadura- eta konplazentzia-nahasketa batez aztoratuta, ninfek inguratutako jainkosa biluziaren gorputzean —zalantzarik gabe alboko paisaia Ebro bezala identifikatzea ahalbidetzen zuen ibaian bainatzen— bere gorputza errekonozitu zuen ziegan; inauteri-gauaz geroztik Aleixen besoetan harritu zuen eztanda eta bizitasuna errekuaratu zuen gorputza. Artistaren zoramena haren biluztasunaren aurrean komentuko hormetan urteetan zehar egindako errepresentazio kontaezinetan gauzatua geratu zen. Garai batean himno erlijiosoak eta otoitz-murmurioak entzuten ziren tokian abesti bakikoak entzunarazten zituen festa paganoak; santuen martirioei buruzko oleoekin ilundu edo gurutziltzatuen eskematismo beldurgarriarekin izotzako hormek argia errekuaraten zuten lurrera oso lotutako mitologia pozgarrian. Arkitekturak ez ziren jauregi fabulosoak, Ebro alboko antzina-antzinako baratze arabiarretako masiak baizik; nekosta klasikoak zurzuriek, makalek edo pikondoek ordezkatuak izan ziren; kopak gorritzen zituen ardoa Terra Altako mahatsaren zuku latz eta sikua zen. Ez zegoen ahaletin handirik egin behar deskubritzeko paradisuako satiroak Moilako Kafetegiko tertulianoak zirela —Atanasi Berpizkunde siringa jotzen, Honorat Kafetegikoa mahats-orriz koroatua, Nelson kopa bat eskuan— eta ninfa irribarretsuak ez kai eta erromerozko paisaiekin jazarriak, olibondoeko hondoa, Júlia Quintana eta hiriko beste edertasun batzuk zirela; Estanislau Corbera, handientsu eta solemnea, zentauro gorritaren formapean, bakanal zaratzuko buru zegoen jantokiko atarian, horma baten aurrean non Malenaren beste biluzi bat, kapela frigioa adats beltzen gainean, Errepublikaren aldarrikapenagatik alaitasun herritarraren buru agertzen zen.

Komentua bere mundu sekretu, eksklusiboa izan zen. Amorrutik lan egiten zuen Aleixek. Emakumeak, batzuetan angustiaz, jarraitzen zituen horma-irudien eta koadroen alde aurreko azterketak, obren elaborazio geldia, ezabatu eta hamaika aldiz berreginak, margolariarekin bozkariozko gau zaharren bohemian engainagarria besterik ikusten ez zuten pertseberantzia susmaezinarekin. Baina Aleix irten egin zen. Jendearen kontaktua behar zuen, kafetegietako zalaparta, bidaiak ibai-ontziarekin Ebron behera eta irteera laburren bat Bartzelonara. Aldiz, andrearen bizitza Aleix bera zen. Kanpoko gauzak, doluminen oztopo beltzari esker mundutik bakartzen zuten oihartzun lausoak baino ez ziren. Ez ziren falta, jakina, Rodako Kasinoko sozioen edo Birjina Martirien Aretoko andreen zurrumurru pozoitsuak. Leku batean zein bestean, eskandalizatzeko motibotzat hartzen zen izeba eta iloba Segarratarren etxaldeko teilatupe berean bizitzea, neskameak beste konpainiarik gabe, etengabe haragiaren tentazioen aurrean ipinita, Estefania d’Albera andereñoaren terminologia abadetarraren arabera, eta defuntuaren memoria sakrosantua laidoztatzeko arriskuan, Lignits de l’Ebre, Sozietate Mugatuko Gelabert de Móraren elokuentzia handiuste, likatsu, belaska eta tripontziaren ustean. Komentarioek suminduta, zeinak labur-labur azaltzen zituen txandakako administratzaileak logelako ilunpean, eta defuntuak ordezkatzeko familiako esperientziaren indarrarekin, alargunak maritxu eta adarduntzat jotzen zituen kasinoko sozio guztiak, eta euren emazteak putakume hipokritatzat. Ez zen kikiltzen trapu zikinak eguzkitara ateratzeko. Horrela, oinezko hiritarrek —

kontrabandista zaharraren komentarioez beren neskameen aldetik informatuta, zeinak merkatuetan eta dendetan hedatzen zituzten— jakin ohi zuten Jaume de Torres jauna neskameak erasaten zituela pasiloetan emaztea errosarioan zegoen bitartean, edo eta hiriko banda mengeleko klarineteak (eta zenbaitetan bonboak) adarrak jartzen zizkiola Udaletxeko idazkari txit agurgarriari, edo Sebastiana de Vidalen estasi ospetsuek —zeinari buruz Feliça de Roderesek hiru aldiz eskatu zuen beatifikazioa Erroman— ez zutela zerikusirik ikuste mistikoekin, baizik anis-botilarekiko debozio sekretuarekin...

Komentarioek ez zuten batere kezkatzen Malena de Segarra. Hor konpon herritarrak! Berak aski zeukan etxaldeko eta komentuko munduarekin. Eguraldi onean ordu asko pasatzen zituen Aleixekin Ebrora ematen zuen galeria altuan. Komentuko errezelek ezkutatuta, moilak, lignitoz kargatutako ibai-ontziak, bagoien joan-etorria ibaiaren bestaldeko meatzera, zubiko lehen arkuaren pean bertan. Maiz, desirak sututa, galeriako kuxinetan edo santutasun-usaianeaz diziplina-zigorrarekin hartutako jipoi ikaragarriaren ondorioz zendutako monja azorriatuaren ziegan biluzik amaitzen zuten. Orduko neguetatik ur grisaren gaineko kaioen oroitzapena iristen zitzaion, tximiniaren beroa, ziertzoaren ulua ziega hustuetako leihoetan, ontzietako patroiek laino-egunetan talkak ekiditeko jotzen zuten itsas-barraskiloen soinu grabea.

Astinduak eraikina dardararazi zuenean, jantokiko arratoiak ihes egin zuten bakarrak izan ziren; geldi mantendu ziren, Malenak 1938an lehen aldiz ikusi zituen hormetan eutsita. Orduan ezin izan zuen txilioa ekidin izan jantokian sartu eta hormaren gainean hedatutako gris zikin, begi gaizto eta isats zurituko orbanak animalia errealtzat hartzean. Aleix larritzen hasi zuen angustiaren lehen seinalea izan zen. Afrikan Errepublikako gobernuaren aurka 1936ko uztaietan hasitako matxinada militarra askok uste zuten sualdi efimeroa izatetik herrialdea kontsumitzen zuen Gerra Zibil luzea bilakatu zen. Altxamendu faxista baino pixka bat lehenago hasitako horma-irudi handiaren txoko batean agertu ziren, Lluna kaleko arrain-saltzaile baten formak eta hazpegia izango zituen ninfa baten zirriborroaren alboan. Erdi eginda geratu zen ninfa: begi beltzak ez ziren bizitzaren ez tandarekin luzitzera iritsi, eta gorputz ederra —bular ttiki baina irmokoa eta Honorat Kafetegikoak perfektuenak ez baziren Ebro ertzeko kitzikagarrienak eta graziadunenak bezala aldarrikatutako ipur-masailduna— ziriborro hutsa baino ez zen izan. Konposizioaren gainerakoa bezalatsu desagertu ziren beltzak eta gorritzak, gerraren hasieran hiriko giroa ilundu zuten oinaze eta odolaren ebokazio, nagusi ziren pintura berrien azpian. Errepublikaren defentsan lehen hiritarraren heriotza lubakietan, diskurtsuen sugar eta zeremonia ofizialen zaborrak leunduta geratu zen jendartearen. Gero asko ugaritu ziren hildakoak frontera joaten ziren boluntarioen artean eta buruzagiek alde batera utzi zituzten hitzak, baliogabeak heriotzaren hustasun infinituaren aurrean.

Komentuko horma-irudietan non ninfen edo jainkosen mamien arrosa samurrak, eta hondoko paisaiaren okreak, taupaka hasten ziren zirriborroen gainean, erosta-jotzaileak lagunduta, Lluís-en gorpua azaldu zen, Aleixen ilobetako bat hain zuzen, Carrascalen hila; alboan, Arquimedes Quintanaren bi seme nagusiak zeuden, Zaragozan fusilatutako eurak, non militarren matxinadak harrapatu zituen. Ebroko balkoien alboan margotutako eszena batean *Cristófor Colom* ontziaren eskifaia hilotzak azaltzen ziren, hegazkin etsaiek fusilatutako eurak, eta besteren artean Carbó mandoa, saiheutsak balek zulatuta urertzean trabatutako ibai-ontziaren brankan hil hurren, aho odoleztatua desesperatuki zabaltzen. Ezkerreko horman, Aleixek askari-eszena eder batekin estali zuen konposizio batean, egunsentiko argi zurbil margotua ez zen gaueko ilunpea desegiterra iristen: ilunpeak oraindik tindatzen zuen Sadurní Romagueraren figura, pistola-tiroz josia eta erroitzeko erromero-muluaren artean utzia, non erailtzera eraman

zuten auto errekisatu batean, zeinean Carlota de Torresek bere ezkontza-egunean elizarako bidea egin zuen, eta non Francescekin lehen aldiz larrua jo zuen berbera.

Komentu barruko bere buru-bidaian, Malena zaharrak ezin izan zien jantokiko marrazkiei ihes egin. Soilik egun alaietakoak gogoratu nahi zituen, amesgaiztoen ataria gurutzatu gabe, baina ezin; memoria ez zen gelditzen, kronika durduzagarriaren aurrera eramaten zuen. Romagueraren heriotzaren kasuan, eraman zituzten gauean emaztearen eta alaben oihu desesperatuak gehitzen zizkien irudiei oroitzapenak. Arnau Terreren erailketaren prezioa zen. Abadearenarekin batera –zeinari hiria uzteko aukera eman zioten, laiko-arropa ere emanez, itzuli zituenak, bere presentzia eta komentario zuhurtziagabeekin burgesen exekuzioa exijitzen zuten talde kanpotarren aurrean egoera jasangaitza sortuz–, heriotza bakarrak izan ziren inguruko populazioak odoleztatu zituzten gertakarien artean. Talde bat alemaniarren etxaldera joan zenean, matxinadaren goizean bertan, Von Müller, bere monokuloa eta bere jendea, arrastorik utzi gabe, joanak ziren. Lehen unetik beretik, ezkerreko indarrak, erabat maioritarioak, egoera kontrolatu eta muturreko talde batek exijitzen zuen jaunen eta hiriko eskuineko elementu urrien hilkintza ekidin zuten, baina hark herria bakartu zuen. Caspe Errepublikaren esku erabat erori arte, herria matxinatuen inkurtsio posible batek Ebroren beste aldetik eta, Cincako libertarioek Segre inguratzen duen Lleidako errepidetik, mehatxatuta zegoen. Egun luzeak, nahasiak Malena zaharraren oroitzapenean, Caspeko aldapa, zubitik harantz, eta Fragako bidea meatzariak hiria babesteko jarritako dinamitaz betea. Eskopetaz armaturiko gizonak beti atezuan zeuden. Gero, gerra; gazteak frontera, heriotza, hirian atsedena hartzen zuten tropen presentziaren animazio efimeroa –Txokeko Batailoi Gorria, esan zion behin Aleixek, Ebroko harresian kamioi-ilara bat erakutsiz–, eta bera gero eta burumakur eta goibelago. Arroko kolektibizazioaren ondoren UGTK kontrolatutako Salleres alargunaren meatzetako batean eman zioten lana, baina gerra ez zen amaitzen, dena kontsumitzen zuen. Bat-batean, 1938ko martxoaren azkenaldian, hondamendia etorri zen. Hasieran soldadu-andana izan zen: erasoaldi faxistak Aragoiko frontea hautsi eta tropa errepublikarrak erretiratzen ari ziren. Gizon eta ibilgailuen etengabeko ilara luzea zen Ebroko zubia. Hiria bor-bor zegoen. 26an, gero eta bolumen altuagoa hartzen zuen trumoi lausoa entzuten hasi ziren.

—Zubia dinamitatzen ari dira –esan zuen Aleixek ahopeka, ibaia komentuko galeriatik behatuz–. Faxistak hurbil egongo dira.

Ia-ia hitz haiekin lotuta, kaleetako zalapartaren gainetik udal-komiteko kideen ahotsak entzuten hasi ziren hiriko ebakuazioa aholkatuz. Orduz geroztik, Malenaren memoria nahasmendu hutsa zen: Annaren laguntzarekin, arropa, bitxiak eta dirua maleta batean presaka gordetzen; jende-pilaketa trepetak kargatuz, erretiratzen ari ziren ibilgailu militarrek oztopatuta. Ostera ikusten zuen Segre meatzeko kamioia, non partiduetako buruzagiek dokumentazioen artxibadoreak kargatzen zituzten komitearen egoitza aurrean, Ebro ertzera jaisten zen jende-ilara luzea. Jendea moilan metatzen zen eskura zeuden ibai-ontzi eskasetan igoz, patroiak kaosean ordena ipintzen saiatzen ziren. Ez zegoen lekurik guztientzat; ontziak eskasak ziren, soilik zaharrak, gaixoak, emakumezkoak eta umeak igo zitezkeen. Banaka-banaka Ebron behera joaten ziren, ontziak –ura ia kareleko marraraino– beldurtutako jendez gainezka; bertan sartzen ez zirenak Lleidako errepidetik ihes egin edo Segre gurutzatu behar zuten hiriaren beste aldeko pontoiarekin.

Plazako moilarantz abiatu zen Aleix miliziano-talde baten artean. Nelsonek toki egin zien bere ontzian andreari eta Annari, hiria abandonatzen azkena izan zen gaua bailaran sartu nahi zuen

unean, non obusak zapartatu eta balen txistuak entzuten ziren. Zubian oraindik perfilatzen ziren kontraargian soldadu atzeratuen soslaiak. Etsita, Aleixen figura kontenplatzen zuen, moilatik begira, bera ibai-ontzian alde egiten zuen bitartean.

—Joan zaitez Bartzelonara, Assumpta izebaren etxera —oihukatu zuen. Bertan topatuko zaitut.

Norbait bere alboan negarrez hasi zen baina burrunba handi batek, danbor-hotsa balitz bezala, ito zituen negarrak: Salleres alargunaren zaldiak, zeinei ukuiluzain zaharrak ateak ireki zizkien alde egin baino lehen, trostan zihoazen Ebroko harresitik, zalapartak gero eta hurbilagoko ez tanden hotsak erotuta.

Ibai-ontzia aurrera zihoan ur beltzetan, Aleixen figura ilunpean desagertzen zen. Ebroren eta Segreren konfluentzia gaindituta, sugar handi batek gaua hedatu eta bailara odoleztatu zuen egunsenti sakabanatu eta efimeroa balitz bezala. Zubia zapartatu zuten. Une baten buruan, ez tandak eragindako uhinak ontzia botatzeko zorian egon zen. Baina Malenak ez zituen ontzian pilatutako iheslarien beldurrezko oihuak entzun, ez eta Nelsonen madarikazioa ere. Desordenaren artean susmo ikaragarriak kolpatu zuen: aurrerantzean ez zuen Aleix ikusiko.

Bibrazioa indartsuago eta jarraiagoa egin zen, kableek tentsiorik gorenera iritsi eta zutabeek amore eman zuten. Arrakala batek arraildu zituen atariko hormak, eskailera zalaparta ikaragarri z hautsi zen, inauteriko maskarak zatiturik sakabanatu ziren. Ziegetan eta jantokian, jainkosak, satiroak, ninfak, erosta-jotzaileak eta zenduak apur-apur egin ziren. Kapera erori zen orduan, non Aleix, bihotza aieru goibelez mukuru, hiriaren ebakuazioa baino egun batzuk lehenago, matxinatuen sarreraren premonizioa gauzatzen hasia zen: eskeletoek, galako uniforme z —zeinen banda eta entortxatuetan marrazkilariak koloretako kutxan geratzen zitzaizkion hori guztiak xahutu zituen— hiriko jauntxoek omenaldia jasotzen zuten, zeinen artean Carlota de Torres nabarmentzen zen, aski histua baina arropategiko jantzirik onenarekin apaindua eta ezkutalekuetatik hartutako bitxiekin hornitua. Suntsiketaren hautsa sakabanatu zenean, langileak ohartu ziren aldare nagusiaren hormako zati bat zutik geratu zela. Goiko aldean kapela militarrek estalitako burezur bat ageri zen. Makina baten pala horzdunak hormaren oinarria kolpatu zuen: burezura monja santuren ziega izandakoaren paretaren zati baten gainean jausi zen, non artistak Afrodita baten bularren mardultasun freskoa tonalitate arrosazkoekin modelatu zuen.

Hirugarren zatia

Egutegiaren errautsa

Transbordadorea, duela hamabost urtez existitzen ez zena, eskuineko urertzetik apartatu eta ibaia gurutzatzen hasi zen. Bitartean urak kolorgetzen hasiak ziren, aireak 1971ko urri hartako gozotasun udazkendarra galtzen zihoan. Ontziaren karelak hiriaren aldeko moilarekin leunki jo zuenean, nondik Alfons Garriguesek bere memoriarekin gobernatzen zuen lema, paisaia 1939ko laino izoztuarekin estalita geratu zen. Ebroko okre eta berdeak gris zikin bihurtu berriak ziren, zeinen gainean izotz-puskak astiro labaintzen ziren, arrain erraldoi batetik ateratako ezkatak bezala.

Ebroko batailaren ondoren joan ziren haren bila, gerra-hotsa Catalunya barrurantz urrutiratzen zenean, Ebroko batailaren ondoren, okupatu zuten soldadu faxistak hiritik eramanez, Aragoiko frontea erorita 1938ko martxo aldera, eramanez, Katalunia barrurantz sartu zenean. Errepublikanoek zapartatutako zubiak bi urertzen artean moztu zuen errepidea eta tropa matxinatuek pontoi bat instalatu zuten hamabost urte lehenago abandonatutako Ebroko ontzibide zaharrean. Baina militarrek bazihoazen, txalupari bat behar zen haien ordezkoa egiteko. Bera, orduan amona gaixoaren eta amaren erruz ebakuatzerik izan ez zuen hamabost urteko mutikoa, pertsonarik egokiena zen zeregin hartarako. Azken finean, ez al zen Garrigues bat, kale Nagusiko Garriguestarren adaxka bat, mundua mundu zenez geroztik hiriko txalupariak eurak?

Lehen aldian, ontzirelekuaren eta pontoi militarren arteko ur geldia izoztuta agertu zen neguko egun batean –non izotz-puskek etengabe ontziaren kontra jotzen zuten eta flotadore metalikoak goibel entzuten ziren– tristetu egin zuen aitonaren oroitzapenak, zeina Primo de Riveraren diktadura garaian eraiki zen zubiak ontzi-lana kendu, bizitza garraztu eta meatzean lan egitera behartu zuen. Meatzeko lanak aspertu egiten zuen gizona, baina buru-estimugatik ukatu egin zuen ibai-ontzietan peoi-lana egitea, eta lignito-hautsa irentsi behar izan zuen bere heriotzaren egunera arte, Gerra Zibila baino pixka bat lehenago. Nola bururatu ahal zitzaion zahar gizajoari –izenez Alfons–, egun batean bere ilobetako batek zubiaren suntsipena ikusiko zuela –zeina, adierazten zuen progresoa aitortu arren, beti gorrotatu zuen– eta mutikoak Garrigues familiaren mendetako ofizioa errekuaratuko zuela? Gose-garai hartan familiaren gabeziak, lan egiteko ukapenaren ondorioekiko beldurrarekin nahastuta, hain erraza zelarik kartzelan edo fusilamendu-talde baten aurrean amaitzea, eragotzi izan ez bazion, Alfonsek berehala utziko zion transbordadorea erabiltzeari, itzuleren trago txarra ekiditearren, gerra Errepublikaren galerarekin amaitu berrian 1938an alde egin zuen jende gehiena hirira itzuli zenean.

Batzuk Lleidako errepidetik etorri ziren; Alfons Garrigues ez zen haietaz gogoratzen, baina ariman irarrita zeramatzan Faióko geltokian jaitsi eta urertzeko bidetik Ebron gora abiatzen zirenak. Urrunean figura bat bistaratu ahala, albistea hedatu egiten zen eta hiriko biztanle eskasek, okupazio garaian ihes egiterik izan ez edo nahi izan ez zutenek-edo, unearen nahasmenduan meatze eta masietan gorde eta gero ofentsiba faxistak harrapatuak izan zirenek, balkoi eta leihoetara atera, moila hustuetako hormara jaitsi eta antsiaz miatzen zituzten

soslaiak, haien nortasuna antzeman nahirik, distantziak ezinezko bihurtzen zuena hain juxtu. Itxaroten zutenak (eta nork ez zuen norbaiti itxaroten hiri mortu hartan? –galdetzen zuen Garriguesek–), alferrikako miaketa baten ostean Barcako moilara abiatzen ziren. Han, urertzean bertan oin-puntatan, edo egurrezko ontziralekuan metatuta, ostera saiatzen ziren figura oraindik anonimoetan hazpegiak asmatzen. Miaketa urduri eta larridurazkoa jasanezina bihurtzen zen transbordadoreak Ebro gurutzatu, etorri berriak jaso eta berritzultzen zenean. Distantzia urritzen zen heinean, itzal eta argizko orbanak zehazten hasi eta gabeziak, nekeak eta angustiak zargaldutako aurpegiak erakusten zituzten. Trabesiaren azken metroetan figurak izenaz osatu eta maiz pozezko oihu eta negarrak ateratzen ziren etsipen ixil eta garratzen alboan. Laino zegoenean ez zuten haren berririk, ahots urrun, lausoak beste urertzetik Alfonsen belarrietara iritsi arte, transbordadorearen etorrera eskatuz. Orduan are krudelago izan ohi zen itxaronaldia; lainoaren gristasun ketsuak ez zuen sekretua erakusten ontziralekuan bertan izan arte.

Hasieran emakumezkoak, zaharrak eta umeak itzuli ziren. Askoz beranduago, kontzentrazio-eremuetako soldaduak hasi ziren, langile-batailoi eta presondegiakakoak. Uholde grisetatik, aurpegi eta egun, eguzki eta lainoko nahasmendutik –itzulerak ez baitziren inoiz amaitzen– Alfons Garriguesek oroitzapen ahaztezinak gordetzen zituen. Ramon lehengusuarengandik, gaixorik baitzeturren kontzentrazio-eremuetatik, begi itzaliak gogoratzen zituen, hirian hil ahal izateko gogoz beteak eurak, non lau aste beranduago ehortzi zuten. Denbora igaro ez balitz bezala, Alfonsek Jordi Blanques, Torres i Campstarren meatzetako errementari ohia gogoratzen zuen, zeina ez zen lehorrera iritsi: ibaiaren beste aldean zegoen senide batek transbordadorearen ibilera bitartean esan zion ezen emaztea, banantze-aldi luzean gau ta egun amestua, hiriko kasernan zegoen militar baten atzetik joana zela. Jordi Blanquesek ez zituen oinak moilan ipini; txalupariaren estalpe azpian geratu zen pontoiak beste bidaia bat egin arte, eta bere figura betiko galdu zen Ebro alboko bidetik.

Oroitzapenak etengabe isurtzen ziren. Nola ezabatuko zitzaion gogotik Antoni Canalsen figura, ibaiaren erdi-erditik, anaia ttikia ontziralekuan bistaratuta, oihuka hasi zitzaionean galdezka zer egiten zuen hirian alferkeriatan, olibaren uzta-garaia izanda? Feda zezakeen baita ere Francesc Romaguerak gidatutako autoa igaro zela pontoitik, Francoren armadako alferez-uniformez jantzita eta Von Mülleren konpainian, hau komandante alemanez jantzita.

Denboraren lainoetatik Eduard Forquesen irudi ezabaezina zetorren, tradizio familiarrez erriberako bikeztatzailea bera, bokazio eutsiezinez saxofonista tenorra, Ramon Forques Harmonia Fluvialeko zuzendari ohiaren semea, zeinak transbordadorean bidaia egin zuen, irtetea lortzen ez zuen martxa funebre bat saiatuz. Bartzelonako Frantzia geltokian egundoko saxoa eskuratu zuen; gizagaldu goseti bati aldatu zion sardina-lata eta txokolate-tableten truke. Faióko geltokitik hiriraino, amaigabeko piezaren nota zalantziarik zirgabideari segika joan ziren, batailak hunkitu eta heriotzagatik lutoz zegoen Ebroko bailaratik tristeki joz. Lehorreratu zenean moilan zegoen jende guztia agurtu, musikari berrekin eta etxerantz abiatu zen, haurrek curiositatez jarraituta.

Ez zuen ahaztu Joanet del Plaren etorrera ere, *Neptúren* peoi eta Nelsonen konfiantzazko gizona bera. Mundu guztiak uste zuenean ontzi-gidariak ontziralekura salto egingo zuela pontoia txikota lotzeko iritsi baino lehen, Joaquim Mestreren aurrean ipini zen, beti bezala oporretan

beste jendearekin batera transbordadorearen zain zegoena bera, eta ahots leun eta lasaiarekin esan zion.

—Itzuli botak, txo.

Ebron mundu guztiak ezagutzen zuen Joanet del Plaren ahots lasaia; ezkerreko betazalaren dardar hautemanezinarekin lagunduta ateratzen zitzaion ahotsa, eta nabigatzaileak erakusten zuenean bere berbaroarekin ohiko bizitasunarekin kontrastean, gertakari gogoangarrien ataria izan ohi zen beti —adibidez, *Neptúko* eskifaiaren eta nabigatzaile ascótarren arteko buila, Joanetek ukabilkada batekin hasi eta patroiairen matrailak bigundu zituen, edo Tortosako putetxeko eskandalua, non peoiak, Joanetek jada aukeratutako puta batek ilusioa egin zien deltako arrantzaile batzuei oso ondo esandako kortesiazko formula baten ondoren, saihetsezurrak jipoitu zizkien Atanasi Berpizkunderen kolaborazio gogotsu eta interesbakoarekin. Joaquim Mestre jakinaren gainean zegoen, eta konturatu zen ezen ez galdutako gerrak, ez langileen batailoiko nekeak, ez zutela ontzi-gidaria aldatu: ahotsa lehen bezain edukatua zen, betazala lehen bezain itxuraz dardaratzen zitzaion. Alabaina Joaquim Mestre ezikusiarena egiten saiatu zen.

—Zertan ari zara, Joanet? —lortu zuen marmartzea jendeak inguratzen zituelarik.

—Ez gorrarena egin. Daramatzazun botei buruz ari naiz; neureak dira. Bada ordu bat baino gehiago ikusi ditudala.

—Etiket hartuko zizkizun lapur honek —esan zuen emakumezkoetako batek—. Kanpoan geundelarik, azeri batzuek kolore guztietakoak egin dituzte. Itzuli naizenean, etxea hankaz gora zegoen.

Emakumezkoak egia esaten zuen eta Alfons Garriguesek Joaquim Mestreren izu-ikara gogoratzen zuen alde egiteko modua alferrik bilatuz.

—Erantzi itzazu!

—Baina Joanet, gizona!

—Eranzteko...

Jendearen laidoen artean inozentzia-protestak eginez, xixkalariak botak kendu eta peoiari eman behar izan zizkion. Oinutsik, oinak izoztuta negua zelako, ziztu bizian alde egin zuen Moiletako Maldatik ontzi-gidariak bere jaka zarpailduaren mahukarekin arduraz garbitzen zuelarik bota pare ederra, Nelsonen opari, zeinak Arquimedes Quintanarengandik jaso zituen, eta nori mister Oliver Wilsonek oparitu zizkion.

Estanislau Corberaren hunkidura gogoratzen zuen Alfons Garriguesek, hura emaztearekin eta alaba ttikiarekin lehorreratu zenean, baina malkoak ez ziren garratzak, kafetegia, hasieran atzeratutako miliziano batzuek ebakuazio-egunean eta gero tropa frankistek, arpilatuta aurkitzean. Lokala ziertzo-haizete latz eta hego-mendebal sargoriei parez-pare irekita geratu zen, zeinek hautsa ispiluetan erantsi eta soldaduek sortutako desastrea patinaz estali zuten.

Memoria-kolpean Garriguesi ez zitzaion Nelsonen irudia falta, aita defuntuaren adiskide ona bera, ez eta Berenguer de Serrarena ere. Azken horrek, beti bezala eme-gosez, emaztea besarkada batez eraman zuen moilatik. Logelara igotzea itxaron gabe, etxera iristean, eskailera-

buruan bertan erantzten hasi zen. Era berean Pasqual del Pons, hiriko karta-jokalari finena, zeukan gogoan. Itzulerako trenean antolatutako tinba batean beren herrira oporretan zihoazen lau erreketen nafar larrutu berri zituen. Botikari-emaztearen etorrerak bere semearekin, Honorat del Rom izango zenarekin alegia, txalupari gaztearen memorian Salleres alargunaren ebakuazio-eguneko zalditeriaren trosta berpiztu zuen: jende izutuaren eta eztanden zalapartarekin sututa, Ebroko harresitik abiatu ziren abereak. Alargunen Moilaren zuzengunean –nondik Nelsonen ontzia atera berria zen, eztandak eta zubia zapartatu zuten dinamita-kargen egundoko sugarrek erotuta– Codissos kalezuola hartu zuten brastakoan. Honorat Kafetegikoaren garrasi ikaragarriak, animalien apatxek kale-kantoian zapalduta, Garrigues gaztea izutu zuen, balkoitik begira ihesaldiaren nahasmendua behatzen zuelarik... Itzultzen zirenen oroitzapen-korapiloen artean nahastuta, txalupariaren gogora etorri ziren baita ere, gaueko ordu ttikietan edo egunsentian, Udaletxean edo Guardia Zibilaren kasernan galdekatuak izan ondoren, transbordadorea igarota, auto beltzetan eraman zituzten hiritarrak.

Alfons Garriguesen –kale Nagusiko Garriguestarra, 1938tik 1942ra arte hiriko txaluparia bera, urte hartan utzi baitzuen lana Salleres alargunaren ibai-ontziekin nabigatzeko– Barca moilari bizkarra eman eta Moiletako Maldatik abiatu zen. Bere presentziarik gabe, paisaiak 1971ko udazkenaren koloreak errekuaratu zituen eta transbordadorea iraileko argi gozoaren argitan desegin zen. Baina antzinako txalupariak ezin izan zuen Sebastià Noguera Júlia Quintanaren senarraren begirada saihestu: atxilotuaren begietan jada bazegoen hirian, fusilamenduko pelotoiaren aurrean, zain zeukan heriotzaren itzala. Buruzagi obreroaren begi-niniek hondorik gabeko tristeziak batzen zuten hiri lutozko eta gosetiaren irudia, non irabazle errukigabe batzuek, tronpeta eta danborren konpaserak, haur indarge eta zorritzak egurrezko fusilekin gerran jolasarazten zituzten.

Alfons Garriguesen ebokazioak ez zuen oihartzunik aurkitu hiritarren artean. Estanislau Corberak nekez erreparatu zuen bat-batean mahaiaren aurreko ispiluan islatu zen Moilako Kafetegi urrun eta arpilaketak suntsitutakoaren ikuste iheskorrean. Oraindik udako epeltasun berantiarrek bigundutako udazkeneko ziertzoak beirateen leiarrak zurrumbilo latzekin bibrarazi eta lehen hosto erorien kolore xigortua bertan ezartzen zituelarik, kafeteroak arduraz jarraitzen zuen bertaratuen berbaldi bizia.

Eduard Forquesek arreta pixka bat jarri izan balu bere memoriako punturen batean zehaztu nahi zuten nota musikaletan, seguru aski 1940an, kontzentrazio-eremutik itzuli bitartean, trabatu eta sekula jarraitzerik izan ez zuen martxa funebrearen lehen konpasetako soluzioa aurkituko zukeen. Baina notak, buru barruan, kontzientziaren agerian, taupaka ibili ondoren, berehala hondoratu ziren saxo tenorraren ahanzturretan.

Joanet del Plak ez zituen Joaquim Mestreren oinetatik errekuaraturako mister Wilsonen botak gogoratzen. Nelsonek bere betsarera itzultzen saiatzen zen hiriaren irudian kontzentratu ezinik jarraitzen zuen, eta Honorat del Rom-ek ez zuen Codissos kalezuloan entzun zuen zalaparta, moilaren suntsiketa-unean antzinako txalupariaren oroitzapenak berpiztutako aita zapaldu zuten zaldien zaratotsa errekonozitzen.

Erlijosoen komentuko suntsipenetik aste batzuen buruan –zeinetik Honorat del Rom-ek, aurrietan arakatuz, Estanislau Corbera mahats-orriz koroatu eta burezur kapela militarduna

zeukan tabike-zati bat errekuferatu zuen—, aldaketa bat gertatu zen suntsiketek higatutako hiriaren egoeran: amaitu berriak ziren hiri berriaren lehen etxeak. Bere fruituak ematen hasia zen populazioaren biziraupen-borondatea, borroka etengabeko hainbat urte pasata. Ordura arte, etxe suntsituek, hirira halabeharrak —Júlia Quintanaren kasuan lanik edo etorkizunik ezak— emigratzera behartutako familiak adierazten zituzten. Orduz geroztik amaituak ziren agurrak, hiri zaharrean suntsiketa bakoitzak berriaren beste etxe amaitua esan nahi zuen, ordurarte inork gutxi sinisten ez zuen errealtatea hain juxtu. Kale pitzatueta, optimismoa, euforia birsortzen ari zen.

Eta ilusio hura nagusitzen zen Moilako Kafetegian bezero gehienaren berrikeretan, Alfons Garrigues Ebroko transbordadoreko antzinako txalupariak gerratik itzultzean ebokatu egiten zituen bitartean. Baina oharkabea igaro zen oroitzapena. Eta gauza bera jazoko zitzaien hiriko biztanle gehienei ordu gutxi batzuen buruan gertatuko zen egitatearekin — zeina etorkizuneko kronista anonimoek suntsipenen hasieran akatsez kokatu eta ondoezaren hasierako premonizioetako bat bezala kontsideratuko zuten.

Torrestarren etxaldean Carmela izan zen mugarik gabeko gabeziaren kontzientzia izan zuen lehena, aurreko urteaz geroztik jeneralaren logelako haritzezko kaxoiaren tiraderan utzitako anderearen lutoko arropak prestatzen ari zenean (jeneralaren logela deitua Tetuanen burugabetutako heroiaren erretratu ekuestrea erromesaldi kezkagarriaren ondoren bertara iritsi zelako): jeneral-andrearen heriotzaz geroztik, militarra eta bere zaldia, animaliaaren inguruan margolari ezezagunak sartu zuen mairu-multzoa ahaztu gabe, hormaz horma ibili ziren etxaldeko ganberetan mendebal-hegaleko pieza ia galdu batean ahaztuak izan baino lehen, non neskameak soilik urtean behin sartzen ziren hiletako arropak hartzera. Lutoko arropak batere akatsik gabe gordetzen ziren; logelako argi zetazkoak –leihoetako errezelek iragazitako udazken-eguneko okreen gamak margotuak eurak– tumuluena eta hileten soiltasun ebokatzalea leuntzen zuen; alde hartan, neskamea lasai zegoen, nahiz eta ezin ziren baztertu nagusiaren ezustezko irteerak. Urduritzen zuena anderea janzteko unea imajinatzea zen. Urteak pasa ahala, operazioa are gogaikarriagoa zen, ez soilik jantzi-tokiko ispilu aurrean planteatutako janzkera-arazo zehatzengatik, anderea arroparen estutasunaz konturatzen zenean josturak atezatu-atezatuak geratzen zirela egundoko gorputzarrak sartzeko. Hura aitzakia zen sumina abiatu eta urteurreneko ospakizunetan beti presente zegoen mamu-ilara garrasien indarrez uxatzen probatzeko. Neskame zaharraren aurreikuspenen arabera, abagune hartan are astunagoa izango zen zeremonia. Urteurrenaren sintoma adierazleak aurreko edozein aukeratan baino kezkagarriagoak izan ziren: Barca moilako etxeen suntsiketak hondakinez bete zuen erregaliz-estruktuko fabrika. Hondakinek hainbat urte lehenago itxita izan zen eraikinen destinoa aurreirudikatzen zuten, Frantzia Bigarren Mundu Gerra bitartean alemanen esku erori zenean, mugaz haraindiko inportatzaileen hondamena eta negozioaren amaiera ekarri zuenean. Orduz geroztik ia hogeita hamar urte pasa arren, fabrika, bakartuta, nabe hutsen isiltasunean egundokoa, patio izugarri handiaren desolazioan –non denborak parra ihartuz inguratutako pergola bat irensten zuen– familiaren boterearen sinboloetako bat zen, eta bere hormen suntsiketaren hurbiltasuna jasanezina suertatzen zitzaion andereari. Hondamendiari Francesc Romagueraren presentzia gehitu behar zitzaion. Alferrik itxaron zuen bisita, aitortzen ez zuen arren, batik bat aretoko askarietako atsoei, zeinek etengabe gogoratzen zioten, aitzakia edozein izanda, antzinako maitalearen etorrera. Nàsia Palau gezurretan ari zen, bi bizkotxo artean, Elizako plazan ikusi zuela ziurtatuz. Teresa Solanesekek bere gezurra eransten zion Nàsia Palauren gezurrari: arazorik gabe ziurtatzen zuen Francescek agur egin ziola kale Nagusian. Eta Isadora Rubió, besteak baino gehiago asmatzen zuen arren, ez zitzaion orpoetara iristen Estefania d’Alberari; azken horrek faltsutasun-sokari Romaguerarekin Forn Maldan izandako ustezko berriketaldia gehitzen zion. Tamainako doilorkeriak eragina zeukan anderearengan. Itxurazko sorgortasuna eta bere jenioaren sendotasuna sendotasun, Francesci buruzko aipamenek bigundu egiten zuten. Antzinako maitalea bertan egon zenean, edozein zarata eskaileretan edo kolpetxo bat atean zintzilik uzten zuen, belarriak adi, inpazientziaz jarraiarazten zizkion Sofiaren edo Teresaren urratsak irekitzera zihoazenean. Romagueraren figura inoiz ez zen agertu ate ondoan, zeinaren azpian, sabai-leihoko argiak tamizatuta, barruko landareen berdetasuna lausotzen zen. Azkenean, Carmelak erabaki zuenean, Gerra Zibilaren bukaeraz geroztik hustuta eta suntsitzeko puntuan zegoen familiako etxaldearen salmentari zegozkion paperak prestatu

ondoren, Francesc joan egin zela esateak ekaitza lehertu zuen. Etxaldea infernu bihurtu zen, edozer huskeriak nahasmendua eta sumina sortzen zuen.

Ostera itzultzen zen gabezia-sentsazioa. Carmela zaharraren gogoan hedatzen zuen Romagueraren irudia. Kezkatuta, arduraz errepasatu zituen lutozko jantziak baina ordenaturik zeuden. Arropa anderearen logelara eramateko hartu eta, harrera-gela gurutzatzean, penduluko erlojuaren tiki-takak ezinegonaren gakoa intuiaz zion. Susmoa berresteko, etxaldearen ipar-fatxadako balkoietako batera joan zen, elizako kanpandorre erraldoiak mendean zeukan Savina plazara zermanera. Ez zebilen oker: dorreko erlojuaren orratzak – heriotzaren kilometro-kontalaria bera, Horaci Planesek zioen modura– hamaikak eta erdietan gelditu ziren; gabezia-sentsazioa, ordu bat eta erdietan jotzeko erlojuarekin sinkronizatutako sirena-joaren ausentziari zegokion. Orduan Carmelak oraindik ez zekien trastea ez zela aurrerantzean konponduko, orduz geroztik erlojuaren orratzek suntsiketarik presidituko zituztela, baina premonizio iheskor batek astindu zion arima kanpandorrea kontenplatzen zuen bitartean, zeinaren erpinean haize-orratzak Barcaren moila inguruetan azken suntsiketen hautsak mugitzen zituen ziertoaren norabidea seinalatzen zuen.

Gerra-hasieran instalatu zen sirena hegazkin matxinatuen presentziaz ohartarazteko. Hiria faxisten esku erori zenean, errepublikarren etorreraz abisatzeko jotzen zuten. Gerraren amaieran, norbaitek asmatu zuen eguerdiko ordu bata jotzeko baliatu behar zela, arroko meatzariak, bazkaltzeko, amaitzen zuten ordua hain juxtu. Orduz geroztik, kanpandorreko erlojuarekin sinkronizatuta, puntu-puntuan jo eta zakurren ulu goibela probokatzen zuen: zakurrek muturra airean laguntzen zioten hotsari. Horrela –urte asko beranduago, Honorat del Rom-ek Moilako Kafetegian izandako disertazio baten arabera–, jatorriz jendea meatzetako babestokietara bultzatzen zuen txikizio-oharra zena, denborarekin, hiritarren janguraren pizgarri bihurtu zen, zeinei sirenaren uhuriak, eguerdiko otorduarekin asoziatuta, listua jariatzen zien.

Anderearen memorian, erlojuaren betiko geldiketari buruzko neskamearen susmoarekiko sorgor, Gerra Zibilaren ondoren Torrestarrak hirira itzultzearekin lotuta zegoen sirena. Oroitzapen hark pixka bat desplazatu egin zituen aitaren hiletak piztutako ebokazioak.

Automobil militarrek errepideko koska guztiak harrapatzen zituen, hura harriz beteriko lur zapaldutakoa besterik ez zelarik. Bai gidariak, kaporal andaluziarra eskuineko besaburuan tatuatu zera bera (geziak gurutzatutako bihotza, odola zeriola emazte baten izenaren gainean), bai bidaideak, Jaume de Torres jauna eta bere alaba, neke-neke eginda eta izerdiz blai, saltoka zihoazen gorpilak zulo baten barruan sartu edo kozkor batekin topo egin eta balaztak karrankan hasten zirenean. Kamionetan, kutxaz eta maletaz goraino, infanteriako koronel batek jarraitzen zien, ikastetxeko kide eta Jaume de Torresen putetxe-gauetako kamarada hiriburuan, hura ere familiaren zerbitzura jarria. Carmela, anderearen alaba ttikia magalean hartuta, neskamearen zakartasunak kikildutako txofer bizargabe zurbilaren ondoren jesarrita, jauntxoak baino tentsioago zihoan. Goialdeko lurretatik jaitsi eta errepide nagusia utzirik, Fraga aurrean, buztinezko muino artean apenas bistaratu, pikondo orba indutako baratzeetatik harago, paisaia leundu egin zen. Zaragozatik gurutzatutako Monegroseko altiplano desertikoaren argi gogor, idorrek Cinca bailarako ganduari egiten zion leku. Gris urdineko tela sotilek difuminatzen zituen gauzak. Ibilgailuek atzean utzi zuten Torrent de Cincako herria, baratze artean isilik; Cinca Segrekin batu eta pixka bat aurrerago, azkenaren ibilbideari jarraika –orban txundigarria

hartxingadi zuriska eta errean artean—, hiri barrura iritsi ziren. Paisaiak mortu zirudien, gaztelua zutik urrunean. Soler meatzean ez zen inor mugitzen, lignitoaren belztasuna oster a okre haragizko eta lurraren xigorrek estaltzen zuten. Llüisa meatzean, Ebro alboan kokatutako beste biek in batera familiaren jabegoa bera, Jaume jaunak automobila geldiarazi zuen: errailetik ateratako bagoiak harrien gainean zeutzan, non belarra hazten zen; bonbek kortak zapartatu zituzten, burdinolatik soilik totxo gardostu pila bat besterik ez zen geratzen, eta horma-zati bat non desolaziora irekitako leiho baten markoa eusten zen. Lubetaren beste aldeko zapaldetan zaborra erretzen zuten; aire-bafada batek ke mikatzez betetako gazez estali zituen. Bidaiariak eztulka hasi ziren, eta Jaume jaunak jarraitzeko agindua eman zuen. Ebroko ziertzoak gandua hausten zuen, eguerdiko eguzkia erantzi eta oster a gogortzen zuen panorama. Arrano bat airean, oso altu. Kamioi militar bat iraulia ikusi zuten hurrengo bihurgunean: burdina-pila erre eta bihurrituak usteltzen utzitako abere arraro baten eskeletoa zirudien, lur kixkalian ehortzi gabe utzia.

Olibondo-, arbendolondo-zapaldetan bidaiaren amaierara hurbiltzen ari zirelarik, Carlota de Torresek aurreko egunean, bi haurrak Zaragozako jesuiten ikastetxean interno utzitakoan, non zaharrenak 1936a baino lehen jada ikasten zuen, harrapatu zuen tristezia suminak ordezkatzten zuen. Valladoliden egondako urte luzean, anaia Ramonen aita-amaginarreben etxean —nora gerraren bukaera itxaroteko Francoren tropak hirian sartu zirenean joan ziren— nostalgia etengabe are krudelagoa ekarri zuen amaren heriotzaren bakardade latzaren unean, aspalditik gaixotua Gaztelako hiriburura iritsi eta gutxira zendu baitzen hura. Adelina de Camps anderea bihotzean seme-alabekiko larrimenez joan zen beste mundura —armada faxistako alferez probisionalak, frontera bidaliak eurak— eta baita aitagarrebarekiko ere, Jaume jaunak hala eskatuta koronel lagun batek —atzeragoardiako intendentzia-kaserna batean kokatua bera— zeina andere gaixoak, arazo militarretan profanoa izanik, Hipòliten eskutitz heroikoen arabera lehen lerroa bezain arriskutsua kontsideratzen baitzuen. Zein bestelakoa izango zen bere agonia hirian —deitoratzen zuen maiz alabak, zeina Carmelarekin konfidentzia garratzak egitera emana zen—, etxaldea senide eta lagunekin beteta! Zein bestelakoa kanposantura lagundu zion segizio ttikia hirian edukiko zuenaren aldean, hiri ia beti eskuzabala dolu-adierazpenetan, non mundu guztiak uzten zuen lana ehorzketara joateko!

Hiri inguruan, ibilgailuek Bakunin de Planes igeltseroaren ondo-ondoan igaro eta hautsez bete zuten. Zuriketa eroapenez hartu eta eztul gehiegi ez egiten saiatu zen gizona. Ez zuen bidaiariak ezagutzerik izan, baina aski zen autoz ibiltzea, eta gainera militarra izanik, zuhurtziak aholkatzeko protesta gisara interpreta zitekeen edozein adierazpen gordetzeko, nahita nahi ez subertsiboa izateko susmagarria, halako izena zeukan batengandik etorrita. Igeltseroak aski eta gehiegi zeukan egun hartan zekarren atsekabearekin. 1931ko apirilaren 13an aldarrikatutako Errepublikak alaitasun pixka bat eman bazion Bakunin de Planesi —nahiz eta zipitzik ez zekien politikaz, eta jakin nahi ere ez buruko mina jartzen ziolako—, Sadurní Romagueraren ondorengo alkate berriaren enkargua izan zen: udal hilerrian zenduak bi kategoriatan banandu eta Elizak lur sakratuan etzateko ezduin kontsideratuak txoko batean baztertzen zitueneko horma botatzea, nora albo-atetxo batetik sartzen zen eta hiritarrek samintasunez “kortatxoa” deitzen zuten. Biharamunean bertan, lana hastean, Bakunin de Planesi oilo-ipurdia jarri zitzaion. Jeremias ehorzlearen begiradapean, zeina, nekosta baten itzal urrian, Salleres etxeko panteoia ren marmolezko atean bermatuta, hitz egiten hasi zitzaion pipa kixkali eta hats-emailea errez —zeina Honorat Kafetegikoak, bizi artean, jendea dar-dar jartzeko zioen hildakoen hezurrez egin a zela—, igeltseroak mailukadaz eraisten zuen kondentatuen esparruko horma. Bitartean angustia zapaltzaile eta irmotik libratzen zen. Sentsazioa desagertu egin zen, arrakalaren bitartez bere aitaren hilobiko lapida ikusi ahal izan zuenean. Bakunin bat ez ezik, anarkista zaharrak Germinal

bat, Felicitat bat eta Perfecte bat sortu zituen, baina ez zen Elizatik ezkondu eta, hiltzean, 1928. urtean, erretoreak alde sakratuan ehorztea debekatu zuen. Bekatari publikoa izanik, bere gorpuzkiak “kortatxoan” ehortzi zituzten, Octavi Oliver maitasunezko desengainu batengatik burezurrea pistola-tiroz zulatu zuen mediku erromantiko baten eta Libori Escarp Campstarren antzinako patroï eta erlijio berri baten fundatzailearen artean; eta erlijio hark iluminatuaren heriotza-unean hiru jarraitzaile zeuzkan –tabernari miravetar bat, Ascóko zapatagile bat eta puta tortosatar bat–, eta haiek irakaslearen gidaritza espiritualik gabe hiru sekta aurkakotan zatitu ziren, azkenean nahasmenduan eraitsi zirenak. Gurutzerik gabeko beste hilarriek bataiatu gabeko haurren, protestante baten, suizida batzuen hilobiak adierazten zituzten. Txoko batean, Madamfransuàk erredaktatu eta horman ezarritako marmolezko plaka ttiki batek (*Aitasantuarengan zikintzen naiz*) frantsesez presiditzen zuen 1917an sukar tifoidez hildako Edeneko korista baten hilobia. Hormaren suntsiketa amaituta, igeltseroak malko bat xukatu zuen ezkutuan: aita eta txoko laidogarrian ehortzitako gainerakoak behingoz besteak bezain defuntu ziren.

1939ko eguerdi hartan, Torres i Campstarren familia hirira itzultzean ibilgailuek altxatzen zuten hautsez beteta geratu ondoren, Bakunin de Planesek Errepublika aldarrikatu zenean atera zuen arantza oraindik bihotzean josita zeraman. Hiriko aldirietan, muino batean jasota, olibondo-zapalden isiltasunaren artean kokaturiko hilerrietik jaisten ari zen –nora abadeak aginduz, Guardia Zibilaren ostean hiriko handiki lehena bera– urte batzuk lehenago eraitsitako horma altxatzera igo zen. Oraindik entzuten zituen nekosta berberaren itzaletik kontenplatzen zituen ehorzlearen hitzak, berak azken totxoa kokatzen zuelarik.

—Ostera infernura jaurti berri dituk, Bakunin. Baina ez harririk bota hire burura, haiek hobeto egongo dituk deabruarekin gu Francorekin baino.

Ibilgailuak Segreko ataritik sartu eta Udaletxeko plazaren igoeran abiatu zirenean, hilabete luzez Gaztelan atzeritar egon ondoren ostera etxean egoteko sentsazioak astindu zuen Carlota de Torres: ostera bere buruaren jabe zen, ziurtasunez, errekupeatuak zituen bere jabariak. Hunkidurarekin batera, ordea, indar handiz birjaio zen urruntasunak murritzutako gorrotoa. Ostera berbizi zituen umiliazioak, larriminak, Sadurní Romaguera bezala amaitzeko etengabeko beldurra tropa frankistak sartu ziren arte. Armen plazara iritsita, kaleak mortu, establezimendu gehienak itxita, ongietorria emateko etxaldearen aurrean batutako taldeak baietsi zion gauzak ostera bere tokian zeudela. Automobilak frenatu bitartean, Carlota de Torresek so egin zien goiz erdiz geroztik bere zain zeudenei, Graellsek, Jaume jaunak etorreraren berri emanez, Zaragozatik bidalitako telegrama jaso zuenean. Betiko leialen ondoan, konfiantzazko gizonak deituta eta haien buru eginez, Rodako Kasinoko jauntxo guztiak zeuden, baina Romaguera familiako inor ez. Etxaldearen sarrera aurrean geratu ziren ibilgailuak. Ramon Graells, hunkituta, teatral eta arretatsu, taldetik banandu eta autoaren ateak irekitzera joan zen, lehenik Jaume jaunari, gero Carlotari. Administratzailearen besotik –zeinak inoiz ez zuen jauntxoengandik halako adierazpen beroa jaso ez eta jasoko– Beltran doktorearenetara pasa ziren bidaiariak. Mediku jauna, 1885eko koleraz geroztik hiriko hiltzaile efikazena –Honorat del Rom-ek aurrerago definituko zuen bezala– bere burua hezur-mamietaraino errepublikar gisara aldarrikatu eta diskurtsu amorratuak jaurtita militar fakziosoen aurka, hiriko atean harrera suharki egiten lehena izan zen. Doktorea, arranditsu eta harroputz hutsa, beste jauntxo batzuen etorrera agurtzeko erabili zituen esaldi hutsal berberak abiatuz, Carlota de Torres beti sekretuan desiratuaren egundoko gorputza besarkatzeko zorian zegoenean, kanpandorreko erlojuaren orratzak ordubetera iritsi eta sirenaren ulu sarkorrena lehertu zen.

Urte batzuk beranduago gertakaria Moilkao Kafetegiko tertulian komentatu zen, eta Anselm de Riusek, lekuko zuzen gisara, bertsiorik sinesgarri eta osoena eman zuen. Dendariaren arabera, plazako eskenatokia bere dendako atetik mendean hartuta, lasterketari ekin zion lehena Carmela izan zen –“hegazkinak, hegazkinak!”–, eta jarraian Jaume jauna –“babestokira!”– eta bertaratutako gainerakoak. Hauek, sirena-hotsaren erabilpen berriarekin ohituta zeuden arren, oraindik zeukaten sustraituta aparailuaren ulua bonba-erorketarekin asoziatzea, eta haiek ere oilo-zalapartaren nahasmenarekin sakabanatu ziren, bidaiarien izuak kutsatuta. Sakabanatzean, guardia zibilaren brigada sartu beharra zegoen, bibotedun eta meharra, zeina izu-ikarak, jauntxoan aurrean koadratzera zihoan agurtza militarrek durduzaturik utzi ezezik, babesa Anselm de Riusek dendan bilatzera bultzatu zuen. Beldurraren itsumenak tomate-kutxa batekin estropezu egitera eraman zuen, eta ordenaren goardia adoretua muturrez sartu zen bakailao gaziko meta batean, ia artikulu bakarra bera dendaren elikadura-desolazioan.

Dendariak errezeloa zeukanez, ekintza heroikoa brigadak jaurtitako irain-sorta, estraperlista-salaketa eta mehatxu bilakatu zen, uniformetik gata astindu eta sardinazarren ontzitik trikornioa errekupekatzen zuen bitartean egoeraren erridikulua aldatzeko saiakera inutil gisa. Horren ondorioz, Anselm de Rius ezin izan zen plazako taldearen birkonposaketan egon, eta ez zuen ikusi bidaiarien sarrera sumina familiako etxaldean.

Narritadurak zaildu egin zuen areto eta ganberen lehen bisita, nahiz eta Carmela, sirenaren astindutik berregina, banan-banan ukatzen zihoan etxaldearen egoerari buruzko anderearen kexak, nabarmenki injustuak, izan ere nagusien faltan Graellstarrek haren ardura hartu eta patena baten gisara luzitzen zuen denak. Anderearen jarrerak aski harrigarria zirudien, izan ere inoiz ez baitzen kezkatu halako gauzei. Bat-batean, jeneral-andrearen erretratuari buruzko buila baten erdian, non neskameak ukatzen zuen ile bat ikusten zuen andereak, Carmelak inspektzioaren zentzu sakona, agian inkontzientea, harrapatu eta gogoan hartu zuen: Adelina anderea hila eta zulo urrunean ehortzita, Carlota de Torres jabetzen zen etxaldeaz, hura intuizio aski baietsia hurrengo egunetan. Keinuak ez zuen adierazten ama bizi bitartean –zeinari alabak ahal zuen samurtasun guztia erakusten zion– ezkutuan utzitako botere-desira bat; sinpleki, Carlota de Torresek oinordekotza bereganatzen zuen. Jaume jaunak negozioetan ordena jarri, gerra-urteetako kolektibizazioaren ondoren berreskuratutako meatzeak ikuskatu eta osteria produkzioa altxatu nahi zuen, Carlotalak Birjina Martirien Aretoan aitaren erretratu pean hartzen zituen bisitak. Arratsalde erdian atsoak joan ohi ziren: garaipenaren ordua, berreskuratutako ziurtasunaren eta askariko gerra-ondoko txokolate susmagarriarena, bi neskame berri oraindik ez oso abilek zerbitzatua –Adelaida eta Veronicaren ordezkioak eurak– matxinada hasi berritan etxea utzi baitzuten haiek (Adelaida, isilik; Veronica, komunismo libertarioari goraka eta jauntxoan burua eskatuz eskailera handia jaitsi bitartean). Carlota de Torres ausentzia luzean gertaturiko berritasunez jabetzen zen: Soler andereñoaren haurduntza, okupazio frankistaren ondoren gazteluko dorrean seduzitu zuen infanteriako tenientearekin azkar-azkar ezkondua; Aleix de Segarra eta Malenari buruzko berri-gabezia, zeinei buruz ezer ez zen ezagutzen okupazioa gertatu eta gero; hildako hiritarrak, Frantziara pasa zirenak, kontzentrazio-esparruetan konfinatuak edo presondegietan itxiak gerra-kontseiluaren zain. Ia arratsaldero eskola-taldeko zuzendariak –loro zedendua eta agintzailea, egunero jaunartzen zuena eta nexka gazte eta politekiko jaidura aitorrezina zeukana bera–, Adelina de Camps Valladoliden zendutakoaren albistea iritsi zenean, hiriaren sentimendua berpiztu eta kapilau kastrense bati eskatutako haren betiko salbazioaren aldeko hiletaren deskripzioa errepikatzen zuen xehe-xehe. Teniente koronel dotore-dotore bat, Alberaren apopilo bat, izan zen zeremoniaren buru, nahiz eta –argitzen zuen maistrak, beti okotzeko ileetan, sudurreko garatxoarekin joko eginez, eransten zitzaion txokolate-tantaz ohartu gabe– intzentsuaren lurrinak ezin izan zuen

garajearen funtzioa –errepublikanoek emandako funtzioa, alegia– gogoratzen zuen gasolina-hatsa gairitu, gerra-hasieran tenplua aldez, irudiz eta ornamentuz gabetu, erre edo Ebrora jaurti zituztenean.

Gauean, kaleetako iluntasunak –kale-kantoietakako lanpara mortuek nekez hedatua bera– joan-etorriak disimulatzen zituztenean, gainerakoak etorri ohi ziren. Aita Rodako Kasinoko tertulian zegoen bitartean, Carlota de Torresek sabelkoikeriaz dastatzen zuen mendekua, senarra, neba, semea edo senargaia presondegitik edo kontzentrazio-eremuetatik ateratzeko abala eskatzera, eskariaren umiliazioa irentsiz, joaten zitzaizkion emakumezkoen aurrean. Ez zien jesarlekurik eskaintzen: faborea zutik erregutu behar zuten eta ez ziren hilduraren behazuna irenpsi gabe joaten. Baina Carlota de Torresek antsia handiagoz itxaroten zituenak ez ziren joan, eta horrek amorrutaz dardararazten zuen. Maiz, aretoko balkoitik plaza handia hutsik behatzen zuen bitartean, kafetegietako mahaietan jendearen animaziorik gabe, pentsatzen zuen hantxe garbituko zituztela Sabastià Noguera, Arquimedes Quintanaren suhia, eta iraultza egiteko, jauntxoaren meatzeak, lurrak eta fabrikak (eta batik bat Torrestarren etxeak) errengatu eta kolektibizatu, eta era horretara munduaren ordena aldaezina irauli nahi izateko ausardia izan zuten gainerako hiritarrak.

Gaueko bisitetako filipika basatietan proklamatzeko baina sakonago zauritu zuen gerrak Carlota de Torres: Francesc Romaguera kendu zion betiko. Torrestarrak jadanik Gaztelan zeuden abokatuak hiritik azaldu zenean Von Müllerren konpainian, baina bazekien zein izan zen bere jokabidea: hiriko jauntxoak gorrien konplizetza, traidoretza salatzea. Ez zuten pistolarik erabili aita hiltzeko, ez; baina saldu egin zuten, norberaren larrua salbatzeko saldo erailtzaileari karnata bezala oparituz. Norbaitek, agian Carlota de Torresen aitagarrebak, Desideri de Mórak alegia –garbiketa masibotik itzuri egindako burgesen inpotentzia aipatu eta Arnau Terreren heriotzagatiko mendekuaren arazo zaharra, krimenaren arrazoi erreala gisara, gaineratu zuenean– Francescen garrasiek Rodako Kasinoko jauntxo izutiak beldurtu zituen. Koldar-koadrila! Egiteko garaia izan zenean gizon bezala jokatu izan balute, inoiz ez zen egoera hura iritsiko. Koldar- eta hipokrita-saldoa: nortzuk, haiek izan ezean, baliatu ziren Arnau Terreren heriotzak arroko meatzarien artean luzaroan eragindako beldurraz? Carlota de Torres dena zekien, Francescek bere aitaren aurka –“Valladoliden ezkutatuak oila hura”– eta bere aurka –“haren alaba urdanga”– egindako laidoetatik hasita. Hitz injustuak, krudelak, baina osterara ahanzteko prest zegoen, gutxienez behin Carmelak ganberako atean jo eta neskamearen atzean Francescen aurpegia ikustearren truke. Baina maitaleak ez zituen osterara etxaldeko pasabide gaurrak gurutzatuko, eta Carlota ere ez zuen haren haziaren usaina izara zimurtuetan antzemango. Behin bakarrik ikusi zuen, ia Valladolidetik itzultakoan, abokatuak hirira bidaia bat egin zuenean ama eta anaia zaharrena berarekin Madrilera bizitzera eramateko. Carmelaren ahotik Romagueratarren etxaldera eginiko mezu erregutzaileak eta guzti, Francesc ez zen bertara iritsi. Etsita, urrutitik ikusi zuen, ganbarako leihoetatik, eraman zuen ibai-ontzia Plazako moiletatik abiatu zenean. Begiekin jarraitu zion ontziari Ebron behera galdu eta urruntasunean, hilobi batean bezala, hondoratu zenean. Ostera aretora jaitsi zenean, negar egiteagatik lehor, irratia antsiaz entzuten ikusi zuen aita: Hitlerren tropek Polonia inbaditu berri zuten.

1939ko udan, sirenaren uluak, Torres familiaren eta bere fidelen sakabanatzea Arma plazarantz probokatu ez ezik, Salleres alargunaren administratzaile berriaren diskurtsoa eten zuen.

Ardura handiz antolatutako plan baten bigarren akatsa zen. Lehenengoak antzinako sasijakintsuak sarrera-unean lortzea espero zuen efektua deuseztatu zuen. Kanpaitxoak joko zuen; neskamea, komediarekiko errefraktario baina ondo hezia, irekitzera joango zen, bisitaria, ezagutu ez balu bezala, itxaronarazi eta haren berri emango zuen. Une deliberatuki luze baten buruan, pasartzeko esango zuen. Argi kontrari hartu eta hark nahastu eta apaldu egingo zuen, oraindik harrotasunik izatekotan. Planaren arabera hasi zen dena, baina nork aurreikus zezakeen Rem, anderearen ehize-txakurra –neskameak bulegoko atea irekitze-unean doi, eta administratzailea, balkoiari bizkar emanda, iritsi berria txunditzeko prest zegoelarik– ero modura pozez zaunka korrika etorri eta Nelsonen gainera oldartuko zenik aurpegia miazkatzeko?

Neskameak –zeinaren aurpegian administratzaileak, oso-oso deseroso, irribarre ironikoa harrapatu zuen– ateratzea lortu eta berak jarrera zurruna konpondu zuenean bainugelako ispilu aurrean entseatutako diskurtsoa abiatzeko, sirena madarikatuak osteria bidali zuen plana pikutara.

Neskameak konfinatu zuen gelan zakurrak biderkatutako uluak administratzailea garai berrien gorazarre baten sarrera gisa pentsaturiko filipika suspenditzera behartzen zuen bitartean, Nelson mespretxuz eta nazkaz begiratzen zion mahiaren beste aldetik. Berehala ikusi zuen astun hark antolatu zuen harrera-mota. Ez zen batere harritu. Hirian bost bat egun zeramatzala, bazekien zer egosten zen: susmoa izan zuen Faióko geltokian, non hiritar batek ezikusia egin zien geltokian trenetik jaistean. Gauza bera errepikatu zen transbordadorean: Garrigues mutila, une hartan txaluparia, eta andrearen lehengusu propio bat bakarrik ausartu ziren agurtzen. Gainerako bidaiariak, gehienak alorretik itzultzen ziren nekazariak eurak, enoratu egin zituzten, oraindik konprometitu ahal ote zituzten ez zekiten norbaiti hitza zuzentzeko beldurrez. Jarrera hark tristetu egin zuen. Zubia hondoratuta ikusteak lur jota utzi zuen. Jendez gainezka *Neptú* ontzian ihes zihoazelarik 1938ko martxo aldera, zubiaren suntsiketa trumoi urrun bat izan zen, distira gorri eta iheskorra ur beltzetan. Orain efektua ikusten zuen ontzia pasatzean: zutabe mutilatuak aurrien eta burdina herdoilduen artean irteten ziren udako goizeko ur berde-berdeetatik. Egun bakar batean denborak atzera egin zuen eta orain transbordadoreak –urte luzez erabili gabe, zubiaren ordezkia egiten zuen– lehenaldiko ilunpera eramaten zituela zirudien. Hiri beldurtu batean lehorreratzen ziren, begi iheskorrez beteriko hiri batean non, Salleres alargunaren administratzaile berria bezalako jendeak xaxatutako ezinegona islatzen zen, antzinako bulegari xumea, hitzez antifaxista, zakur batek erridikuluan utzi zuena. Ehize-txakurra –alargunaren laguntzailea meatzeak bisitatzea joaten zenean, *Neptúrekin* nabigatzen nekatua eta eskifaiaaren adiskidea– zalantzarik izan ez zuenetariko bat izan zen.

Sirenak nahastuta, alargunaren oheko apopilo berriak –“makarroik ikaztatua”, geroago Honorat del Rom-ek Moilako Kafetegiko disertazioetan deitzen zion bezala–, bigarren aldian saiitzen zuen keinu inposatzaile eta aginteduna, bibote frankista erridikulu, adatsak brillantina likatsuz

ezkutatu eta hazpegi biguneko gainerako elementuekin. Alferrik: keinu inperiala imintzio barregarri eta handinahi hutsa zen.

Elkarrizketaren emaitza denbora luzea pasata erdietsi zen, alargunaren neskame batek hedatu zuenean. Orduan Estanislau Corberak –lehen egunetik bertatik Nelsonek ohartarazita zegoen bakarra bera– patroia-aren isiltasunaz jabetuta esku-hartu behar izan zuen Birjina Martirien Aretoko harpia txokolatezaleak hedatzen ari ziren bertsio gaiztoa mozteko. Horrela hiritarrek jakin zuten –ez administratzailea bere besaulkitik atera eta bulegoko liburutegian iltzatze-ko atera zuen ukabilkada, ez jarraian hagin-pare bat atera zizkiona, ez eta neskameak, zalapartaren eta babalasto mirrinaren builak alarमतuta etorri ez baziren, ateratzen jarraituko zizkiona– ez zirela Salleres alargunarekin oheratzeko Nelsonen eta eskribauaren arteko ezein liskarren ondorio. Odola patroia-aren burura igoarazi zuena izan zen, traidoreak gerra garaian hildako herritarrei buruz eta batik bat Sebastià Nogueraren aurka gerra-kontseilu batek emandako heriotza-epaiari buruz egindako erreferentzia erdeinuzkoa.

—Eskuetatik kendu ez balidate, izorratuta hilko zen hau, aitortu zuen egun berean Estanislauk. Eta kafeteroak –zeina denda zabaldu baino lehen oraindik lapurretaren txikizioak konpontzen saiatzen ari zen– burua kezkaz mugitu eta, arpilatzaileen grinari itzuriz, janaritegian lurperatuta zegoen botiletako batetik ron-kopa bat zerbitzatu zion ontzi-gidariari.

—Gerra galdu duzue, Nelson, eta garaitu bat ezin da munduan administratzaileak zaplaztekoka hortzik gabe uzten ibili, eta are gutxiago garaileen aldekoak –esan zion alargunak, biharamunean, haren bila neskame bat bidaliz–. Oraingoan isilduko da. Ahoan bilorik gabe esan diot arazo bila badabil antzarak ferratzera bidaliko dudala. Oraingo ez dut uste ahoa irekiko duenik, besteak beste zahagi bat bezala handiduta daukalako. Indar osoz jo duzu, mutiko! Hain odoleztatuta ikusita, izorratu zenuela pentsatu dut... Lasaitu zaitez, kontuz ibili. Ez dut gogorik patroirik onena galtzeko, gehien behar dudanean. Txikizio gehiagorik ez! Ez dut ezer jakin nahi zuen kontuei buruz. Arroa kolektibizatu duzue, iraultza egin nahi zenuten, baina ez zeniguten ilerik ukitu eta ez diot inori kalterik egiteko gogorik. Ahalik eta lastarren ireki nahi ditut meatzeak eta niretzat axolarik ez ikatza ateratzen dutenak gorriak edo beltzak diren, denek jan behar dute. Orain arduratu zaitez esan didazunaz. Gero lignitoa garraiatzeko behar diren ibai-ontziak eraikitzen hasiko gara.

Alargunaren ibai-ontzi pertsonal txikian Ebron behera zihoala etorri zitzaizkion hitzak gogora. Berak aukeratu zituen kideak, anderearekin zuzenean konponduz, administratzailearekin arazoak ekiditeko, ez ezkerreko begiko gaitza, ez masailen hanpadura ezkutatze-ko beti ganberan zegoena bera, intzirika. Alargunak sudurra zimurtu besterik ez zuen egin Tomàs de Xertaren izena entzutean, Torres i Campstarren antzinako patroia bera, zeinak kafetegietan beti “Timó kaleko urdanga” deitzen zion. Nelsonen argudioaren aurrean, alegia Tomàs, berak jakin ez arren patroia on bat zela eta hari gero ibai-ontzi baten zuzendaritza eman ahal zitzaiola, amore eman zuen gotortu gabe. Soilik haxe marmartu zuen:

—Esaiozu nahi beste aldiz esan zezakeela urdanga bat naizela. Orain, nire ontziekin nabigatu nahi badu, erne ibili dadila osteratso ez esaten.

Tomàs de Xertak ez zuen lanik aurkitzen kontzentrazio-eremutik irten zenez geroztik. Gerra Zibilean politikoki nabarmendu zirenak baztertuta geratzen ziren eta Salleres alargunaren jarrera salbuespenezkoa zen. Torres i Campstarrak errukigabeak ziren errepresalia garaian, gehienetan Carlotaren aginduz eginak, Ramon Graellsen aholkuz, zeinak egin eta desegin egiten

zuen Jaume jaunarengandik ezkutuan. Azken honek emaztearengandik libratuta eta negozioak berrartu behar ziren aitzakiaz, paperak konpondu beharragatik hiriburura sarri joaten zelarik, arazo haien ardurarik ez zuen hartzen, edozein moduz Lleidan mantentzen zuen ilehori zoragarria baino interes gutxiagoko arazoak.

Ontzi barruan metatuta, bostentzat eta zeramatzaten tresnentsako ttikia baitzen, Ebro nagi batean nabigatzen zuten. Lubaki hustu, herdoilak jandako alanbre-hesi, etxe desegin, bonbek landutako lurren isiltasunean soraio labaintzen zen ura. Hainbat ahaleginek eta hainbat heriotzak –pentsatzen zuen Nelsonek– ez zuen haren joana aldatu: udazkeneko eta udaberriko euriek puztu egin zuten, udako beroaldiak murriztu egiten zuten, baina urek ez zuten batailaren memoriarik gordetzen. Memoria gizakien gauza zen; Ebro sentiberatasun gabeko indarra zen, arrainak harrapatu, ontzien gilekin urratu, edo bere errai lohitsu eta hotzetan heriotza aurkitzen zuen jendearekiko.

Isilik mantentzen zen, oraindik brigadaren eta bi soldaduen begiek behatuko balituzte bezala. Guardia zibilak bat-batean azaldu ziren ontzia uretaratu eta, egunsentia moila hutsetan lamatzatzen ari zelarik, sokak, zuakerrak eta lanabesak kargatu berri zituztenean. Beste erremediorik ez zitzaien geratu arazoa xehe-xehe azaltzea baizik, trikorniokoen begirada susmotiaren pean. Nelsonek brigadaren begirada zorrotzak sentitzen zituen bere pentsamendua arakatu nahirik. Bazekien brigada zakur amorratua zela: penaturik zen, eta esan egiten zuen, hiritarrek jauntxoen eta eskuineko jendearen aurka gehiegikeriak ez zituztelako egin mendekuan gozatzeko, arroko meatzari-jendaila afusilatzeko, zioenez, Asturiesekoa bezain arriskutsua baitzen. Bere obsesioa zen lan-eremu eta presondegietatik etorritako jendeari egindako galdeketera; haserretu egiten zen bere odol-eldarnioa zuritzeko ezer aurkitzen ez zuelako. Ez zituen erailtzaileak desio, baizik eta galtzaileak, gerra abiatu ez eta askok heriotza aurkitu zutenak. Orduan hasten ziren garrasiak, kolpeak, jipoiak, gauetan errepikatuak, etxeratze-aginduen ondoren patruilek jendea kaleetan sakabanatzen zutenean. Ontziarekin nora zihoazen azaldu behar izan zuen Nelsonek, alargunaren etxera lagundu. Andereak, neskameek esnaturik –“Zer nahi du ergel honek?”–, pikutara bidali zuen guardia zibila begiramendurik gabe.

Trikorniodunek, anderearekiko hanka-sartzearekin haserre, zeinarengandik hiriburuan zeukan eragina ezagutu zuten –non senide bat zeukan ministerio garrantzitsu batean kargadun–, behatu egin zituzten, ontzia, itzal urdina kui-koloreko zeruan soslaituta, urertzetik urruntzen zelarik. Zorionez ez zitzaien iritsi, edo ez zuten ulertu, Tomàs de Xertaren marmarra, arraunei eragiten zielarik.

—Hogeita hamaseikoak ez ziren hain harroxkoak...

Ontzi-gidariaren hitzek onarpen-marmarrak sortu zituen taldean. Afrikako militarrek 1936ko uztailean matxinatu zirenean izandako jarreraz ari ziren. Soldadu-taldea zonaldeko komandantziatik bakartuta zegoen, eta soldaduek kasernan familiekin itxita egon ziren zer egin jakin gabe. Hiritarrek kaserna inguratuta zeukatelarik, itxaroten nekatu eta guardiei jakinarazi zieten edota zeinen alde zeuden berehala esan ala kasernatik emakumezkoak eta haurrak ateratzen utzi behar zutela, eraikina lehertuko baitzuten. “Leialtasun-adierazpen espontanea”, iruzkindu zuen sarkasmoz Hononat Kafetegikoak suhartasun gubernamentalaren aurrean, zeinak, eraikina dinamitzeko prestakuntzaren bistan, guardia zibilak berotu eta kasernatik irtenarazi zituen Errepublikaren aldeko gorak jaurtiz. Atxikimenduzko oihuak oraingo errepresio ankerrek ordezkatu zituzten: Nelsonen aurrean, ontziaren brankan, Joanet del Plaren

matrailalbo-hezurra –irratian himno nazionala jotzen zuenean kafetegian zutik ez jartzearren hartutako kulata-kolpeagatik hanpatua– bat zen.

Patroiaren kezka beste bat zen. Ibai txundigarrian zehar egindako bidaian atsekabetzen egon zen, kideen komentario urrien edo urertzeetatik zetozen soinu lausoez etendako isiltasunaren erdian. Ez zuen iristeko ordua ikusten. Nabigazioa ur ia mortuko lautada amaiezinetan, oso-oso luzea egin zitzaion. Larrimin-sentsazioa erabatekoa izan zen Ferradurako irlan, non 36ko uztailan, urertzeetako herrien uretara bota zituzten irudietako batzuk aurkitu zituzten, eta orduz geroztik irla hura Hamahiru Santuen Uhartea deitu zen (euren artean kontable anonimoak deabru bat eta hiru aingeru sartu zituen oharkabea). Irudiak jada ez zeuden: gerra hasieran, *Cristòfor Colomen* eskifaia, Vallcorna meatzekoa, irlan zutik ipintzen dibertitu zen eta han geratu ziren harik eta hegazkin faxista batek –iraileko eguzki batek etsai bitxiki geldien polikromietan ateratako distirek erakarrita– metrailatu eta ezpal bihurtu zituen arte. 1937ko uholde handiak definitiboki eraman zituen soberakinak, baina irlari betiko geratu zitzaion izena.

Nelson ez zen lasaitu *Neptúren* forma, egundoko arrain batena bezalakoa, erreka hondoan ikusi arte, zuhaitzek itzal emandako ur berdetsuaren azpian geldi. Lanordu askoren ondoren, ur mugitu eta arreetan, txirriek altxatuta ateratzen ikusi zituenean, garrasika hasteko zorian egon zen. Berak eta peoiek bertan hondoratu zuten ibai-ontzia ezkutuan, 1938ko martxo aldera, iheslariak Mórako tren-geltokian lehorreratu ondoren. Katalunia barrurantz exodoa abiatu zutenez geroztik faxistengandik ihesi, askotan gogoratzen zuen ibai-ontzia. Graciako pisu txikerrean, Bartzelonan –non berak, emazteak eta seme ttikiak, peripezia dramatiko kontaezinen buruan amaitu zuten–, malenkonia bizirik irensten ari zen. Hiriaren nahasmenduaren eta familiaren sakabanaketaren erdian –seme nagusia frontean zegoen eta erraina, haurdun, Figueresen, nora gurasoei iritsi zen hiriko errefuxiatu-multzoetako batean–, ibai urrunak eta erreka hondoan ezkutatutako *Neptúren* oroitzapenek atsekabetzen zuten. Luzaroan pentsatzen zuen Sol Kafetegian, Carlota de Torresen sasiko ahizpak burutzen zuen lokalean alegia, nora sindikatuak lana eman zion munizio-fabrikatik irten ondoren joan ohi zen. Ebroko batailan, galdutzat eman zuen; ezinezkoa iruditzen zitzaion borrokatik onik atera izana: ezkutalekua segurua izan arren, batailako zonaldearen erdi-erdian zegoen. Goiz hartan, urradurarik gabe ateratzen ikusten zuelarik, Nelsonek bere izateko arrazoiak errekuperatu zuen, berbera izaten sentitu zen, hondamendia gora-behera.

Uretaratzeaz geroztik, Nelsonen zati bat zen *Neptú*, ontziaren lehen patroia eta bakarra izan baitzen: nabigatzailearen giharrek, burmuinak, kirioek jarraipena zeukaten ikatzak belztutako ontzian. Haren saihtsen intziriaren, kroskoaren bibrazioen, uretan labaintzeko moduaren bitartez, ontzi-gidaria Ebro haztatzerantz iristen zen, lotura misterioz egitera, Honorat del Rom-ek borobil adierazia, esatean, Nelsonek ez zeukala bularrezurrik baizik brankako gurrupila, eta zakilaren orde, kaña.

Lohiaz gabetu eta kroskoaren egoera aztertu zuten. Ur azpian egoteak ondo kontserbatu zuen. Soilik brankako masailen pintura zegoen gaizki, urak bigunduta eta, errekuperazioan eta garbiketara, partzialki kendua. Gerra hasieran emandako azken geruzako azalen artean, ontziaren lehen izenaren letrak agertzen ziren, Aleix de Segarrak margotuak eta urtero birmargotuak ibai-ontzien udako errepasoan. Aditua izan gabe, norbaitek nekez aurkituko zukeen buruhaustearen soluzioa eta, puska urdinak inguruan zeuzkan gorri eta zuri zikinetatik bereiziz, *Neptú* Jainkoaren izena osatzea, zeinarekin, Salleres alargunak, *Júpiter* eta *Marte* bana eduki ondoren, 14ko gerraren garaiko *Polifem* efimeroarekin hasitako saga mitologikoarekin jarraitu zuen. Gerrak eta meatzeen kolektibizazioak ekarritako aldaketan ondorioz, *Júpiter Lenin*

bihurtu zen, *Marte Askatasuna* eta *Neptúren* letren gainean, zuri-geruza eskasarekin estalita, bikeztatzaile suhartsu batek gorriz margotu zuen *Carles Marx* izena.

Bigarren aldia zen ibai-ontzi bat suntsiketarik libratzen zela, destinoak hiriaren gorabeherak azkenera arte ikusteko erreserbatu izan balu bezala. Lehena 1937an gertatu zen, armadak ontzi-multzo handi bat errexisatu eta hilabete batzuk gerora, Gelsan, Zaragoza alboan, zubi bat eraiki zuenean, Aragoiko hiriburuaren aurkako oldarraldi errepublikarraren garaian. Ibai-ontziak, meatze kolektibizatuetatik lignitoa garraiatzeko ezinbestekoak izan ezik, Faióra eraman zituzten; han zubigile militarrek ibaitik atera eta trenetan kargatzen zituzten. Bata bestearen atzetik, ontzi-konboiak fronteraantz abiatzen ziren ke mikatz eta latzaren artean. Nelson, *Carles Marx* eta Salleres alargunaren antzinako beste bi ibai-ontzi, orduz geroztik UGTK kontrolatuak, entregatzera joan zen. Oso deprimituta itzuli zen. Beste ibai-ontzi bat eman zioten baina gustuaren kontrara nabigatzen zuen: kaña ez zen bere gustukoa, arbola ez zuen atsegin, belak ez zituen laketa... bere eskifaia ere ez zeukan: Atanasi Berpizkunde boluntario joan zen frontera, Konsomol batailoian zegoen; Joanet del Pla mobilizatua izan zen; mandazaina ere bai... Maiz zekarren gogora *Neptú-Carles Marx* ontzi-zubian kateatuta, Zaragozatik gertu, eta are gehiago abailtzen zen. Soilik baimenarekin etorri zen seme nagusiak kendu zion tristezia. Mutila itzuli zenean, Faióko geltokira zeramalarik ibai-ontziarekin egindako bidaia bat aprobetxatuz, osterala lotu zuen nahigabeak. Gorakoan, ordea, hurbiltzen ari zen hondamendiaren lehen sintomak erreakzionarazi egin zuen. Trumoi-adarrak bete-betean harrapatu zituen Canotan: bat-batean haize bortitza altxatu eta dilubioa jausi zen. Soilik ordu laurden bat iraun zuen;trumoi-adarrak Ebron behera jaitsi eta zeru urdin-urdina utzi zuen. Hala ere, patroia egonezin handiak harrapatu eta mandoaren pausoa zirgabidetik azkartzera behartu zuen. Ibaiaren mehatxua sentitzen zuen, taupada arraroa ontziaren kroskoan. Bigarren haizealdiak Segreren eta Ebroren konfluentzian harrapatu zituen, hiriko lehen etxeen aurrean; Alargunen Moilan estekatu zituzten txikotak zaparradapean. Ukuiluetan, abereek sokak tenkatu eta urduri egiten zuten irrintzi; ukuiluzain zaharra, inoiz baino ernegatuago –faxista puta-semeak dira horren errudunak–, alferrik saiatzzen zen haiek lasaitzen. Mendebal beltzak bigarren haize-erauntsia ere eraman zuen. Nelson eta peoiak moiletatik igo bitartean, ilunpeak hartu zuen hiria; hasia zen hondamendia.

Zarra-zarra egin zuen euria, lur elkor hartan ezezaguna zen intentsitatez, non udaberria, erretenek ureztatutako antzinako baratze arabiarren oparotasunetik at, nekez nabarmentzen zen landare usaintsuetako lore ttikietan, zapaldetako arbendolondoen eztandan edo paisaiaren okre intentso edo berde errauskararen tonalitate-aldaketa sotiletan. Egunez distiratsu zegoen eguzkia; gau aldera amaiezinezko euriteak jausten ziren. Bi ibaiak puzten hasi ziren orduan, marrua gorgarria zen. Urek goraka jarraitzen zuten, uholde indartsuenen seinaleak gaintitu zituzten, behe parteko kaleak ureztatu zituzten. Etxeak hustu behar izan zituzten, abereak kortetatik atera. Ebrok Moilako Kafetegiko biltegiak hartu zituen eta bi Honorat-ek piraguan gurutzatu zuten zinema, antzokia eta Venus dantza-aretoa laku bihurturik, nondik soilik lehen estaiko galeriak ikusten ziren. Gelsan, kilometro asko gorago, uholdeak zubi militarra hautsi, ontziak eraman eta gehienak txikitu egin zituen; gainerakoak, animalia hilekin eta zuhaitz erauziekin nahastuta, okrez eta uherrez tindatutako uretan pasatzen ziren hiri beldurtuaren aurrean. Egun batzuen buruan urak jaitsi zirenean, norbaitek esan zuen bi ontzi hondoa jota zeudela zumardi batean, Lliberolatik gertu. Nelsoni enkargatu zioten errekuaratzea merezi ote zuen begiratzea. Patroiak oinez gurutzatu zuen eskuineko urertza, ispiluen gisara distira egiten zuten baratze urpetuen zapaldak inguratuz. Susmoak jo zuen trabaren puntura hurbiltzerakoan; iritsi zenean, ez zuen Ebro zaborrez eta usteldurez betetaraino jaitsi behar izan, jakiteko, *Neptú* zela lohiz beteta eta oraindik zubiko kateek lotutako kroskoetako bat.

Orduan ibai-ontziak osteran nabigatu zuen oraindik garaipenean sinesten zuen hiri batentzat; 1939an errekararen hondotik ateratzen zen garaituen mundua aurkitzeko. Eskifaia bera eta Joanet del Pla besterik ez ziren gelditzen. Mandozaina frontean hil zen, Atanasi Berpizkunde ez zen inoiz itzuliko Frantziako erbestetik.

Nelsonek ez zuen sekula ahaztu *Neptúrekin* egindako igoera-bidaia. Ibaian gora garraiatzeko abererik gabe, gizonek egin behar izan zuten, garai batean bezala, zaborrez betetako zirgabidetik, edo ia-ia zirgabiderik gabe gerraren erruz. Alanbre-hesiak eta lubakiak topatu zituzten, eztanda egin gabeko bonbak eta obusak saihestu behar zituzten, paperak bi aldiz erakutsi eta ezkutatu edo ihes egindakoegandik gordeta ibili ohi ziren erriberako guardia zibilen galdeketei erantzun behar izan zieten.

Ez zuten moiletan estekatu; ontzia eskuin aldeko nasetan utzi zuten, transbordadorearen oholtza ondoan. Hiru asteren buruan konponduta atera zen, arbola berri-berriarekin, belak estreinatu gabe eta beste izen batekin: *Carles Marx* bezalako denbora urria pasata, *Neptú* zaharra *Verge del Carme* deitzen zen orain, garaipen frankistaren ondoren ibaian jotzen zuten haizeetara aurreko izena baino hobeto egokitua, Gotzainen ontzian ondoen adierazita hain zuzen, zeinak, patroiak, gerra hasieratik bertatik faxisten aldera egoki pasea bera, *Pius XII* izen pontifikalarekin bataiatu zuen.

Honorat del Rom-ek, urte batzuk geroago, Moilako Kafetegian, ibai-ontziak nazionalkatolizismora konbertitu zirela-eta izandako berriketaldi mamitsu batean, iruzkindu zuen bezala, *Verge del Carme* *Pius XII*rekin izandako lehen topaldia ez zen oso zoriontsua izan. Eufemismorik gabe esanda, Bartzelonatik probidentzialki iritsi zen tren bati esker ez ziren muturrekoka amaitu. Medailez inoiz baino kargatuago –zeinei garaipen faxistaz geroztik edonon agertzen ziren birjinenak eta santuenak gehitzen zizkion– eta Gotzain, bere ibai-ontziaren brankan zutik, *Verge del Carme*ko peoiei –zeinak ikatz-palakadak botatzen ari ziren– erretolika botatzen hasi zitzairen. Joanet del Pla, madarikazio bat bota berri zuen hanka batean kolpe bat hartuta, eta medailerokoa, santuki suminduta, agiraka hasi zitzairen, damutzerara eta penitentziara aholkatuz. Peoien interesik eza ikusita, Gotzainek penitentziazko alamera baztertu zuen: senetik aterata, isekara pasa zen, gorri malapartatu eta zakur amorratu deituz...

Malena de Segarrak ez zuen sekula jakin bere presentziak Faióko moilan hondamendia ekidin zuela egun hartan. Berak eta neskameak, maletaz eta zorroz kargatuta, iltzatuta utzi zuten Nelson, Gotzainen isekaz leporaino, lignitoz mozorrotutako aurpegian begiak suminez dirdaitsu, marmarka abiatu zenean *Pius XII*ren pasarelara –“sakristiako arratoia, putasemea, faxista kakaztua”–, predikadoreari jipoia emateko prest. Peoiek lanabesak utzi zituzten, eta hari eustera zihozenean ibai-ontzira igo zedin ekiditeko, palankaren alboan gelditu, brastakoan desbideratu eta geltokiaren bidean ikatz-meten artean agertu ziren bi emakumeengana bideratzen ikusi zuten.

Gauean, patroiaaren emazteak gauza asko galdetu zizkion: egia ote zen Malena de Segarra makal samar zegoela; gerra ondoren Frantziara pasatzen saiatu ote zen, izan ere entzun omen zuen Aleix, zeinari Bartzelonan itxaron zion, Parisen zela; ekipajea eramaten etxera lagundu zioten bitartean negar egin ote zuen komentuaren aurretik pasatzean... Baina Nelson hitzetan urri izan zen eta berba gutxiz erantzun zion galdera-sortari. Malena de Segarra Faióko moilan agertzeak hezur-mamietaraino hunkitu zuen. Gauza bihozkor asko erakusten zituen, eta emaztearen gehiegizko berbek gogaitu egin zuten. Aleixen paradoeroak kezkatzen zuen, zeinari buruz inork deus ez zekien ebakuazioaz geroztik, baina bidaia-erria ez zizkion galdera aunitz egin, errespetu handia baitzion. Faiótik bueltako bidaian, haizete indartsua belak tenkatzen, bere aurrean eduki

zituen bi emakumezkoak, lignito-hautsez ez zikintzeko prestatu zizkieten jesarlekuetan instalaturik. Malena de Segarra abailduta zegoen, eta nabarmena zen hirira hurbildu ahala abaildura hazi baino ez zela egiten. Aleixen oroitzapena gero eta mingarriagoa izango zen, margolariak hainbat aldiz islatutako paisaia etxekoa ebokatuta. Segarratarren etxaldearen atean utzi zutenez geroztik –jendetzak une hartan Malenari egotzi zizkion malkorik gabe, presaka eta lurrera begira pasa zen komentukoak bezala asmatuak–, Nelsonek pare bat aldiz baino ez zuen bizirik ikusiko etorkizunean. Etxaldean zarratuta, ihesean jarraitu zion Anne neskame fidelak lagunduta, antsiaz itxaroten zituen iristen ez ziren albisteak.

1971ko eguerdi hartan, Nelson zaharrak, konturatzean sirenak ez zuela jotzen, kanpandorreko erlojuaren gelditze betierekoa intuitu zuen, Carmelak bezala. Poliki-poliki, Ebrotik harresiari jarraituz –zeinaren lerroan ontziak usteltzen ari ziren hiriaren suntsiketa ondoren nabigatzera atera gabe–, etxerantz abiatu zen. Bazkaldu ostean, Moilako Kafetegira jaitsi zen Malena urrun haren irudia oraindik gogoan zeukala. Harrien kalean, kanpaien jotzeak harritu zuen. Baina ez zuten betiko geldirik zegoen erlojuaren orduak markatzen. Harritu egin zuen, ez zeukan inoren heriotzaren berririk. Estanislau Corberak atera zuen zalantzetatik, gogoratu, garrantzia unibertsaleko beste bi perstonaienez gain, Jaume de Torres jaunaren heriotzaren hogeita batgarren urteurrena zela.

Kanpaien hileta-joaren hondoko musikarekin eguerdi itogarria pasa eta gero, aldatzeko ordua iritsi zen aitaren urteurreneko hiletara joateko, eta Carlota de Torresen haserreak eztanda egin zuen. Desagertuaren memoria urteko hiletarekin betikotzeko betebeharrak saihetsezinak, sakratuak, ordain krudela zeukan: hiriaren memorian ehorzketaren gertakari lotsagarria berpiztea.

Carmela, lutozko jantziak besoetan tolestuta, ganberaren erdian zutik ikusteak, anderea dataren hurbilketa jabetu zenetik, egunetan inkubatzen ari zen sumina askatu zuen. Neskamea, betidanik jakitun, pazientzia bete zen. Garrasiak, isekak, negarrak, mehatxuak egongo ziren, amorrutxoak purrustadaz jantzeko konbentzitu arte. Izan ere, urtez urte luzatzen zen tarte baten ondoren, Carlota de Torresek ezkon-ohetik irtetea deliberatu zuen. Somierrak karranka kexatiak ateratzen zituen eta neskameak enegarren aldiz erreparatzen zuen Hipòlit jaunak ez zuela seinalerik utzi. Carmelak beti izan zuen andereak bakarrik lo egiten zuen inpresioa, edo Francesc Romaguerarekin, zeinaren aurka Carmelak, batik bat abokatuak hirira egindako azken bidaiaren ondotik, egun batean bai eta bestean ere bai madarikatzen zuen. Hipòlit de Móraren presentzia, bi urte lehenago bera bezain heriotza mengelaz zendu zenez geroztik, bere ausentzia bezain oharkabea igaro zen izaren artean. Ez zen agonia ezohikoa izan, ez eta heriotza eskerga eta gogorra ere, jeneral-andrearena bezalakoa; are gutxiago heriotza bekatzukoa eta erromantikoa, Isadora Rubiók, Torres kaskarinarena Madanfransuàren besoetan Senaren alboan, kalifikatzen zuen bezala. Iraileko egun batean, Hipòlit de Móra jauna, besterik gabe, hego haizeak jotako kimu bat bezala desegin zen. Botikariaren arabera, Beltran doktoreak ez zuen ez eta errematatzeke aukerarik izan; korrika abisu eman ziotenean, sasimedikuak egin ahal izan zuen bakarra bere ibilbide luze eta Parkaren kolaboratzailearen heriotza txatxuena ziurtatzea besterik ez zen izan.

Urteurrena ere ospatzen zuten baina oroitzat txepela zen, ez zituen Jaume jaunaren ebokazioa suminik. Oso alderantziz, hasieran, senar defuntuaren aldeko mezak seme-alabak gutxienez urtean behin etxaldean batzeko erabili ohi izaten ziren, nahiz eta hark bi errainen eta suhiaren presentzia zekarren, Carlota de Torres andereak seme-alabak –zaharrena eta neska, Madrilera osaba-izebekin; bestea, Bartzelonara, eta oso gutxitan agertzen ziren hirian– bere alde izanaren erantzule izan baitzeuzkan. Meatzeak aspergarri zitzaizkien, ibaiak ez zuen haien zatirik interesik eta nekagarria egiten zitzaizkien etxaldeko bizitza, amari ez bezala, zeinak ez zuen jasaten hiriko nahasmendua eta anonimotasuna. Aitonaren hiletan etor zitezkeen saiatu zen anderea, baina aitzakien multzoak bertan behera uztera eramanez. Besteetan bezala, beraz, Jaume de Torresen betiko atsedenaren aldeko hileta adierazteko kanpai-joa etxe ia hustuan entzuten zen, non ausentziek, aldian behingoak edo behin-betikoak, korridoreak eta ganberak zigilatu zituzten, bizitza Birjina Martiriaren Aretora murriztuz, eta hura ere ate itxien atzean barreiatzen zen isiltasun gero eta opakoago eta dentsuagoak setiatuta.

1971n, suntsiketen bigarrenetan, hiria etxaldearen inguruan aletzen zelarik, Carlota de Torres andereak inoiz baino gehiago sentitzen zuen bakardadearen zama, aitaren gabezia. Jantzi-gelan, itzal zaharrak ispiaren aurrean ateratzen ziren, non Carmela saiitzen zen jeneralaren

ganberako tiraderetako kanfor-usainaz betetako jantzietan sartzen. Alabaren iruditik harago, jantziena errepikatzen zuten bularretakoen belztasunaren kontrako bizkar bigunen zuritasunetik harago, supituki azaltzen zen Jaume jauna, 1940ko ekaineko egun hartan bezala, non, kitzikaduraz eta angustiaz nahasita, atea jo gabe agertu zen, alemanak Parisen sartu berriak zirela adierazteko.

Von Müllerrek adierazita zeukan, Alemaniara itzultzeko jauntxoei agur esaten ari zenean, Europa eta mundua kontsumituko zuen sutearen berehalakotasuna (“Goraintziak gure partetik Führer jaunari eta Führer andereari”, esan berri zuen Isadora Rubiók, hunkituta, Beltran doktoareari esaldiak moztuz, hark oratoria-pieza hanpurutsu eta oparoa abiatu zuenean). Hilabate batzuk geroago, Rodako Kasinoko giro germanofiloan –kontrabandoko tabakoaren ke artean eta aretoko ohorezko tokian esekitako Francoren, Jainkoaren graziaz Espainiako kaudiloaren, argazki handi bat intzentsatzen zuen estraperloko kafearen usainak nahastuta–, sozioek optimismoz komentatzen zituzten hiriaren historia ezagun baten berrikuntzaren lehen sintomak probokatzen zituzten gatazkaren gertakariak: lignitoaren eskariaren gorakada, Cubako Gerra garaian hasi eta 14an modu ikusgarrian errepikatua. Fenomenoa arro erdi mortua astintzen hasten zen, non ustiaketa betean ari ziren meatze bakarrak Salleres alargunaren eta Torres i Campstarrenak ziren. Gehienek ez zuten ireki edo bizitza nagia zeramaten. Bartzelonak urgentziaz nahi zuen ikatza eta meatzeak hura hornitzeko moduan zeuden, kasu askotan kolektibizazio-garaian egindako lanari esker, funtzionatzen ari zirenak modu arrazionalagoan ustiatu ez ezik, ezinbesteko azpiegitura-lanak egiteko jarrera eskaseko hainbat nagusik behinola abandonatutako batzuk sindikatuek berpiztu zituztenean.

Ikatza behar zen; hura garraiatzeko ibai-ontziak ere behar ziren, baina ez zeuden. Soilik Nelsonek gidatzen zuen Salleres alargunarena salbatu zen gainbeheratik; hiria ebakutzen erabilitakoak, gero Ebroko batailan suntsitu zituzten. Aktibitate suharra abiatu zen. Birjina Martirien Aretora ibaiaren beste aldean lan egiten zuten bikeztatzaileen zarata iristen zen. Suteen keak uraren gainean zirpildu eta hiriko moiletara brea-bafadak pasatzen zituen ziertoak. Orain ugazabak Errepublikara garaian eta gerran izandako jokabide politikoengatik kondenatutako ibaiko eta meatzeetako jendea erakartzeko lehiatzen ziren. Borroka sortu ziren patroiak eta peoiak kontratatzerakoan. “Burgesak behar bazaitu sosak egiteko, zure bila etorriko da bere aita urkatu baduzu ere”, filosofatzen zuen Estanislau Corberak, ikusirik nola ugazabek larriduraz eskatzen zituzten kapatazak, marinela, pikatzaileak, gurdilariak edo barrenatzaileak, zeinei, lau egun lehenago, atea muturretan itxi zieten. Nasetako zalapartak, Forn Maldako burdinolek, bagoiek, bideek eta lanabesek puntura egokitzen emanak; bastaginen trafikoak animalientzat arnesak prestatzen eta jendearen mugimenduak gora eta behera Carlota de Torres anderearen memoria markatzen zuten. Pedrer kale atzetik pasatzea Casimira Riuser makina entzutea zen, ontzientzako belak josten; Timótik Alargunen Moilara jaistea, osterara Salleres alargunaren korta abereztatu betetako bafada garratza nabarmentzea zen. Gerran galdutako abereak tratulari ijitoek –brusa beltz zabala, bastoi luze eta mehea, mihi zorrotza eta balakaria– hirian eskaintzen zituztenekin ordezkatu ziren: administratzaileak, esperientzia handiko kortazainak eta nabigatzaileak eztabaida susmoti eta eternoa izaten zuten tratulariekin behinolako Vell Senglar Fondan. Horrela jo zuen alargunaren kortetara Nelsonen Nicanora mando kuttunak. Nicanora –urte batzuk beranduago Honorat del Rom-ekin maitemindua *Verge del Carmerekin* egindako

bidaia baten ondoren— botikara sartzen zen haren aurretik pasatzean; bezeroen urduritasunaren artean mostradoreko leihatilatik sartzen zuen muturra botikariaren laztanak jasotzeko, eta hark menta-pastilla batzuk eman arte ez zuen alde egiten.

Carlota de Torresen egonaldiak aretoko balkoian ostera ugaritu ziren gerrak behartutako ohitura umiliagarriaren etenaldiaren ondoren. Batik bat eguraldi onarekin agertzen zen, plaza handira begira eta uretaratzen ziren ibai-ontzi berri-berriek gurutzatutako bizkar berdeko Ebrora begira, baina ez zen arraroa izaten hotzarekin ere antzematea, burdina forjatuko barandaren atzean zutik, pertsona eta gauzekiko presentzia eta agintea inposatuz. Balkoia tronu bat zen: handik, harro eta erronkari, bere zerrien garrasi beldurgarriak entzuten gozatzen zuen, hiltzaileak Plazako moilan sakrifikatzen zituen bitartean, gerra ondoko lehen neguko goiz izoztu eta oskarbian. Torres etxeko txerriboda beti zalapartarik gabe egin ohi zen Ebroko antzinako baratzeetako finka familiarrean, baina abendu hartan, animaliak, mundu guztiaren aurrean, moiletan lepoa egin eta zatituak izatea agindu zuen andereak. Balkoitik begietsi zuen neskameen eta Graellsek bidalitako jendea zumitzezko saskietan animalien piezak eta erraiak garraiatzen hiri gosetuaren irrikazko begien aurrean. Balkoitik baita ere, aita eta beste jauntxoek lagunduta— zeinen artean maiz erregimeneko jende ospetsua, hiriburutik etorria, egon ohi zen— prozesioak ikusi zituen, eskolako mutilen eta nesken ariketa paramilitarrak tronpeta eta danborren doinura, mitinak, zeinetan hiritar isilengan bokantza inperialeko isuriak jaurtitzen ziren, Hitler eta Mussolinirekiko erreferentzia etengabeekin. Arroa suspertzen hasi zenean, Ebroren bestaldetik meatzarien itzulera begiesten zuen, ilunabarrean, karburoaren argien garratxo horien zerrenda, Auber bidetik, gero nasan batzen zen girlanda argitsua bezala, non langileek pontoiaeren etorrera itxaroten zuten. Gauza eternoen asentatze definitiboa zen, 36ko astinduaren ondoren, aita zioen modura, kontenplaziozko uneetan maiz bere ondoan zutik.

Jaume jauna suspertuta zegoen. Gerra, hiriko olio-putzua edozein unetan ekaitz bihurtu zitekeen sentsazioarekin, eta meatzeen kolektibizazioa, haienak egiteko zorian egon ziren. Ebakuazioaren biharamunean —zeinaren bitartean etxean mantendu ziren ihes egiten zutenen desesperazio-bulkada baten beldur— faxistei ongiatorria egitera atera zirenean Jaume jauna saster hutsa zen. Kosta egiten zen figura lokumatuan antzinako harropuzkeria antzematea. Gaztelara joatea hobekuntzaren hasiera izan zen, emaztearen heriotzaren parentesi dramatiko laster ahanztitakoaren ondoren. Hirira ostera itzultzeak indarra errekuaraztea ekarri zion, baina urteek arrastoa utzita, alabak malenkoniak egiaztatzen zuenez orduko Jaume jaun hura Aleix de Segarrak margotutakoarekin alderatzen zuen bakoitzean. Gerraosteak eragindako lan-boladak eta munduko gatazkek miraria borobildu zuten, nahiz eta Carlotak eta Graellsek —neurri handi batean interes propioagatik, batik bat konfiantzazko gizonari zegokionez— ahal zuten guztia egiten zuten hari negozioen parterik astunena aurrezteko, eta maitale lleidatarraren existentzia enoratzen zuten plantak egiten zituzten, zeina, jakin gabe, polizia-komisario batekin, bankuko zuzendari batekin eta argizari-denda bateko jabearekin partekatzen zuen (*"O tempora! O mores!"*, zioen latinezko irakasle malenkoniatsu batek, ilehoriaren benetako maitalea bera, himno nazional, Koch bazilo, errazionamendu-kartila eta merkatu beltzez nahastutako pasio gorituen labirinto hartan galduta).

*Carlota II.*aren uretaratzea, *Verge del Carme* nabigatzen hilabete bat baino gehiago zeramalarik nasetatik atera ziren ontzi-saileko lehenaren uretaratzea, hobekuntzaren une gakoa izan zen.

Zeremoniarako moiletan batutako jaun eta andereen artean, negu-hasierako igande argi eta lehor bateko meza nagusitik irtetean, Jaume jauna distiratsu zegoen. Carlota, jarrera harekin pozik egon arren, alarmatu egin zen maistra berri batekiko begiramenaz jabetu zenean, errepikakorrak egin baitziren, ia eskandalagarriak, oturuntza-garaian: bularralde mardoko andre balakariak (Jaume jaunaren ahuleziatako bat, bularraldea) gelditu gabe probokatzen zuen, hostasun faltsuaren plantak eginez. Hain lotsagabea izan zen trikimailua ezen, biharamunean, Carlota de Torres, bainuaren ondoren, Carmelaren laguntzaz janzen zen bitartean, Jaume jaunaren jarrerak beste gonbidatuaren artean sortutako komentarioak jakinarazi zizkion neskameak. Emakume haietako inork ez zuen, ahal izandako gaiztotasun guztiarekin, giza sentimenduen inkonsistentzia –“Jainkoarren”!– ebokatzea ekidin. Norbaitek, postreetan hain zuzen, emaztearen heriotza Valladoliden aipatu zion: marrubi-sorbeteen artean Adelina Campsen mamua ibili zen, haren erregu agonikoak entzun ziren, alegia, hiriko ohituren arabera oinutsik ehorts zezaten, beste mundura oinetakoak jantzita joateak hotzikara sortzen baitzion. Estefania d’Albera (plaza hutsaren hautagai saiatu eta sekretua eta, alarguna kitzikatzearen, bularren argaltasun deprimentea kotoizko bularrordeekin konpentsatzen saiatzen zena), esatera iritsi zen arratseko errosarioko misterioak dohakabearen memoriari eskainiko zizkiola, izan ere, hura, urrutiko kanposantu batean ehortzia, amorruez dardaratzen egongo baitzen senar hain ahanzkorraren apetaren erruz. Jantzia anderearen aldaka sendoetan lisatzen zuelarik, Carmelak zeregin informatiboarekin jarraitu zuen: Nàsia Palau –zeinari telegrafista batek, berehala ezkontzeko mehatxuak izututa, erpeetatik ihes egin berri zion– Jaume jaunaren gonekiko obsesioaz mintzo zen. Komentarioa borobiltzeko, (zati hau ezkutatu egin zuen Carmelak), Nàsiak oso atzera jo zuen, ihesaldi batzuk aipatuz, neska batek hiritik familia osoarekin alde egin izana, Bartzelonan Carlota de Torresen bikia zirudien neskato baten jaiotza, eta azken eskandalua: maitale lleidatarra (“*Ad maiorem Dei gloriam*” –marmartu zuen latinezko irakasle malenkoniatsuak, katedraleko kalonje batek ilehori bulartsuaren ohean desfalkoagatik kartzelaturako bankuko zuzendariaren tokia okupatzen zuenez geroztik).

Maistra interesatu eta kriketak arrisku latente bat berriztatzen zuen: aitaren bigarren ezkontzaren aukera, anderearen insomniozko gau bat baino gehiagoren sits etengabea hain juxtu. Carlota de Torres izutu egin zen. Hura gertatuz gero gorabehera handia gertatuko zen, zeina bere posizioa etxaldean galtzea ez ezik hondamendia izango baitzen seme-alabentzat. Bat-batean ispilutik aldendu zen, non soilik neskamearen hazpegia islatuta geratu zen, ezuste handirik ez bestalde anderearen sumin-erreakzioa ikusita.

Carlotaarena izan ezik mundu guztiaren harridurarako, maistra –eskualdeko bidaia baten ondoren, non antzina Carlota de Torresen neba nagusiaren eskola-kidea izandako hezkuntzako ikuskari batek deitua izan zen– lekualdatzea eskatu eta frantsesen erara joan zen. Jantzi-tokiko zeremonia luzeetan, zorionez, neskameak andere erlaxatua aurkitu zuen, ispiluaren izoztean islatzen zen bere irudi sendoari irri eginez ere bai (“*Amor omnia vincit*” –marmartu zuen Lleidako latineko irakasle malenkoniatsuak, hilabete bat baino gehiagoko ausentziaren ondoren Jaume jauna ilehoriaren ohetik itzultzen ikusi zuenean).

—Arin, neska, berandu gabiltza-eta!

—Banoa –marmartu zuen Carmelak, bat-batean orainera itzuliz, txoratu zeneko ebokazio-garaian ahaztutako kanpaien joaldi-hotsera anderea janzen zuen bitartean.

—Karpai madarikatuak! Ez zuten jo beharko!

—Joko ez balute, inor ez zen konturatuko gaur zure aitaren urteurrena, goian bego, ospatzen dugula. Ahaztu dugula pentsatuko lukete.

—Baina urteurrena gogoratzen badute, hil zenean gertatukoa ere gogoratuko dute.

—Urteak dira hori gertatu zela.

—Sinetsarazi nahi didazu, Carmela, hori burutik joan zaiela?

Ez zuen erantzun. Betidanik zekien andereak zerabilen buruhaustea; ezin zituen Jaume jaunaren urteurreneko ospakizunak eten. Zer esango lukete? Esker txarreko alabatzat salatuko lukete: marra gainditu zuela, aita defuntuari urteko mezek eta hileta-otoitzek ematen zioten kontsolamenduaz gabetzeaz. Ospatzen bazituen, ordea...

Kanpaiek etengabe zabaltzen zituzten joaldiak hiri erdi suntsituan. Kolpe bakoitza —pentsatu zuen garrazki Carlota de Torres andereak, goitik behera lutoz jantzita eta hiru neskameek jarraituta, etxaldeko marmolezko eskailerak jaisten zituen bitartean— oroitzapen bat zen hiriko memorian, non seguruenik Torrestar eta Campstarren leinuen historiako ataka umiliagarri eta garratzena ebokatzen hasiak egongo ziren.

Suntsiketen amesgaiztoari buruzko iruzkinetan, iritzi ofizialarekiko beti dibergente, maiz hanpurutsu eta inozo, Honorat del Rom-ek ukatu egiten zuen eliz-parrokiako atarian Carlota de Torres eta hiru neskameen zuriztatzearen hauts erantzulea Nicanor de Sansaren etxeko aurrietatik zetorrela. Argudioak jakinduriaz dosifikatuz –zeina Forques bikeztatzaileak perfidiatzat jo ez ezik saxoa emango zukeen ez entzutearren, haren hitzen egiazkotasuna bere baitan aitortuta ere– esaten hasten zen Jaume de Torres jaunaren hiletaren aurreko astean makinek bost eraikin suntsitu zituztela Lasto plazan; ondoren espekulatzen hasten zen, ezen haizeak, ziertzo kiskalgarriak hain zuzen, sekaineko lautada altuetako uztak doraturik, soilik etxe haietako bateko hautsa altxatu, erdi aroko nukleotik hartu eta erretore-etxeak Forn Maldarekin egiten zuen iskinaren barrena –non lau emakumezkoak zikindu zituen– eramateko zeuzkan probabilitateei buruz, aski murrizak egia esan. Probabilitateak, askoz ere murrizagoak etxea Nicanor de Sansanera izatekotan, froga ezeztazekin batek deuseztatzen zituen: Jaume de Torres jaunaren aldeko hiletaren urteurreneko egunean, 1971ko iraila aldera, Nicanorren etxea oraindik eraitsi gabe zegoen. Baieztapenak, era guztietako ebidentziekin zurkaiztua bera, fotografikoa barne –izan ere botikariak defuntuaren aitaren Leica zahar batekin hartzen baitzituen hiriaren suntsiketaren etapak–, Carlota andereñoa eta neskameak irineztatu zituen hauts-hodeiak, mundu guztiak ezagutzen zuen historia zikinagatik, Nicanor de Torresen mendeku sinboliko eta postumoa zelako teoria eraisten zuen. Inpotentziak inspiratutako txorakeria poetikotzat zeukan botikariak (eta bikeztataileak saxoa ematen bazuen, mundu guztiak zalantzan jartzen zuena bestalde, Honorati kontra egitearren, honek, Honoratek, arazorik gabe alde batera utziko zituen Frantsesaren Gerrako betaurrekoak, botikako pote baliotsuena edo zakarrontzietatik salbatutako Goyaren bi zezen-grabatuak, bestearen alde lerrokatzeko, eta hori ere ez zuen inork zalantzan jartzen). Nicanorren alargunari dirua mailegatuz, Gerra Zibilaren ostean Frantzian gizona hilda, munduan bakarrik zegoelarik hiru haurrekin, eta aurrerago etxea hartuz urtetan metatutako zor eta interesen erruz, Jaume de Torres jaunak aberasteko modu ohiko eta antzinako metodoari jarraitu baino ez zuen egin. Nola metatu zituzten ondareak hiriko familia aberats gehienek? Jende analfabetoak gurutze batekin sinatutako paper amarrutsuen konplizitate legalarekin zorrak zamatzen zituzten uzta txarreko, gaixotasuneko, miseriako urteak zeuden Torres, Salleres, Albera, Vallcora eta abarren aberastasunaren oinarrian. Ziertzoak eta hautsak –zeinei Honorat del Rom-ek kontzientzia morala esleitzea guztiz ukatzen zuen– Carlota de Torresen lutoko jantziak zikinduz, injustizia eta azpikerien erreparatzaile modura jokatzeko bazuten, botikariak ez zuen ikusten zergatik ez zuten hiriaren zati ugariagoa lohitu behar, bere burutik hasita –seguru aski eskrupulu gutxiko arbasoen lapurketen onuradun– Graellstarrekin amaituta –Torres etxeko konfiantzazko familia baitziren hauek– lezioa ikasi eta modu gupidagabe bezain probetxuzkoan jarraitzen zutenak.

Beraz, hiritarren artean gerora sortutako kontsiderazioek polemikoak ziruditen arren, egitatea ukaezinezkoa zen: lurrez eta zaborrez kargaturiko ziertzo-bolada batek lutodunak zuriztatu zituen Moilako Kafetegiko beirateen aurrean. Mantelinaz estalitako emakumeen urduritasuna

lokaleko alde hartako mahietara eseritako bezeroek, orduko beroak nagituta, eta postako atariaren txoko babestuan lokarturiko erbi-zakurrak ikusia izan zen.

—Beratzen jarri beharko du haizetearen eragina kentzeko —esan zuen Joanet del Plak, anderea, neskameen laguntzarekin, hautsa kentzen alferrik saiatzen zen bitartean.

—Ebro bezalako bainuontzia beharko du —zehaztu zuen Nemesi Cordesek kafe-zurrutada irentsi baino lehen.

—Sartzen bada, uholdea izango dugu —profetizatu zuen Estanislau Corberak, irteera asmatzen ez zuen *solitario* batetik burua jasoz. Kopako erregea behar nuen baina ez zen inoiz ere ateratzen. Sotak, zaldiak, batekoak... Non arraio sartu zen errege madarikatua?

—Hautsez hain zurituta, aitak ez du ezagutuko zerutik urteurreneko hiletara jaisten bada.

—Zerutik?

—Jakina, artaburu hori! Nora nahi duzu dirudunak joatea? Bidegurutzera iritsita, eskua diru-zorroan jarri besterik ez dute egin behar. Ez al duzu sekula entzun, ordainduz gero, San Pedro kantuan hasten dela?

—Ez dut uste etorriko denik. Oraindik lotsatuta jarraituko du.

—Arrazoa daukazu.

—Zeinek esango zukeen! Seguru mintzatu dela. Gauza hauek soilik gu bezalako behartsuei gertatzen zaizkie; sekula ez Jaume de Torres bezalako jauntxoei.

—Ez didazu gogoratu beharrik. Gaur izan balitz bezala gogoratzen dut —bota zuen Joanet del Plak—. *Verge del Carmeko* eskifaiakoek susto ederra hartu genuen. Gogoan al daukazu, Nelson?

Ibai-ontzia Tortosatik irtetear zegoelarik, Ramon, Salleres etxeko agentea, hatsanka iritsi zen moilara patroari telefonoz jaso berria zuen mezua emateko. Zer zen jabetuta, Nelsonek sudurra zimurtu eta bere erreperatorioko madarikazio-sail gordinenak atera zituen—erreperitorio oso zabala baina baita oso kontudentea ere— ileak tente jartzeko modukoak. Ramonek begirada bota zuen ingurura. Gobernu frankistak, Elizarekin hezur eta mami, kartelak itsasi zituenetik madarikazioaren debekuarekin, salaketak eta isunak ugaritu egin ziren. Astebete lehenago Gotzainek Coronela etxeko, bere burdel tortosar kuttuneko, puta bat salatu zuen agintarien aurrean, emakumea haserretu egin baitzen, hark aste bateko penitentziazko abstinentzia batek berotuta, sekulako atximurra egin ziolako ipurmasail batean.

—Ez dit batere graziaz egiten, ulertzen? —marmartu zuen Nelsonek, madarikazio-sorta jaurti ondoren—. Ez al dago Torres etxeko ibai-ontzirik zeregin hauetarako?

—Ikusten denez gaur denak daude hirian, izorra adi! Ez ziren garaiz iritsiko. Zuek, bai. Kontu egizu, gizona. Badakizu nolakoa den alarguna. Ez ditu Torrestarrak irensten, baina halako egoera batean...

—Konturatzen naiz, bai: ze erremedio, ez da?

Arazoa peoiei azaldu eta bulegariari laguntzera bidali zituen, denbora ez galtzeko jarraibideekin. Eguerdi aldea zen eta ahalik eta gehien egin nahi zuen eguzkia etzan baino lehen. Hagitz kezkatzen zuen enkarguak eta ezin izan zuen hotzikara ekidin mandoaren irrintzi batek— lignitoa labe batean utzita ontziratu zituzten arroz-zakuen gainean lasai asko etzanda zegoelarik— itzulera adierazi zuenean. Ez, ez zuen gustuko baina ez zeukan beste erremediorik: une hartan hirian hil hurren zegoen Jaume de Torres jaunaren hondakinak jasoko zituen zerraldoa garraiatu behar zuen. Enkargu makabroarekin batera Ramonen bitartez telefonoz jasotako albisteen arabera, gertakari batek izutu zuen Jaume de Torres jauna kasinoan kafea hartzen ari zelarik. Puiggròs doktoreak, Beltranen mediku gazte arerioak, ez zegoela zer eginik esan zion Carlotari. Inutila eta krudela izango zen hiriburura eramatea, bidean zenduko zen. Berehala izango zen amaiera, bizpahiru egunera, asko jota. Kasuak eskatzen zituen neurriak hartzea izango zen zuhurrena. Alabaren lehenetariko neurria —hiriak Teresaren bitartez jakin zuena— izan zen, ahalik eta presarik handienarekin kutxa Tortosako ehortzetxera —familiako betiko hornitzailea bera— erantzukizuna Graellsen esku uztea. Jakina, etxe berak Praxedes Maials Venuseko zinemaren, antzokiaren eta dantzalekuaren jabearentzako hornitutakoa alde handiz gaintitu behar zuen. Antzinako meatzariaren hilkutxa —Barca kaleko kotxera batean pelikulak proiektatzen lehen antolatzaile, Lumière anaien asmakizuna Bartzelonara iritsi berritan eta negozio horrekin aberastu zenarena, hain zuzen— ezin zen Jaume de Torres jaunarenarekin alderatu. Kontua oso argi geratu zen Graellsek ehortzetxeko gerentearekin izandako elkarriketa telefonikoan; gizonaren ahotsa —bezeroari artikulua egiteko orduan mugatzen zuten zirkunstantzia mingarriek inposatutako markoaren barruan entusiasmo profesionala mantentzen saiatuz— holako abagune tristeetan beti bezero izandako familia ospetsuaren administratzaileari produktuaren kalitate gaintiezina bermatzen presatu zen.

Jauntxoak ez ziren sekula hiriko zurginek egindako kutxetan ehortziak izaten, familia zaharrek eternitatera bidalitako hilotzak duinki sartzeko zabarregiak baitziren. Nork pentsa zezakeen Torrestar edo Valcorna baten iritsiera beste mundura San Francisc kalezuloan edo Arrain plazan egindako zerraldo batean gertatzea? Herioa etxalde handietako baten inguruan zebilen bakoitzean, hilkutxaren luxua beste edozeren gainetik zegoen, eta Dolors d’Albera Estefaniaren ahizparen andereñoaren azken borondatea ez errespetatzeko puntura iritsi zen. Familiak —gutxienez Honorat del Rom-en bertsioaren arabera— sekretuan maite zuen Dalmaci Pons Eper kalezuloko zurginaren kutxa batean sartzea eskatu zuen, baina familiaren harrotasunak Tortosako ehortzetxearen luxuzko zerraldo batean ontziratu zuen —espresioa ez zen botikariarena, baizik Estanislau Corberarena—.

Gerraostean meatzeen suspertzeari zegokion oparotasun-boladak ostera berpiztu zuen jauntxoan handikeria funerarioa. Nelsonek enkargu makabroa jaso zuenean Tortosako moilan, herritarrak oraindik liseritzen ari ziren Praxedes jauna sartu zuteneko mirari mortuorioa, 1950eko urte hartako udaberriaren erdian, briska salatari, ezohiko beroaldi eta jende delikatuak edo adinekoa ugari bota zuen haize-erauntsien denboraldi lugubrean, alegia. Torres familiari zegokion orain gaintitzea brontzeko heldulekuekin eta bolizko santokristoa tapan, Praxedes jauna barruan zetzalarik, Venus lokalean erakutsitako zur zizelkatutako kutxa bikaina, non ehortketaren biharamunean, igandez, gazteek heriotza uxatu zuten zenduak sortutako orkestrak interpretaturiko boleroen konpasean.

Nelson, artega, zerraldoaren ontziratzea azkartu, iztupaz estalarazi –babesteko baino gehiago osteraz ez ikusteko– eta abiatzeko agindua eman zuen: peoiek txikotak askatu eta belak igo zituzten, *Verge del Carme*, hego-mendebalak bultzatuta, Ebro igotzen hasi zen, sasiletratuen bidaialdi oneko desioak moilan utziz, asturu txarreko kargarekin abiatzen ikusteagatik arinduta.

Goizaren gainerakoa eta arratsalde osoa, bazkal orduko atsedenaldira labur bat izan ezik, arazorik gabe baina isilik joan ziren, kaxaren presentziak beldurtuta. Gauean ontzitik at egin zuten lo. Lastairak eta mantak eraman zituzten, babesa bilatu zuten masia batean eta kutxa bakarrik utzi zuten ibai-ontzian. Biharamunean mezu bat hartu zuten Ascón. Zain zeukaten alargunaren antzinako patroia bat: agudo ibili beharra zegoen; Jaume jauna azkenetan zegoen. Gauean nabigatzeko...

—Gauetz? —Nelsonek, marmarka.

—Arriskutsua da! —bota zuen Joanet del Plak.

—Ez kezkatu. Graellsek goardia zibilarekin hitz egin du. Egoera honetan ez da arazorik izango.

—Ados. Edozein moduz, ikusiko dugu zer gertatzen den...

Iluntzera arte nabigatu zuten, afaltzeko geldialdi bat egin eta berehala *Verge del Carme*, haizearen aldera, gau lanbrotsuan sartu zen, Ebroren azalean margotutako izarrak ebakiz. Faiótik hurbil, hego-mendebaldea bat-batean sartu eta mandoa lehorreratu behar izan zen, bidaia zirgatzuz jarraitzeko. Hodei handiek estaltzen zituzten izarrak, ilunpeak betetzen zuten ontzia. Soilik ura sentitzen zuten ibai-ontziaren alboetan irristatzen, mandoaren apatxan soinua zirgabidean, zirgaren igurtzia sasiren baten adarretan eta, sarri, aberea gidatzen zuten peoiaren agindu laburrak. Ordu pare bat geroago ahotsak entzun ziren erriberan, mandoaren urratsak gelditu egin ziren eta aberea ontziarekin lotzen zuten soka lasatu egin zen.

—Zer gertatzen da, Alexandre? —egin zion oihu Nelsonek mandozainari.

Ahots-marmar nahasia iritsi zen albotik.

—Alexandre!

—Hurbildu ontzia bazterrera, Nelson —esan zuen peioak azkenean.

—Zer gertatzen da?

—Egin esandakoa.

—Iritsi gara, mutilak —agindu zuen, artega, ontzia bazterrera hurbiltzeko kaña-kolpe bat emanez. Barruko bi peoiek pertxeekin lagundu zuten maniobra egiten. Silueta batzuk hurbildu ziren ibai-ontzira baina iruditu zitzaion ez zuela trikornioen beldurrezko itzala ikusten. Guardia zibilak ez baziren, galdetu ere ez: makiko jendea zen, batik bat Hitlerren porrota eta gero, diktadura frankistaren aurka borrokatzeko Frantziatik pasatzen ziren erbesteratuen gerrilak, hain zuzen. Hainbeste ziren alde hartan, urte batzuk atzerago armadaren presentzia hirian probokatu zuen. Asko urritu ziren, baina, sarri, beren jardunaren suspertzea gertatzen zen. Nelson arinduta sentitu zen guardia zibilarekin topo ez egiteagatik, nahiz eta ematen zuten, patroia ascótarraren arabera, gauean bidaiaitzeko baimena lortua zutela Torrestarrek. Nabigatzaileek gerrillariak Ebroren alde batetik bestera igaro zitzaizuten ekiditeko, zubietako

zaintzari iskin eginez, guardia zibilak nabigazioa debekatzen zuen eguzkiaren sarreratik egunsentira arte, zigor gogorren mehatxupean. Disposizioa ez betetzeak isunak eta jipoiak zekartzan, eta Nelsonek, nahiz eta bermeak eman zizkieten, sakon hartu zuen arnasa ibai-bazterrean trikornioak ez ikusteko. Makiak ez zuen larritzen, alderantziz, nahiz eta haien borroka galdutzat jotzen zuen. Hiriaren mugen barruan, jende askoren laguntza izan zezaketen gerrillariak; laguntza jasotzen zuten masia eta meatzeetan, edo hirian bertan. Errepresaliak ekiditeko, etxeetan hartzen zituen jendeak, gerrileroen aholkuei jarraituz, kasernara salatzeko joan ohi ziren, non deklaratzeko zuten jaten edo babes ematen behartuta sentitu zirela, heriotza-mehatxupean. Konfidenteak haien presentzia hirian seinalatzen zutenean, guardia zibilak eta eskuineko jende-koadrilak gaueko miaketak egiten zituzten, estrafalario eta beldurtiak, zeinen xedea atxilotzea baino gehiago gerrillariak alertatzea zela zirudien. Jarrera hura –“zeukan zuhurtzia heroikoaren dosi handiagatik, ohoragarria”, Honorat del Rom-ek Moilako Kafetegiko kuttunen artean egindako iruzkin ironikoen arabera– nabarmenagoa zen hiritik at. Tokiko brigada komandanteak bertako labirintoetan gidari adituen zerbitzuak eskatzen zituen orduan, zeinen susmoa zuen makiarekin hitzartuta zeudela, eta taldea, gerrileroak zeuden kontrako aldera nahita nahi ez eramango zutenak. Brigada heroikoak nahiago zuen kasernako babes segurua: han atxilotuak arriskurik gabe egurto eta iruzur ausart eta distiratsuak antolatu ahal zituen, gerrilari bat harrapatzeko antolatutakoa bezala, zeina, gerrillaria, konfidente baten iritziz, Ham kalezuloko etxe batera ausardia amorragarriarekin joan ohi zen. Operazioa udal epailea gantzontzilotan harrapatzearekin amaitu zen, ail, (txosten konfidentzialak barruko arroparekin lotsakor estaltzen zuen asuntoaren egia, gehienbat ezusteak apaldua), Santa Barbarako Damen lehendakariarekin kode zibila errepasatzen zuen bitartean.

Orestes Campellsek, Nelsonek Atanasi Berpizkunderen baja ordezkatu zuen peoia bera, palanka kokatu zuen, eta itzalak ontzi barrura sartu ziren. Bat, txopara hurbildu zen. Patroia konturatu zen ziurtasunez mugitzen zela arbolaren eta txopako bankuaren arteko pasabidean, asko harritu eta pentsarazi egin zion detailea hain juxtu.

—Gabon, Nelson.

—Gabon —erantzun zion, beragandik metro bat eskasera, zerraldoaren alboan, zuzen zegoen figurari. Alferrik saiatzen zen memoria bestearen ahots lausoki familiarra identifikatzen, zalantzarik gabe ibaiko gizon bat zen.

—Bagenekien igoko zinela, nahiz eta beranduago itxaroten zintugun. Azkar nabigatu duzue, baina ez da ezinbestekoa iristearren lehertzea; dakigunagatik, hemen sartu duzuen putakumea —ostiko eman zuen itzupaz estalita zegoen zerraldoaren pean— oraindik ez du azken aharrausia egin. Ez zaitugu gehiago zorabiatuko, beste aldera pasatu nahi dugu eta kitto. Utzi mandoa hemen, ez du merezi ontziratzea.

Gerrillaria besteengana itzuli zen. Berriketa azkarra egin zuten, eta xuxurla baino ez zitzaion heldu.

—Hemen gara, Nelson —esan zuen berarekin hitz egin zuenak.

—Hartu zuk aberea, Alexandre. Zuek, ipini arraunak!

Orestes Campellsek eta Joanet del Plak palanka erretiratu eta arraunak toletetan ezarri zituzten.

—Aurrera!

Arraunketa abiatu zuten. Ibai-ontziak lautadako ur geldoa gurutzatzen zuen, brankako gurpilaren aurka apurtzean egindako murmurioak antzemanda. Nelsonek ez zeukan argi beharrik; zehatz-mehatz ezagutzen zuen Ebro ibaia, zehazki zekien non aurkitzen zen eta amaitzera joango zen ur-bazterreko puntua. Guardia zibilekin enkontrurik ez izateko erreguka, itzal bat paratu zitzaion isiltasunaren aurrean. Bestearen ahotsetik baino zerbait familiarragotik sortzen zen. Soinu metaliko batek, probableki arma batek, jo zuen arraunen plisti-plasta motelean. Hodeiek bat-batean iragazitako ilargi-distira batek zakuto bat zirudiena arakutzen zebilela bereiztea ahalbidetu zion. Igurtzi bat entzun zuen, poxpolo baten garrak apurtu zuen ilunpea. Hasieran, argitasun gorritak liluratu egin zuen eta figuraren belztasuna are beltzago egin zuen. Garratxoa zigarro baten muturreraino joan zen, poxpoloa behar baino gehiago mantendu zen aurpegiaren parean eta Nelson, erraietan korapiloa egiten zitzaiolarik, hazpegi haren argi eta itzalaren jokotik Salvador Riellen begiek begiratzen ziotela jabetu zen.

Ez zuen deus esan. Hatzak ia erretzen zizkionean, poxpoloa jaurti zuen Salvadorrek; garrak arku gorri bat trazatu eta uraren belztasunean zendu zen. Ostera zakutoaren barruan arakatu ondoren, gerrillariak besotik oratu eta paper bat jarri zion eskuan. Kartazal bat zirudien. Nelsonek zapelaren barruan ezkutatu zuen, Salvadorren aurpegia ostera bihurtu zen orban iluna arakatzeari utzi gabe.

Zazpi urte joanak ziren 1943ko abenduaz geroztik, hiria ziutatetik etorritako polizia sekretuz bete zenetik. Egunsentia baino lehen hasi ziren hirian antolatzen ari zen CNTren talde armatuko jendearen atxilotetak, antza, konfidente infiltratu batek aurkituak, esan ohi zenez. Salvador Riells etxetik irteten ari zen Salleres alargunaren meatzera lanera joateko, non errementari modura lan egiten zuen, eta polizia bat eta bi guardia zibilekin egin zuen topo aurrez aurre. Hirian legendarioa zen Salvadorren sosegua: poliziak galdetzean han Salvador Riells izeneko bat bizi ote zen, erantzun zion baietz, huraxe zela haren etxea; bigarren pisuko ganbera batean lo harrapatuko zuten lotsagabea. Besteak eskaieran gora abiatzen zirelarik, udal-garbitzaile bat eta bere emaztea armak enkainonatuko zituzten armak eskuan harturik, Salvador Riells desagertu egin zen. Beti izan zen sekretua hiritik ihes egite hura. *Verge del Carmeko* ezein marinelek ez zuten sekula esan Nelsonek, ordu bete beranduago, ibairatzeko puntuan, ibai-ontziaren ganberan ezkutatuta aurkitu zuela anarkista, ez eta Canotako ibarrean lehorreratu zuela. Hilabete batzuen buruan, hiriak gerrillari baten bidez jakin zuen Salvadorrek muga frantziarra igarotzea lortu zuela.

Zazpi urte igaroak ziren. Salvador Riellsek ostera hartu zuen arriskua, taldeko gainerakoak, poliziak harrapatu baino lehen urkatu zena izan ezik, kartzela frankistetan usteltzen ziren bitartean. Nelsonek harekin pixka bat hitz egin nahiko zuen baina arriskutsuegia zen. *Verge del Carme* ezkerreko ibai-bazterrera iritsi zen. Peoi batek palanka jarri eta beste bi gerrillariak lehorreratzen hasi ziren. Jarraitu eta ilunpean galdu baino lehen, Salvadorrek bizkarra nola estutzen zion sentitu zuen Nelsonek.

Jaume de Torres jaunaren heriotzaren hogeita batgarren urteurreneko hileta ospatu behar zen elizako atean lutoko emakumeak ikusteak berpiztu egin zituen oroitzapen haiek: Nelsonek hiri lokartuko moiletara etorrera isila ebokatzen zuen, Ebroko harresian argiak piztuta zeudelarik; hil

hurrena beilatzen zuen jendeaz lepo zegoen etxaldean zerraldoa utzi izana. Eskifaia lotara bidali eta behin etxean Salvador Riellsen papera irakurri zuen. Eguerdi aldera, losusta urduri baten ondoren— zeinean neke fisikoa izan arren burmuina ez zitzaion sosegatu— kanpaien hileta-hotsak esnatu zuen.

—Jaume jauna zendu berria da —esan zuen emakumeak ganberako atetik.

Etzanda jarraitu zuen, begiak sabaian iltzatuta, jaikitzeke batere gogorik gabe. Eskutitza, Atanasi Berpizkuderen hitzak Languedoceko Tolosatik, non erbesteratuta bizi zen, bihotzean josi zitzaizkion. Ez zen soilik peoiaren oroitzapen mingarria eta gerraren sarraskiak sakabanatutako beste hainbesteena atsekabetzen zuena. Malena de Segarra ikustera joan behar zuen, behar bada oraindik bizirik mantentzen zuen azken esperantza-haria moztera, esateko Atanasik, alemaniarrek Frantzian atxilotu eta deportatuak, Aleix hiltzen ikusi zuela Mauthausengo kontzentrazio-esparruan, non aurkitu zuen, oso gaixorik, hil baino pixka bat lehenago. Mantendu ahal izan zuten berbaldi laburrean, Malena zen margolariaren obsesioa. Malena urrun bat, agian hila, Pariseko bere eskutitzei erantzun ez ziena, berak han bukatu baitzuen mila gorabehera izanda eta naziek atxilotua hiriburura sartu zirenean. Atanasik ez zekien, Mauthausenen, Aleix de Segarrak ez ezik beste pertsona batek ebokatu zuela hiri urruna azken momentuan: gas hilgarriak Ebro ibaiertzean izandako garai zoriontsuetako irudi zaharrak desesperatuki harilkatzen zituen beste memoria bateko hari dardartiak ebaki zituen. Esparruko biktimen zerrenda siniestroak urte batzuk aurrerago kontsultatuak izan ziren arren, erbestegaraian desagertutako hiritarren bila, inork ez zuen beste milaka batzuen artean galdutako abizen hebrear hartan erreparatu. Ez zuten ezagutzen. Bizitzan abizen hura eraman zuen pertsonari, Madamfransuà deitu zioten beti gogoan izan zutenek.

Carlota eta neskameak zuriztatu berri zituen ziertoa Elizako plazan pausatu, Errota kalezuloetik Ebrorantz abiatu eta ibai-ontzi geldien gainean jausten zen bitartean, lutoz jantzitako emakumezkoek Moilako Kafetegian bildutakoen artean probokaturiko oroitzapenak buru-hausgarri baten piezak bezala ahokatu ziren Jaume de Torresen ehorzketaren memoria ezabaezinen gainean osatzeko.

Armen plazaren eta elizako atearen artean elkartutako jendetza magma ibiltari eta beltza zen, eta zeremoniaren izpirik ez galtzeko aspaldi jende deliberatuz mukuru zegoen tenpluko nabeetan errepikatzen zen. Meza bukatu ondoren ere, zerraldoa intzentsu-lainoz eta izerdi zein argizari beroz nahasturiko hats botaguragarritz atera zutenean, ez zen benetako segiziorik izan. Honorat del Rom-en arabera, gertakariaren disekzio zehatzaren autorea bera, ehorzketa, hirian gertatuko guztiak bezala –Errepublika garaiko zibilak eta Elizak lur sakraturako ezduin kontsideratzen zituenak izan ezik– zuriz eta sotana beltzez jantzitako hiru meza-mutil buru zirela joan ohi zen. Erdikoak gurutze prozesionala eramaten zuen, besteek brontzeko kandelario bana eusten zuten, kalezuloetako bidegurutzeetan haizeak itzaltzen zituen zuziak eta guzti. Gurutzearen ikusteak Orestes de Campellsen sumina pizten zuen beti. Nabigatzailearen haserre, hiriko erretore nagusiak, Gerra Zibilaren ostean, eliza –Errepublikako armadarentzat garaje modura erabilia izan zenez geroztik biluzirik– hornitzeko erabakia hartu zuenetik zetorren. Elizaren eta erregimen frankistaren arteko maitasun pasionala udalerrri-mailan kartsuki emulatzen zuen udalbatza sumisoaren gainean botatako zaharmin eskolastikoko silogismo-sorta baten ondoren, erretoreak, handikien txalo artean, ondorioztatu zuen ezen irudiak eta elizako jantziak, gerra-hasieran erre edo ibaira jaurti zituzten gorri ateoek ordaindu behar zituztela. Beraz, bide aklamatorioan zitzu bizian eta gelditu ezinik zihoan udalbatza atzerakoiaren ahobatezko onarpenarekin, erretoreak proposatu zuen langileen hamabosteroko sosetatik behar ziren kantitateak deskontatzea hornidura berriak erosteko, edo salbatu zirenak berrizatzeko, adibidez koruko harmoniuma, eraikuntzako materialen biltoki batean aurkitua bera, (hala eta guztiz ere, instrumentua ez zen sekula errekuiperatu 1936an komunista baten eskutik *Internazionale* interpretatu izanetik: musika sakroak, batik bat aintzek, eliztarrek kezkatzen zituen aire iraultzailea hartzen zuten beti, ezinegonaren kausa bereizteko gai ez zirelarik). Proposamen klerikalak matxinadak zonalde faxistan soldaduska egiten harrapatu eta matxinatuen alde borroka egin behar izan zuten lau meatzarien errespetuzko kexa probokatu zuen, eta baita meatzetan hartu berriak izan ziren migratuenak ere, zeinek, noski, ez zuten gertakarietan parte hartu. Orduz geroztik, zeremonietan –zeinen distiran guardia zibilak zelo akasgabearekin laguntzen zuen bezeria egoskorra kafetegietatik atera eta prozesiotan parte hartzera behartuz– irudi-sorta luzea iritsi zen hirira. Hiriko haserreaz gain, haien etorrerak Honorat del Rom-en iruzkin korrosiboak probokatzen zituen, zeinak Santa Barbara meatzarien zaindariaren ongietorri arranditsuarekin burutu ziren. Moilako Kafetegiko bilar-aretoan, botikariak, egoerak buelta hartuko zuenean egokituko zitzaizkion elizako apopilo berrien eta jantzien parte, zozketa bidez banatu zizkion bertaratuko bakoitzari, soldatetik deskontaturiko soson arabera. Beste onuradunen artean (Estanislau Corberak, adibidez, gau berberean gozogileari aitorlekuko ate baten truke aldatu zion belus gorritz forratutako belaunaulki bat

izateko eskubidea izango zuen), azareak gurutze prozesionaleko beso bat esleitu zion Orestes de Campellsi. Harrezkeroztik, peoiak, zeremonia publiko batean ikusten zuen bakoitzean, Jaume de Torresen ehorketza-egunekoan bezala, kalkulatzeko, ezen iraultza bat gertatuz gero, errementariaren batek, bere partea zen brontze-zatiaren truke, hura erosteko soldatatik deskontatu zioten dirua emango ote zion.

Gurutzea eta kandelarioak zeramatzaten meza-mutilen atzean, zortzi gizon lutozkoak, Ramon Graells eta semeek, pribilegioagatik harro, Tortosatik igotako kutxa bikaina zeramatzaten, Praxedes Maials zenduarenak baino miresmen gehiago sortzen zuena. Ramon Graellsen —egoera solemneko xehetasun ñimiñoenen ardura zehazki hartu baitzuen— ezin zuen bere obraren gainean planeatzeko hondamena aurreikusi, eta lasai zirudien. Hasieran piska bat aztoratuta ikusi zuten, hondamenaren atsekabeagatik baino gehiago heriotza hark bere egoera pertsonalean eta semeengan sor zitekeen nahasmenduagatik. Kezka gutxitu egin zen andereak baimen osoa eman zionean une tragiko haietan denetaz ardurtzeko, eta desagertu egin zen andereak eskatu zionean (deferentzia handiena) emazteak eta errainek zendua janzteko. Negar-koruaren artean, non estridentziagatik Sofia, Carmela eta Teresarenak —Camilla, Adelaida eta Veronicaren ondorengoak eurak— nabarmentzen ziren, zeinek Madrileko eta Bartzelonako senideak —heriotzaz arrapaladan abisatuak eurak— izutzen zituzten, Ramon Graellsen, anderearen aurrean zut, familiari emandakoaren emaitza jasotzen zuen, hark jarraibideak ematen zizkion bitartean. Orduz geroztik, Hipòlit jauntxoak sortu ahal zizkion eragozpenak izan ezik —izan ere aitagarreba baino urte batzuk gehiago bizitzera destinatua baitzegoen—, negozioetan egin eta desegin ahal zuen. Hala eta guztiz ere, sepelioak irauten zuen bitartean eta zendua nitxoan egon arte, Ramon Graells bere atsegina ezkutatzeko saiatzen zen, bere pentsamenduek Jaume de Torres jaunaren hondakinetatik bereizten zituen zur bernizatu sendoa gaingitu ez zezaten.

Jaunari, hainbeste arrandia funerarioaren nahi gabeko kausa zelarik, ez zitzaizkion konfiantzazko gizonaren hausnarketak iristen. Alabaina, igarri ahal izan balitu, Graellsen burutazioak ez zitzaizkion harrigarriak irudituko. Familiako gainerakoek ez bezala, sekula ez zuen administratzailearen fideltasun desinteresatuan sinistu, ondo asko ezagutzen baitzituen haren afera sekretuak, lapurreta ttikiak baina jarraituak lignitoaren ekoizpenean, hornitzaileengandik komizioak eskuratzeko jukutriak, martingalak gerra ondoren lau sosen truke erositako bi kamioientzako gasolina-errazionamenduko kupoietan, eta batik bat, familiaren kontsiderazioan itzal egin ahal zioten lehiakideak urruntzeko maniobrak. Jaume jaunak ezikusia egiten zuen irregulartasunen aurrean, neurri handi batean administratzaileak gehiegi ezagutzen zuelako berari buruz eta bere negozioei buruz, eta beldur ziolako. Ugazabaren tolerantziaren eta banitate propioa jauntxoaren konfiantzaz harro sentitzeko aukeraren truke —Graellsen oinarritzeko ahulezia bera, Jaume jaunak ongi ezagutua eta zeinen hariak beti ondo mugitu zituen—, zerbitzari segurua eta oso erabilgarria zen kontakatilu gisara amaginarrebaren eta emaztearen heriotzen ondoren: ez zeukan eskrupulurik hiriko xarmanten baten ohea prestatu edo 1914ko eskopetaden historia zaharra errepikatzeko zorian legokeen eskandalu-mehatxu bat baino gehiago, zernahi bitarterekin itotzeko. Ugazabaren insistentzia eta guzti, saiatzen ausartzen ez zen bakarra Júlia Quintana zen, senarraren fusilamenduaren ondorengo egoera prekarioagatik harrapakin erraza iruditzen baitzitzaion. Alargunaren ezeiko ziurak baino gehiago Nelsonen erreazioak beldurtzen zuen. Konturatzerantz iritsiz gero, akabatzeko gai zen, bai bera eta baita Jaume jauna ere.

Baina hura desagertua zen jadanik. Jaunari ez zitzaion esku-ahurretan Sofiaren bularren gogortasun-sentsazioa ere geratzen —ezkutuki lastandutakoak eurak Rodako Kasinoaren

pasiloetako ilunpean— gaixotasunak suntsitua izan baino pixka bat lehenago. Bere burmuina erabateko ilunpea zen, heriotzaren zurruntasunak gogorturiko gorputz-ataletatik deslotua, zerraldoan galkatuak eurak, nora apaizaren salmodiak motelduta sartzen ziren.

—*Dominus vobiscum!*

Kutxaren atzean, kapa plubialaren seta more eta zilarrezko brodatuen pisuagatik desoroso, hilobian azken otoitzak egiteko ezinbesteko intsentsu-ontzia eta isipua zeramatzaten bi meza-mutilek lagundurik, Ambròs abadea zihoan, hiriko erretorea, beste edozein bezala laster probokatuko zuen nahaste-borrasteaz ez jakitun, besteak beste sakristia parrokiaren eta Birjina Martirien Aretoaren arteko harreman ezin hobearen atzerapauso dezente eta oso mingarriak, zeinak tradizionalki, txokolate eta bizkotxo, ontzi-bedeinkapen, beste munduan aintza eta hemen inpunitatearen truke, meza eta dohaintzatan oinarritzen ziren. Hoztasun hartako frogak ugariak ziren. Honorat del Rom-ek Sofiaren bitartez ezagutzen zituen Carlota de Torres anderearen suminaren arrazoiak, bi galdera nagusietan laburtuak: Nola baimendu zuen berak (jakina, anderea Jainkoari buruz ari zen, Aita Eternala izan ezik inor ez baitzen familiako gauzetan parte hartzeko duin) tamaina hartako lotsarik? Non zegoen, bada, Torres i Campstarrek Elizari emandako begiruneen ordaina? Maiz kritika basati moduan (“abade hau lapur bat da”, jaurti zuen andereak kanpandorrean egin beharreko obra batzuentzako kolekta baten harira; “abade hau zerri bat da”, luzatu zuen jendeak apaizari santu-jale batekin amorioak egotzen zizkionean), Carlota de Torresen hoztasun nabarmena garaipen frankistaz geroztik familiako aldarean zegoen Tetuango heroiaaren sablea kenduz hasi zen, eta puntu gorenera iritsi zen Jaume jaunaren ehorzketatik haste batzuetara, alaba zaindariari aldare berria eraikitzeko parte hartzera ukatu zenean. Jauntxoek jantziak urratu zituzten: abadearen arabera, proiektua zeruaren iradokizun bat zen. Gau batean, zaindari santuaren aldare zaharreko argiak berez piztu ziren, eta erretoreak mezu bat balitz bezala interpretatu zuen fenomenoaren —elektrikariaren iritziari ez entzun eginez, hark egitate hura etengailuaren hondamenari egotzen zion arren ez zuen publikoan esaten, pulpitutik komunizatzat salatua izan eta espetxean ez amaitzeko—: martiri santuak aldare berria eskatzen zuen, seguru aski zaharraren gasolina errepublikarreko hatsarekin gogaituta. Anderearen burlaizeak, komunikazio sobrenaturala zela-eta, hirurogei watteko bonbilekin jakinarazia, erroitz bihurtu zuen Jaume jaunaren sepelioan abadeekin irekitako zirikitua. Moilako Kafetegiko kontertulianoentzat hiriko bizitza espiritualetan Mirarien Aroa izenekoaren hasiera eta Erredentzioko Garraren amaiera adierazten zuen, zeinaren ezaugarriak hauek ziren, besteak beste, guardia zibila kolaborazio beti leialarekin: Errepublika garaiko ezkontza zibilak Elizarentzat berriztatzeke betebeharra, madarikazioaren errepresioa eta jantzietan pudorea inposatzea. Inda errepresiboa, mosen Ambròsek errukirik gabe gidatua (Estanislauk mantentzen zuen boneta eta trikornioa trukagarriak zirela), distiraz bete zen igandeetan eta Eliza Ama Santuak gorde beharrezkotzat aldarrikatutako beste egunetan lan egiten zuten bekariak harrapatu eta isunak ipintzeko uxaldi ausartekin, ia-ia temerarioak udalerrian, bistan makiak ez izatekotan. Jaume jaunaren ehorzketaren ondoren, beraz, behin baino gehiagotan deitoratu zuen mosen Ambròsek anderearen jarrera. Baina egiaz gertatzen zena zen —gutxienez horrela azaltzen zuen Feliça Roderesek Lleidako gotzainari bidalitako anonimo batean erretorearen deskarguz— abadeak ezin zituela igarri, ez gertatuko zena, ez ondorioak anderearen jokabideetan, zeina, anderea, urrats batzuk atzerago igartzen zuen, segizioa neke handiz kale Nagusian sartzen zen bitartean.

Segizio familiarra —orban beltz eta egundokoa, non nabarmentzen ziren alkandoren lepo zuriak, gizonen hazpegiak, hilotza bi gautan beilatzeagatik horiztatuak eta koroa funebreak zeramatzaten haurren aurpegi zurtuak— astiro zioan, ia-ia apaizaren kapa ukituz. Carlota de

Torresen neba nagusiak egiten zuen buru, zeinak txikiarekin ideia bat partekatzen zuen: hirira itzultzea behin disposizio testamentarioak arakatu ondoren. Urte asko zirela hiritik urrunduta, funtzionario modura Madrilen kokatu zirenez geroztik, heriotzaren erritualek nekatu eta inarrosi egiten zituzten. Ez beren emazteak beste, ordea, koinataren presentzia deuseztatzaileak gibelatuak, zeinaren destainezko begirada beti sentitzen zuten. Izatez inposatzaile, are gehiago ematen zuen Carlotak ehorzketan: familiako besteei bezala aurpegia estaltzen zion beloak zerbait sumingarria gehitzen zion, dolua osatzen zuten gainerakoak, gizonezkoak barne, arra bete gainditzeko zituen figurari. Ehorzketa baino lehen, zendua oraindik estalkiaren bitartez argitik erabat banandu gabe zegoelarik, Carlota de Torresek aretoan kokatutako hil-kapera utzi zuen ganbarako leiho altuetara igotzeko. Ezkutuan ikusi zuen plazan batutako jendetza. Hiritarren presentzia masiboak beteta, aitaren albora itzuli zen, eta han, Ramon Graellesek eta haren semeek zerraldoa ixten zuten bitartean, negarrez hasi eta Carmelak eta gainerako emakumeek jarraitu zioten. Bakana ez bazen, Carlota irisgarri bat kontenplatzeko une bakanetako bat izan zen, bere abizenetatik, bere meatzetatik, bere ibai-ontzietatik erantzia, izututa orroka, erremediorik gabe bakarrik luxuzko zerraldoaren aurrean, non gerrillari anarkistaren ostikoak, enbalajeak motelduta, ez zuen ezein seinalerik utzi.

Carmelak, Sofiak eta Teresak, segizio luzearen konposizioan sendiaren atzean kokatutako jauntxo eta funtzionario-andanaren atzean, etengabe negar eta intziri egin arren, beren oinazezko adierazpenak musikaren zaratak estaltzen zituen.

Bere analisisan, Honorat del Rom-ek erogarritzat jotzen zuenean orkestraren emanaldia, arrazoia eman behar zitzaion, botikariaren gaitasun musikalak eskasak izan arren, zeinak —Forques bikeztatzailearen hitzetan— nekez bereizten baitzuen Straussen vals bat nasetako zerraren karrankatik. Antzinako banda, Edeneko egunetako Harmonia Fluvial kuttuna, 1918ko gainbeheran oso eskastua, ia erabat desaginda geratu zen Gerra Zibilean: ez baja deitoragarriak (tronpeta bat Teruelen, bonbardinoa Carrascalen, klarinete bat Ebroko batailan) ez helikoiaren erbesteratzea Mexikon, ez ziren ordeztuak izan. Talde zaharra, lehen beti presente ontzien ibairatzeetan, festa zibikoetan, sepelio eta itzal handiko urteurrenetan, desagertu egin zen. Praxedes Maials jaunaren mezenazgoarekin, biziraun zuten hiruk orkestina bat osatu zuten, beranduago ikasle pare batekin betea, gerraosteko lehen dantza-saioa animatzeko. Abagune berezietan, festa nagusiak, galako futbol-partidak, kategoriako ehorzketak edo inauteriak, frankismoak diktatutako debekuak debeku, hiria geldikaitz lehertzen zenean, taldeak Salleres meatzeko errementari baten behin-behineko kolaborazioa izan ohi zuen, platiloekin birtuosoak zelarik, eta baita La Carboníferako kapataz batena ere, hura tronboi irristailudunean autodidakta. Arratsalde hartan, ordea, Graellek ez zituen platertxoak sepelioko bonbaziarekin egokiak ikusi, eta ez zegoen La Carboníferako tronboian pentsatzerik ere, haren historiaz hiria aski beteta baitzegoen. Hiru aste baziren, serenoak gaueko errondan behatu zuen Ebroko transbordadorea ez zegoela moilan estekatuta; urduri, ontziralekura hurbildu eta zehatz-mehatz miatu zuen ibaia. Kale-kantoiko lanpara nekez iristen zen ibaiertzetik lau pauso harago ikustera. Belarria ipinita uraren ahulezia besterik ez zuen harrapatu baterian estekatutako ibai-ontzien kontra. Ez zen posible transbordadorea Ebron behera jitoan joan izana; ez zegoen uholderik eta pentsaezinezko astindua beharko zen alderik alde luzatzen zen altzairuzko kablea, non ibilbidean zehar ontzia labaintzen zen, apurtzeko. Norbaitek, ebidentea zirudien, Ebro baimenik gabe pasa eta transbordadorea ezkerreko aldean utzi berri zuen. Serenoa ontzi-gidaria esnatzera joan zen, eta biak osteria jaitsi ziren moilara. Marinelak, loak lanbrotuta, ilunpea alferrik arakatzen zuen bitartean, bote bat uretaratu eta transbordadorearen bila beste aldera joatea aipatzen zuelarik, ibaiaren belztasunetik *Internazionalaren* lehen konpasak iritsi ziren, tronboiak interpretatuak. Serenoa eta marinela zur eta lur geratu ziren. Barcatik hurbileko

etxeetako leihoak eta balkoiak erdi ireki ziren; hiritar sinesgaitzek burua tentuz atera zuten. Ez, ez zen amets bat: erregimen frankistak debekatutako himnoa jotzen zuten. Guardia zibila, armaz lepo, korrika iritsi eta moilan parapetatu zen. Instrumentua mututu egin zen, baina tarte luze baten ondoren, ostera abiatu zuen himno subertsiboa. Hainbat aldiz errepikatu zen ordutan. Hiritarren ikusmina, bukaeraren zain, ikaragarria zen. Egunsentiarekin, ibaia eguzki nagi baten lehen gorritasunekin pizten zen bitartean, mundu guztiak ikusi ahal izan zuen transbordadorea Ebro erdian geldi eta La Carboniferako kapatazaren figura, tronboia eskutan, barandan eserita. Ez zirudien, amore emateko, brigadaren oihuak entzuten zituenik. Sarri, gauean bezalaxe, tronboia ahoratu, *Internazionalaren* zati bat interpretatu eta begira geratzen zen. Hainbat proiektu bazterturik, adibidez tokiko brigadarena, hiriari errefortzuak eta artilleria eskatzea, makiak antolatutako lakioa izan zitekeelako, alkateak –alde batetik ikusten ez zuena zein izan zitekeen halako tranparen xedea, eta bestetik misterioski baiezpenera jaso zuena transbordadorean ez zegoela ezein gerrilleroren aztarnarik– (hirian haiek biak lasai asko atsedena hartzen ari ziren Granota Kafetegiko sotoan), serenoarekin eta ontzi-gidariarekin batera musikariarekin hitz egitera joatea erabaki zuen. Elkarriketa luze baten amaieran, zeinetik hiritarrek, arazorik gabe Ebroren horman eta ibai-ontzietan pilatuta, ez zuten distantziagatik deus harrapatu, alkateak eta marinela itzuli eta serenoa kapatazarekin utzi zuten. Hiriak miresmenez jakin zuen musikaria justu Kremlinen aurrean zegoela, Moskun, nora gau osoan transbordadorearekin bidaiatu ondoren iritsi eta Stalinekin hitzemandako audientziaren zain zegoela luzaroan... Kapatazak urteak eman zituen sanatoriotik itzuli gabe, eta tronboi irristailudunaren ausentziak larriki eragin zuen orkestraren sonoritatean Jaime de Torres jaunaren sepelio solemnean.

Jendetzak, gizonezkoak eta emakumezkoak taldetan banandurik, ia musikariak zapaltzen zituen. Masa maskulinoan hiriko hainbat estamentu zeuden, jauntxoak izan ezik, haiek dolu familiarrean baitzeuden. Moilako Kafetegiak, Rem Tabernak eta Granota Kafetegiak, batik bat meatzariak, nabigatzaileak eta eskulangileak bideratu zituzten; nekazari gehienak Nekazarien Kafetegitik zetozen, industrialak, administratiboak eta komertziantek Gazteluetako Tabernako bezeroak ziren, Fenizioen Habia ere deitua bera. Gazteak, edozein zelarik haien estamentua, Sports Kafetegitik zetozen, eta erretiratu gehienek Benjaminen Tabernako atean itxaroten zuten segizioaren pasea. Gizonen taldeko azkenak Pla meatzeko bi errementari ziren, pixka bat ron gehiegi edanda, zeinen atzetik emakumezkoen jendetzaren martxa hasia zen, ilara luzearen burua Hiriko plazara sartzen zenean, non Udaletxeko funtzionarioak, idazkaria buru, bertan itsasteko itxaroten zeuden.

Aitortu beharra dago, eta botikaria bera ados zegoen, lotsarik gabe, Honorat del Rom-ek egindako azterketak indar eta objektibitate asko galtzen zuela sepelioko talde femeninoa aztertzerakoan. Mundu guztiak ezagutzen zituen botikariaren gustuak gonei zegokienez, eta nabarmen zegoen bere burua lehentasun oso pertsonalek eramaten uzten zuela motibo hain funebrean zela-eta batutako emakume-talde hain handia soilik honako hauetara mugatzera: Adelina Terreren hanka bikainetara, Rosa de Costaren edertasun heldu eta sekulakora, Elena Segarraren aldaka indartsuetara, Eulàlia Riuseren begi berdeetara, Berta Montullen dotoreziara edo Irene Vallcornaren distira gaztera.

Honorat del Rom-en esposizioari buruz puntu hobegarri bakarrekiko erreserba eginda ("Eta Maria Campells?", Estanislauk protestan; "Eta Fermina Berenguer?", bikeztatzailea galdezka, beste erreklamazio gutxiago zurigarrien artean), esan beharra dago botikariak errefusatu egiten zuela teoria, fantasiotsua zelakoan, zeinaren arabera, justu gurutzea eta kandelarioak zeramatzaten meza-mutilak Hiriko plaza erdian zeudenean gertaturiko kalamitatea makien

maniobra bat zela. Puntua gerrilleroetako batek gaitzetsi zuen. Gizonak –seguru aski *Verge del Carmerekin* Ebro gurutzatu zuen itzal isiletako bat bera– ziurtatu zuen ezen ehorzketa hasteko unean hiriko kafetegi batean zegoela eta, beraz, lokala hustu zenean ez nabarmentzearren, beste bezeroekin batera segizioan sartu eta mundu guztiak bezala, astindu handia jasan zuela, zeinari buruz deus ez zekien. Estanislau Corberaren iritziaren kontrara, botikaria ere ez zegoen ados puntu kritikoa estankoaren aurrez aurre kokatzearekin; bere bertsioaren arabera, hauxe jaurti zuen Palmira Sansak Manuel de Vidalleten okindegiaren aurrean ezkaratz batetik jendetza begiesten zuen erbi-txakur bat ikustean:

—Zein animaliatxo argala! Saihets-hezurak zenbatu ahal zaizkio! Hain argal dago, zakur amorratua dirudi...

Carmelaren azalpenak azalpen, hiriko jende gehiena bezala Honorat del Rom-en teoriaren aldekoa, Carlota de Torresek sekula ez zuen onartu nahi izan. Neskamea tematu egiten zen, gogoeta eginarazi nahi zion, bere hildakoengatik edo familiaren osasunagatik zin egin zion, huraxe zela egia, baina andereak haserrekor ukatzen zuen katastrofearen prozesu probokatzailea: Palmiraren hitzak, haren aurretik zihoazen emakumezkoen lerroak antzemanak, Matilde Rocaren ahotsaren bitartez bertsio lakonikoago bihurtu ziren, zeinak segurutzat jotzen zuen zakur amorratu baten presentzia ezkaratz batean. Hiru lerro aurrerago –hiriak oroitzapen beldurgarriak gordetzen zituen gaixotasunak sorturiko terrorez jada zamatuta– Filomena Planesen garrasi bilakatu zen: txistu beldurgarriak berehala ekarri zuen izu-ikara segizio luze-luzearen muturretik muturrera.

Hogeitabatgarren urteurrenaren arratsaldean, 1971n, egitate hura bizirik zegoen hiritarren memorian, nahiz eta xehetasun asko lausotu eta eskenatokian izandako aldaketek haizea bera ere deskontzertatu egiten zuten, zeina, haizea –Carlota de Torres eta neskameak hautsez bete baino lehen– ordura arte ezezagunak ziren eta eraispinak hiriaren antzinako nukleoan ireki zituen bideetatik galdu egin zen. Elizak, kanpandorreko erlojuaren gelditze definitiboa alde batera utziz, oraindik ez zituen eraispinen efektuak jasaten: Estanislau Corberaren emazteari, bezeroen ebokazio bitartean kafetegiko mahaiaren gainean bermatuta bera, erraza egin zitzaion dardara eta tenplu barruko zalaparta, emakumezkoen bultzada, sepelioaren isatsa, oraindik elizako eskailerapean pilatuta osteria oldartu zitzaionean, gehienen oihuek kale Nagusian zakur amorratu baten presentziaz ohartarazten zutelarik. Emakumezkoak izututa, ahal zuten tokian gorde ziren. Berak pulpituko eskailera estuetan gora egin zuen, animalia bafada sukartsua orkatiletan sentituz eta haren betortzak haragia urratuz. Zakurrak ez ziola jarraitzen ikusirik pixka bat lasaituta, pulpitutik jarraitu zuen eliza barruko nahasmendua. Klean geratutako jendeak lehen bultzadaren ondoren itxi ziren ateetan desesperatuki joka, talde batek sakristian hartu zuen lubaki, beste batek koruko eskaileran gora jo zuen. Ham kaleko harakina eta adiskide batzuk kanpandorreko atetxotik sartu ziren. Askoz beranduago, uholdeak patxada hartu zuenean, hasperen ahul batek Isadora Rubió santu-jalea ubikatzea ahalbidetu zuen, beldurrez zuri, eskuineko nabeko aitorleku batean baitaratuta.

1971ean, jada ez zegoen Vidalleteko okindegeia. Kale Nagusian eraitsi eta hondamendiaren bigarren urteko hasieran suntsituak izan ziren lehen eraikinetako bat izan zen. Labea aurkitu eta are gutxiago irin-zakuak edo ogia egiteko mahaiak, non igota zeuden, zeinen azpian ordura arte zeremonia funebrea zena bakanal bihurtzea lortu ezin izan zuten gizon eta emakumeak babestu ziren.

Gauza bera gertatu zen La Moda de Paris arropa-dendan, non izuak bost eskifaia irentsi zituen – Salleres alargunaren bi eta Carbons de l'Ebreko bat–, Cistell kalezuloko auzo-andreekin nahastuta. Hiriko plazan, jendetzaren bat-bateko sakabanaketak eragina izan zuen portxeen azpiko atari guztietan eta Udaletxeko sarreran, baina barreiatzea oso irregularra izan zen. Talde ugariena –zeinari buruz Nelsonek oroitzapen zehatza gordetzen zuen bertako partaide izan zelako– abiatu, eskaileretatik igo eta estai nagusian kokatu zen. Garai hartan, izan bazen diktaduraren aurkako oposizio klandestinoak, eta modu antolatuan meatzeetako galerietan, batik bat komunistek gidatuta, eta gertatu zen buruzagi gehienak eraikin ofizialean babestu zirenen artean zeudela. Alde batera utziz Honorat del Rom-ek kasuari buruz ironizatzen zituen komentario marjinalak, zehazki egiazkoa zen, abadea, segizio familiarra, jauntxoaren taldeko parte handi bat, lau komunista, sozialista bat eta hiru libertario udal presondegian gotortu zirela atea behera bota ondoren, kaiolako untxiak lapurtzearren bertan espetxeratuta zegoen eskalearen izuaren aurrean: urlia gizajoak, lutoz jantzitako talde siniestroak, abadea buru zela sartzen ikustean, azken ordua iritsi zitzaizola pentsatu zuen, urkamendira eramateko bere bila zihoazela. Aurreikusi gabeko batze hau ez ezik (frankismoaren egin zen hiriko indar politikoen lehen asanbladatzat kontsideratua bera, troskistak kenduta, telegrafoen bulegoan gordeta baitzeuden), jakin zen baita ere, agintariak ohartu gabe, nor zen batzargelako Francoren erretratuaren gainean igitaia eta mailuaren pintadaren autorea, nork lapurtu zuen alkatearen luma estilografikoa eta nork jarri zion zangozabala gaiztoa kaporalari, guardia eskaileretako lehen tranpagarenean sudurrez behera jausarazi zuena. Aldiz inork ez zuen inoiz asmatu nork atera zizkion hortzak sarjentoari ukabilkada batekin, zalaparta baliatuz. Halaber, hainbat ahots hegalariren iruzkin mamitsuak gertatu ziren arren, misterioaren geratu zen galtzerdi fin-fin batzuen jabearen izena, bihotz gorri ñimiñoekin brodatuak eurak, zeinak aguazilak aurkitu zituen Udaletxeko biltegi batean festa nagusiko erraldoi eta buruhandien artean.

1971ko arratsaldean, eraispenen bigarren urtean, ehorzketaren ibilbidea orbain luze-luze bat zen ia milurte batean hiriaren arteria bitala izan zen tokian. Moilako Kafetegiko bezeroen memoria maiz galtzen zen aurrien artean. Joanet del Plak, sakabanaketaren kronista zehatza bera, leiho bateko burdin-sare batetik, arazoak zeuzkan, orkestrako bonboak, zoruan tarte bat zambiluka joan ondoren, Jaume de Torresen zerraldoaren aurka –plaza hutsean abandonaturiko arte funerarioko mirari haren aurka– jo zuen toki zehatza oroitzapenean kokatzeko.

Laugarren zatia

Hego-mendebal beltza

1971ko udazkenara arte Honorat del Rom lau eta erdi aldiz detenitua izan zen, alde batera utziz diktaduraren eternitateko herriaren arrastatze orokorra eta atxiloketa kolektibotan amaitzen ziren hiriko manifestazio jendetsuak, bereziki futbol zelaian lehertzen zirenak, ia beti arbitroen perfidiaren erruz, eta zeinetan botikariak, kirolekiko bere indiferentzia kontuan harturik, elkartasun hiritarragatik eta liskarrearekiko zeukan erakarpen eutsiezinagatik parte hartzen zuen.

Estanislau Corberaren kontabilitatearen arabera, bere memoriaren liburu nagusian asentatu zituenak hain zuzen, lehen atxiloketa 1945ean gertatu zen, Honorat, Bartzelona garaitu, gosetu eta tristean farmazia-ikasketak burutu berri, hiriburutik itzuli, ostera farmazia familiarra ireki eta Moilako Kafetegira maiz joaten hasi zenean, klase sozial eta lagun txarrei buruz ideia zorrotzak eta zehatzak zeuzkan amaren neba Ferran osabaren iritziaren kontra. Senide atzerakoiak errepikapen sumingarriarekin egiten zion erretolika, zenbait eredu familiarrez arnegatzera bultzatzen zuen –eredu “diogun ezegokiak”, intsinuatzen zuen zuhur, botikari zendua iraintze ezkutuan ilobaren aurrean harago joateko kuraiarik gabe. Bere, osabakitsu-itsuan sinisten zuen, eta ez zion uko egiten jauntxoan tertulian aldarrikatzeari, alegia Kafetegiko Honoraten heriotza abere zoratuaren apatzen azpian, hiriaren ebakuazioan, 1938an, probidentziaren obra izan zela. Era horretara Zeruak beti Moilako Kafetegiko jendailarekin nahastuta ibili ohi zen errepublikazale gorrotagarri, inpertinente eta ateolari erreserbatutako kartzelaren infamia aurrezten zion familiari. Ilobari Rodako Kasinoko batzarkide izatea zegokion, familiaren estatus eta farmaziako lizentziatu-titulu dotorearen arabera (“Hots, Beltran doktorearen sarraskien konplize zigorgabe bihurtzeko legezko baimena”, argituko zuen Honorat berberak). Erretolikak, senarra erremediorik gabe faltan hartzen zuen arrebarengandik beti ezkutuan eginak, osaba aspertu zelako amaitu ziren, hartzailearen gortasunagatik ahalmenik gabe. Gutxienez, Honorat del Rom-ek inoiz ez zuen berretsi (“gezurtatu ere ez”, azpimarratzen zuen maleziatsua Estanislau Corberak) ahots hegalaria batzuen bertsioa, zeinaren arabera, fosilak onbidezko erretoliken marmarrei uko egitea, botikari gazteak arrastorik utzi gabe hiltzen zuten (“bereziki amaren aldeko osabak”, irribarre makurrez zehaztuko zuen, jendeak esan ohi zuenez) pozo misterioitsu bati buruz noizbehinka egindako iruzkin batzuei esleitzen zitzaien.

Hastapenean, Moilako Kafetegiak beldur ematen zion; tristezia sakona ere bai, ematen zion. Mostradorearen gainean bermatuta, Estanislauk kafe zeritzon gai zehaztezina irentsi besterik ez zuen egiten, hitza inpotentzia-keinu batez lagunduta –gerraosteko gabezien adierazpen zuhurra bera–, diktadoreak lau haizeetara inperio unibertsalaren eraikuntza, ziztrin eta garratza, aldarrikatzen zuen arren. Aitaren lagun zakarrak behatzen zituen botikariak, baina ez zen ausartzen mundu hartan sartzerara, bestalde aski itxia eta latza bera, garai zailetan. Besteek afektuz agurtu eta betertzez behatzen zuten, osaba atzerakoiak gaztearengan izan zezakeen eraginaren beldur, zeina bestalde apenas ikusten zuten haur bat zenez geroztik. Poliki-poliki, bere izaera eta irtenaldiak ezagutzen joan ziren. Osabarekiko harremanez jendeak egiten zituen iradokizunekin barre egiten zuten, desagertuaren grazia eratorriak onartu zizkioten eta auzo-andre batek argi-zulo baten bitartez zelatatutako farmazia osteko gona-kontuez mintzatzen hasi ziren. Auzo-andre hark antzinako lanabes eta profesioaren formularioen sorta familiarreko bitrina arteko sedukzio ibiltari samurren izen eta abizenak hedatzen zituen; lore ezpaindunen (ia beti melisa) potean azpian egindako maitasun-aitorpen grinatuak errepikatu edo aristolokiaren txarro baliotsuen azpian kokatutako dibaneko kuxinen gainean kabalkada kementsu eta

hasperentsuak, ohiz kanpoko bariazioekin, ebokatzen eskandalizatzen zen... Bitartean karta-partiden ohiko ikusle bihurtu zen. Jokalarien alboan eserita, behatu, entzun eta gogoz ikasten zuen, jokoaren sekretuak ez ezik, gutxien inporta zitzaiona, zerbait ezkutuagoa, karta batzuen aitzakian mahai baten inguruan batutako figuretan presente zegoen jakinduria bat, ibaia beste zaharra. Larunbat batean, hagin zulatu baten minberak kafetegira joatea eragotzi zion Eduard Forquesi, eta Nelsonek, partidako ohiko lagunik gabe, botikaria gonbidatu zuen ausentearen tokia betetzera. Bikeztatzaile eta saxo tenorraren oinazeak aste bete iraun zuen eta gaixoa, oraindik masaila puztuta, tertuliara itzuli zenean, aitzak utzitako hutsunea tazitoki lortuta zeukan Honoratek, nahiz eta nahiko iaioa ez zen butifarra-jokoan, zeinean beti aski baldarra izan zen. Egun batzuen buruan –batek daki onarpena betikotzeko-edo– Estanislauk, alaba baten ezkontzaren motiboz, intimoei eskainitako festara gonbidatu zuen. Inork ez zuen susmatzen, biharamunean, botikaria lehen aldiz atxilotuko zutela.

Abagune hartan armadak, soldaduz eta burdin harizko biribilkiz kargaturiko kamioi batekin hirian azaldu zen ingeniariaren ofizial baten bidez, atxilotu egin zuen. Iraileko goiz bat zen. Fresko egiten zuen, eta erriberako makalak, udazken hasiberriak doratuak –multzo malenkoniatsuak eurak– lehen hosto hilak botatzen hasiak ziren Segre eta Ebro ibaietan behera, serenoaren beta erromantikoa estimatu eta Carpa plazako halako andre eder bat bisitatzen bultzatzen zutena. Ibilgailu militarra, azken hatsa emateko zorian zegoen karraka karrankaria, freno-hotsez geratu zen farmaziaren aurrean –zeinaren atean Alberatarren neskameari Karmengo ur-botila bat saldu ondoren mintzatzen ari zen Honorat–, edari harekin anderea, zorabio maiz eta ikusgarri batzuetatik suspertzeko aitzakiarekin, alkoholiko ezezagun bihurtu zen hiriko beste andereren bat bezala. Botikariak atseginez arnasten zituen udazkeneko lehen gozotasunak, udako bero sapa joan ondoren. Urtaro-aldaketak probokaturiko arintasuna ez ezik, oso optimista sentitzen zen. Kafeteroaren festa pribatura gonbidatutakoek adierazi zituzten esperantza sekretuak partekatzen zituen: diktadura frankistak hanka bat zuloan zeukan. Alemania naziaren porrotaren eta Japoniaren errendizioaren ondoren, demokrazia garaileek ez zuten erregimen frankistarik onartuko, Francorena bezalakoa alegia, estalkirik gabe Ardatzeko potentzien aldekoa. Horrela ziurtatzen zuten gerrilari makiek ere –zeinek penintsulan ugaritzen zituzten ekintzak– Frantzia askatua izan ondoren. Alabaina, mundu guztiak ez zituen ilusio berberak partekatzen, garrazki salduak izango zirenak bestalde. Botikariaren ideiekin ados ez zeudenen artean, ingeniariaren ofiziala zegoen, izar berri-berriak eta burmuina urdun hirira etorri berria.

Militarrak, ibilgailutik jaitsi, eta agurtzeko saiorik ere egin gabe, Ebroko zubira nola joaten zen galdetu zuen. Botikariak gaztelania zalantzatziz esan zionean, ibaia gurutzatu nahi bazuen, transbordadorearekin egin behar zuela, Ebroko zubiari soilik zutabeak gelditzen zitzaizkiolako, militarrek zakartasun kasernatarrarekin erantzun zuen: ezagutzen nuen gorrien zerrikeria, baina zubia Franco jeneralaren erregimen garaileak berreraikia izan zen gerraostean. Plano militarretan zegoen.

Historia azaltzen zuenean, Honoratek hotzikara alferrikako eta berantiarrarekin onesten zuen bere ozartasuna, nahiz eta deskargu bezala desenkusatu, egiaren errebultsiboak tenientearengan zenbaterainoko eragina zeukan frogatzeko tentazio eutsiezina aitzakia gisa erabiliz (“materia konprometitua, dinamita baino arriskitsuagoa”, Horaci Planes sereno-karguan aitaren ordezkoa hartu baino lehen Torrestarren barrenatzailearen arabera). Gauzak konplikatu gabe gizon abilak zubirantz bideratu orde, hanka sartu zuen: jakinaren gainean zeudela jakinarazi zion. Zeinek ez zuen aintzakotzat hartuko errepublikarrek suntsitutako zubiaren aurriaren gainean berriaren inaugurazioaren albiste ematen zuen prentsa-oharra? Egunerokoa irakurtzerakoan, herritarrak zurtuta Ebroko harresirantz abiatu ziren, miraria ikusteko gogotsu.

Ezin zen besterik izan. Bestela, nola uler zitekeen egun batetik bestera tamainako obra bat egitea inortxok susmatu gabe? Alabaina, Jainkoak Estatuburuarekiko halako kuttuntasun berezia zeukala ematen zuen (gutxienez Lurreko bere ministroen iritziz, horrela aldarrikatzen baitzuten tenpluetako pulpituetatik), gauzarik bitxienek posible baitziruditen. Azken buru, potentzia zerutarrentzat, Ebro gaineko zubi baten eraikuntzak huskeria izango zen.

—Hori edozein aingerutxok —zioen Forques bikeztatzaileak, ozenki— gauzatzen du bere hegoaren kolpe ttiki batekin. Eskatu besterik ez dago: hemen nahi dut zubia, eta *alehop!* Agian hori ere ez, hara zer diotsuedan...

Etsipena garratza izan zen: hiritarrek aurreko gauean Ebron utzitako zutabe txikitu berberak aurkitu zituzten. Jende konformea —intsinuatzen zion botikariak militarri—, prentsaren akatsekin ulerkorra, errukiorra mintzaldi aingerutarrekin, ibaia transbordadorearekin gurutzatzen moldatu zen. Eta eskerrak. Baina, ofizialaren umore-senak ez zuen hainbestearaino ematen: segundo batzuen buruan haren hazpegiek hain sumin handia aditzera eramatera iritsi ziren, Honorat del Rom-ek bere burua botikariaren atean fusilatuta ikusi zuen. Izan ere argi baitago —oihukatu zuen tenienteak bandera-aretoko bataila ospetsu eta eskalafoiko txikikerien adur txar premonitoriarekin— botikaria ez zela Espainiako kaudilo Franco jeneralaren erregimen loriatsuaren obra itsustu ohi zuen gorri haietako bat. Nola nahi zion hain kalumnia zabar eta zekena irentsarazi? Prentsak gezurra esaten zuen, ez da? Zubia berregina erakusten zuten plano militarrek gezurretan ari ziren, eta gezurretan baita ere, noski, erregimentuko koronelaren aginduak, idatzi eta sinatuak eurak, hiriko zubia, makien gerrilei bidea eragoztearren, ixteko... A, baina tenientea ez zen ergela, bazekien gorri ezkutu eta setatiak nola tratatu, ohituta zegoen haiek menderatzen. Oraingo, bera eta tropa misioa betetzera zihoazen bitartean, botikariak atxilotutzat har zezakeen bere burua, zubian burdinsareak ipini ondoren itzuli eta egingo zituzten kontuak. Gutxika-gutxika, balkoiak, atariak eta leihoak jendez bete ziren botikariaren inguruan. Ofizialak alde egin zuenean, botikaria zaintzeko utzitako soldaduak, errekluta bat jakina, ez zekien zer egin, ez mosketoiarekin, ez atxilotuarekin. Gainera modu errukarrian egiten zuen eztula, eta Honorat botikara sartu zen xarabe baten bila. Botila luzatzen zion bitartean —“zopatarako goilara bat, sei orduro”— kamioia zarataz itzuli zen Forn Maldatik. Zentinelak jasotzeko behar zen denboran geratu zen; ofizialak ez zuen ez eta kabinako leihotxotik begiratu. Tarte baten ondoren, Honorat del Rom aske sentitu zen —askatasun beti erlatibo eta prekarioan, jakina— herrialdearen kartzela handian, eta tipi-tapa joan zen Estanislau Corberari zerbait azaltzera.

Bigarren aldian aguazila joan zitzaion atxilotzera, aski aldrebes, izan ere Honoratek botikak aurreratzen baitzizkion emazte gaixoarentzat, eta alkatearen presentziara eramane zuen. Botikariak zakarrontzira jaurti zituen lehen lau abisuak (azkena idatziz eta mehatxuzkoa), Gerra Zibilean hildako bando frankistako dozena bat hiritarren izenak zeramatzan marmolezko plaka eliz parrokiaren kokatutakoan gertatu zen gertakari bati buruzko galdera batzuk erantzuteko: zeremoniaren biharamunean— diskurtso inperial, bandera eta musika patriotikoz eginak bera— parte errepublikarreko laurogei bat izeneko zerrenda bat agertu zen Udaletxeko atean josita. Beltran doktoreak —alkate-makila jaso berria eta berak burutu zuen udalbatzarreko lehen batzarrean Franco jeneralaren kanonizazio-eskariarekiko zinegotzien atxikimendu suhartsua aklamazioz aprobaarazi zuenak— botikari jauna hain egitate larriaz salatzen zuen konfidente baten informazioa argitu nahi zuen. Kaleko tertuliek berandutu gabe hedatu zuten galdeketa, eta beti kostatu zitzairen hiritarrei botikariaren ohiko irudia, ironikoa eta lasaia, aguazilaren konfidentziak alkatearekin izandako elkarrizketari buruz marrazten zutenarekin lotzea. Honoratek ere muturrez kartzelara joateko falta izan zitzaion izpia, eta guardia zibilaren kolpeak

atean entzutea itxaroten beilan pasatutako gauak gogoratzean, bere-bereak ziren ohiko hotzikara erretrospektibo haietako bat sentitzen zuen. Gaztetasunaren odol beroa zen – tertulietan marmarrean– Beltran doktorea salatua izatetik errudun izatera zeraman itxaron gabeko paper-nahasketaren gakoa. Hastapenean aitakoia, familiaren antzinako adiskidea zelako etorkor, prakanasai hura bulegoko txoko batean makurtuta sentitu zen bat-batean, eperkume bat bezala dardarti eta gorri, gaztearen oldarra jasaten. Minutu gutxiren buruan, argitara atera zen gorotz zikina: salaketak, errepresaliak, atxiloketak, galdeketa eta jipoiak, erbesteratuen eskutitzak haustea, kartzeletan usteltzen zirenen emazte eta seme-alaben egoera, etab. ez aipatzearren. Medikuen haserrea apaltzeko Ferran osabaren saio zintzoen ordeztaroko txorakeriak, eta Moilako Kafetegiko jendailaren, nire koinatuaren sokako elementuen etsenplu txarra, Beltran adiskidea”– edo botikariaren amaren erreguen ordeztaridore laidoztuak afera pasatzen uzteko erabaki zuena Estanislau Corberaren burutazio bat izan zen: gaztearen kontra errepresaliak hartuz gero udal-mugetan zelatan ari ziren gerrilarien mendekuen abisu faltsua.

Hirugarren atxiloketa urte batzuk geroago gertatu zen, lignito-eskaria zela-eta hiria osterako oparotasun ekonomiko betean zegoenean: Romualdo López eta Ziriako Fernández guardia zibilek bezeroz beteta zegoen botikan ezustean sartu eta botikaria eraman zuten, bata zuria kentzeko denbora ere eman gabe. Erretoretzeko bulegoan, nora eraman zuten kalean pilatutako jendetzaren artean, mosen Ambròsek, gogortasun inkisitorialarekin, hain salaketa-sorta zabala hedatu zuen, ezen Estanislau Corberaren iritziz, atxiloketa hura, bat ordeztaridore hiru balira bezala zenbatu beharko litzateke. Alde batera utziz botikaria, ezkontza edo ehorzketetan izan ezik ez zela elizara hurbiltzen, hiriko gehien-gehien jarrera tradizionala bestalde, erretoreak igarri nahi zuen (“badakizu zeri buruz ari naizen, laztana: aldi behingo iruzkinak, konfidentziak...”), kafetegi, barberia, denda eta hiriko jendartearen beste zulo batzuetan –non arazorik gabe zalantzan jartzen ziren edo, labur esateko, hiriko elizan azken boladan gertaturiko mirariak erridikulizatzen ziren– klandestinoki zirkulatzen ziren erromantze baten autorearen identitateari buruz botikariak susmorik ba ote zeukan. Maite-maitearen ezezko eskandalizatuaren aurrean, azken finean bakar-bakarrik konposizioaren sarreraren erantzule (“Entzun, txiki eta nagusi, mirari anbrosiarren benetako erromantzea...”), serenoak, obraren aitzak alegia, hasiera aski pizgarria aurkitzea lortzen ez ziolako, abadeak jakin nahi zuen ia egiazkoak ziren herrialde osoa idortearan zigorrarekin zigortu eta kasurik egiten ez zuen Zeruaria euria erregutzeko ospatzen ziren prozesioen erabilgarritasunari buruz botikariari esleitutako esaldi “irreberenteak eta, auskalo, ondo begiratu, ilegal eta subertsiboak”. Euri-faltak, diktadorearen obsesioa bera, estu eta larri ipintzen zuten mosen Ambròs. Indar bizien tertulietan, kasinoko bere butaka kuttunean jesarrita, koinak zahar baten usain eta habano eder baten ke artean, galdetu besterik ez zuen egiten, harrituta, zein izan ote zitekeen zeruaren gogo gaiztoaren arrazoiak. Ez zuen aterabiderik ikusten. Gerra bat (gurutzada bat) egin zuten, sekulako sarraskia burutu zuten Jainkoaren izenean errepublikar, gorri, masoi eta separatisten kontura –zioen ebanjelikoki eklesiastikoak, sudur autoritarioaren, bulbo pikordun eta odolezkoaren, mugimendu gihartsuekin indartuz, non Honoratek erretoreak gotzain, edo auskalo, agian kardinal izateko aspirazioen egoitza kokatzen zuen–, Espainia zaharra, herexeen labea zurkaiztu zuten, eta, Zeruaren bedeinkazioaren ordeztaridore iraunkorra iristen zitzairen. Alorrek basamortu bihurtzen ziren, Estatuan zehar errogatibak egin arren. Aldiz (hauexek ziren abadearen hortzak karraskarazten zituzten Honorat del Rom-en iruzkinak), Frantzia errepublikar, Voltaire eta Rousseauaren aberri, erbestera, ateo eta andere lotsagabez mukuru –ai hanka erogarri haiek, Folies-Bergèrereko izter haiek, Lourdeserako peregrinazio baten estalkiz mosen Ambròsek ezkutuan eginiko bidaia unzioz kontenplatuak!–, Frantzia kaskarin hartan, kutsatu eta deabruzkoan, euri-jasa oparoak izan ohi ziren, prozesio zipitzik egin beharrik gabe...

Esperientziak ohartarazita, botikariak hain iruzkin arriskutsuen autoretza ukatu zuen, arazorik gabe maledizentziari egotzi zion eta jarrera berbera mantendu zuen Manolet de Ribess Ham kalezuloko gozogileari buruzko galdera ekidinezinari buruz: “azken buru, beste kalumnia bat”. Noren burutik pasa ahal zen berak eta gozogileak, serenoaren kolaborazio intsinnatuarekin, gau oso bat pasatu zutela okindegian ogia egiten, bezeroek biharamunean errazionamenduko ogi gogaikarriaren zatiak figura estranbotiko bihurtuta jaso zituzten: kareta, arrainak, unxiak, alberginiak, karpak, zaldiak, unziak, oiloak, dragoiak edo kuiak? Botikariaren harridura-itxura birtuosismora iritsi zen abadeak idazmahaiko tiradera ireki eta ogizko falo erraldoi bat atera zuelarik, zeinari azaleko lizun berdetsuak brontze zaharraren patina noblea ematen zion, esan zuenean falo lubriko eta perbertsoa aipatutako beste figurekin, ogi-opil, barra eta bagettekin batera egosia eta saldua izan zela. Ezuste eskandalizatuaren plantak egiten zituztelarik, faloak labetik abadearen eskuetara egindako bidaiarekin olgatu zen botikaria. Okindegiko otarren artean, beste asmamen eskultorikoen artean, eurak deskubritzen ari ziren bitartean, emakumezko bezeroengan barreak eta komentario zapoetsuak probokatu zituzten hogeinaka ogi-mota luzetik, huraxe zen salduz geroztik ezagutzen zuen bakarra. Azkenean, Honoratek, konturatzean ez zuela lortuko aurrean zeukanari ziria sartzerik, eta gozogilearen zein Horaci Planesen zorteaz bereaz baino gehiago kezkatutik, hiriko zaindariaren aldare berriari laguntzeko (azken sermoiaz geroztik abian zegoen miraria) dohaintza dezentea intsinnatu zuenean, erretorea, bere erretolika eta faloa astintzeari utzi, harrera-gelan zain zeuden guardia zibilei agur esan, neskameari (zeinak denbora joan ahala gero eta okerrago eusten zion Folieseko behokekin konparatua izatea) kafea zerbitzarazi eta tokiko futbol-taldeari buruz mintzatzen hasi zen –“Jainkoarren, halako astakiloak!”– Jainkoaren erremedioren bat gabe gainbehera baitzihon.

Laugarren atxilotetaren arrazoiak, Aspirinaren Matxinada ere deitua, Marinako teniente batekin ordezkatu zuen maitale batekin botikariak izandako liskar definitiboa izan zen. Honoratek ron gehiegi edan zuen bere ohituraren kontra, eta, azkenean, inaugurazio ofizialeko data baino hamar urteko atzerapenarekin egin zen Ebroko zubiaren petril gainean zutik, aspirinaren erreumatismoaren tratamenduan zeuzkan bertuteei buruzko defentsa amorratua egin zuen. Diskurtsoaren terminologia kimiko zailen estalkipean, guardia zibilaren konfidente batek alusio antifrankistak eta kontsigna ezkutatuak harrapatu zituen, meatze-arroko greba orokorrerako gonbidapenekin batera. Salatzailearen hutsak huts (“azido azetilsalizilikoa botika bat da, astakirten hori, eta ez agente komunista bat”, irakasten zion sarjentoak espioari, alferrikakoa izateagatik kasernara kondenatzen zuelarik), botikaria probintziako gobernadore zibilaren baimenik gabe diskurtso bat egiteagatik atxilotua eta isunpean jarria izan zen.

Kafeteroak atxilotze erditzat jotzen zuena, gertatu zen, tokiko komandanteak –guardia guztiak bezala bera ere oheratua gripe-eraso baten kontura– botikaria eta Joanet del Pla Jaume de Torresen sepelioan izandako gertakariei buruz galdekatuak izateko, eskura zeukan elementu bakarra, Bernardino kaporalak alegia, botikaria harrapatzera bidali zuenean. Kaporalak, arrastatzearen berri eman zionean, konortea galdu zuen ahuleziaz botikan. Zentzumenak errekupeatu eta gerrerraren poltsikoan indargarri bat ipinita, botikariak berak eramane zuen moilara peoia atxilotzera. Bien artean eramane zuten guardia kasernara.

1971ko udazkenean urte asko paseak ziren Bernardino guardia zibilaren konorte-galtzetik, zeina Honoraten atxilotze erditik hilabate gutxitara oso tuberkulosi azkar batek eramane zuen. Denbora instant batean joana zen Estanislau Corberarentzat, hura bere oroitzapenetan finkatu nahian zebilelarik; hiriaren suntsipenean amaitzen zen prozesuak erabat betetzen zuen

lehenaldia, hura baino lehen soilik hutsa egon izan balitz bezala. Apenas inor geratzen zen etxeetan, haiek makinei eskaintzeko zain zeuden azken auzoak izan ezik. Kafeteroak, mostradore gainean bermatuta, garrazki begiesten zuen establezimendua, inguratzen zuten hondakinetara laster gehituko zena. Nelsonen ahotsak eten zituen bere pentsamenduak.

—Bilatu beste kide bat —esan zion ibai-ontziaren gidariari—, gaur ezin naiz partidara geratu. Lan pixka bat daukat.

Malenkoniaz behatu zuen. Oso ongi zekien nora zihoan nahiz eta patroiak inoiz ez esan. Pentsakor, begiekin jarraitu zion leihoen artetik, irudia kale-kantoian galtzeko zorian zegoela hautsaldi batek difuminatu zuen arte. Elizako plazaren bestaldean guardia zibilaren bikote bat azaldu zen.

—Betiko erronda. Ez dadila gertatu guk iraultza abiatzea haiei haren berri eman gabe —marmartu zuen kafetegiko atera hurbiltzen zirela ikustean. Ez zitzaion bururatu botikariaren bosgarren eta erdiko atxiloketa ikustera zihoala.

Begiak zimurtu zituen hautsagatik, ez zen ohartu guardia zibilek, kapote berdatsak haizeak astinduta, trikornio beltz txarolatu eutsiz, plaza gurutzatzen zutela. Kafeteroaren begiradaren ironia ttikiak mintzen zuen, ron-kopa kobratzen zionean. Estanislauk arrazoa zeukan askoz lehenago intsinuatu zionean hobe litzatekeela ahaztea, gainean lau palakada lur botatzea: ez zeukan erremediorik, burutik ahalik eta lehen kendu, hobeto. Baina Nelson zaharrak ezin zuen etsi. Burumakur, Errepideen Maldara iritsi eta aurrez-aurre kolpean egin zuen topo desolazioarekin.

Suntsiketen hasieraz geroztik, ia konturatu gabe, bere mugimenduak urritu zituen hiriaren perimetro barruan. Ihes egiten zuen eraispenak aurreratuen zeuden puntuetatik; ohiko ibilbidetik urrunduz gero, bihotza uzkuritu egiten zitzaion. Zoritzarrez, Moilako Kafetegitik bastaginaren obradorerainoko bidea lepra geraezin hark kontsumituetako bat zen.

Bastagilearen etxera iritsi, behar zuena hartu, langilearekin ohiko berriketaldia egin —hamar urtez geroztik denen obsesioa zen betiko gaiaz— eta itzuli egin zen. Jaitsieran, gaiztakeria ikusteak erabat txunditu zuen. Inorekin topo egin gabe zihoan, isiltasun zamatsuak lur-jota. Memoriak ekidinezinez birpopulatzen zituen aurriak, eroritako etxeak oster a jaso, errepideak trazatu, plazak berregin, jendea itzultzen zuen, baina Nelson zaharra ohartzen zen oroitzapenak ez ziola bete-betean erantzuten. Hainbeste hondamendi nahasgarri zitzaion. Pentsamenduarekin berregiten zuen hiria ez zen lehenengoa. Toki erratuetan batzen zituen familiak, totxo-pilekin, biga hautsiekin, ate eta leihoetako, balkoietako marko apurtuekin edo galerietako burdinekin galtzen zuen bidea. Etxe eta establezimenduetako errotuluak nahasten zituen: ultramarinoen denda bat jostundegi bihurtzen zuen, upategi bat barberia; otargileen obradore bat bankuko bulego egiten zuen edo Timó kaleko olio-erota zaharra Gazteluko Igoerako arropa-denda barruan kokatzen zuen. Eraikinen ubikazioa bezainbeste garai batean ohiko zarata —eguerdiko sirenek erdibituta, hura ere hilabete asko isildua— berbizi eta kokatzea kostatzen zitzaion (oilarren kukurrukua, errementarien mailukadak, kanpai-hotsak, gurdien errodatzea, zaldien pasea, traktore eta ikatzeko kamioien motoreak, nabigatzaileen zalaparta moilan, merkatuko buila, meatzeetako barrenoak). Ez zituen aurrerantzean entzungo. Haren gabeziak ematen zion hiria ezustean harrapatu zuen gainbeheraren eta bere magnitudearen hasieraren tamaina.

Lehen zurrumurruek zalaparta pixka bat sortu zuten —gogoratzen zuen agureak, Harresi kaleko hondamenen gainean geldi—, baina inork ez zituen seriotan hartu: ondoriorik gabeko udako trumoikada. Hilabete batzuetan aipatuko ziren, behinola beste inoiz aipatu ziren bezala, soinu pixka bat egingo zen, eta zalaparta oster a bigunduko zen, hurrengo susperraldiaren arte. Baina, orduko hartan predikzioa faltsua izan zen. Zurrumurruek tematiak ziren, egunkariak hartaz mintzatzen hasi ziren, urduritasuna hazi egin zen eta, mundu guztiaren harriduraz, 1957ko inauterietako egun batean, dantza eta kalejiren artean, inbasioa hasi zen.

Kanpotarrez kargaturiko kamioiak Lleidako errepidetik iritsi ziren, motore potenteek festaren buila isildu zuten eta aurpegi asko izutu ziren maskaren atzean. Ibilgailuak ez ziren hirian gelditu;

kilometro pare bat aurrerago joan ziren, Ebron gora, Riberren bidetik, baina haien paseak artegasun-arrasto bat utzi zuen. Maskarak sakabanatu egin ziren eta, ontzien adar melankolikoak, moiletako ur lainotuetatik harag, kaioen txilioz nahastuta gelditu gabe jotzen egon ziren egun lanbrotsu bati jarraitu zion belztasun hezea hiriaren etorkizuna mugaz markatuko zuen gauetako lehena izan zen.

Egunetan eta egunetan iritsi ziren kamioiak; Ebroko hormak dar-dar egin zuen haiek pasatzean. Amaitua zen zurrumurruen garaia: Ebro egundoko bi pantanoekin moztera zihoazen. Haietako bat, ibaian gora, hiritik hurbil; bestea uretan behera, Riba-rojan. Bigarrenak urpean utziko zituen Faió eta hiria.

Hondamendia gogoratzen zuen: makinak eta jendea baimenik gabe sartzten ziren finketan; topografoak udalerrian sakabanatzen ziren beren lanabesekin, kotak neurtu eta planoak altxatzen zituzten; langileek aurretiaz egindako egurrezko barrakak muntatzen zituzten Ebroren ur-bazterrean ezkutatzeko, etsipena sortu eta edozein erresistentzia-saio ekiditeko kalkulatu izan zen agresio bortizetik jendea defendatzen zen bitartean.

—Elektrizitatea ekoiztu nahi dute —zioen Joanet del Pla Moilako Kafetegian, hiriaren edozein tokitan etengabe lehertzen ziren komentarioak azpimarratuz.

—Bai, gure bizkar...

—Bi pantano.

—Eta gu, tartean.

—Halako zerrikeria!

Hura ilegala zen, marmartzen zuen Forques bikeztatzaileak amorruez, hiritarrek administrazioaren aurrean behin eta berriro hondamenaren paralizazioa lortzeko alferrik egindako kexak erabiliz: gobernuak oraindik ez zituen obrak baimendu. Estanislau Corberak arrazoa ematen zion orduz geroztik jasango zituen insomnio luzeetan. Baina zanpatu egingo zituzten, ez zeukaten erremediorik. Pantanoak eraikitzen zituen enpresa Estatuarena berarena zen, agintzen zutenena. Eta agintzen zutenak, memoria egin beharrik ez zegoen, 1936an Errepublikaren aurka matxinatutakoak ziren, gerraren hilkintzaren erantzuleak... Nor ausartzen zen legalitatez mintzatzen? Kafetegiko mahaia angustiek topo egiten zuten harri-lubeta zen: lurrak, meatzeak, etxeak desjabetuko zituzten; hiria urperatuko zuten... Eta jarraian galdera sortzen zen: zein izango zen guztien etorkizuna? Nora joango ziren? Zer egingo zuten? Baina, zergatik kezkatu, zergatik antsia pasa? Ez al zuen probintziako gobernadore zibilak hitzez hitz esan potroak beteta zeuzkala gorri-saldo haren protestekin eta, xaxatzeari ez uztera, pistola-muturrez kamioietan igo eta iparrera eramango zituela, Asturiasko meatzetan lan egitera? Horaci Planesek zioen moduan, zeinak bere sereno-zeregina zela-eta insomnioak egunez jasaten zituen, soluzioa funtzionario ilustrera potro txit agurgarriak (usokumearenak, galeperrarenak, txolarrearenak, zozoarenak?, jendeak, zalantzan) hustu arte pixka bat xaxatzean zegoen, eta mehatxua egia bihurtu zen. Gutxienez zerbait ziurra jakingo zuten, ez ziren ziurgabetasun hartan biziko, hura bizitza izatekotan... Bitartean hiria jendez hanpatzen zen. Inbasioaren lehen uhinaldia ez zen hiriak hura xurgatzeko zeuzkan posibilitateak gaingiditzen zuen egundoko etorriaren aurrerakuntza besterik. 14ko gerra garaian meatze-arroan izandako jendetza gogoratzen zutenek ere ez zuten antzeko ezer ikusi, halako jendalde handia. Gehienak, diru batzuk batu eta familietara bidaltzera edonondik etorritako jende pobreen masa patetikoa:

Moilako Kafetegiko eta hiriko beste taberna batzuetako mahaian hainbat hazpegi batu eta Estatuko txoko guztietako mintzairak entzuten ziren. Ate bakoitza denda, taberna edo jatetxe bihurtu zen. Dirua egon bazegoen, baina –Estanislau Corberak bere insomnio amorragarrietan marmartzen zuen bezala– bezeria ugaritu arren hura aberastasun traidorea zen, oparotasun efimeroa, zeinaren berotasunean, ustelkeriaren zomorroa ugaltzen zen.

Ez zuten susmatzen gehienak zahartu egingo zirela, asko oraindik ariman angustia harekin hilko zirela; ez zuten susmatzen borroka ziurgabeko hamahiru urte zeuzkatela begien aurrean, arratoi-zulo hartan harrapatuta. Estanislauk ez zekien insomniozko hamaikatxo urte zeuzkala, hausnartu eta hiriak –jarraikor bere erresistentzian— hierarkia estatal osoaren barrabil-poltsak, probintziako gobernadore zibilarenetik hasita, berotzea lortu zuen gurutzebidearen mugarri garratzak bere memorian asentatzeko: funtzionario zorrizto eta zurbil sitsatsu, politikastro teknokrata eta beatoenak ur bedeinkatuan bigunduak; sable odoleztatuen alkoholoz bustiak; txanponetan erretrataturako Jainkoaren aukeratuaren momifikatuak, azalean esbastika batekin josiak... Bide luzea desolaziorantz, Nelsonek 1971ko goiz hartan Arimen kalezuloatik jaisten zen bitartean gurutzatzen ari zena.

—Atxilotuta daramate botikari jauna! —oihukatu zuen Teresak, Honorat del Rom Armen plazan bi guardia zibilen artean ikustean.

Carmelak ez zion entzun. Besteak Birjina Martirien Aretoko leihoak garbitzen zituen bitartean, berak aulkiak igurzten zituen, hautsaren aurkako borroka ernegagarri eta antzuarekin lanpetuta. 1970ean aretoan lehen suntsiketaren hauts-jasa sartu zenez geroztik, ezinezkoa zen gauzak aurreko distirara bihurtzea; denboraren poderioz, hautsa behin-betiko inkrustatzen joaten zen, azal mineraleko harri bihurtzen, hasieran hauskorra eta egunaren egunez kontsolidatua, mendeetan zehar hiria lutoz jantzi zuten lignito-partikulak bezainbeste suntsiezin bihurtu arte, itsaskor. Carmela haserretu egiten zen garbiketaren inefikaziaren aurrean, baina arratsalde hartan ez zebilen marmarti. Ausente zegoen, burumakur; hurbiltzen ari ziren gertakariak aurreikusten zituen, nonbait.

Aurrerago, zerbitzari zaharrak mikaztasunez ebokatzen zuenean botikariaren bosgarren eta erdi atxilotetaren arratsalde berberean etxaldearen gainean jausitako kaltea, hondamendiaren sustrai sakonak beti denboran oso urrun aurkitzen zituen, exaktoki inauterietako buila ilundu zuten kamioi kanpotarrak iritsi ziren 1957ko egun madarikatuan. Etorkizunarekiko mehatxua alde batera, inbasioa emakumeak etorri berriei buruz zeukan harrokeriaren gainean jotako lehen kolpea izan zen, zeinak, etorri berriak noski, ez ziren Ebro alboan izurritea bezala jausi ziren langile-saldoak —“miserable eta zorritzak”, Albera anderearen hitzetan—. Anderea haiei buruz mintzatzen zenean, buruzagiei buruz ari zen, batik bat ingeniariak, zeinen atzean, etorkortasunez eta urruntasunez, enpresa hidroelektrikoaren zuzendari-taldeko beste pertsonaia batzuk (aparejadoreak, abokatuak eta teknikoak) kokatzen zituen. Ez al zen beharrian bat, gutxienez kortesiazkoa, hiriko jauntxoei bisita egitea (gutxienez garrantzitsuenei, eta izendatu beharrik ez zegoen, argi gera zedin ohorea eztabaidarik gabe Torres i Campstarrei zegokiela), hiriko indar biziak ziren heinean beren proiektuei buruz informatzeko? Familia handiek ezin zuten edozein umegorrik bezainbesteko traturik jaso... Berak harrotasun-kontuengatik jaramonik egiten ez zien hiritarren borroka amorratuen gainetik, enkontru-puntu bat egon behar zuen, jauntxoen arteko ulermen bat. Baina jende hark ez zuen sekula horrelako zerbait egiteko molestiarik hartu eta, urteak pasa ahala, etorkizunari buruzko problema larriagoa egin ahala, anderearen ahotan “jendilaje”, “txusma” eta azkenean “jendaila patibulario” bihurtu ziren, ingeniariengandik hasi eta azken peoirengana arte.

—Basati batzuk dira —esan ohi zuen aldaketarik gabe Estefania d’Alberak, hipokrita galanta bera, gaia askari-orduan ateratzen bazen.

—Kafre batzuk —Teresa Solanese, errematatuz.

—Urde batzuk —Nàsia Palauren iritziz.

—Bada... bada... —Isadora Rubiók, zalantzan, kalifikatzaile kontundente, suntsigarri baten bila, beti berbera hautatu eta sumin-kolpe batekin bota baino lehen—: sobietar batzuk!.

Enpresa hidroelektrikoekin lehen tirabirak gertatu zirenean Torres etxeko olibondoen lur-sail batzuen okupazio ilegalagatik, anderea gaixotu egin zen. Inor ez zen saiatu hondamenari buruz desenkusak eman eta gertakaria etxalderaino omenaldia jasotzera joateko baliatu. Kalteengatik indemnizatu eta kitto egin zuten. Oihu, laido, protesta, madarikazio egin zuen, baina abusuagatik Madrileko ministerio batean kokaturiko nebengana jo zuenean, erantzuna argia izan zen: hobe alde batera uztea hari aurre egiteko ideia. Galtzekoa zeukan, moldatu beste alternatibarik ez zeukan. Hurrengo urteetan jaso eta Carmelak, maiz, biagotik, hau da eguneko momenturik depresiboenetik, jaiki eta entzun behar zituen ofentsa-sail barkaezinen artetik bigarrena izan zen. Andereak ez bazion ganbarako atean jotako bigarren deia erantzuten eta esanetara sartu behar bazuen, Carmelak bazekien enpresa hidroelektrikoaren aurkako, Estatuaren aurkako –zertarako balio izan zuen orduan gerra irabazteak?– eta oro har hiriaren aurkako, batik bat jauntxoaren aurkako, filipika baten ikusle izan behar zuela. Zeren, Rodako Kasinoko kideen ohiko duintasun laidoztuari buruzko deklarazioak deklarazio (“hau da, interes lesionatuei buruzkoak”, argitzen zuen Estanislau Corberak) eta kanpotarren inbasioaren aurrean harro jaurtitzen zituzten erresistentzia-asmoak asmo, berehala hasi ziren ospetsuen amore-emateak. Eta Carmelak, pazientziaz kargaturik, enegarren aldiz entzuten zuen enpresako kargudun baten aldetik Móratarren etxera afaltzera gonbidatu izanaren historia (zeinekin anderearen harremana aski hoztu zen, Hipòliten heriotzaz geroztik hoztasun polarretara iritsi arte); beste halako batena, Serratarren etxera bazkaltzera, edo Torrestarren iloba baten anaiarte lotsabakoa obretako aparejadore batekin. Pantano-eraikuntzaren urte obsesiboetan barrena, Carmelak pausoz pauso jarraitu zituen, filipiken bitartez, meatzeen krisiak punturik beltzena markatu zuen gainbeheraren etapak.

Afera hartako erreferentziak aita zenduaren oroitzapena izan ohi zuen aurretik: egunez egun, ebokazioaz ebokazio, Carmelaren isiltasun ulerkorren aurrean, Jaume de Torres jauna hobetzen zihoan alabaren ahotan. Poliki-poliki, andereak defektuz gabetzen zuen eta, sublimazio-prozesuaren bukaeran, ez aretoan esekitako Aleix de Segarraren koadro handiaren lekukotza, ez bulegoan enmarkaturiko argazkiak ziren oztopo, zendua Adonis bezala deskribatzeko orduan zalantzarik sortzeko. Ez amarruak, negozio zikinak edo urdangaren gona-kontuak ere (ilehori lleidatarraren haurduntza, zein inmoralitate publikoz salatzen amaitu zuen, kalonjearekin erdibana, belarrietara iritsi zitzaion azken atala izan zen) ez ziren aski aita defuntuaren gotortasun moralean zalantzak sortzeko.

—Goitik behera zaldun bat zen —zioen Estefania d’Alberak betari jarraitzearen, txokolate-goilarakadaren eta intziri nostalgiko baten artean, alarguna ez harrapatu izanaren dezepzio zaharra disimulatuz.

—Ar liluragarria —ziurtatzen zuen, ausart, Teresa Solanasek.

—Intendentziako jenerala —Nàsia Palauk, gerra-garaiez geroztik maitale moduan gorputz hartako kapitain bat izan zuelarik, adorazio ia sakrilegoa sentitzen baitzuen armada hornitzeko zerbitzuari zegokionez.

—Bada... bada... —Isadora Rubiók, beti bezala zalantzakor, erabaki bat hartu eta, txundituta, halakoa bota baino lehen—: Rodolfo Valentino bat.

Alabaina, aretoko hitzontziek apaintzen zuten fakultateen betetasunean berpiztu izan balitz ere, bertute-eredu hark ezin izango zuen ezer egin arroko dekadentzia mozteko. Pantanoen mehatxua meatzeak itotzen hasi zen krisiari gehitzen zitzaion, hark, panteoi familiarreko nitxo batean —amaginarrebaren eta jeneral-andrearen artean, kanposantuko altzifre malenkolikoen abaroan— urtebete baino gehiagoz betiko atsedenez gozatzen zuelarik, ondo merezita bere

ehorzketa gorabeheratsuaren ondoren. Olio beltz eta gogaikarri hura zen kausa —zioen Graellsek ahots kraskatuz—, petrolioaren mundua erremediorik gabe hankaz gora jartzen hasten zena. Beste erregaiaren abantailen eta prezio baxuaren aurrean industriek bazterrean uzten zuten ikatza, eskariak urritu egiten ziren, enpresarioen artean orokorra zen alarma. Lehenagoko krisietan bezala, meatzetako plazak saldu gabeko mineralez betetzen hasten ziren. Aukera baliatuz, enpresa hidroelektrikoaren presioak haiek desjabetzeko berrindartzen ari ziren.

—Azken kartutxora arte eutsiko diot! —esan zuen heroikoki Iluminat Móra Hipòlit zorigaitzokoaren anaiak, Rodako Kasinoan bi ordu baino lehenago bere meatzearen salmenta sinatu eta Paraleloko korista pekatsu batekin Bartzelonara bizitzera joan aurretik, zeinak Rambletako txori-saltzaile batekin hari adarrak ipintzen bukatuko zuen.

Orduz geroztik, Graellstarren insistentzia gaiaren gainean berebizikoa izan zen. Ia arratsaldero, andereen askari ondoren, administratzailea —jada adindua, karkasa ajetsua besterik ez baina buru argitsukoa— etxaldera joan eta Carmelak eten egiten zituen andereak, pairugabe eta zakar, bere butaka kuttunean jesarrita entzuten zituen monologoak.

Hark ez zeukan erremediorik, hasten zen beti konfiantzazko gizona, erantsi baino lehen —zitzadarekin anderea laketzen zuen jakitun—, mosen Ambròsen miraririk ere konponduko ez zuena: arroa betiko hondoratzen zen. Inozo batzuk bezala pentsatzea —arabiarren eta juduen arteko gerrak petrolioaren hornikuntzan eragina izan eta ikatzaren suspertzea ekar zezakeela— hautsa hartzea bezalakoa zen. Kimera hura gauzatuko balitz ere, beste eragozpen bat zegoen, zeinaren aurka aldeztu aurretik galduta zegoen gerra: Torres i Campstarren meatzeak, arroko gehienak bezala, urpetzeko pentsatuta zegoen mailatik behean zeuden. Lehenago edo geroago, desjabetuak izango ziren. Itxarroteak, defendatzen tematutako nahi eroekin erresistitzeak, bukaezinezko agonia luzatzeko besterik ez zuen balio izango, eta, are okerrago, diru asko galtzeko. Zertara zeraman etsai garaitezinen aurka oldartzea? Zer zioten, gainera, anderearen nebek, arrautzaren gorringoan sartuta? Enpresa estatualaren aurrean amore emateak heriotza motel eta hondatzailetik libratzen zituen. Graellsek berehala gehitzen zuen, partsimonia deliberatuarekin, saltzea erabaki zutenen zerrenda gero eta luzeagoa, ixten zuten jabeen kopurua —nahiz eta ez beti Iluminat Móra bezain heroikoki—, indemnizazioa hartu eta hiriburura joaten zena, hiri kutsatutik ihes.

Irekita apenas bizpahiru meatze geratzen ziren, gehi bereak eta Sallers alargunarenak, andereak amore eman zuenean, Graellsen iragarpen txarraren errepikapenak eraginda, seme nagusiaren erreguek bigunduta, zeinarekin, kuttunena izanik, konpotxoan egoteaz gain, bisita bakan, eskutitz eta dei telefonikoen bidez hura konbentzitzen laguntzen zuen.

Meatzeen salmenta-egunean, Carmelaren iritziz etorkizunean krisia eragingo zuen zeden ikusezina pozoitzea ekarri zuen atsekaberik handiena hartu zuen andereak, botikariaren azken atxiloketarekin kointzidituz. Etxaldera itzuli zenean, Carlota de Torres i Camps ez zen neskameak armairuko jantzi dotoreenarekin, makilaje arduratsua eta Creus kaleko ileapaintzailearen presentzia, hiriko onena, exigitu ondoren, apaintzen lagundu zuen berbera. Egitatearen ondoren, aste beteko isiltasuna egon zen: Graelles bera ere ez zen etxaldera hurbiltzen, eta telefonoa mutu geratu zen; seme nagusia ere desagertu egin zen azken garaitako temaren xedea lortu ondoren. Isiltasuna pasata aurrekoak baino filipika garratzagoa lehertu zen, eta neskamea, beldurturik, goiz hartan anderea irenstera iritsi zen behazun-kantitateaz jabetu zen.

Graellsen iritziaren kontrara, meatzeak azken aldiz ikusten tematu zen enpresa hidroelektrikoaren bulegoetara joan baino lehen salmentako dokumentuak sinatzera, eta andereak administratzailearen aholkuaren sena inoiz onartu ez zuen arren, lehen meatzera egin bisita eta besteetara joateko ukoa kontatzen zuen tonuak Carmelari ulertarazten zion azeri zaharra ez entzun izana deitoratzen zuela.

Autotik jaistean, Graells eta Nicomendes Taverner familiako notarioa alde banatan, ostera agertu zen bere gogoan aitaren irudia, omnipresentea, ia obsesiboa. Zer esan ote zuen aita malapartatuak orduan betiko hildako meatzearen ikuskizun ezabagarriaren aurrean? Galeria nagusiaren ahotik bertatik burgoi pasiatzen zen arren, non bagoiak, ibairaino, beren karriletan geldi zeuden, *Carlota II.a* ikusteak kolpatu egin zuen. Itxieraren albisteak, egun batzuk lehenago langileei komunikatua hain juxtu, lana bat-batean gelditzea ekarri zuen eta ontzia erdi kargatuta agertu zen Ebroko zamaketa-ahoetan.

—Eraman ezazu oraintxe bertan hiriko moiletara —agindu zuen Graellsek lehor—. Ez dut hemen geratzerik nahi.

Oroitzapenak etorri egiten ziren, amorratu egiten ziren berarekin. Bat-batean, gainerakoen despido ondoren meatzean motor bat desmuntatzeko kapataz baten aginduetara geratzen ziren hiru langile bakarren begien ziztada sentitu zuen. Dar-dar egin zuen. 1925ean, Faióko bidean grebalarien taldeak gurutzatzen zituen bitartean larritu zuten begirada berberak ziren. Baina orain ez zuen alboan Francesc Romagueraren presentzia sentitzen. Denboraren zurrunbiloak nahastu egin zuen: Faióko tren-geltokiko enkontrua berpiztu zuen, bidaia, gau erogarriak, kaleetan grebalarien masa ilunak guardia zibilei aurre egiten zion bitartean.

—Anderea...

Graellsen ahotsak, bideko karrilekin kontu handiz ibil zedin adieraziz, ebokazioa moztu zuen. Ezin izan zuen lignito-meta artean, tumulu beltzak meatzearen zabalguneko kanposantuan, denbora berpiztuaren naufragioak uzten zion hutsunea jasan.

—Goazen!

Administratzailearen artrosiak ahalbidetzen zuen arintasun erlatiboarekin automobilera arte atzeratu eta txoferrari, Graellsen seme nagusia bera, hirira itzultzeko agindua eman zion. Baina goiza ez zen amaitu. Meatzea bisitatzeak deprimitu bazuen, enpresa hidroelektrikoko bulegoetan paperak sinatzea umiliazio ia gaindiezina gertatu zitzaion. Lehenik, ez zuten berehala hartu. Gela batean, enpresako makinek inbaditutako finka txiki bati buruz erreklamatzera joandako Salleres alargunaren marinel baten alboan. Zorritzot hura pasa zen lehenik, eta azkenean bulegora sarrarazi zituztenean, han ez zegoen ezein ingeniari harrera egiteko; soilik abokatua, konturatu ere egin ez zena bere aurrean Carlota de Torres i Camps anderea zeukala. Auzilariak edukaziotz agurtu besterik ez zuen egin (eta hura bi aldiz sumingarria izan zen, deabruaren ipurtzulotik pasatzeko atsegina kendu ziolako), paperak notarioari konproba zitzan luzatu eta, berari, andereari, sinatzeko tokiak seinlatu zizkion. Irteteen gogoratu zien —hirugarren harramazkada— meatzetako jabea izateari utzi arren, instalazioak eraitsi eta edozer probestu zezakeela: enpresa hidroelektrikoak ez zituen ezertarako nahi. Sakonki atsekabetuta, notarioa eta Graells diru-kontuak kitatu behar zituzten banku-sukurtsalaren atean utzi eta etxaldean ixtera joan zen. Birjina Martiren Aretotik *Carlota II.aren* etorrera ikusi zuen, Ebroren urak, uholdeagatik oraindik gorritu eta arreak, gurutzatuz. Agindu zuen bezala, Plazako moilara eramane zuten eta han, 1939an uretaratzea— zeinetik andereak

buila eta musika gogoratzen zituen— gertatu zen tokian, estekatu egin zuten, heriotza itxaron zezan.

Orduz geroztik, Armen plazako etxearen eta hiriaren arteko urruntasuna modu progresiboan azaldu zen. Neskameak sintomak disimulatzeke egindako esfortzuak gorabehera —adibidez fruta- eta ehiza-igalien zein gizonen bisiten urritze nabarmena—, bazegoen aldaketaren adierazle errukigabea, zeinaren aurrean Carmelaren ezkutatzeko ahaleginak alferrikakoak suertatzen ziren: Jaume de Torres jaunaren urteurrenetako hiletak. Urterik urte urritzen zen jendea. Eliza lepo egotetik —gizon ospetsu guztiak bertan zirela eta mosen Ambròs jaun eta jabe izanik, argizaria eta intzentsua xahutuz, esekiak kantatzean hustuz Torres familiaren faborea berreskuratzeko gogoz— azken hiletaren eskastasunera iritsi ziren, zeinean, eurak kenduta, anderea eta neskamea, Moilako Kafetegiko bezeroen artean oroitzapenak eta iruzkinak askatu zituzten ziertzo-kolpeak zurituta, dozena bat lagun besterik ez ziren etorri, apenas igartzen ez zen taldea tenpluaren handitasunean, *Internazionalak* biziaturako harmoniumak handiagotzen zuena, alboko nabeak tumuluaren zuzien galdutako islaren batek kandelarioen zilarra distirarazi edo zamauen zuritasun zimelduak berpizten zuten erresonantzia bezet. Carmelak ez zuen argumenturik topatu anderearen sumina biguntzeko: tenpluko atean doluminak jaso ondoren, segizio eskasa kezkatzeko moiletatik etorritako ziertzo madarikatuaren erasoaren artean, etxean itxi, akidura-egoeratan erori eta migraina erogarrietan gero eta maizago jausten hasi zen. Egunero igotzen zen ganbarara, ordu luzeak kontsumitzen zituen *Carlota II.a* hautsak zuritutako lignito-karga eta guzti kontenplazten, edo etxaldearen inguruan desegiten ari zen hiria begiesten. Aurrien artean oraindik ateratzen ziren eraikin gehienak bereak ziren. Bolada hartan ez Graellsen insidiak, ez eskutitzak, ez telefono-deiak ez ziren ezertan baliagarriak. Hiria Castell mendizerraren bestaldean hazten ari zen herri berrirantz husten zihoan bitartean, berak hondamenearen artean jarraitzen zuen, meatzeak saldu zituen bezala etxeak saltzeko iradokizunen aurrean luzamendutan ari zen.

—Ez datoz... —marmartzen zuen maiz, garrazki—. Ez datoz...

Hitz haiek Carmela intrigatzen zuten, zeinak, urteurrenez geroztik, arratsalde hartan bertan baiesten asko luzatuko ez zen bihozkada txar bat zeukan, botikariaren bosgarren eta erdiaren atxilotetarena.

Sumin-erasoa baretzen zenean, Nelsonek, ibaiak madarikatzeagatik —“idor zaitezela!”— damutu, eta samurtasunez eta beldurrez nahasturik, jaurti berri zien biraoa erretiratzeko. Askotan haserretu egiten zen, kaltearen errudun kontsideratzen zituen, ez eusteagatik, hiria ez defendatzeagatik errudun. Hasieran, lehen pantanoarekin, hiritik uretan gora, kanpotarrak Ebro moztetik hasi ziren garaian, ibaia ez zela ez menderatzen ez baltsa mortu bihurtzen utziko esperantza sekretua egosi zuen patrioiak. Nola zen posible hura garaitzea, umiliatzea? Edozein unetan uholdea jaurtikiko zuen obren kontra, suntsitu eta, instalazioak, makinak eta langileak itsasora jaurtikiko zituen. Urteak joan urteak etorri amestu zuen Nelsonek, eraikuntza handian ogia irabazten zuen jende errugabeagatik desioaren errudun sentitzeraino. Orduan hondamendia obretan inor ez egoteko momentura mugatzen zuen, baina lanak ez ziren geratzen egundoko inurritegian. Oso uhaldi handiak izan ziren, Ebrok batzuetan kalte beldurgarriak eragin zituen: horma, zementu eta burdinazko masa erraldoia ibarraren alde banatako mendi-zerretan itsatsita, onik mantentzen zen. Ia egunero hazten ikusten zuen ontzigidariak, *Verge del Carmerekin* alargunaren meatzera lignittoa kargatzera zihoanean. Honorat del Rom-en azken atxilotetako arratsaldean, Nelsonen sumina ez zen apaltzen. Memoria gotortzen zuen arkitektura espektral eta irauliaren artean zutik, urtetan, nahita atzeratutako prozesu motelgarrian zehar, hiria deuseztatu, zatitu, bere interesak eta superbibentzia kolektiboa defendatzen tematua anikilatzeko —lehen erasoaldi ankerraren porrotaren ondoren inbasoreek hartua bera— jasandako angustia madarikatzen zuen. Hamahiru urte segundoz segundo ziurgabetasuna murtzikatuz, izurriteak janda... Bizi gabe inork ezin zuen imajinatu presio inhumanoa, mendean hartuta eduki zituen diktaduraren mozalak areagotuta. Agian arrazoia zeukan Honorat del Rom-ek, esaten zuenean, erregimenak aukera baliatzen zuela Gerra Zibilean izandako Errepublikarekiko leialtasuna ordainarazteko, oso garesti ordaindu ere. Urteek oso zauri sakonak sortu zituzten, banaketak hiritarren artean, erresistentzia ahultzeko modu ezkutuan sustatuak. Bestalde, familia askok —Julia itzultzen zen patrioi zahararren gogora—, meatzeak itxita eta etorkizunerako perspektiba beltzaren aurrean, joatea erabaki zuten.

—Ezin diozu mundu guztiari heroia izatea eskatu, batik bat ahora mokadua eramateko ezer ez zaionean gelditzen. Besteek ez daukate presarik: orain meatzeak ixten dituzte, gero obrak eta lana amaituko da... Horixe da itxaroten dutena: behin leher eginda, dena utziko dutela huskeriaren truke —marmartu zuen garrazki Estanislau Corberak norbaitek Móratarren meatzea itxi zutenean hiria abandonatu zuten lehenen aurka komentario erdeinugarria bota zuenean—. Zergatik ez diezu zuk lana eta jatekoa ematen alde egin behar dutenei, eta hola ez dute holakorik egin behar izango?

Ebroren erreakzio bat erne zuen bezala Nelson zaharrak ezusteko gertakariaren bat imajinatzen zuen, meatzeen gainbehera eta ibai-ontzien heriotza ekidingo zuen destinoaren lema-kolpe bat. Besterik ezean, hori Salleres alargunarenekin ez zela gertatuko ideia zoroan abandonatzen zuen bere burua.

—Ez dut itxiko, Nelson, ez kezkatu —adierazi zion andereak *Verge del Carmerekin* Ampostarantz abiatu zirenean, marina merkanteko antzinako kapitaina, jubilatuta eta gaixorik, bisitatzerako—. Kafetegian esan ahal duzu Rem kaleko alferrontzia ez dela Iluminat de Móra; azken unera arte

egingo dio aurre jendaila honi. Ez ditu bere meatzariak kalean utziko xentimo bat gelditzen zaion bitartean. Hau doilorkeria bat da.

Baina, antzinako andere kontrabandista, jada hondakin patetiko bihurturik, Bartzelonako klinika batean hil zen handik hilabete batzuetara. Ilobari, izebaz lotsatzen zen santu-jale ñimiño bat bera —“infernuko galdarara kondenaturiko mesalina inpurua”, xuxurlatzen zuen aitortzaileak iloba mizkin eta maritxuaren belarrira—, denbora falta zitzaion meatzeen espropiazioa onartu eta erresistentziarik gabe merkatzeko. Hiritarrek etsita ikusi zuten ehorzketara joateko nahia, hiletarik ere ez zen egon elizan: Bartzelonatik etorrira, furgoia zuzenean joan zen kanposantura. Jendea ohartu zenean, Salleres alarguna nitxo barruan sartuta zegoen. Heriotza hark Moilako Kafetegiko bezeria tristetu zuen eta Estanislau Corberak, zenduaren ohorez rona banatzen zuen bitartean, hileta-otoitza labur eta sentitua bota zuen:

—Lizun haserrekor eta onbera bat zen. Haragigabe errukigabeak bizitzaren loretan moztu du.

Gazteria aipatzea desagertuarekiko finezia postumoa zen. Azken urteetan, hazpegietan denboraren hondamena ezkutatzeko ez hautsik ez kremarik ez zegoenean, etxaldeko ispiluak erretirarazi zituen zahar ajetsu bat bezala islatua ez ikustearren.

Lehen pantanoaren akaberarekin batera gertatu zen heriotza: langileak despeditu edo Riba-rojara eramana izan ziren, non bigarren uharkaren horma, Faió eta hiria urperatuko zuena, jasotzen hasita zegoen. Kamioien eta makinaren zarata-urteak eta jende-andana pasata, kaleek ez zituzten lehengo hotsak errekuaperatu. Isiltasuna eta angustia besterik ez ziren geratu. Denbora amaitzen ari zen, baina jendeak, karkasa beltzera ohiturik, ez zuen etsi, etxeak kontserbatzearen borrokatzen jarraitzeko ezintasunaren aurrean lubakitu ziren, errebindikazioa lortu arte. Hiria hilko zela aspaldi asumitutako egitate bat zen: urek parterik garrantzitsuena itoko zuten, gainerakoek bizitzarik gabeko kaleak zatitutako gorputz baten atalak izango ziren. Bertan geratzera kondenaturiko hiritarrak etxea galdu zutenak bezain kaltetuak izango ziren, baina konpentsaziorako eskubiderik gabe. Ezin zituzten bazterrean utzi. Mundu guztia indemnizatu behar zen, ez soilik etxea edo bizimodua galdu zutenak. Hiri berri bat fundatzeko lorpen hori erdietsiz gero, hiritarrek ez zuten bizkarra ematen zien gobernurik behar, bakarrik hiriko liderrak jazarri eta harrapatzeko orduan prest zena, haien angustia isilarazteko edo hiriarena berrindartzeko, tentsioa diktaduraren ordena publiko sakrosantua mehatxa zitzaketen manifestazioak lehertzen baziren polizia eta guardia zibila bidaltzeko.

Enpresa hidroelektrikoa, Riba-rojako urtegiko obren amaieraren hurbiltasunaren eta hiritarren ez etsitzeko determinazioaren aurrean, exijitutako baldintzetara moldatu zenean, Nelson zaharrak birao bat jaurti zuen. Partekatzen zuen mundu guztiaren lasaigarria, baina inolaz ere ez batzuen euforia: amesgaizto luze eta krudela amaitzen zen, gizaki batek egoera hartan hasieratik bertatik zeukan eskubide baten minimoa eskuratzeko borroka antzutzaila.

—Hamahiru urte gerran, ehorzketa ordaindu ahal izateko —marmartu zuen Forques bikeztatzaileak.

—Letra badaukazu —iradoki zion Estanislau Corberak—. Zergatik ez diozu musika ipintzen?

Lehia hartatik hiri akitua desegina irteten zen, inoiz baino etorkizun ziurgabeagoari begira baina kolektibitate modura lagaezinez existitzera tematuz: etxeak eman zizkioten enpresa hidroelektrikoari, baina beren kabuz eraikiko zituzten etxeak prest zeuden heinean hustuko zituzten. Alabaina, behazuna irentsi beharra zegoen: oraindik hiri zaharrean bizi ziren bitartean,

udaberriko goiz batean, Baixada de la Ferraduran, Llorenç de Veriuren etxea eraitsiz hasi zen beharrik gabeko suntsiketa gupidagabearen prozesua sufritu.

Nelsonen etxea, Honorat del Rom-en botika eta Moilako Kafetegia, berrira lekualdatu behar zuen hiri zaharreko azken zonaldean zeuden. Ondorioz, patroari, munduan ezergatik ikusi nahiko ez zuena irenstea zegokion. Egunez egun angustia gehiago ematen zion etxea makinetara eskaintzeko hustu beharraren perspektibak. Bere bizitza propioz beteta sentitzen zuen. Geletan antzinako oroitzapen eta ahotsak zebiltzan: jada lausotutako ezkontza-garaitako ilusioa bizi izan zuen, bertan jaio ziren seme-alabak, gurasoak eta beti oroitutako ttiki hura hil ziren. Seme-alabak... Neskatoaren heriotzaren ondoren, beste hiru izan zituzten: bi mutiko eta neskatala bat. Beste ofizio batzuk ikasten ibili ziren: zaharrena mekanikaria zen, bestea elektrikaria eta biek Bartzelonara joan nahi zuten, nora hiritar gehienek hiriburu handiko mirariarekin liluratuta alde egin zuten. Soilik alaba geratuko zen hiri berrian.

Arestian guardia zibilen pare batek eta Honorat del Rom-ek gurutzatutako Arma plazara hurbiltzen ari zen. Torrestarren etxaldea zen Arma plaza handian geratzen zen bakarra. Itzuliak eta itzuliak eman arren, Nelson zaharrak ez zuen ulertzen. Hirian edonon, hustu eta eraikin gehienak suntsitutako zonaldeetan, soilik Carlota de Torresen etxeak geratzen ziren zutik. Zer nahi zuen andereak? Azken uneraino eutsi, bere gauzentzako prezio altuagoa lortzeko, txanpon gehiago batzeko? Ez zen hiritik aldendu, meatze, finka eta etxeen indemnizazioen diruak poltsikoratu eta hiriaren destinoaz arduratu ez ziren beste burges batzuk bezala; ez zuen, ez eta ere, hiri berrian etxe berririk eskatu, Graells zekenak ez bezala, hura eraikitzeako kooperatiban izena eman zuen lehenetarikoa izan baitzen. Ongi, konponduko zen. Edonork izan bazuen andereak zeukan dirua, borroka- eta desesperazio-urteak beste era batekoak izango ziren. Marinel zaharra kezkatzen zuena sosik gabeko jendea zen, ez Torrestarren kastakoak.

Neskame batek –Teresa ematen zuen– aretoko balkoira atera eta zapi bat astindu zuen barandan, patroia, hondakin-pilo bat saihestuz, Salleres alargunaren antzinako korten orubetik moiletara jaisten ari zen bitartean.

Ibai-ontzien hilerria: ontziak hil hurren zegoen hiriko moiletan estekatuta; hiria, errukirik gabeko anderea, uretara ateratzea debekatu eta, antzinako kaudilo batek bere segizioari zina eta leialtasuna eskatzen zien bezala, heriotzatik haruntzagoko ibaiak nabigatzeko berarekin hiltzea exijitzen ziena. Meatzeak ixten joan ziren heinean, ontziak, hornikuntzaz gabeturik, geldi geratu eta hondatu egiten ziren. Krosko sikatuak irekitzen hasi ziren; ur mortuak berdatzen ziren saihets eta ganberen barruan. Hasieran, nabigatzaile batzuk, kalteak jota, garbitu eta estekak miatzen saiatzen ziren. Denboraren joanarekin, batere zentzurik ez zeukan zeregin hartaz kezkatzeari utzi zioten eta, azken buru, ibaiak gero eta azkarrago eraman, hobeto; Joanet del Plak zioen modura, begiitsuak negarrik ez. Nelson zaharra, Estanislau Corberaren ironia onbera jasanez, ibai-ontzia mantentzen tematzen zen bakarra zen; ezin zuen konpondu eta bikeztatu baina gutxienez garbitu egiten zuen, palarekin ura bota edo konponketa ttikiak egiten zizkion. Goiz hartan, Móratarren antzinako nabigatazile batek esan zion ontziaren esteka bat ebakita zegoela. Hori zela-eta, Moilako Kafetegitik partida jokatu gabe joan eta bastagilearengana soka eroatera abiatu zen. Kaltetua aldatu ondoren, errepaso bat eman zion ontziari, txopan eseri eta oroitzapenek amain ematen utzi zuen. Ibai-ontziek hornidurak errekupeetzen zituzten, antzinako eskifaiek betetzen zituzten ontziralekuak. Zuakerrak kirrinka, animaliak irrintzika, peoiek arraunak kokatzen zituzten toletetan eta ontziek ibairako bidea hartzen zuten hiri

lokartuan, egunsentiko Ebro erdi lokartua gurutzatzen zuten: Arquimedes Quintana Ampostarantz abiatzen zen, Sebastià Peris eta Roca Faiórantz, osaba Cristòfolek eta bere betokerren eskifaiak Tortosan lo egin nahi zuten, listu-jario jartzen ziren Coronela Eneako emeen perspektiba gogoberogarriarekin... Baina hura jada ez zen existitzen, errautsak besterik ez ziren gelditzen. Etxe deseginak, zenduen eta ontzi ustelduen oroitzapenak... Bizitzaren jukutria, ez hiriaren ez bere ofizioaren heriotza aurrezten ez ziona.

—Ibaia saldu dute, mutilak —esan zien egun batean Estanislau Corberak kontertulio urdurituei, operazioaren xehetasunak zehatz-mehatz bota baino lehen: Ebron nabigatzeko eskubidea ukatu zuten burgesen izenak eta haietako bakoitzak poltsikoratutako milioiak, Riba-rojako presaren bitartez nabigatzeko posibilitatea irekita mantentzeko betebeharra enpresari aurrezten zion azpijoko batean.

Arbitrarietate bat bestearen gainean —gogoratzen zuen zaharrak—: itotzen zuen sarearen hari bat gehiago. Aspaldiko garaietatik aitek, aitonek eta birraitonek ez ezik jende askoz gehiagok nabigatu zuen Segre eta Ebrotik, hainbeste non memoria iritsi ez eta liburuetan irakurri behar zuten, sarri Honorat del Rom-ek azaltzen zuenez. Nola zen posible betiko moztea? Zein baimenarekin? Zeintzuk ziren jaun haiek ibaia saltzeko?

Azken bidaia ebokatzen zuen. Bihozkada Faióko moiletan izan zuen —ur azpian bat-bateko azken tragikoa itxaroten zeukan herria, hiriaren hondamen geldoa ez bezala—, non, Tortosatik igoz, *Verge del Carme* eskifaiaari atsedean bat emateko porturatu berri zen, eta non Salleres alargunaren heriotzaz jabetu zen. Ontziko ganberan itxi zen. Koltxoi gainean uzurtuta, atsekabea liseritzen saiatu zen. Ontzia kiskaltzen zuen abuztuko eguzkiak berotutako ganberaren estutasuna mamuz beteta zegoen. Moiletako zalaparta urrutiko denboretatik zetorren. Denborak ziba batek bezala dantzatzeko zuen bere burmuinean, begitazio iheslariak zetozkion: alargunarekin egindako lehen elkarriketa, kontrabandoko bidaiak, *Polifemen* eztanda, gerraosteko itzulera...

Ontzien hilerria abandonatu baino lehen, beste behin berrikusi zituen ibai-ontziaren estekak. Forn Maldarantz abiaturik, non Honorat del Rom-en atxiloketaz jabetu zuten, bost urte lehenago Faiótik eginiko bidai garratz hura gogoratu zuen. Hiriko moiletan porturatu, eta ontzia, aspaldi usteltzen ari zirenen alboan, estekatu zuenean, jakin bazekien ez berak, ez *Verge del Carme* ez zutela aurrerantzean inoiz nabigatuko.

—Ez datoz... Zer ordu da, Carmela?

Maiz gogoratu behar zuen anderearen galdera obsesiboa Honorat del Rom-en azken atxiloketaren arratsaldean: antsietate handiko galderek markatu zuten denboraren joana anderea aretoan sartu zenez geroztik beste egunetako baina biago laburragoaren ondoren. Nekez jarri zuen arreta Teresarengan, azken hau, aulki batean igota eta leiarrak garbitzeko zapia astinduz, txori-txorrotxioz, botikariaren aferaz jabetzen ari zelarik. Zehatz-mehatz behatu zituen gonbiterako prestakuntzak; buruko minez kexatu zen, butaka kuttunean, aitaren erretratupean jesarri eta geldi-geldi geratu zen haragizko esfinge bat nola, begirada hustuta, leihoetatik harago galduta. Soilik besaulkiaren besoetako damasko gorrian iltzatutako atzamarrek adierazten zuten gaina hartzen zion barneko asaldura.

—Zer ordu da, Carmela?

—Hiru eta erdiak, anderea.

Arratsalde hartaz geroztik hiri gainean jausitako lainoaldian, Carmelak angustiaz galdetu behar izan zion bere buruari gertakariak aurreikusi edo ekidin ahal izan ote zituen, eta beti konklusio negatibora iristen zen arren, ostera bultzatzen zuen zalantzak: agian jakin izan banu zeintzuk izan ziren andereak itxaroten zituen gonbidatuak...

Aurreko egunean aretoa anderearen urteurren-festarako prestatzeko agindua jaso zuenez geroztik, ez zion hausnartzeari utzi. Zer dela-eta ospakizuna? Zilarra, beirateria fina, zamau onenak prestatu... Zorakeria bat, astakeria. Nor etorriko zen gonbitera? Graellstarrak, aurreko urteetan bezala, goiz erdian aurkeztuko ziren omenaldia jasotzera, eta anderea, lore-sorta handia onartu ondoren, konfiantzazko gizonaren seme, alaba, errain, suhi, biloben errenkada distiratsu, deseroso eta sumisoarekin hitz egingo zuen pixka batean. Aita izan ezik, haietako inor ez zegoen arratsalderako festara gonbidatuta, hura anfitrioiaren posizio sozialeko jendearentzat erreserbatuta baitzegoen. Sekula ez zuten goizeko gonbidatuentzako prestakuntza berezirik egiten: pasta, likore edo freskagarri batzuk zerbitzatu eta kitto. Festa solemnea arratsalde erdian izan ohi zen: orduan jauntxo-koadrila zorion eta prosperitate, osasun eta bizitza luzerako zorion eta nahiera hipokriten laudorioz hurbiltzen zen. Baina zer gelditzen zen hirian garai onetako jaun eta andereez? Ia inor ez, hainbeste non festa, distirarik gabe meatzeak saldu eta jabe askoren exodoarekin, eraispenen hasieratik Graellsen goizeko bisita eta aretoko ohiko askarietako pare bat lagunetara mugatu zen. Gainera, herioak segaldi ederra egin zuen azken boladan oraindik hiriburura joan ez ziren familietako kide eskasen artean.

Komentua eraitsi eta hilabete gutxira, Malena de Segarra hil zen. Gerra Zibilaren amaieran hirira itzuli zirenetik, apenas atera zen etxetik, dolu familiarreko okasio zenbatuetan izan ezik. Nelsonen bisita tristeia Aleix Mauthausenen hil zelako Atanasi Berpizkunderen albistek transmititzeko, gerrileroaren bidez jasoak eurak, bihozkada bat konfirmatzea besterik ez zen

izan. Bere munduan itxita amaitu zuen; hiriko zurrumurrua ate-atarian hiltzen zen. Pantanoen eraikuntza-arazoak ere ez zuen Segarratarren etxaldeko isiltasuna, barruko denbora mortua astindu. Komentuaren desagertzeak osasun hauskorraren hariak desagiten bukatu zuen. Amaiera azkarra izan zen: hiri berrirako aldaketa baino hilabete batzuk lehenago hil zen, urriko egun batean, aire hotz finak ibaien udazkenetako berde esmeralda lausotu eta baratze eta sekain-lurretan irauten zuten horitasun distiratsuak gris bihurtzen zituenean. Neskameak Nelsoni abisatu zionean, anderea meztituta zegoen. Jantzi zizkion arropen azpian, marguldutako inauteri-egun batean Aleix eta bera ezkutatu ziren maskara veneziarrak zeuden. Kutxaren atzean –Malenaren borondatez Nelson, Estanislau Corbera, Honorat del Rom, Joanet del Pla, bikeztatzailea eta Moilako Kafetegiko beste kontertulio batzuek eramana bera– jendetza errukitua elkartu zen, Birjina Martirien Aretoko azken askarietako batean, non Malenaren eta Aleixen arteko txutxu-mutxu gaiztoak berpiztu ziren, komentario despektiboekin hartu zen samin-erakustaldia izan zen. Carmelak ez zuen komentario pozoitsuek sortzen zioten haserrea lehor adieraztea ekidin, eta anderea, gaitzespenak minduta, aste oso bat egon zen hari hitza zuzendu gabe, nahiz eta hura historia ahaztua zen urteurrenaren ospakizun-arratsaldean.

—Zer ordu da, Carmela?

—Hiru eta erdiak, anderea.

Handik gutxira –gogoratzen zuen Carmelak obituariorearen orria tristeziak pasatuz– Lleidara urtero egindako erromesaldian, baroiaren azken ondorengoa bihotzeko atake batek jota erori zen burdel batean, non, larru gorritan eta ronez leporaino, soilik galtzerdi beltz batekin, eskuineko hankakoarekin, jantzitako urdanga estrabiko batekin tango deitoragarri eta kanalla abiatzen zuen. Hilobiratu eta egun batzuetara, udaletxera iritsi zen defuntuaren kanotieria, funeriako morroiek prostibuloko aretoan ahaztua. Erantsitako eskutitz batean, urdanga gaixoak, zeinen besoetan ganberazain aristokrata zendu zen, tragediak hezurretako mamiraino hunkituta, gertakariak probokatu zion krisi espiritual sakona alkateari azaldu eta haragiaren bekatu eta tangoaren estasia ukatzen zuen errenuntzia ezeztatzina adierazi zion. Mundutik ihes egin nahi zuen. Komentuko bakean ingresatzeko baimena eskatu berria zeukan, eta berak hemeretzi urterekin bere ibilbidea hasi zuen kapela-etxe tortosatarreko buru izan zen ama nagusi karmeldar bati esker lortzea espero zuen –“santa bat, alkate jauna”–.

Urdanga lleidatarraren historia eredugarria suspertze espiritual baten hastapena izan zen, eraipenen hasieratik egiaztatutako mirari-eskasiarekin oso kezkatuak hirian geratzen ziren santu-jale ospetsuenen artean; izan ere, eskasia hura, Honorat del Rom-ek garai hartan hiriak hainbeste hondamenen artean galduta zeuden naturaz gaindiko enteei eskaintzen zien deserosotasunei egozten zien, eta Alberako andereñoaren heriotzarako zapalda ongarritu zuen.

Neskazarra, Carlota de Torres baino zaharragoa, oso abailduta zegoen. Ez botikak, ez indargarrik, ezerk ez zuen hura suspertzea lortzen. Jada ez zen Birjina Martirien Aretora joaten eta idortuta zeukan hiri kutsatzen zuen mihiko pozoia. Azkenean, apenas gai zen hitz-totel ulertezinak esateko. Alargunen moilara ematen zuen gelatxoan ilobak aurkitu zuen trumoiakadaren preludeak ikaraturiko udazkeneko goizean, kulunkaulkian jesarrita zegoen, lokuman-edo. Garai batean, 14ko gerra-garaian epailearen idazkari zorigaiztokoaren libidoa estimulatzeko, mozorrotzeko ohitura zeukan monja-abitua bularraren kontra estututa zeukan.

Baina abituen benetako erabilpena –zeinetatik kanfor-bolatxoak jausi ziren defentuaren esku zurrunetatik kentzea lortu zutenean– inork ez zuen ezagutzen. Keinua, urradurez betetako arropa erlijioso harekin meztitzeko gogotzat hartu zen (urradurak penitentziazko flagelazioei egotzi zizkien jaieraz ilobak, baina egiatan zendutako funtzionarioaren inpazientziazko tiradaizoak ziren, azpian gordetako haragira, orduko hartan akuilatzaile eta freskoa bera, iristeko grinatsu). Horrela, abadeak hedatutako santitate-hotseko zurrumurruen artean, Alberako andereñoa monjaz jantzita joan zen beste mundura, etxe eta lurren espropiazioagatiko indemnizazioak kobratu eta bere egunak hiriburuan amaitzeko ametsa bete gabe.

Ez zen Birjina Martiriren Aretoan batzen ziren kontertulioetako inor geratzen, Torres etxeko ospakizunetara gonbidaturiko inor, ia inor ez zen geratzen.

—Klepsidra gupidagabeak, ai, bihotzeko adiskideak, agur tristen ordu negargarria seinalatzen du!– dramatizatu zuen Teresa Solanesez Tarragonara joan baino egun bat lehenago, non lau hilabete geroago bihotz-atake batez hil zen.

—Destino adigaitzeko asmoek Cavallers kaleko bigarren estai batera naramate –adierazi zuen Nàsia Palauk astebete beranduago, seme ttikienarekin Lleidarako bidea hartzeko unean.

—Ene, Carlota estimatua –agurtu zen Isadora Rubió, aretotik desertatzen azkena–, bihar Bartzelonan egongo naizela pentsatzeak udaberriko euforiaz betetzen du nire bihotza. Hiri hain, hain... inklitoa da!

Bestalde, etxe berrietara lekualdatzen ari zen jendea hiria husten ari zen. Anderearengandik ezkutuan eta familiaren martxa ikusten zuenean, Carmelak bere buruari galdetzen zion zein izango zen anderearen azken erabakia, egunetik egunera burumakurrago eta arraroago baitzegoen. Laster, etxe zaharren artean, kale suntsituetan, soilik espektroak ibiliko ziren. Mahaiaren azken xehetasunak prestatzen ari zelarik, hausnar egiten zuen ez ote ziren espektroak gonbitea itxaroten ari zirenak.

—Zer ordu da, Carmela?

—Ia laurak eta laurden, anderea.

Bost eta erdi inguruan jo zuen kanpaitxoak. Antsiatsu, berehala atera zen Carmela lanean ari zen sukaldetik, baina Teresak atea zabaldu zuenean, soilik Graellsen figura balantzatia sartu zen, bere seme nagusiak lagunduta. Minutu batzuen buruan, anderearen ahotsa entzun zen aretoan, lehenik ahopeka, gero suminkor, eta azkenean pasilo hagitz luzeko pintura-ilaran arbasotik arbasora errebotatzen zuten oihu-sail bihurturik. Emakumezkoek txalekoz, jaunek zurrun eta itxuroso, oinordekoak jaurtitako biraoekiko ez entzun-plantak egiten zituzten; baina denek, Jaume de Torres jaunarengandik senide ilunenarengana arte, nahita nahi ez jabetu ziren Birjina Martirien Aretoan hedatutako kalteez. Lehen esaldiek Campstarren aldetiko dinastiaren sortzailea kezkatu zuten, Areto Zaharra zeritzaneko txoko batean gordeta bera, non, belztutako pigmentuen ilunpeen erdian ia-ia ikusezin, ebanozko kornukopia baten eta txori mekaniko baten artean zetzan. Gizona – Napoleonen kontrako gerra ondoren babes behar zuen frantsestutako alargun diruz usteldutako bat ernalduz fortuna egin zuen zapatari bat– jatorriaren eta hiriak dinastiari egin berri zion laido barkaezinaren lekuko loriatsu bezala

gogoratua izan zen. Jarraian, beste askoren artean, andereak Pau Camps aipatu zuen, lukurari ilustrera, familiak zeuzkan etxe eta finka gehienek bereganatzailea, eta Nicanor Camps, arroan lignitoaren ustiaketaren hasieran meatze bat irekitzen arriskua hartu zuen lehena. Filomena Sants, familiari estraktu-fabrikaren akzio-paketea ekarri ziona, jeneral-andre loriatsua, amona, ama eta Jaume jauna ordena kronologikoan azkenak izan ziren ebokazio hartan (non osaba alproja eta beste adibide ez duinak ere sartu ziren), ondorengoaren erostak entzuteko xedez.

Anderearen ahotsa luze entzun zen gonbitaren prestaketen artean, Carmela, Sofia eta Teresa, arbasoekin batera, haserrearen motiboez jabetu baino lehen. Suntsiketak hiri zaharra jaten hasi zirenean, anderea isilik egon zen, etxaldean gotortuta hiritarrek hiri berrian toki bat erreserbatu ziezaioten itxaron zuen; ez edozein toki, besteak bezalako etxe bat, Carlota de Camps i Torres zelako zegokiona baizik. Nork imajina zezakeen hiria bere familiarik gabe? Bera ez zen besteak bezala joango, bera ez zen bizitzera ez eta zimeltzera joango bere izena ezezaguna zen ezein hiritara, leinuari lotutako ondasun eta pertsonengandik urrun. Orain, hura erregutu egin beharko zitzaion. Ezin zen hiritarrek sortutako kooperatiba batean bere izena ematera joan... Nork pentsa zezakeen Torres i Camps abizenak, zerrenda berebetean eta eskubide bereberekin, dendari, nekazari, gozogile, harakin, jostun, modista edo, are umiliagarriago, antzinako nabigatzaile edo bere meatzetako langileekin nahastuta egotea? Ez zen beste hiritar bat: erregutu egin behar zitzaion hiri berrira bizitzera joan zedin, ohorezko tokia erreserbatu behar zitzaion, han hiri zaharreko Armen plazan zeukan baino etxalde handiago eta bikainago eraiki zezan.

Alabaina, arkitektoek etxeak diseinatu eta kaleak trazatu zituzten; zutabeak altxatzen ziren orubeetan, hormak hasten ziren; ia mundu guztia bizi zen beste hiri hartan eta inor ez zen joan etxaldera dei eginez. Graellsen semearengandik jakin zuen geroago Carmelak, administratzaileak, anderearen nahiak igarritik –hiri berriaren alboan, non Torrestarrek aski terreno bazeukaten–, bat egin zezala iradoki ziola; haren tamainako etxe bat, kontuan hartuz ez zuela diseinatutako etxeen antzeko ezein etxetan bizi nahi, ez eta haiek eskuratzeko zozketasistema demokratikora makurtu. Atzerakoiak agiraka sumina jaso zuen. Torres i Campsen etxea inon egotekotan ez zen hiritik kanpo izango, erdi-erdian baizik, zegokion tokian... Zer axola berari eraikitzeke zorua eskasa izatea, eta bertan eliza bat jasotzeko, hiritarrek haren zati bat sakrifikatzea ukatu izana? Abadeak eman zezala meza zapalda batean hala nahi izanez gero, artzapezpikuak betiko kondenara jaurti zitzaala sinesgabeak. Berari, bost. Zer zen, bada, hiria Torrestarrik gabe? Andereak bere tokia izan behar zuen, nahi izandako guztia eta hiri berriko plazan. Gainerakoarekin egin zezatela ahal zena. Familiako fabrikatik, finketatik eta meatzetatik ezean nondik jan zuten miserable haiek? Norenak ziren, orain jabe izan nahi zuten alokairuan bizi izandako zorritzotako haien etxe asko? Belauniko erregutu beharko zioten gustuko tokia aukera zezala.

Baina hura ez zen gertatu, eta berak, azkenean, ernegatuta, hiritarren ordezkioak erakartzeko akatsa egin zuen, beste garai batzuetan soilik jauntxoek erreserbatua izanik, bertan parte hartzeko edozein hiritarrek edozer egingo zukeen urteurreneko oturuntza hartara gonbidatuz, banitatea balakatzekoa. Ergela. Nola iritsi zen hainbestearaino makurtzera? Hala ere, hagitx mingarria izan arren umiliazio sakonena ez zen oturuntzara etortzeko ukoa, baizik Graells bitartez irristarazten zioten eskutitza, non aditzera ematen zioten, etxe bat nahi bazuen, denentzat eraikitzen zuten bezalakoa izan beharko zuela eta, zozketaz zegokiona, hura ere

edonorentzat bezala. Arauak ziren eta ez zituzten inorengatik aldatuko. Arauak? Hura konspirazio bat zen, zeinaren atzean etsai zaharra ikusten zuen; haur bat zelarik aitaren kontra tiro egin zuena, meatzariak grebara xaxatzen zituena, Gerra Zibilaren garaian meatzeak kolektibizatu zituena, betidanik jauntxoak deuseztatu nahi zituena... Bigunak, bigunegiak izan ziren jendaila harekin 1939an...!

Ostera entzun ziren oihuak. Carmela, pasadizoa gurutzatu eta jada Sofia eta Teresa, anderearen buila gero eta amorratuagoarekin izututa, zeuden aretoko atera hurbildu zen. Hori ez zen sekula gertatuko –andereak, oihuka–, hiri zaharrean geratuko zen, bere etxaldean itxita, inork hondoratuko ez zituen etxeez inguraturik. Meatzeak irekiko zituen ostera, ostera nabigaraziko zituen bere ibai-ontziak! Graellsek deitu zitzala kapatazak, aginduak banatzeko, etorerrarazi zitzala igeltseroak etxea berriztatzeko..! Bera ez zen besteak bezalakoa: Carlota de Torres anderea zen, Torres i Camps familiakoa.

—Ez dut kontsentituko, aita; ez dut kontsentituko!, jaurti zuen erretratuari begira.

Erotuta, askotan errepikatu zituen azken hitzak ahotsa bat-batean itolarrian urtu zen arte, eta Graellsen oihu izutua —“Anderea, zer gertatzen zaizu, anderea?”— neskame angustiatuen belarrietara eta arbaso geldien errenkadetara iritsi zen arte.

Honorat del Rom-en azken atxiloketaren bertsio hedatuenak mantentzen zuen guardia zibilaren pareak berehala lekualdatu zuela atxilotua Moilako Kafetegitik kasernara, baina dedukzio okerra zen, eternitate frankista beldurgarrian zehar hiritarrek ikusi zuten erritualaren kalko inkontzientea: arratsalde hartan ez zen kasernarik existitzen. Hilabeteak ziren guarnizioa Segreren portaleko gotorlekuaren alboko eraikina hustu eta etxe berrien ondoan instalatutako behin-behineko zurezko barrakoietan bizi zela. Azken trikornioa irten ahala, Trinitat guardiaren kasko ilargitarra estaltzen zuena, aktibitate klandestinoz susmagarri ziren hiritarren fitxak zeuzkan artxibadorearen zamapean intseguru, beste bizilagun batzuek okupatu zuten kaserna: Erdiko Kafetegiko zerbitzari inozoak, animalia gizajoeekin errukituta, aurrietako zakur alderraiak bertan sartzeko burutazioa izan zuen. Zakur begiluzeek gelak gurutzatu zituzten, guardiako gorputzetik hasita, ziegak, eta tokiko komandantearen postua, guardia zibilen familien bizitokietaraino. Txoko guztiak usnatu zituzten, txizez bete zituzten puntu estrategikoak eta, armategiko leiho azpian, kanela-koloreko erbi-zakur batek altan zegoen eme bat estali zuen beste eper-zakur bat krudelkeriaz menderatu ondoren. Biharamunean, zerbitzariak ur-pertzak eta ogi-zatiak eraman zizkien arren, ihes egiteko gogoak harrapatu zituen; hondamenez inguratutako eraikina zaunka-koru gorgarri bihurtu zen. Animalia erotuak hiru egun itxita geratu ziren, balkoi eta leihoetatik begiratzen, ateak desesperazioz harramazkatuz, pasante batek askatu zituen arte. Jarraian, botikaria atxilotu baino hilabete bat lehenago, langile batzuek ateak hormatu eta kaserna lurrera jausi zen. Izatez, udal-epaitegiko lokal batera eraman zuten, Udaletxera, non funtzionarioak bertako materiala paketatzen ari ziren, zenduen erregistroak koroatutako paper legal pila baten gainean jesarrita galdekatu zuten.

Lehenik, sarjentu artaburu, bibotedun, itxi eta formalistak atxilotuaren identifikazioa abiatu zuen zehatz-mehatz, Karmengo ura, aspirinak, eta, erabateko sekretupean, inportazioko kondoia erostera joan ohi zen botikako nagusia zela ziurtatzeko, besteak beste uste zuelako fabrikazio nazionalako kondoia hiru urte lehenago sarjentuaren emazteak mundura ekarri zuen artaburu-iledun biki-pareen erantzuleak zirela (konklusio faltsua inondik ere, guarnizioko guardia gazteena, ausarta eta eskandaluzko artaburu-ileduna ikustea besterik ez baitzegoen industria autoktonoa, beti hain iraindua, pare haien erantzukizunetik absolbitzeko). Filiazioa modu eztabaidea zinean zehaztuta geratu zenean, botikaria batere zalantzarik gabe erantzuten zuen galdera-zaparrada hasi zen. Burua berotzen egon zen atxiloketaz geroztik irtenbiderik aurkitu gabe. Ez zuen gertatzen zena ulertzen harik eta, bulegoan sartzean, guarnizioko kaporalak zaindutako kartoizko kutxa betertzez behatu zuen arte. Sarjentuaren lehen galderari baietz erantzun zion: bart oso berandu atera zen etxetik. Ordu zehatza? Ez zuen gogoratzen, hamabi eta erdiak izango ziren gutxi gorabehera. Nora joan zen? Ongi, Homs kalezuloitik Ebroren hormaraino abiatu ondoren, Venuseko zinema, antzoki eta dantza-aretoko hondakinetaraino iritsi zen. Baina inolaz ere ez zion sarjentuari azaldu –zeinak begietako ninietara distira makiabelikoz begiratzen zion mahaiaren beste aldetik– hiritarren olgeta-toki herrikoienetakoa baten hondakinen artean aurkitzeak sorrarazi zizkion sentsazioak. Lanpara horizta batek apenas argitutako hondakin-pila egin berri oraindik zalantza korren artean zutik, kosta egin zitzaion

espazio estu hura Venus bezalako lokal bat –hiriak Errepublikaren aldarrikatze-eguna ospatzen zueneko Aleix de Segarraren piano-kontzertu batera aital eraman zuen egunaren nerabegaroko memorian bereziki handia– kabituz zela imajinatzea, edo Gerra Zibilean bete-betean, 37ko uholde handiak urpean hartu zuenean, ur lohitsuak laku handia izan zela. Aita eta biak piraguan sartu ziren leiho batetik; lonjetako korridore ilunetik nabigatuz, eszenatoki atzera iritsi ziren, urek bigundutako dekoratuen artean. Aital arraunekin ireki zituen errezel busti-bustiak, piragua eszenatokira atera zen, eta berak antzinako naufragioetan desagerturiko nabigatzaileek butakak okupatutako platea batentzat antzeztan ari ziren obra fantasmal bat moztan zuten sentsazioa izan zuen. Bart irudituz zitzaion, Praxedes jaunaren kapritxo bitxi batengatik buru zen eszenatokiaren frontisa oparotasunaren eskaialazko adarren zati bat igartzen zuen orube haren erdian ez zirela ez eta lonjak kabituko, non zinema-saioetako ilunpeak, erretorearen hitzetan esateko, “haragiaren hondamena” eragiten zuen, Gerra Zibilean faxistek garaipenaren ondoko uhinaldi hipokrita eta moralizatzailearen garaian. Ilara ezkutuenetan, bikote enamoratuek, zentsurak pantailan proiektatzen uzten zuen zozokeriekin indiferente, ekintza askoz gogoberogarriagoetara ematen ziren, hain sukar irreflexibo eta konprometigarrian non Praxedes jaunak gutxienez itxurak salbatzea erabaki zuen: atsedena edo pelikularen edozein etenaldia baino minutu batzuk lehenago jotzen zuen txirrin bat instalatu zuen, edozeinek, seinaleak ohartarazita, ikonografia faxistak proposaturiko aspektu pudoroso eta kursia errekonstruzio denbora izan zezan. Asmakizuna ezarri arren, situazio konprometituek jarraitu egin zuten. Maiz tertuliek Casilda Quintanaren orgasmo legendarioa ebokatzen zuten, bertsio bakoitzeko zaratzu, biolento, sinkopatu eta hasperentsuagoa, zeinak Estanislau Corberari ernai ametsarazten baitzion, beti meza, biatiko, errosario eta urteurrenen artean sartuta zegoen hain itxura hauskorreko neska baten potentzia bolkanikoaren ezjakitun. Casildaren oroitzapenak guardia primero batenarengana eramaten zuen ezinbestez: armak aurkeztan ari zelarik atsedenaldirik batengatik txirrinaren abisu ohartaraztailea entzun ez zuenez, “Franco, Franco, Franco” oihukatu zuen baritono-hotsez, espediente diziplinario bat aurreztu zion burutazio patriotikoa ez ezik egokia. Kasua urgentziaz aztertzeke batu ziren erretoreari eta hiriko alkateari sarjentuak esan zien bezala: nork izango zuen bihotza halako une batean Estatuburuarekiko atxikipen hain espontaneo eta sakonak ematen zituen norbait zigortzeko?

Botikariak ez zuen ezein ironia arriskutsurik bota; bart gertatutako egitateen errekonstruzioan sarjentuari haria jarraitzera mugatu zen. Bakarrik al zihoan? Bai. Ba al zeraman zerbait? Bai, hain zuzen une horretan beste guardia mahai gainean ezartzen ari zen kartoizko kutxa zeraman. Beste galdera batzuei itxaron gabe, besteak nabarmen zekiena baietsi baizik ez zuen egin sarjentuak: bart, Venuseko hondakinen artean lurperatzera joan zen isilpean.

Atxilotuaren tentsioa areagotzeko isiltasun-segundo batzuen buruan, sarjentuak kutxa desestali, eskua barruan sartu eta bertan zegoenaren parte bat atera zuen. Norbait sartu zen brastakoan orduan, eta Susana Castellsen ahots ezauna entzun zuen Honoratek bere atzean:

—Jakin al daiteke, sarjentu jauna, zer egiten duzun Ildefons gizajoaren burezurrea eskuetan duzula?

Hamlet zibildun uniformatu eta trikornioz jantziaren piura groteskoa, eskuinean burezur hautseztatuari eutsiz, Moilako Kafetegian azken egunetako gai kuttuna izan zen. Honorat del

Rom-ek xehetasun-pila bat ematen zituen aferaren inguruan, sarjentuaren harriduratik hasita, proba ezeztazinen kontundetziarekin atxilotua menderatzeko pentsatuak eurak. Susanaren ahotsak tragedia shakespearetarraren eszena nahastu zuen, Elsinoreko behelaino nordikoetatik Ebro ingurura ekarrita. Guardia zibilak burezurra askatu zuen, hots tetrikoz kutxa barrura eskeletoaren beste zatien gainean erori zen, eta pikutara joan zen seguru asko hainbat urte lehenago egindako gaiztakeriaren baten azken arrastoak desagerrarazten saiatu zen kriminalari mozorroa kentzeko amarrua.

Konfidenteren batek ohartarazi zuen Benemerita botikariaren jardun susmagarriaz (gozogileak uste zuen LLoca izan zela, bikeztatzaileak Joanet d'Escarp, eta Joanet del Plak, zalantzaren aurrean, bai bata zein bestea belarrondokoz biguntzea erabaki zuen): bart elementu hark –kasernako fitxetan iraultzaile arriskutsutzat hartua eta tertulia osoak onartutako kalifikiazioz– kartoizko kutxa bat lurperatu zuen zinemako aurrietan. Armak? Lehergailuak? Propaganda subertsiboa? Liburu debekatuak? Sarjentuak pare bat ordu beranduago lurpetik aterarazi eta krimen baten ebidentzia erdietsi zuen: eskeleto hautseztatu bat, erailketaren biktima baten hondakinak, zalantzarik gabe.

Ildefons Albaidaren hondakinak, Errepublikako soldadu zorigaiztokoa bera, bizi bitartean hezur haien jabearen hondakinak, sahats-mulko batzuen artean agertu ziren 1938an, Susana Castellsen gurasoen olibondo-zapalda baten alboan. Ez zen udalerrian aurkitzen zen lehen hildakoa, non gerraren eromenak arrasto handia utzi zituen. Aurkikuntza makabroaren ingurumariak bazirudien aditzera ematen zuela Ildefons, zaurituta (lurrean, saiheski hautsien azpian metrailadore-balak zeutzan), mulkoen artean ezkutatu zela, non bakardadean zendu zen. Susanaren aita eskeletoa arropa ustelduaren zarpailez estalita aurkitu zuenean kasko herdoildu eta larruzko poltsa baten ondoan, lurperatu eta kitto pentsatu zuen, baina poltsa barruan eskutitzak eta paperak aurkitu zituen zenduaren izen eta helbidearekin. Seme nagusiaren oroitzapenak –Bruneten hila eta agian edozein zulotan lurperatua bera, beti presente Ramon Castellesen memorian– kolpatu egin zuen; ekiditerik bazeukan zorigaiztokoak heriotza bere lurretik urrun pasatzea, bere semearen hondakinen destino garratza, egin egingo zuen. Hezurrak jaso, hirira isilpean eraman, eta ganbaran ezkutatu zituen paperetan adierazitako helbidera bidalitako eskutitzaren erantzunaren zain –“nik-neuk idatzi nuen, sarjentu jauna, aita ez baitzekien idazten”–. Sekula ez zuten berririk jaso –“pare bat urtetan lau aldiz saiatu ginen arren”. Galdetzen zuen ea Ildefonsen senideak ere hilak ote ziren edo gerrarengatik alde egin behar izan ote zuten. Bestela, ezin zuten isiltasuna ulertu. Baina, ez zuten Ildefons bertan behera utzi; pentsatzen zuten ezezagunarekiko beren errukia agian Bruneteko batailan hildako semearekin beste jendek gauza bera egingo zuela –“izan ere, sarjentu jauna, inoiz ez baikinenebaren heriotzaz berregina”–. Hondakinak beti egon ziren saski batean etxeko apalategi batean ezkutatuta. Batzuetan, haurrek –“munta gutxiko gaiztakeriak”– hura ikustera joan ohi ziren ezkutuan edo lagunei erakusten zioten. Zaharrak hil zirenean inork ez zuen Ildefons gizajoa etxetik ateratzea pentsatu, harik eta berak, Susanak –urte asko Honoraten aitona-amonen etxean neskame egona bera, gurasoen heriotzaz eta beste neba ezkondua hiriburura joan ondoren bakarrik geratua– etxea hustu zuen arte, lehengusu batzuekin hiri berrira bizitzera joan beharra izan zuenean.

—Ezin naiz Ildefonsekin azaldu —esan zion Honorati dilemari buruz aholku eskatu zionean. Botikariak lasaitu egin zuen: bera arduratuko zen hezurak eraikinen baten aurrietan ezkutatzen. Konponbiderik onena da, buruhauste eta zurrumurru gutxien ekarriko duena.

Gertakariak —botikariari eta Susana Castellsi osasun publikoaren kontrako atentatuagatik isun bana jarrita ebatzita— apenas izan zuen oihartzunik. Ez sarjentuaren erridikuluak, ez Susanaren istorioak —zeinak Honoraten atxiloketaren albistea zabaldu bezain laster igarri zuen gertatzen zena— ez Carmelaren presentzia larriak epaitegian — botikariaren bila, Carlota de Torresek oso atake larria izan eta medikuak urgentziaz botika batzuk behar zituelako— zituzten hiritarrak, gehienak hiri berrian instalatuak eta gorputz eta arimaz etorkizunari begira jarriak. Soldaduen eskeleto hautseztatua, burezurra, non batailaren garrasiak apaltzen ez ziren, ezer jariatutako ez zuten muga baten bestaldekoak ziren. Lehenaldia hondakinen artean abandonatutako zuten, hiri suntsituarekin batera ziertoak sakabana zezan.

Epilogo

Itzulerarik gabeko erbestea

Betazal erreak, puztuak, nekez ireki ziren, erdi orbaindutako bi zauri balira bezala; ganberako atmosfera epel eta kutsatua pizten zuen goizaldeko argitasun gorritak begi-niniak tindatu zituen. Carlota de Torresek ispiluan islatuta ikusi zuen botika-flaskoz betetako mahaia, Carmelaren figura, edredoiz estalita, ohe alboko besaulki batean lo. Begi makartsuak bete-betea ireki eta bere burmuineko lanbroa hedatzen saiatu zen. Urteurreneko egunaz geroztik, buru barruko ziztada errea sentitu zuelarik, aretoa, neskameak, Graells, gonbitaren prestaketak, eta aitaren erretratua bat-batean, belztasun totalean amaitu arte ilundu zen zurrumbilo hotzikaratuan biraka hasi zenean, ez zen gai izan egunen eta gauen arteko mugak bere gogoan ezartzeko, non puntu beltz hura beti flotatzen ari zen. Lehen okadatik itzultzean ohartu zen; orduz geroztik beti aurrean zeukan, hazi ezezagun eta izugarri bat bezala, non zorabioak iraun bitartean inguratzen zuen iluntasuna baitaratuta zegoen. Taupaka sentitzen zuen, akonpasatuta, astiro, harik eta, bat-batean, arrazoia iragarri ezinik, taupada azeleratzen hasten zen: hazi agudo hazten zen, ziztada sentitzen zuen burmuinean eta zurrumbilo ikaragarria abiatzen zen, agonia, ilunpea. Hasperenka jarduten zuen, ahots-doinuak eta lasterketak haztatzen zituen ohe inguruan, alkoholaren hats sarkor eta orratz-ziztaden artean. Marasmotik itzulita, hazi ikaragarria pittin bat handiagoa zen, enbrioi fatalak gero eta ilunpe handiagoa batuko balu bezala hozitze siniestrorako tegumentuaren estalki barruan. Ibai-ontzirik, nabigatzailerik, arrainik, uhinik gabeko ur mortuetako lautada baten bestaldean figurak antzematen zituen; maiz arraro hurbiltzen ziren ur gainean flotatuz-edo. Batzuetan seme-alaben hazpegiak somatu zituen... Edo amestu egin zituen, errainen figura apainuekin, suhi inozoarekin batera, eta Nicomedes familiako notarioarekin, beti oso ondo estalia, jantzia bera, eta eztultxo gogaikarri harekin?

Ispilu handian, argia gorritik arrosara zihoan. Hobeto mugi zitzakeen betazalak. Ur izugarriak eta figura ezezagunak burutik desagertuak ziren ordurako, eta hazi beltzak taupaka jarraitzen zuen arren, ganberaren, apain-mahaiaren, besaulkian lozorroan zegoen Carmelaren figura familiarrari gainjartzen zitzairen... Amesgaizto batetik esnatzen ari zen. Urteurren-arratseko oroitzapena ostera gogoan agertu eta nahasmenak gainditu egin zuen: ohetik altxatu, berak agindu zuen bezala igeltseroak etxearen eta bere jabegoko beste eraikinen fatxadak berriztatzen hasi ote ziren behatu beharra zegoen; ikusi Graellsek bikeztatzaileak deitu eta ibai-ontziak nasetara bidalarazi ote zituen aztertutako izan zitezen, familiako antzinako ondasuna zenez, Veriu ibarreko meatzearen ustiaketari berrekin ote zion, patroiak eta peoiak prest, ukuiluak zaldiz beteta ote zeuden... Hiri berria...! Ez zen zaharretik mugituko, ez zuten umiliatuko, ez zuten sekula bere etxaldetik aterako.

Nekez eta nahigabez altxatu zen. Gaitz egiten zion gorputzak, belaunek huts oinak alfonbran pausatu zituenean. Carmela, beila-asteekin abailduta, ez zen konturatu. Zutik jarri zen. Hotzikarak hartu zuen bere biluztasuna estaltzeko bataren bila hasi zenean. Ez zuen aurkitu. Biluzik, horman eta aulkietan bermatuz, zalantzati abiatu zen aterantz. Neskamearen arnasa akonpasatua izan ezik isiltasuna besterik ez zegoen. Gelditu behar izan zuen. Hatsanka ari zen. Oinek huts egin eta lurrera joango zen beldurrak harrapatuta zegoen. Izerdi-tantak bizkarrean behera. Pixka bat berreginda, atea ireki zuen. Pasilloko iluntasunak gelditu zuen. Argiaren etengailua haztamuka zapaldu eta bonbilen eztandak betazal puztuak ixtera behartu zuen. Ostera ireki zituenean, gelako ate aurrean zintzilikatuta beti agurtzen zuen Bernabe Campsen erretratuko figura serioaren orde, hormako paperaren urdin zurbileko loreen gainean markoaren arrastoa topatu zuen. Osaba desagertua zen, baina ez zen falta zen bakarra; aitona, amonak eta izebak ere ez zeuden. Koadrorik ez zegoen han. Zur eta lur, harrera-gelara abiatu

zen. Pinturez betetako kutxa handiak aurkitu zituen han. Haietako baten alboan, oraindik hutsik, general-andrearen erretratua eta Parisen hildako osabarena horman bermatuta, enbalatuak izateko unearen zain zeudela zirudien. Zer esan nahi zuen hark? Nork agindu zuen koadroak deseseki eta kutxetan sartzea? Nork? Hazi beltza azkar taupaka hasi zen doluen ganberara eraman zuen jeneralaren erretratu ekuestreko mairu-saldo nahasiaren artean. Non zeuden kornukopia eta komoda? Non zegoen santa Barbara, meatzarien zaindariaren irudia? Eta osaba alprojak batutako portzelana-saila? Zer egin zuten Afrikako heroiaresen sable eta pistolen panopliarekin? Horman bermatu zen. Nekez eusten zioten hanke, oso nekez hartzen zuen arnasa, izerdia izozturik zeukan azal gainean. Atsedean pixka bat hartu zuen jantokian sartu eta erdi itxitako beste kutxa pila batekin estropezu egin aurretik: zilarra, baxera, jeneralaren armak mahai gainean pilatuta zeuden; martiri faltsuen koadroa ganbaratik jaitsia zela ikusi zuen. Erdi zabuka atera eta bulegoan sartu zen, aitzak utzi zuen bezala bere borondatez kontserbatua bera. Gela hutsik zegoen. Konortea galtzeko zorian, salara sartu zen, eta hura ere ia bulegoa bezain hutsik; Aleixen pintura erraldoia baino ez zen geratzen, balkoiaren alboan desesekita. Zalantzati, gela gurutzatu zuen. Zer zen hondamendi hura? Nor ari zen etxaldea husten? Zer gertatzen ari zen?

Botagura izan zuen eta koadroaren markoari eutsi zion. Izututa, oihu egin nahi izan zuen baina ahotsak ez zuen eztaurritik ateratzea lortzen. Zergatik ez ziren ez Carmela, ez Sofia, ez Teresa hurbiltzen? Non zeuden? Hazi beltzak azkarrago egiten zuen taupaka. Biraka hasi zitzaion burua: hazia lehertu egin zen; ilunpeak estali zituen leihoak, plazako akaziak, ontzi ustelak baino ez zeuden Ebroko moilak. Ezin zituen oinak bermatu, belztasunean hondoratzen zen. Oihu egin nahi izan zuen oster: inor ez zen agertu olio iluneko putzu hartatik erreskatatzera.

Carlota de Torres i Camps andereak sekula ez zuen bere heriotza aurreikusi, Carmelak ez bezala, zeinak azken hitzak pentsatuak eta paper batean heriotza eta ehorzketarako zeremoniala idatzita baitzeukan: oroigarri, zerraldo, lapida-modelotik mezako abade-kopuru, musika funeral eta epitafioraino (latinez, dotoreago egiten zuelako). Andereak imajinatu izan bazuen bere heriotza, behar bada sekula ez zuen irudikatuko hiri zaharrean hildako azken pertsona izango zen pribilegio zalantzakorra egokituko litzaiokeela, eta ez zuen bere heriotza inguratu zuten ingurumarietan kokatuko, leinuko hileta apoteosikoenekin konparatuta oso-oso desberdina; ez zuen iragarriko Birjina Martiriaren Aretoan arnasarik gabe topatuko zutela, aitaren erretratuaren oinetan, zeinak, alaba hil hurrenaren gorputz biluziaz oharatu gabe, petulante eta zoriontsu, familiako pasadizo urrun bat begiesten zuen, non Carlota ttikia, Aleix de Segarrak koloreak nahastu eta tela zuriaren gainean aitaren irudia zertzen zuela ikusiz txoratzen zen.

Ilunpe errukiorrak Carmelaren hitz garratzak aurrezteko garaiz inguratu zuen, zeina, horroreak kolpatuta, patxada galdu eta, bere oihuekin aretoan batuta —emakumezkoak lo-atorrarekin, eta gizonezkoak pijaman— seme-alaba eta errainen aurka oldartu zen. Nahastuta, bere arduragabekeria barkatu ezinik eta etxaldearen aurrean anderearen azken uneak nolakoak izango ziren bere burutik kendu ezinik, euren irrika aurpegiratzen zien oinordekoei. Zerk presatzen zituen hainbeste ondare osoa euren bazen? Andereak zenbatuta zeuzkan bere egunak, ez zegoen hain grinatsu zertan izan. Zorigaiztokoa une hartatik igaro gabe ere hil zitekeen, eta arpilatzea ikusirik, zer egiten zuten jakin gabe sinarazi zizkioten notarioaren paperek —seme-alabei, gaixotasunaren hasieran aurkezturik— eta eraikinak, hil-kutxa amaren hondakinekin ataria gurutzatu ahala lurrera joango zen etxea bera, saltzea ahalbidetu ziela igarri gabe ere bai. Teresak eta Sofiak errainen eta seme-alaben irainen artean aretotik ateratzen

zuten bitartean, Carmelak ez zion oihu egiteari uzten: etengabe entzuten ziren auhenak gela hustuetan barrena.

Andereak iraun zituen hiru urte malenkoniatsuetan, Carmela zaharra, zulora joaten ikusi eta aurrezkiak txalotzen zizkioten senide urrun batzuk hiri berrian babestuta, ehorzketa distiragabekoari, jauntxoan ehorzketa ohikoen harrokeriarik gabe egindakoari buruzko kexa-sorta batekin abiatzen zen, zeinean senideen dolutik urrunduta parte hartu zuen: bezperan, oinordekoei egin zien kexaren harira, seme nagusiak lotsagabeki jaurti zuen etxaldetik eta, are, desesperatuki erregutu arren, debekatu egin zion zendua jantzi eta beilatzea.

Bi koroa ziztrin, Carlota de Torres anderearekiko ez-duinak, korrika eta presaka erositako kutxa arrunt baten atzean, beste apaindurarik ez zegoen. Elizan, hiletak Forn Maldako etxeak eraisten zituzten makinaren zaratak eragotziak izan ziren, eta kantari gabeko koruan ez zegoen inor harmoniuma jotzeko.

Azkar zabaldu zen albistea, beilaren xehetasun lohiak etxea eraitsi berri zuten langile-trafikoaren erdian Nelsonen burmuinean biraka zebiltzan, oraindik hirian geratu eta segizio ziztrina batu ziren biztanle bakarrenetakoa zen, zeina, segizioa, Carmelaren figura hunkigarria buru zutelarik, hondakinen artean kanposanturantz zihoan bitartean. Ia ezer ez zegoen zutik. Soilik etxe hormatuek, izenik gabeko kaleek eta hondakin-pila batek begiesten zuten kotxe funebrearen joana. Ez zegoen dendarik segizioaren joanean ixteko, ez eta kafetegirik bezeroak gehitzeko. Moilako Kafetegia, hiriko azkena, Honorat del Rom-en azken atxilotetatik eta Carlota de Torresen gaixotasunaren hasieratik egun gutxira itxia izan zen; hurbiletik pasatzean, Nelson zaharrak begiratu ez zuen hondakin bat besterik ez zen. Belarrak hazita zeuden edonon. Duela mende asko galdutako terrenoa irabazten presatzen zen natura, haziak erein, izakiz populatzen zuen. Inurri-saldo oso luzeek teila apurtu, erlantz desegin, biga lehertu edo horma-atal artean bideak esploratzen zituzten, non eguratsak giza berotasuna ezabatzen zuen; sugandilak eta muskerrak hormetan gora zebiltzan; armiamek tranpak ehuntzen zituzten ez kai eta erromeroen adarretan, eta sugeek beren hondakinak abandonatzen zituzten plaza moriskoaren portxeetako adreilu erorien artean. Etxe eta kale izandakoak zarata, hegaldi eta txorrotzio bihurtzen ziren. Gauetan, azeriak, gero eta ausartago, hiriaren perimetroan abiatzen ziren katu alderraiak ehizatzen. Batzuetan, antzinako ontzi-gidariak ohetik entzun zezakeen felinoen borroka desesperatua, zeinetatik biharamunean soilik odol-arrastoak geratzen ziren heriotza aurkitu zuten tokian.

Anderearen segizioak Segreko portaletik atera, gotorlekutik gertu, galdutako gerra hartan baluarte inutela bera, eta errepeidea hartu zuen. Etxe berrietatik bide erdian, hilerriko maldaren bidegurutzetan, talde bat zegoen zain. Nelson zaharrak Honorat del Rom, Estanislau Corbera, bikeztatzailea eta Moilako Kafetegi zaharreko beste bezero batzuk ikusi zituen. Haien hazpegietan mundu guztia markatzen zuen seinale definigaitza somatu zuen. Hiri berriaren sarreran suntsitutakoaren izen berbera agertzen zen arren, bi hiriak batzen zituen olibadi zaharretako punturen batean hutsune bat zegoen, inoren lur-moduko bat, non jendea era sotilean aldatzen zen. Agian ez ziren fenomenoak konturatu ere egiten, zeinak, adibidez, antzu eta patetiko bihurtzen zuen Estanislau Corberaren obsesioa, lokal berrian eraitsitako establezimendua berreraikitzea: ispiluek beste argi bat islatzen zuten, azkeneko leihoez ez zuten Ebroko moilara ematen, pikatxoi mairutarra galdu egin zen aldaketaren urduritasunarekin eta marmolezko beladorearen arrakalak jada ez zuen Prim jeneralaren sablearen kolpea ebokatzen. Ziertzoaldiak, lehengoak baino zabalagoak, Monegroetako altiplanotik zuzenean

jausi, kale zuzenak eta etxe uniformeak zuzenago jotzen zituen, pilatzeko kale itxirik eta apaltzeko labirintorik gabe. Auzotasuneko harreman-sare sekular konplexuak berregin beharko ziren eta bizitza, non ibaiak ez ziren hiriaren arteria biziak, beste faktore batzuek baldintzatuta izango zen. Baina soilik gazteenak, haurrak, ahaztuko ziren erabat; gainerakoen memoriako zati bat Segre eta Ebroko ur azpian sustrai bat bezala itsatsita geratuko zen. Ganbera berrietan, altzari bernizatu berriko hatsen artean, hitz zaharrak entzungo zituzten sarri; neguko lainoetatik antzinako eskifaian eta beste kaio batzuen txilioak iritsiko zitzaizkien.

Carlota de Torresen segizioak hilerriko pendiza hartu zuen; han, familiako panteoitik –Armen plazako etxaldea heriotzak hola bihurtua–, bere hondakinek isiltasunaren hiri presiditutako zuten, non ehorzle beti mozkorren dinastiek zulo eta nitxoetan lerratzen zituzten, ezerezero bidaiatzeko, besteak segregatutako defuntuak. Hilerriko hormen gainean, nekostek eguzki-sarreraren lehen itzalak ateratzen hasi ziren zeru morearen kontra. Nelson zaharrak gelditu eta bere eskuinean hiri berria begietsi zuen, biharamunean aldatu behar zuena; bere ondorengoek hiriaren izena betiketuko zuten toki bat lortu zuten, baina ohartzen zen berak ezin izango zuela geometria zuri eta gorri hura bere-berea sentitu: ibai-ontzirik gabeko nabigatzaile, itzulerako esperantzarik gabeko erbesterratu, bere alaba, Arkimedes Quintana, Malena, Aleix de Segarra, Salleres alarguna, Joanet del Pla, Atanasi Berpizkune, Madanfransuà eta beste hainbat itzal kuttun isil-isilik ahanzturara nabigatzen ari ziren parte ziren jadanik.

Riba-rojako pantanoaren konporten itxiera baino pixka bat lehenago, indar osoz jausi zen euria hiri suntsitu eta hustuaren gainean. Castell mendizerrako ur-jausiak suminkor oldartu ziren moilen gainean, ibai-ontzien zimiterioko esteka ustelak apurtu eta sakabanatu egin zituzten. Gilen ildoak eta arraunkaden kadentzia ahaztuta zeukan Ebro amorratuan barrena jitoan, uhin eta harkaitzetan hondoratu ziren. *Verge del Carme*, Hamahiru Santuen uhartearen aurrean zapartatu eta ur-bazterreko makalen artean trabatu zen haren branka. Ibaia jaitsi zenean, inork ez zituen ontziaren hondakinak ezagutu; uholdearen amorrak hirugarren izeneko letrak ezabatu zituen. *Neptú* zaharra, diskurtso, bandera eta musikaz Alargunen moilan Edeneko egun distiratsuetako batean ureratua, zur mortuko karkasa anonimoa zen betiko.